

Ordiziako ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleen hitano gaitasunaren azterketa; Zaldibiako nerabeen hiketa ikergai

.....

Irakaskuntza-masterra:

Hizkuntza eta literatura

(IMHLM)

Uxoa Elustondo Arzallus

Zuzendaria:

Irantzu Epelde Zendoia

Ikerketa-lana

2020-2021 ikasturtea



: goimailako
: online
: institutua



Laburpena

Lan honen helburua batetik, Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleak hika hitz egiteko gai diren ikustea da, eta bestetik, gai direla diotenen ezagutza eta erabilera aztertzea eta deskribatzea. 15-18 urte bitarteko ikasle ordiziarrek hika hitz egiten ez dakitela eta, hika hitz egiten dakitela dioten Zaldibiako 15-17 urte bitarteko sei neska-mutilen hitanoa aztertu dugu.

Tokako eta nokako adizki alokutiboak bildu ditugu, eta horretarako, galdetegi bat, eta elkarrikerak librea erabili ditugu. Hain zuzen, hiruko bi taldetan banatuta, berrogei minutuz elkarri hika eginez grabatu ditugu. Galdetegitik nahiz elkarrikerak libretik bildutako ikasle bakoitzaren datuak tokako eta nokako aditz perifrastiko eta sintetikoetan sailkatu ditugu, baina aditz alokutiboez gain, beste hauek ere identifikatu ditugu: forma neutroak, tokako aditzak nokakoen ordeztu, aditz berriak, asmatuak eta aditz aldaketak. Beste datu batzuk joera orokorren barruan kokatu ditugu. Horien artean daude aditz berbera adierazteko erabiltzen dituzten bitariko formak, murriztapen sintaktikoa eskatzen duten perpausetan alokutiboa erabiltzea, murriztapen sintaktikoa eskatzen duten perpausetan alokutiboa ez erabiltzea, menpeko perpausetan aditz alokutiboa eta perpaus nagusian adizki neutroa erabiltzea, eta azkenik, hitanoaren higitze kasuetan, tokako eta nokako higitze kasuak bereizi ditugu.

Ondorioetan agertu dugu ikasle ordiziarrek ez direla gai hika hitz egiteko, eta hika dakitela dioten sei ikasle zaldibitarrek sailkatu ditugu ezagutza maila altuena duenetik maila baxuena duenera. Ondoren, joera orokorretan ikusitako konturik esanguratsuenak aipatu ditugu: *nauk/naun* esateko *neok/neon* formak erabiltzea, zeinak berrikuntza gisa identifikatu ditugun; indikatiboko NOR NORI saileko lehenaldiko adizkien forma alokutiboak zein baldintzako apodosi den *litzateke* adizkiaren forma alokutiboak, oro har, ez jakitea; eta azkenik, tokako, baina batez ere nokako higitze kasuen kopuru altua. Azken datu horiek iragartzen digute hitanoaren ezagutza maila altuena duen gaztearengan ere hitanoa ez dagoela egon litekeen bezain sendoa.

Hitz gakoak: hitanoa, alokutiboa, toka, noka.

Abstract

The aim of this work is to check, on the one hand, whether the students aged between 15 and 18 in Ordizia are able to speak using the informal language form called “hitanoa” in Basque, and on the other, to observe and describe the knowledge and use of those who say they are able of it. In order to do it, we have contacted six teenagers, who are between 15 and 17 years old and say that they can speak using this form.

We have collected auxiliary verb forms for female and male used in the communication, and for that aim, we have used a questionnaire and also informal conversations. In fact, these students have been separated into two groups of three and they have been recorded during forty minutes. We have classified the information obtained from each student from the questionnaire as well as from the informal interview into periphrastic and synthetic verbs of the female and male forms. In addition to these verbs, we have realized that they have used neutral form, male form instead of female form, verbs that don't exist and also that they have changed the verbs. We have considered some information as general trend: the use of the same verb using both forms, the use of the allocative form when the syntactic restriction is required, the omission of the allocative form when the syntactic restriction is required, the use the allocative verb in embedded sentences and the neutral form in main sentences, and finally, in the case of weak use of the informal form, we have identify the male and female forms specially.

To conclude, we have noticed that students from Ordizia cannot speak the informal language form. What is more, we have classified the students from Zaldibia that consider themselves capable of using the informal language; from the one with the highest level to the one with the lowest. Then, we have analysed the main trends on the use of the informal language form. One the one hand we have found that teenagers use the word “neok” for saying “nauk” (we have identified it as a newness). In addition, we have noticed that the teenagers of the study don't know how to use the past tense of the allocative form appropriate for “NOR NORI” nor to use the allocative form of the conditional apodosis “litzateke”. In general, it can be highlighted the rare use of the informal language form, especially when it is referred to the informal language spoken among females. These last facts indicate that the use of the informal language is not as strong as it could be among young people.

Key words: hitano (informal form in Basque language), allocutive, toka (male form), noka (female form).

Aurkibidea

Laburpena.....	2
Abstract.....	3
1. Sarrera.....	6
2. Oinarri teorikoak	6
2.1 Hitanoaren definizioa	6
2.2 Zertan datza hitanoa?	6
2.3 Hitano tratamenduaren nondik norakoak.....	9
2.3.1. Tratamenduen erabilerari buruz	9
2.3.2. Hitanoaren inguruko hainbat ikerketak emandakoa.....	12
2.4 Hitanoa ikastetxeetan	19
2.5 Ordiziako ikasleen ingurune hurbileneko hitanoko hainbat forma: Zaldibiako hika ..	20
3. Metodologia	21
3.1 Ikerketa galderak	21
3.2 Ikerketaren diseinua eta informazioa biltzeko prozedurak.....	21
3.2.1 Metodologiaren arazoak, oztopoak edo alde txarrak.....	23
3.3 Azterketaren lagina eta populazioa.....	27
4. Ikasleen adizki alokutibo, neutro eta gainerakoen deskribapena.....	28
4.1 Josuren adizkien deskribapena	28
4.1.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	28
4.1.2 Tokako adizki sintetikoak	30
4.1.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	33
4.1.4 Nokako adizki sintetikoak	36
4.2 Saioaren adizkien deskribapena.....	40
4.2.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	40
4.2.2 Tokako adizki sintetikoak	43
4.2.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	48
4.2.4 Nokako adizki sintetikoak.....	50
4.3 Anerren adizkien deskribapena	53
4.3.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	53
4.3.2 Tokako adizki sintetikoak	55

4.3.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	59
4.3.4 Nokako adizki sintetikoak.....	62
4.4 Ekhiren adizkien deskribapena.....	65
4.4.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	65
4.4.2 Tokako adizki sintetikoak	68
4.4.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	73
4.4.4 Nokako adizki sintetikoak.....	78
4.5 Igorren adizkien deskribapena.....	80
4.5.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	80
4.5.2 Tokako adizki sintetikoak	82
4.5.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	86
4.5.4 Nokako adizki sintetikoak.....	90
4.6 Enaitzen adizkien deskribapena.....	93
4.6.1 Tokako adizki perifrastikoak.....	93
4.6.2 Tokako adizki sintetikoak	96
4.6.3 Nokako adizki perifrastikoak.....	100
4.6.4 Nokako adizki sintetikoak.....	104
4.7 Guztien joera orokorrak.....	107
4.7.1 Bitariko formak	107
4.7.2 Murritzapen sintaktikoa dela-eta.....	111
4.7.3 Hitanoaren hingatzea	113
5. Ondorioak.....	116
Bibliografia	120
Eranskinak I	123
Eranskinak II.....	261
Eranskinak III.....	264

1. Sarrera

Lan honen helburua batetik, Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleak hika hitz egiteko gai diren ikustea da, eta bestetik, gai direla dioten ezagutza eta erabilera aztertzea eta deskribatzea. Hala, hitanoa bizirik dagoen nerabe hiztunen ahotan hikaren egoera nola dagoen behatuko dugu, lagun arteko tratamenduak bizi duen errealitatera hurbiltzeko.

Nerabeek eskainitako hiketako (tokako zein nokako) aditzak, forma neutroak, adizki berriak, asmatuak, aditz aldaketak, menpeko perpausak, galdera eta harridura perpausak sailkatzen eta zenbatzen aritu gara gure helburua erdietsi asmoz. Hiketak dituen adizki argumental (*hi* NOR, NORI edo NORK den adizkiak) eta alokutiboen (*hi* entzule edo solaskidearen marka aditzean islatzen duten formak) artetik, berriz, alokutiboak izan ditugu aztergai; izan ere, adizki alokutiboek badituzte zenbait murriztapen sintaktiko aditz argumentalek ez dituztenak. Gainera, hizketa-laguna izenordain moduan (*datibo etiko* deritzanak) sartzen duten hizkuntzak badiren arren (Azkarate eta Altuna, 2001), tratamendu hori erabiltzeak ez dakar entzulearen txertaketa derrigorrezkoa izatea, perpausa gramatikala izango bada. Euskaraz, berriz, alokutiboaren erabilera eskatzen duten tratamenduetan entzulearen marka aditzean agertzea ezinbestekoa da perpausa gramatikala izateko. Horretaz gain, dakigula, Europan ez da beste hizkuntzarik entzulea aditzean txertatzen duenik. Bakarra izate horrek berezi egiten badu ere, euskaldunentzat noizbait entzuleak izan zuen ezinutzizko garrantzia iradokitzen digu, euren hizkuntzan gramatikalizatzeraino iritsi baitzen. Hainbat tokitan, ordea, erabiltzeari utzi zaio, eta gutxieneko ezagutza bat dugunak ere ez gara asko. Horrek erabilerari ez ezik, ikertzeko aukerari ere eragiten dio, nekez eskainiko baitigu lan fidagarri bat oinarri nahikorik ez duen batek. Eta gu ere ez gara aditu, baina hizkuntzalaritza alderditik ikerketetan dagoen hutsunea ikusirik, eta gure hizkuntzak sorrarazten digun grinak bultzaturik, gure ekarpen xumea egitera gatoz. Izan dadila etorriko direnen akuilu, baina batez ere, balio dezala hiketari hezkuntzan merezi bezalako tokia egiteko, eta hika hiztun trebeak ekartzeko.

2. Oinarri teorikoak

2.1 Hitanoaren definizioa

Hitanoa, hiketa edo hika *hi* izenordaina oinarri duen eta sexu bereizketa ezaugarri nagusietako bat duen euskararen tratamendu informala da, hain zuzen, lagunarteko eta familiarreko tratamendua, berdintasuna edo hurbiltasuna adierazten duena (Harluxet, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa, 1995; Muguruza eta Bereziartua, 2018; Camino, 2013). *Hi*, bigarren pertsona singularra, aditzaren NOR, NORK edo NORI kasua denean dagokion adizkia erabiltzen da, eta *hi* pertsona aditzaren partaide

ez denean dagozkion forma alokutiboak erabili behar dira (Harluxet, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa, 1995). Hau da, mintzalagunak aditzak adierazten duen ekintzan edo errealtatean zerikusi zuzenik ez badu ere, mintzalagunari dagokion bigarren pertsonaren morfema aditzera ekartzen duten adizkiak dira alokutiboak (Euskaltzaindia. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, (EHHA) 1469. mapa). Beste era batera esanda, adizkiak lehen, hirugarren edo lehen eta hirugarren pertsonen errealtatea adierazten badu ere, mintzalagunaren edo bigarren pertsonaren morfema eranstea da trataera alokutiboa. Esaterako, *ni neroni naun* esatean bigarren pertsonak ez du aditzak adierazten duen errealtatean zeregin zuzenik, baina haren morfema femeninoa, *-n*, adizkian ageri da (Camino, 2013). Beste adibide bat agertze aldera:

- *Iker etorri da Aitorren bila.*
- *Iker etorri duk Aitorren bila.*

Bi perpausetan aditz laguntzaileak absolutiboarekin komunztadura egiten du, baina bigarren perpausak horretaz gain, hizketa-laguna aintzat hartzen duela ere adierazten du *-k* morfema maskulinoaren bitartez. Hein batean, hau agertzen du: *etorri duk + hirekin ari nauk*. Horrelako formen bitartez hitunak aurrean duena gizonezkoa ala emakumezkoa den jakin daiteke, hala, azken adibidean mintzalaguna gizonezkoa dela adierazten da (Azkue, 2009). Euskarak edo ekialde muturreko euskalkiek badituzte beste zenbait tratamendu (zuketa eta xuketa) alokutiboa erabiltzea eskatzen dutenak (Camino, 2013), baina horiek ez dute sexu bereizketarik erakusten.

2.2 Zertan datza hitanoa?

Historikoki Euskal Herri guztian egin da hika (*ibid.*). Alberdik (1996: 127), dioenez “Hiketa, gaurko eran nahiz aditz-joko alokutiborik gabe, izango zatekeen tratamendu antzinakoena eta hasiera batean bakarra”. Euskarazko lehen testuetatik, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburutik, ageri da hitanoa finko lagunarteko tratamendu gisa (Alberdi, 1996). Baina haren erabilera apalduz joan da historian zehar, bizkorrago edo motelago euskalkiaren arabera. Hala ere, galerarik handiena azken hamarkadetan jazo omen da (Ariztimuño, 2013).

Dena den, Ariztimuñok (2013), aipatzen duenez ez dute euskalki guztiek galdu hitanoaren erabilera, eta euskalki batzuetan oparo hitz egiten da oraindik ere, emakume eta gizonezkoen artean ezberdintasun batzuk badauden arren.

Baina zer dela eta mugatu zen tratamendu honen erabilera? Alberdiren (apud. Azkue, 2009) ustez, alboko hizkuntzen, hau da, frantsesaren eta gaztelaniaren eraginez (*vous* eta *vos* begirunezkoak), euskaraz jatorriz plurala zen *zu* izenordainak honako bilakaera hau izan zuen: *zu* plurala → *zu* plurala/*zu* begirunezkoa (sg.) → *zu* begirunezkoa. Hau da, lehenik *hi* eta *zu* banaketa osagarrian zeuden, gero, *zu* izenordaina begirunea nahiz pluraltasuna adierazteko erabili zen, bi zereginetarako, alegia; azkenik, *zu*-ren singularitzea etorri zen anbiguitasuna saihesteko (Azkue, 2009) eta *hi*

lagunarteko edo antzeko testuinguruetara mugatu zen (eta garai modernoetan baita eskualde batzuetan *hi* desagertu ere). *Zu*-ren aldaketa semantikoa (pl. → sg. erresp.) konpentsatzeko bigarren pertsona plural berria sortu zen (*zuek*) (Ariztimuño, 2013).

Bestalde, mendeen joan-etorrian, begirunezko erregistrorako *berori* (< **ber hori*) izenordaina ere eratu zen Hegoaldeko euskaran, hirugarren pertsonarekin bat datorrena, eta gaztelaniazko *usted*-en pareko zena (Azkue, 2009; Ariztimuño, 2013). Dena den, Alberdiren arabera (apud. Azkue, 2009), beroriketa tratamendua Hegoaldeko euskararen berrikuntza ez oso antzinekoa izan zen, eta bere ustez (*ibid.*), *zu* eta *berori* izenordainen artean benetako alternantziarik inoiz egon zelako antzik ez du. Izenordain horren galeraren arrazoi nagusietako bat erabilera asimetrikoa izan daitekeela agertzen du Azkuek (*ibid.*), batek besteari *berori* esaten zion bitartean, besteak *hika* edo *zuka* erantzuten baitzion. Hau da, botere-zama handiegia zuen *berorik* erabilera neutroan arrakastatsua izan zedin. Hala, Ariztimuñok (2013) aipatzen duenez, belaunaldi gazteen artean galdu egin da.

Baina gure gai den hitanoari helduz, ager ditzagun oraindik azaldu ez ditugun eta hiketako tratamenduak berarekin dakartzan hainbat berezitasun edo ezaugarri. Gorago adierazi dugu hiketa erabiltzearekin bat, forma edo adizki alokutiboak erabili behar direla. Hau da, Azkuek (2009) adierazten duen gisan, solaskideari *hi* eginez gero, “nahitaez hikako forma alokutiboak erabiltzera behartuta gaude, ez da zilegi tratamenduz aldatzea”. Izan ere, mintzalagunari *zu* egiten zaionean, forma neutroak edo eztabadakoak erabiltzen dira, baina aipatu bezala, ez da gauza bera gertatzen hitanoarekin:

- *Zu joan zarenean etorri da Ainhua.*
- **Hi joan haizenean etorri da Ainhua.*
- *Hi joan haizenean etorri duk/n Ainhua.*

Hala eta guztiz ere, ingurune sintaktikoaren aldetik, badira hainbat debeku edo muga forma alokutiboak erabiltzerako garaian (Azkue, 2009). Izan ere, ez da ohikoa forma alokutiboak erabiltzea honako perpausetan (Ariztimuño, 2013: 399-400.or.):

- Galdera eta harridura perpausetan:
 - a. *Zer du (**dik/n) horrek?*
 - b. *Itsusia da (**duk/n) gero!*
- Mendeko perpausetan, -(e)n, -(e)la, bait-, ba-ren bitartez eratzen direnetan:
 - a. *Esan dik/n berdin zaiola (**zaio(n)ala)*
 - b. *Lana hobeto dagiten (**zagite(n)an) nahi di(n)agu*
- Subjuntiboaren bidez eraturiko exhortatibozko formetan:
 - a. *Haien bila goazen (**goaza(n)an) eskatu ziguk/n*
 - b. *Gabon gaua pozik igaro dezagun (**dezagu(n)an)*
- Hirugarren pertsonako aginte formetan, jusiboetan, hain zuzen:
 - a. *Betor! (**Betorrek/n!)*

b. *Dakarrela! (**Zakarre(n)ala!)*

Eta, azkenik, alokutiboa erabiltzea eskatzen duten tratamenduetatik, hitanoak bakarrik duen ezau-garri bereizgarriari, sexu bereizketari, alegia, helduko diogu. Izan ere, hiketako tratamenduek, hain zuzen ere, tokak edo toketak, gizonezkoari hika egiteko moduak, eta nokak edo noketak, emakumezkoari hitanoz egiteko manerak, *hi* argumentuaren edo entzulearen sexua adierazten dute *-k* edo *-a-* (gizonezkoa) eta *-n* edo *-na-* (emakumezkoa) marken bitartez. Trask-ek (1997) bere aldetik **-ga* eta **-na* gisa berreraikitzen ditu gizonezko eta emakumezko markak, hurrenez hurren. Are, marka alokutiboak beti azaleratzen du entzulearen sexua; 2. pertsona sg.eko argumentuarenak, aldiz, aurrizki baten bidez adierazten denean ez du sexua adierazten, baina gainerako kasuetan bai:

- Hi argumentudun adibideak:
 - a. Hi euskalduna haiz.
 - b. Eramango haut lantokira.
 - c. Etxera joan behar duk/n berandu baino lehen.
 - d. Biharko ekarriko dia/nat hire liburua.
- Marka alokutibodun adibideak:
 - a. Ni euskalduna nauk/n.
 - b. Gaur lan asko egin diat/nat nik.
 - c. Bazeukeat/kanat gogoa hi ikusteko.
 - d. Ondo zagok/n dagoen bezala.

Alberdiren (1994) hitzetan, bereizketa hori trataera linguistikoa duen sexuzko bereizketa da eta ez generozkoa, bigarren pertsonako adizkera batzuetara soilik mugatua baitago. Hau da, ez da izen eta izenordainetan sexu bereizketarik egiten, “eta horrek ezinezkoa egiten du genero gramatikalaz mintzatzea” (Rebuschi apud. Alberdi, 1996: 139).

2.3 Hitano tratamenduaren nondik norakoak

2.3.1 Tratamenduen erabilerari buruz

R. Browman eta A. Gilman (apud. Alberdi, 1993) ikerlari amerikarrek tratamenduen erabilera eta soziolinguistika edozein hizkuntzatan aztertzei ikergai hartu zituzten sartaldeko indoeuropar hizkuntza ezagun hauek: ingelesa, frantsesa, italiara, espainiera eta alemana. Bost hizkuntza horiek tratamendu-sistema bikoitza dute solaskide bakar bati hitz egiteko, eta ikerlariek eredu teoriko bat sortu nahi izan zuten izenordain-hautaketaren eta hiztun/solaskide harreman objektiboaren artean dagoen kobariazioa argitzeko. Hala, IV. mendean enperadoreari zuzentzeko plurala (VOS) erabiltzen hasi zirela dio Alberdik (*ibid.*). Kontua da garai hartan bi enperadore zeudela, bata Erroman eta bestea Konstantinoplan, eta enperadore bati zuzendutako hitzak nahitaez, besteari ere zuzenduak egon behar zirela. Horregatik, mezuak bi enperadoreentzat balira bezala osatzen

zituzten, “VOS tratamendu berria bitasun edo pluraltasun historikoaren ondorio izango zatekeen” (Byrne apud. Alberdi, 1993: 426). Hori izango litzateke lehen hipotesia. Bigarren hipotesiak, berriz, (Châtelain apud. Alberdi, 1993) pluraltasuna enperadoreari ondo egokitzen zitzaiola agertzen du, mendean zituen herritarren batuketa bailiran. Hala, erregeek *GU* esaten zuten bitartean, herri xeheak *NI* esango zukeen; enperadoreak bere buruaren gainean jardutean *NOS* erabiltzen zuen, eta errespetuzko *VOS* erantzutea ihardespen logikoa zatekeen. Era berean, bigarren hipotesiaren arabera, pluraltasuna boterearen edo aginpidearen metafora zaharra da, eta horregatik, *VOS* errespetuzkoa ez legoke pluraltasun historikoari atxiki beharrik.

Nolanahi ere, denboraren poderioz, latinezko *VOS* errespetuzkoa goi-mailako gainerako agintarietara ere zabaltzen hasi bide zen, gizarteko botere-gune guztietara hedatu arte, baita familiara ere. Goi-mailan zeuden agintari edo gainerakoei *VOS* ematen zitzaien bitartean, behe mailan zeudenei *TU* zegokien. Izan ere, Bown eta Gilman (apud. Alberdi, 1993) autoreen iritziz, gizarte-bizitzako jokabideak arautzen dituzten bi printzipio edo indar daude: boterea eta elkartasuna. Hala, Erdi Arotik aurrera berdinen artean tratamendu simetrikoa erabiltzen zen bitartean, desberdinen artean tratamendu asimetrikoa ohikoa zen. Hau da, “boterearen semantika” zen nagusi. Laster, ordea, sistema hori kolokan jarri, eta “elkartasunaren ardatza” sartu zen jokoan; berdinen artean ere bereizketak egiten hasi ziren. Alegia, lagun hurbilarekin edo hurkoarekin lagunarteko tratamendua erabiltzen zuten bitartean, kortesiazko edo errespetuzko tratamendua erabiltzen zuten lagun ez hain hurkoarekin.

Gauzak horrela, XIX. mendean Europako bost hizkuntzatan goi-mailan zeuden kideekin kortesiazko tratamendua eta behe-mailan zeudenekin lagun arteko tratamendua erabiltzen bazen ere, XX. mendean “elkartasun semantika” indartu zen “botere semantikari”, eta egun bide horretan da. Honela, goi-mailako nahiz behe-mailako kideek gero eta gehiago jasotzen dute lagun arteko tratamendua. Bestela esanda, sistemak bakuntzera egin du, eta lagunarteko erregistroa esparru zabalagoez jabetzen ari da.

Euskarari dagokionez, aldiz, Alberdiren (*ibid.*) aburuz, gaur egungo euskaran ez da antzematen lagunarteko tratamendua orokortzeko joerarik dagoenik, eta tamalez, ordezkatzeko prozesurik egotekotan, zukak (eztabadak) menderatuko luke hikako tratamendua, eta ez alderantziz. Zukarako bakuntzean, eta hitanoaren galeran eragiten duten hainbat faktore agertzen ditu autoreak:

- Euskararen osasun ahula. Euskara zenbat eta osasuntsuago eta biziago egon, hiketak ere hala egoteko aukera handiagoak izango ditu.
- Hiketak berarekin dituen aditz alokutiboen oparotasuna. Izatez zail ez badira ere, astun eta erabilgaitz izan daitezke tratamendu bakarreko euskaldunetantzat (Txillardegi apud. Alberdi, 1993)
- Hika tratamenduaren ospe txarra Euskal Herriko toki askotan.

- Euskaldun askorentzat hitanoak duen konnotazio negatiboa: ijitoen eta baserritarren hizkera; hizkuntza zakarra, gogorra, itsusia eta abar. Hori horrela, apropos moztu dute hitano transmisioa etxe askotan.
- Euskal Literatur tradizioan antzerkia apenas landu izana.
- Gaur egungo irakaskuntzak behar besteko lekurik ez egitea hitanoari.
- Komunikabideek diskurtsoa eztabadaka edo erregistro neutroan egin beharra.
- Aditz alokutiboen batasunik eza.

Hitanoaren erabileran eragiten duten aldagai soziolinguistikoak

Azpiatal honetan hika tratamendua erabiltzea errazten edo oztopatzen duten aldagaiak agertuko ditugu. Alberdik (1993) aldagai horiei *aldagi soziolinguistiko* deritze. Hala, errusieraz tratamendu bat edo beste erabiltzea aukeratzeko garaian aintzat hartu beharreko hamar aldagai omen daude (Friedrich apud. Alberdi, 1993), eta hitanoaren erabilera baldintzatzen duten aldagaiak ere, hortxe nonbait, hauek guztiak izan daitezke Alberdiren (1993: 434) arabera:

- Gaia (hizketa-gaia).
- Hizketaldiaren testuingurua.
- Adina.
- Belaunaldia.
- Sexua.
- Senidetasun-maila.
- Dialektoa.
- Talde-kidetasuna.
- Aginpidea (legal edo politiakoa) eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea.
- Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkar-ezinikusia, eta abar)

Aldagai horiek guztiak aztertu ditu Alberdik (*ibid.*) hitanoa iparrorratz hartuta, eta guztiak eragile izan badaitezke ere, aldagai batzuk garrantzitsuagoak edo funtsezkoagoak jo ditu hitanoaren erabilera baldintzatzerakoan. Horien artean leudeke adina/belaunaldia, sexua, kidetasuna eta elkartasun psikologikoa. Hala, autoreak agertzen du adinkideari errazago egiten zaiola hiketan zaharragoari baino, aiseago sexu bereko pertsonari. Era berean, euskaldun askorentzat hitanoa konfiantzazko harremanaren seinale da, baina konfiantzak edo adiskidetasunak ez du zertan ezinbesteko baldintza izan hika aritzeko. Izan ere, hiketan egin diezaiokete elkarri bi lankidek, familia-kideek, auzokideek, herrikideek eta beste hainbatek. Eta psikologogiari dagokionez, haserraldian euskaldunak bere ohiko tratamendua hautsi dezakeela azaltzen du Alberdik (*ibid.*). Hori horrela, seme-alabarekin normalean zuka edo eztabada aritzen den guraso batek hika egin diezaioke hari haserretzen denean, eta alderantziz; semearekin edo alabarekin toka edo noka aritzen den guraso batek zuka egin diezaioke hari haserretzen denean. Modu horretan, hurbiltasun psikologoa hausten da.

Hiketaren egoera Euskal Herrian

Alberdiren (1996) hitzetan, hiketa euskararen lurralde osoan hedaturik dago. Hala eta guztiz ere, egun ez dauka bizitza berdina eskualde guztietan, inondik inora. Hala azaltzen du Alberdik (1996: 298): “Bizkai aldean, esate baterako, lagunarteko tratamendua ia-ia arras galdua dago itsasaldeko herrietan eta biziago eta osasuntsuago irauten du barrualdeko hizkeretan”. Gipuzkoari dagokionez, Yrizarren arabera (apud. Alberdi 1996) hitanoaren galera Mutriku herrian zertxobait sartzen omen bada ere, ez legoke Bizkaian hitanoak bizi duen moduko hutsunerik. Aitzitik, honako hau ere gaineratzen du Alberdik (1996: 299): “Dena den, gainerako euskalkietan ere gaur egungo hitanoaren galera, esaten den baino larriagoa delakoan gaude. Lekuan lekuko inkestak beharko lirateke galera eta hutsuneak zenbaterainokoak diren neurtu ahal izateko”.

Horretaz gain, Alberdik (*ibid.*) ere badio, esku artean datu zehatzik ez badu ere, hitanoaren baitan noketaren galera askoz larriagoa eta orokorragoa dela toketarena baino, euskalki gehiagotan topatzen baititu erabilerazko hutsuneak. Hobekien erdialdeko euskalkietan eusten zaiola gaineratzen du, eta gipuzkeratik eta goi-nafarreratik kanpo, toka eta noka “normaltasun” osoz erabiltzen diren herririk apenas ez dagoela.

2.3.2 Hitanoaren inguruko hainbat ikerketak emandakoa

Zumaiako ikerketak

Oraindik gutxi dira herrietan hitanoak bizi duen egoeraren diagnostiko erreal bat jakiteko egindako ikerketa soziolinguistikoak. Horien artean guk ezagutzen dugun lehenengoa Xabier Azkue Ibarbiak Zumaian egindakoa da. 1999an Zumaian Hezkuntza eta Euskara batzordeburu zen Montse Arana Perezek Azkueren (2000) hitzaurrean dioen bezala, Zumaiako Udaleko Hezkuntza eta Euskara Batzordeak herriko hizkeran somatzen zituen zenbait galeraz kezkatutik, hizkera bera eta horren barruan hikako tratamendua aztertzea erabaki zuen. Horretarako beka bat sortu zuen, eta aurkeztutako proiektuen artean Xabier Azkuerena aukeratu zuen.

Azkuek (2000) lehenik, hika noiz-norekin-nola aztertzeari ekin zion, eta horretarako hiru talde bereizi zituen: baserritarrak, gaztetxoak eta koadrilak. Talde bakoitzarentzako galdetegi labur bat prestatu zuen, eta galdetegi horien bitartez jasotako erantzunek joera orokorren berri emango ziela pentsatu. Bestalde, Azkuek (*ibid.*) azpimarratzen du hasiera-hasieratik noketaren ahulezia bistan geratu zela, gizonezkoen aldean nekezago topatu baitzituen hitanoz jarduteko nolabaiteko ohitura zuten emakumeak. Dena den, gure lanean gaztetxoak ditugu jo muga, eta horien datuei erreparatuko diegu.

Autoreak dioenez, neska-mutilen hizkuntza ohiturak ezagutzeko Zumaiako Institutura joan zen, eta hamalau urte inguruko eta maila bereko hogeita hiru mutil eta hogeita bat neskaren erantzunak bildu zituen. Horien artean, zumaiarrez gain, Aizarnazabalgo, Arroako eta Oikia inguruko ikasleen erantzunak ere bazeuden. Azken horiek hikarako joera handiagoa dutela aipatzen du

Azkuek (*ibid.*), eta lehenago hasten direla hika lagun artean erabiltzen. Horretaz gain, mutilen eta nesken artean dauden desberdintasunak direla eta, emaitzak aparte jaso eta aztertu behar direla ere badio.

Hamasei galderaren bitartez, ikasleek ikasgelan, lagunekin eta etxean nola egiten zuten jakin nahi izan zuek Azkuek (*ibid.*), eta galderen ostean ariketa bat jarri zien. Gaztelanaizako hainbat esaldi euskarara itzuli, eta hika jarri behar zituzten. Ariketa horren helburua ikasleek alokutiboaren murriztapen sintaktikoak ezagutzen zituzten jakitea zen, hau da, ea alokutiboak ez dagokien tokian erabiltzen ote zituzten ikustea. Zehazki, hauexek izan ziren ikasleei jarri zizkien gaztelaniazko esaldiak eta eratzunak (ia denak tokakoak) (Azkue, 2000: 26):

- ¿Ha venido Mikel? (da/dek)
- Los vi en la calle (forma jasotzeko: nixkian, nitian, nixkin...)
- Estaban con Josune (forma jasotzeko: zitxauden, zitxaben...)
- Ha dicho que vendrá tarde (dala/dekela)
- Si viene, quiero verle (bada/badek)
- Cuando venga, dile que me llame (dania/dekenian)
- El que ha llegado ahora es mi cuñado (dana/dekena)
- No se si vendrá (dan/deken)

Galderak erantzun zituzten ikasle neskek adierazi zuten, oso gutxik hitz egiten zutela beste neskekin hika ikasgelan, eta mutilei errazago egiten zietela. Mutilek, berriz, batzuek neskei hika egiten bazieten ere, askotan tokako adizkiak erabiltzen zituztela ere adierazi zuten. Koadrilan, berriz, oro har, nesken artean zuka aritzen zirela agertu zuten, nahiz eta tarteka bietara aritzen zirela ere aitortu. Entrenamendu edo aisialdiko gainerako ekintzetan hitanoz aritzea oso zaila dela erantzun zuten. Azkuek (*ibid.*) azpimarratzen du benetan gutxiri ematen zaiela hika etxean, eta eskolako eta koadrilako kontua bezala ikusten dutela.

Hika norekin bai eta norekin ez hitz egiteari dagokionez, zaharragoekin eta ezezagunekin hitanoa erabiltzeko muga handirik ez zutela ikusten adierazi zuten gehienek; bai, ordea, irakasleekin eta familiako helduagoekin hitz egiteko. Eta nesken erantzunekin amaitzeko, itzultzeko eman zitzaizkien gaztelaniazko esaldiei heldurik, guztiek toka egin zuten, eta ia inork ez zituen errespetatu murriztapen sintaktikoak.

Mutilen erantzunei erreparaturik, Azkuek (*ibid.*) azaltzen du mutilek elkarri hika egiteko joera orokorra dela, bai koadrilan, bai entrenamentuan. Neskei zuka eta hika egiten dietela erantzun zuten, eta erdiek horiekin tokako formak erabiltzen dituztela aitortu zuten.

Etxeko transmisioari dagokionez, autoreak ikusi zuen neskei baino gehiago egiten zietela mutilei hika. Hala eta guztiz ere, ia guztiek adierazi zuten lagunekin hasi zirela hitanoa erabiltzen urte batzuk lehenago. Era berean, askok agertu zuten euren hiketak mugak zituela; hitanoko forma

batzuk bakarrik erabiltzen zituztela. Eta azkenik, mutilek ere, ia guztiek, ez zituzten debeku sintaktikoak errespetatu.

Azkuek (*ibid.*) hemezortzi eta hogeita hamar urte bitarteko neska-mutilei egindako galderek emandakoa gure lanaren ardatz ez badira ere, bada datu bat nerabeen hikaren erabileraren berri ematen diguna. Autorearen hitzetan hemezortzi eta hogeita hamar urte bitarteko gazte koadriletan mutilen artean hika hitz egiteko ohitura nahiko handia bada ere, inork gutxi adierazi zuen hika hamalau urte baino lehenago egiten zuenik, eta beste herrietako gazteekin harremantzeak eragin zuen hitanoa erabiltzen hastea. Horrek erakutsiko luke hitanoaren erabilera ez dela “sustrai sendo eta sakona duen kontua” (Azkue, 2000: 28).

Bestalde, Azkue (*ibid.*) ohartu zen, batez ere behaketaren bidez, bai haurrek, bai gazteek hitanoko forma desegokiak erabiltzen zituztela. Esate baterako, jabetu zen adizki neutroak eta hitanokoak nahastu egiten zituztela, herriko formak batuko formekin ere nahasten zituztela, alokutiboko formak behar ez ziren tokietan ere erabili egiten zituztela eta solaskidea emakumezkoa izanik ere, toka franko egiten zietela. Horretaz gain, Azkuek (*ibid.*) azaltzen du inkestetan zuka edo hika tratamendua erabiltzea finkatu gabe dutela agertu dutela askok, eta horren arrazoietakoa bat hika bera behar bezala ez menderatzea izan daitekeela. Autorearen iritziz zailtasunak izan ditzakete hikako lehenaldiko formetan, pluralekoetan, NOR NORI NORK sailekoetan eta beste hainbatetan; izan ere, forma horiek ez dira hain ezagunak. Horrek adizki neutroak sartzea ekar dezake.

Azkuek (*ibid.*) ez zuen galdeketa zehatz eta sakonik egin berak “hitanoaren kalitate” deituriko kontu horiei dagokienez, eta guk dakigula beste inork ere ez du egin, bada, gure lana ildo horretatik joango da. Nolanahi ere den, autoreak aipaturiko hiketako adizkien desegokitasuna ikusita, eta bereziki emakumeengan zegoen hutsuneaz ohartuta, belaunez belauneko hikaren transmisioak aparteko ikerketa bat egitea behar zuela ikusi zuen.

Hori horrela, familiartean zer neurritan erabiltzen zen aztertu nahi izan zuen, eta belaunaldi batetik bestera transmisioan egon ziren aldaketak ere begiz jo nahi izan zituen. Horretarako, metodo kuantitatiboa erabili zuen. Hamabi galderaz osatutako galdetegi bat eta hautazko ariketa bat prestatu zuen ikasleentzat, eta Zumaiako Institutuko (ikastetxe publikoko) eta Maria eta Jose ikastetxeko (ikastetxe pribatuko) DBH 1., DBH 2. eta DBH 3. mailako 360 neska-mutilei pasatu zien galdekizuna; hain zuzen, Institutuko 232 ikasleei; horietatik 36 inguruko herrietakoak ziren. Ikastetxe pribatutik, berriz, 128 ikaslek bete zuten galdetegia, eta horietatik 4 baino ez ziren Zumaiatik kanpoko ikasleak.

Hala, ikasle horiei guztiei banatutako galdetegiak hautazko ariketa bat bazuela ere aipatu dugu. Bertan egin beharrekoa gaztelaniazko bi esaldi (*Mikel me ha dicho que vendrá tarde* eta *cuando venga Josune dile que me llame*) neska bati edo mutil bati esango zizkioketen bezala idaztea zen. Ariketa horrekin jakin nahi zuen Azkuek (*ibid.*) ea debeku sintaktikoak errespetatzen zituzten edo ez, hau da, ea adizki alokutiboak behar ez ziren tokietan ere sartzen zituzten edo ez.

Era berean, ikasle bakoitzari gutunazal bat ere eman zitzaion. Gutunazal horretan gurasoentzako galdekizun bat zetorren, eta ikasleek etxera eraman behar zuten gurasoek bete zezaten. Guztira 360 ikasle eta 305 gurasoren datuak jaso zituen Azkuek (*ibid.*).

Gure lanarekin lotura zuzena duen aztergaia syntaxizko debekuei dagokien alderdia denez, emaitza horiei erreparatuko diegu lehenik. Ariketa egitea hautazkoa izanik, 76 ikaslek ez egitea erabaki zuten, eta egin zutenen artetik ikerlariak azaltzen du gehiegi ez zituela murriztapen sintaktikoak errespetatu. Gainerako ikasleen galderetatik, eta azken ariketa horretatik aterako ondorio nagusiak hauek izan ziren (Azkue, 2000: 39-40):

- Hitanoa gaztetxoaren artean erroturik dagoen ohitura bat da, batez ere mutilen artean.
- Zumaiaarrak ez diren ikasleek bertakoek baino joera handiagoa dute hiketarako, bai eskolako lagunekin eta baita etxeko senideekin ere, eta arrazoi hau izan daiteke Institutuan Maria eta Josen baino hika gehiago egitea eragiten duen faktore nagusienetakoa.
- Etxean ikasi dutenak baino askoz gehiago dira hitanoa eskolan lagunekin ikasi dutenak. Gaztetxoaren kasuan behintzat, lagunarteko tratamendua gehiago da familiartekoa baino.
- Solaskidea neska denean –berdin gelakidea edota arreba-ahizpa– hiketarako joera oso txikia da.
- Gurasoren bat baserrikoa duten ikasleek hika aritzeko ohitura handiagoa dute besteek baino. Hala ere, guraso hauek seme-alabengana zuzentzean ez dute hika gainerakoek baino proportzio handiagoan erabiltzen, emaitza hauen arabera.
- Aiten kasuan, semea edota alabari izan, asko aldatzen da hiketarako ohitura, semea gehiago hitz egiten baitaio hika alabari baino.
- Amen kasuan, berriz, gutxiago egiten zaie seme-alabei hika, baina sexuaren arabera alderik ez da nabari.
- Aiton-amonen kasuan, gizonezkoek hika hitz egiteko joera handiagoa dute emakumeek baino, eta kasu guztietan biloba mutilari neskari baino gehiago egiten zaio hika.
- Ikasle gehienek ez dituzte syntaxizko debekuak errespetatzen eta erabilitako formen kalitatea oso apala da.

Gurasoei banatutako galdetegiari dagokienez, ikasleekin, hau da, semearekin edo alabarekin, lotura zuzena duten erantzunak ekarriko ditugu hona. Hala dio Azkuek (2000: 52): “Gurasoek seme-alabei hika egiteko ohitura handirik ez dute, are eta gutxiago alabari zuzentzerakoan”. Datu zehatzei erreparatuz gero, guraso guztien %5ak besterik ez dio egiten hika semea. Eta gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten baditugu, berriz, gizonezkoen %15ak, eta emakumeen %3ak ere ez. Gainerako gurasoek %67ak zuka eta %24ak bietara egiten dio semea. Alabari, ostera, gurasoen %6ak. Kasu honetan gizonezkoek nekezago egiten diete alabari hika, semea %15ak egiten dion bitartean, alabari %9ak egiten baitio. Emakumeen kasuan, aldiz, ehunekoa bera da, %3a. Gainerako gurasoek %78ak egiten dio zuka alabari, eta bietara %16ak.

Bestalde, emaitzek erakutsi zuten seme-alabak 8 urte dituela batazbeste, hasten direla gurasoak seme-alabari hika egiten, eta zuka egiten zieten gehienek adierazi zuten, ohitura

kontuengatik egiten zietela hala, nahiz eta hainbat iritzik agerian utzi zuten hikaren alde ez zegoen jende andana ere bazela (Azkue, 2000). Dena den, honako hau izan zen autorearen aburuz, ondorio nagusia (Azkue, 2000: 53): “belaunaldi batetik besterako transmisioan galera garrantzitsua egon da, hau da, azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino askoz gutxiago transmititu da. Nolanahi ere, baina tratamendua finkatu gabe egonik, egoerak pixka bat hobera egin dezake oraindik ere”.

Xabier Azkueren ikerketaren ostean, Zumaiako Udalak hitanoaren erabilerarekin kezkatu jarraitu zuen, eta SIADECORi eskatu zion bere azterketan hitanoaren erabilera ere neurtzeko (Azkue, 2009). 2000. urtean egin zen ikerketa hori eta 281 herritarrek hartu zuten parte. Ikerketa horretatik ateratako ondorio nagusietatik gure gaiarekin lotura duen aipamen bakarra honako hau da (Azkue, 2009: 60): “seme-alabei neurri txikiagoan egiten zaie hika”.

Tolosaldeko ikerketa

Ezagutzen dugun hitanoaren gaineko hurrengo ikerketa Josu Ozaitak Tolosaldean egin zuena da. Bertan Tolosaldeko 18-28 urteko gazteak elkarriketatu zituen Ozaitak (2014), horiek hitanoari buruz duten pertzepzioa, diskurtsoa eta praktika aztertzeko. Hala, herri txikietan eta hiriko kaleetan dauden desberdintasunak edota erabileran dauden arau sozialen aldaketa nabarmentzen ditu autoreak. Besteak beste, herri handixeagoetako gazte askok hika hitz egiten jakin nahiko lukeela agertzen du, baina etxeko transmisiorik izan ez dutenez, eta hezkuntzan behar bezalako arretarik eskaini ez zaionez, hainbatek ez du hizpide dugun tratamendu hau jorratzeko modurik ikusten. Horretaz gain, Ozaitak (*ibid.*) ere badio noka azkenetan dagoela, izan ere, “ez betiko hikatzailleek, ez herri txiki zein handietakoek, ez mutilek zein neskek ez dakite noka erabiltzen” (Ozaita, 2014: 94). Hori horrela, hika neska gazte gutxi hitz egiten dutela gaineratzen du autoreak, eta erabiltzen duten askok tokako formak erabiltzen dituztela. Bada, gure abiapuntua Ordiziako ikastola izanik, eta bertara ordiziarrez gain, herri txikiagoetako ikasleak ere etortzen direnez, zaldibitarak, esaterako, aztergai izango dugun ikasleen profila Ozaitaren hitzak kontrastatzeko edo egiaztatzeko baliagarria izango zaigulakoan gaude.

Usurbilgo eta Azpeitiko hitanoaren kale-erabilera neurketak

Bestalde, 2016an Azpeitian eta Usurbilen hikaren kale erabilera neurtu zuen Soziolinguistika Klusterrak lehen aldiz. Emaizten arabera, bai Azpeitian, bai Usurbilen hikatzailleenak gizonezko gazteak (15-24 urte) dira (Soziolinguistika Klusterra, 2017); Azpeitiko mutil gazteen %90ak hitz egiten du hika, eta neska gazteen %25,9ak. Usurbilen, berriz, mutilen %95,3ak eta nesken %37,5ak. Neska edo mutila izan, beraz, kontuak asko aldatzen dira hitano tratamendua erabiltzerakoan.

Lan honetan aztertuko ditugun ikasleak 15-17 urte bitartekoak izanik gazteen multzoan sartzen dira. Horrek iradokitzen digu batetik, hika erruz erabili beharko luketen adin tartean daudela, eta bestetik, lagin egokia izan daitekeela hitanoaren erabileraren errealitatea eta sendotasuna nola dagoen aztertzeko eta ezagutzeko.

Azpeitiko eta Amasa-Villabonako ikerketak

Soziolinguistika Klusterrak Azpeitian egindako hitanoaren kale-erabilera neurketaren ondotik, datu horiek osatzera eta sakontzera etorri dira Beñat Muguruza eta Garbiñe Bereziartua azkenaldian Azpeitian egiten ari diren hitanoaren gaineko hainbat ikerketa soziolinguistiko. Honela diote (Muguruza eta Bereziartua, 2018: 4):

Azpetiko hitanoaren kale-erabilera erreala jasotzen du ikerketa horrek, eta datu fidagarri eta zehatzak erakusten; hala ere, ez du kontuan hartzen testuinguruak edo hiztunen arteko harremanak ahalbidetzen ote duen hika egitea. Gainera, ez da argi geratzen noka eta toka zuzen erabiltzen ote dituzten, hau da, emakumeari noka eta gizonari toka.

Beraien ikerketetako batean hitanoaren belaunarteko transmisioa aztergai dute (Muguruza eta Bereziartua, 2020). Hau da, jakin nahi izan dute batetik, parte-hartzaileen gurasoek eurei nola egiten dieten edo zieten, eta parte-hartzaileek euren seme alabei hika egiten al dieten. Autorek diotenez, ikerketaren emaitzek erakutsi dute Azkuek Zumaian agertutako joera errepikatzen dela, hots, seme-alabei hika egiteko ohiturak behera egin duela nabarmen, nahiz eta baden desberdintasunik Zumaiko ikerketak erakutsitako joeratik: aitagandik hika jaso duten parte-hartzaile gizonezkoak (%38,4) baino gehiago dira semeei hika eman dietenak (%48,5) Azpeitian (*ibid.*). Amak, berriz, %17,3 dira semeei hika egiten dietenak. Eta “alaben kasuan, aiten %14,7k egiten diete hika eta amen %11,7k” (Muguruza eta Bereziartua, 2020: 558).

Belaunaldien eten horrekin bat egiten du Amasa-Villabonan berriki egin den hitanoaren egoera aztertzeke ikerketa kuantitatiboak ere (Amasa-Villabona, 2020). Dena den, bada alderik aurreko bi ikerketa horietatik hona. Ikusi dugu Zumaiko eta Azpeitiko amek orokorrean gutxiago egiten dietela seme-alabei hika, baina amak alabari edo semeari hika egiten dionean portzentaia ez da aldatzen Zumaian, eta Azpeitian, %6 gehiagok egiten diote semeari hika. Bada Amasa-Villabonako ikerketan azpimarratzen dena da etxeko transmisioaren etenean galera indartsuena emakumezkoak tarteko dauden ekintza komunikatiboetan egon dela, eta bereziki emakumeen arteko elkarriketetan. Izan ere, amek seme-alabekin hitanoa erabiltzen duten kasuetan hiru aldiz gehiago egiten diote semeari hiketan alabari baino. Hain zuzen ere, seme-alabak dituzten inkestatu amen %3ak bakarrik egiten dio alabari hika, eta semeari %10ak. Emakumeen eta gizonen artean hitano erabileran dauden alde horien arrazoiak argitzen saiatu da Onintze Legorburu Antzuolan egindako ikerketa batean. Bertan ondorioztatu zuen genero rolek eragina izango luketela emakumeek hika gutxiago egitean, eta era berean, gizonezkoek gehiago erabiltzean (Legorburu, 2018).

Beraz, transmisioaren etenak, eskoletan hitanoari ordu gutxi eskaintzeak, erabiltzen den taulen bidezko metodoa aproposa ez izateak (Ozaita, 2014), amasa-billabonatarren kasuan, egunerokoan hika entzuten dutenak (amasarren %16,3 eta billabonatarren %6,3)(Amasa-Villabona, 2020) nahi beste ez izateak, emakumearen genero rolek eta beste hainbatek hitanoaren apaltzea

edo hiketan ez jakitea ekarri du. Izan ere, amasa-billabonatarren hamarretik seik adierazi du hika gehiago erabili nahiko lukeela, eta ez erabiltzeko arrazoi aipatuena hika hitz egiten ez jakitea dela. Gainera arrazoi horrek pisu handiena norengan hartzen duen ere aitatzen da. Honatx (Amasa-Villabona, 2020: 58): “hitanoa nahi bezainbeste ez erabiltzearen arrazoi nagusia gaitasun falta (hika hitz egiten ez jakitea edo guztiz ez menperatzea) dela diote herritar askok (%37,3). Geroz eta gazteago izan, orduan eta indar handiagoa hartzen du argudio honek”. Kontuan izan behar da ikerketa honetan 14 urtetik gorako herritarrek parte hartu dutela, hortaz, ezagutza gutxiena dutenak edo gutxien menderatzen dutenak adin horren bueltakoak izango direla ulertzen dugu. Ikergai ditugun gure ikasleen bueltakoak, hain zuzen.

Zaldibiako ikerketa

Atal honekin amaitzeko, azkenik, Zaldibiara joko dugu. Bada liburu bat *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak* (Etxabe eta Garmendia, 2003) izenekoa. Bertan atal bat eskaintzen zaie tratatamenduei. Esanguratsua egin zaigu lehen hitzek diotena (Etxabe eta Garmendia, 2003: 129):

Euskal Herriko herri askotan bezala, gurean ere hitanoaren erabilerak garai batetik hona atzera egin du. Hala ere, gazteen artean hika egiteko ohitura ez da erabat galdu, eta horrek berak bultzatu gaitu erabilera hau aztertzeraz. Batetik, gazteek hitanoa ondo erabiltzen ote duten jakin nahi izan dugu: forma egokiak erabiltzen ote dituzten. Bestetik, tratamendu honek orain arte izan duen erabilera esparrua aldatu ote den –edo aldatzen ari ote den– aztertu nahi izan dugu: gazteek hitanoa noiz erabil daitekeen ba ote dakiten, alegia.

Esan daiteke Etxabe eta Garmendiaren asmo eta helburu berak ditugula guk ere, eta eurek jasotakoa baliagarri eta interesgarri egingo zaigula. Nolanahi ere, ez dute hitanozko formen bildumarik edo paradigmarik eskaini, hiztunetik hiztunera formak dezente aldatzen direnez, amaigabeko lana izango litzatekeelako (Etxabe eta Garmendia, 2003). Bestalde, formen ugaritasun hori guk *hitanoaren higatze* deituko diogunarekin lotzen dute autoreek; maldan behera doan fenomeno baten adierazle izatearekin, hain zuzen. Era berean, hikako formek zukakoek bezelako tinkotasunik ez dutela ere gaineratzen dute.

Paradigmatik ez, baina menpeko perpausetan eta galdera perpausetan alokutiboaren murriztapen sintaktikoak errespetatzen zituzten edo ez jakiteko, 47 hiztuni eskatu zieten bederatzi esaldi hika jartzeko. Bost adin tarte bereizi zituzten: 14-20; 20-35; 35-50; 50-70 eta 70 urtetik gorakoak. Hala, ariketa horretatik aterako emaitzak honako hau erakutsi zuten:

- Ezezko perpausetan gehienek ez zuten forma alokutiborik erabili.
- Baldintzazko perpausetan forma alokutiboak nagusi izan ziren.
- Galdera perpaus guztietan, adin guztietakoek adizki alokutiboak erabili zituzten.
- Denborazko menpeko perpausetan, erlatibozkoan, kausazkoan eta konpletiboan 50 urtetik gorakoak izan ziren adizki neutroak erabili zituztenak.

- Denborazko menpeko perpausetan gehienek adizki neutroa erabili zuten.
- Erlatibozko perpausetan gazteenek eta 20-35 urte bitartekoak izan ziren forma alokutiboez gehien baliatu zirenak.
- Kausazkoetan ere gazteenak eta 20-35 urte bitartekoak izan ziren forma neutroak gutxien erabili zituztenak.
- Konpletiboetan, berriz, 14-20 urte bitarteko bik eta 35-50 urte bitarteko bik soilik sartu zituzten alokutiboak menpeko adizkietan.

Alegia, Etxabe eta Garmendiak (*ibid.*) ondorioztatu zuten, 50 urtetik gorakoak zirela murriztapen sintaktikoak gehien errespetatzen zituztenak. Gazteagoetan batzuk debeku sintaktiko horiek errespetatu arren, gehienek menpeko perpausetan alokutiboak erabiltzen zituztela ikusi zuten. Eta azkenik, galdera perpausari dagokienez, forma alokutiboak galdera perpausetan erabiltzea erabat zabaldua zegoela agerian geratu zen.

Datu horiek Zaldibiako errealitatearen berri ematen digute. Ordutik urte batzuk iragan direla jakinda, ez dugu espero gure ikasleek menpekoetan nahiz galde perpausetan adizki neutroak erabiltzea. Hala ere, aukera ematen digute eboluzioa ikusteko. Eta perpausetan ez ezik, adizki perifrastiko eta sintetikoetan ere murgilduko gara, gaur egungo nerabeen ahotan dabilen hitanoaren argazkirik leialena eskaintzeko.

2.4 Hitanoa ikastetxeetan

Belaunez belauneko transmisioaren etena aipatu dugu behin baino gehiagotan orain arte. Muguruza eta Bereziartuaren (2020) hitzetan, hitanoaren bizi-egoera ulertzeko goitik beherako transmisioaz gain, hizkuntza-sozializazio kontzeptua ere funtsezkoa da. Kontzeptu horrek honakoa dio (Kasares, 2017:29): “haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte-hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da”. Kontzeptu horrek aditzera eman nahi du gizakiek hizkuntzekin duen harremana dinamikoa izan daitekeela, hau da, hizkuntza baten aurrean, kasu honetan tratamendu baten aurrean dugun portaera aldakorra izan daitekeela. Bestalde, Kasaresen (2015) arabera, transmisioa bi eratakoa izan daiteke: batetik, naturala, hau da, familia-bidezkoa; eta bestetik, kultura, formala. Bigarren transmisio horrek eskolan jazotzen denari egingo lioke erreferentzia. Hau da, transmisioa, ez da etxean bakarrik gertatzen, eta transmisio guztiak hartu beharko lirateke kontuan (Kasares 2015: 23):

Ettxeko, eskolako nahiz plazako elkarrekintzak, hau da, familiako belaunaldien arteko harremanak nahiz haur belaunkideen artekoak –harreman eszentrikoak deitu ditudanak, erran nahi baita, anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunaren eta halako adinkideen artekoak– ez dira hizkuntza jarduera bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira, batera jokatzen dute eta elkarreraginean daude.

Hitz horiek gurera ekarrita, Muguruza eta Bereziartuak (2020) dioten bezala, hitanoak sendo irautea nahi badugu, eta Euskal Herriko hainbat tokitara zabaldu gura badugu, etxeko transmisioa ez da aski izango, eta hori indartzeaz gain, “beste esparru batzuetatik etorri beharko du bultzadak: eskolatik, erakunde publikoetatik, feministotik, euskalgintzatik, ikus-entzunezkoetatik... denak izango dira, segur aski, beharrezkoak” (Muguruza eta Bereziartua, 2020: 563-564).

Ildo horri jarraiki, badira urrats bat aurrera eman, eta hitanoa modu ludikoan lantzea erabaki duten eskolak. Beñat Muguruza eta Garbiñe Bereziartuak (2018) azaltzen dutenez, Zumaian hitanoaren erabilera eta kalitatea gainbeheran zela-eta, erabaki zuten eskoletan erakustea, horretarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz diseinatutako ikasmateriala erablitu. 2011n hasi ziren Zumaian programa honekin, baita Azpeitian ere. Hala, Lehen Hezkuntzako 5.mailatik DBHko 4.maila bitarteko ikasleek hitanoa lantzen dute ikasgelan. Irakasleen formakuntzaz Soziolinguistika Klusterra arduratzen da, baita irakasleen ekarpenak jaso ostean materialak ebaluatzeaz eta egokitzeaz ere. Egitasmoaren koordinazio lana, berriz, udal teknikariek egiten dute.

Hitanoa ikasleengana gerturatzeko helburuarekin, ikasmaterialeko adibideetan herriko pertsonaiak eta lekuak agertzen dira. Egitasmoak aurrera darrai, eta momentuz oso balorazio positiboa egin dute bai udal teknikariek, bai Soziolinguistika Klusterrak, bai irakasle gehienek. Bidean aurkitu duten erronketako bat irakasle gutxi batzuen erresistentzia izan bide da (Zabala eta Bengoetxea, apud. Muguruza eta Bereziartua, 2018). Gauzak horrela, uste dugu aipaturiko ikasmaterial hori tokian tokira egokituz gero, gure ikasleentzat ere baliagarri bezain ezinbestekoa izan daitekeela hiketan aritzeko gutxieneko ezagutza eta jarioasuna bermatzeko.

Azkenik, badira hitanoa hezkuntzan lantzeko norbanakoek egindako beste hainbat proposamen edo ekarpen ere. Horien artean daude *Hitanoaren erabilera Seguran: proposamen didaktikoa* (Imaz, 2018) eta *Komikia hitanoaren i(r)a*kaskuntzarako baliabide: *Azpeitiko hitanoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan* (Amiano, 2016). Proposamen guztiak ere aintzat hartu eta aztertzea merezi dutelakoan gaude.

2.5 Ordiziako ikasleen ingurune hurbileneko hitanoko hainbat forma: Zaldibiako hika

Ordiziako hikako formarik ez dugu lekukotu, eta saiatu bagara ere, 60 urteren bueltako ordiziar jatorriko hikatzailerik ere ez. Topatu ditugun bakarrak Ordiziako 33 urteko bi gizonezko izan dira, baten aita ordiziar euskaldun berria, eta ama segurarra, gaztaroan euskara ia galdu zuena; bestearen aita zaldibitarra, eta ama, berriz, zeraindarra; inguruko herri txikietakoak, alegia. Beraz, badirudi gaur egun Ordiziako hikako formak topatzea lan nekeza dela, horregatik inguruko herrietako formei begira jarritz gero, badira 1984ean Yrizarren (1991) lanean Artolak bildutako Zaldibiako tokako

naiz nokako formak (ikus III. eranskina) ikusgai. Hika hitz egiten dakiten ikasleen aditz formekin konparatzeko baliagarri izango dira.

3. Metodologia

3.1 Ikerketa galderak

Esku artean dugun lana egiteko ditugun galderak honako hauek dira:

- Ordiziako ikasleek ba al dute hitanoaren ezagutza nahikorik bere erabilerarako edo erabilera posible baterako?
- Zenbat dira hitanoa erabiltzen dakitela diotenak?
- Dakitela diotenez nola egiten dute hika? Hau da, toka/noka menderatzen dituzte? Murritzapen sintaktikoak errespetatzen al dituzte?

3.2 Ikerketaren diseinua eta informazioa biltzeko prozedurak

Gure ikerketa galderak erantzun ahal izateko zaldibitarrak diren sei ikasleren tokako eta nokako datu elizitatuak bildu ditugu batetik, eta horretarako galdetegi bat prestatu dugu Euskaltzaindiak *EHHA*n agertzen diren adizki alokutiboak eskuratzeko erabili zituen perpausez baliatuta. Baina Euskaltzaindiaren orrialdean adizki horiek lortzeko erabilitako perpausak gaztelaniaz nahiz frantsesez azaltzen dira, eta guk erabaki dugu perpaus horiek euskaratzea gure ikerketa lagin izango diren ikasleen herri hizkerara, hortik abiatuta datuak lortzea oinarri aproposagoa izan daitekeelakoan. Horretarako Ordiziako herritarrak diren Jokin, Araitx eta Ainhoaren laguntza izan dugu, hiruren artean lortu ditugu datu elizitatuak eskuratzeko ezinbesteko genuen galdetegia ehun eta bi perpausekin. Baina perpaus horien artetik aukeraketa bat egin dugu, eta egiazki erabili ditugunak hirurogeita bost izan dira, nahiz eta beharraren arabera batzuetan perpausen bat edo beste gehiagoz ere baliatu garen. Hau da, datu zenbait lortzerakoan ikasleak eman duen erantzunarekin zalantza egin badugu, edo ikaslearengan hutsuneren bat ikusi badugu, eskainitako datua berresteko balio duen beste perpausen bat ere erabili dugu. Ehun eta bi perpaus dakartzan galdetegia izan dugu denbora guztian eskuen artean datu elizitatuak lortzerako garaian. Hala, sei ikasle banaka hartu ditugu, eta Jakintza ikastolako tableta erabilia bideoz grabatu ditugu. Lehenengo, hirurogeita bost perpausak toka egiteko eskatu diegu, hau da, ikasleak herriko mutil bati, kuadrilako bati, anaiari... hika egin beharko balio, nola esango liokeen, eta gero, gauza berbera,

baina noka, hots, herriko neska bati, kuadrilako bati, ahizpari edo arrebari hika perpaus bakoitza nola egingo liokeen. Modu horretan lortu ditugu datu elizitatuak.

Bestetik, elkarrizketa librean hika nola egiten duten ere ikusi nahi izan dugu, euren hikako jarduna benetan nolakoa den egiaztatzeko, edo beste era batera esanda, euren gaitasuna, erraztasuna edota jartotasuna ahalik eta modurik errealenean ikustiaz gain, ahalik eta daturik leialenak eskuratzeko. Horretarako, sei ikasle hiruko bi taldetan banatu ditugu. Talde bakoitzari berrogei minutuz nahi duenaz hika hitz egiteko eskatu diogu, eta elkarrizketa horiek ere bideoz grabatu ditugu. Lehenengo taldea DBH 4ko bi mutilek eta neska batek osatu dute, eta bigarren taldea, berriz, DBH 3ko mutil batek eta lehenengo Batxilergoko beste bi mutilek. Badaezpada ere elkarrizketa gaiak edo galderak ere prestatu ditugu isiltasun momentuetarako. Lehenengo taldeari grabazioaren hasieran egin diogu galdera bat, eta hortik aurrera eurek bakarrik gure laguntza gehiagoren beharrik gabe bete dituzte berrogei minutuak. Bigarren taldearekin, aldiz, grabazioaren hasieran ez ezik, grabazioan zehar ere beste zenbait galdera egin dizkiegu, eta modu horretan osatu ditugu berrogeita bat minutu.

Behin grabazioak eginda, datuak eskuragarri izateko eta horiekin lan egin ahal izateko bideo guztiak transkribatu ditugu. Ikasle bakoitzak zer eta nori esaten dion jaso dugu transkripzio horietan, batez ere, hitz egitean nori begiratzen dion apuntatu dugu. Horrek aukera eman digu ikasle bakoitzak beste ikaskideei toka, noka edo modu neutroan egiten dien ikusteko. Era berean, elkarrizketa libreko grabazioetan ez ditugu beti transkribatu adizki alokutiborik gabeko pasarteak, horiek izan baitira egiazki gure arreta gune, gure lanabes. Bestalde, elkarrizketako partaideek diotena ondo aditu edo ulertu ez dugun zenbait pasarte ere transkribatu gabe geratu dira. Baina hala ere, transkripzioetatik lortu dugu lan hau aurrera eraman ahal izateko nahikoa eta ezinbesteko materiala.

Transkripzioak egin ostean etorri da ikasle bakoitzak eskainiriko datuen sailkatze lana egitea. Ikasleen banakako eta elkarrizketa libreko transkripzioak eskuetan hartu, eta banaka-banaka ikasle bakoitzaren tokako nahiz nokako datuak sailkatzen aritu gara tokako eta nokako adizki perifrastikoak NOR, NOR NORI, NOR NORK eta NOR NORI NORK sailetan, tokako eta nokako adizki sintetikoak IZAN, JOAN, EGON, ETORRI, IBILI, EDUKI, EKARRI, ERAMAN eta JAKIN adizkietan eta guztiek erakusten dituzten hainbat joera orokorretan. Era berean, datu horietan azpimultzoak ere ikusi ditugu, eta forma neutroak, tokako aditz alokutiboak nokakoen orde, aditz alokutibo berriak, alokutibo asmatuak eta aditz aldaketa batzuk ere identifikatu eta sailkatu ditugu; baita aditz berbera adierazteko ikasleek erabiltzen dituzten bitariko formak, alokutiboaren murriztapen sintaktikoa eskatzen duten perpausak eta azkenik, hitanoaren higatzea erakusten duten tokako eta nokako ahitze kasuak ere. Alabaina, kasu bakan batzuk ezin izan ditugu multzo horietan sailkatu, eta “ikasleak ez dakiela adierazi duen formak” edo “etiketarik gabeko formak” deituriko azpisail moduko batzuen barruan kokatu behar izan ditugu. Dena den, adierazi bezala, oro har, ez dira asko izan.

Behin datuen sailkapena eginda, ikasle bakoitzaren datuak deskribatu ditugu banaka ahalik eta modu xehenean. Aipatu bezala, adizki perifrastikoak sailka eta adizki sintetikoak adizkika sailkatu ditugunez, halaxe deskribatu ditugu. Gure deskribapenak adibieekin hornitu ditugu ikasleak ahoskatu dituzten eran (hau da, *h*-rik gabe, *y*-rekin, *ñ*-rekin...) , eta, oro har, honela egin dugu: datu elizitatua edo elkarritzeta libretik ateratako aditza azpimarratuta jarri dugu, lehenik, eta datu elizitatuari dagokion euskara batuko forma, ondoren. Euskara batuan ez bada jaso dugun datuaren ordainik, edo emandako aditza asmatua bada, izartxo ezarri diogu. Dena den, hainbatetan beharrezkotzat jo dugu ikasleari eskatu zaion perpausa bera ere agertzea datuaren interpretazio egokirako. Esaterako, ikasleari lehenaldiko aditza toka edo noka egiteko eskatu, eta ikasleak orainaldiko ordaina eman badu, ikasleari galdegin zaion perpausa agertu dugu lehenik, gezi bat ezarri dugu gero, eta atzetik lortutako datu elizitatua eta datu elizitatuari dagokion euskara batuko adizkia adierazi ditugu. Edo eskuratutako forma alokutiboak bere horretan ez badu guztiz argi jartzen zer denborari dagokion, galdetutakoa ere agerian jarri dugu, berak ikustarazten baitu ikasleari eskatu zaiona denbora batekoa edo bestekoa den. Izan ere, forma alokutibo zenbaiten orainaldiko formak forma neutroen lehenaldiko forma homofonoak dira, eta testuinguru edo bestelako pistarik gabe, ezin da jakin irakurtzen ari garena orainaldiari edo lehenaldiari dagokion. Baina beste zenbait kasutan, adizki alokutiboek ez dute forma neutroen forma homofonorik. Kasu horietan ikasleari galdetu zaion adizkia ez dugu erakutsi, adibidearekin berarekin bakarrik ikus daitekeelakoan adizki alokutiboaren denbora marka, bestelako laguntzarik gabe. Elkarritzeta libreko datuetan, berriz, beti datua agertu dugu lehenengo, eta jarraian lortutako datu horri dagokion euskara batuko forma alokutiboa, neutroa edo dagokiona. Eta banakako deskripzioen ondoren joera orokorrak ere deskribatu ditugu, eta azkenik, lan honek eman dituen ondorioak atera ditugu.

3.2.1 Metodologiaren arazoak, oztopoak edo alde txarrak

Hainbat arazo edo oztoporekin topo egin dugu galdetegi bidezko datu elizitatuak lortzerako garaian. Galdetegiko zenbait perpausen adizkiak ez dira gure iritzirako ikasleek euren herri hizkeran erabiltzen dituzten forma neutroak. Ondorioz, inkestagileak emandako aditz forma neutro hori oinarri hartuta eraiki dituzte hainbatetan ikasleek euren herri hizkeran egiazki erabiltzen ez dituzten adizki alokutiboak edo bestelakoak. Adibidez, hona hemen Enaitz izeneko ikaslearen tokako datu elizitatuetatik eta Igor izeneko ikaslearen tokako datu elizitatuetatik ateratako adibide bana:

- Nik in nezake → *nik in nezakean*, 'nik egin nezakean'.
- Istorio oi aitei attu diote → *istorio oi aitei attu ziotek*, 'istorio hori aitari aditu ziotek'.

Bi adibideetan ageri diren adizki neutroak ez dira Zaldibiako herrian erabiltzen diren forma neutroak. Hori horrela dela ziurtatzeko eta beste hainbat zalantza sortu zaizkigun kasuetarako, Saroi Jauregi Aiestaranen, berrogeita hiru urteko zaldibitarraren, ezinutzizko laguntza izan dugu. Berari egin dizkiogu Zaldibiako aditz formen inguruko kontsulta guztiak behar izan dugun kasuetan. Hala,

adibideetako aditz forma neutroei dagokienez, Saroik adierazi digu Zaldibian *nezake* ez, eta *neike* noizbait egiten badute ere, ia denerako *deiket* erabiltzen dutela (orainaldiko forma, alegia, eta ez hipotetikoa), eta *diote* beharrean *die* esaten dutela. Hori horrela izanik, *nezakean* eta *ziotek* ez dira Zaldibian erabiltzen diren tokako adizki alokutiboak, guk emandako formen gainean eraiki edo sortu dituzten forma alokutiboak baizik; euskara batuan badaudenak, baina adierazi bezala, Zaldibian erabiltzen ez direnak. Hala, *neike* bera ia ez badute erabiltzen, nekez emango dute ikasleek horren forma alokutiboa (gainera, Saroik adierazi digu *neiker*en tokako formarik ez dutela erabiltzen; “*jun zeikeat* ta *in zeikeat*. Bik berdin” azaldu digu), eta are gutxiago *nezake* esaten badiugu. Eta *diote* beharrean *die* esan izan bagenie, errazago emango zuketena ikasleek Zaldibian erabiltzen duten eta tokako adizki alokutiboa den *ziek*. Beraz, *nezakean* eta *ziotek* bezalako datuak lortzea metodoaren akatsen ondorioztat ditugu.

Metodologia honen ondorioz ere gertatu zaigu zenbait kasutan ikaslea adizkia esaten hasi, eta ezagutzen ez duelako edo ziur ez dagoelako bere horretan erdizka uztea, eta beraz, horrelakoetan ezin izan ditugu zenbait forma behar bezala lortu, ezta sailkatu ere. Horren adibide litzateke Igor ikasleari noka egiteko eskatu zaion ondorengoa:

- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeoan dettu nian*, ‘etxean zegoan deitu nian’.

Bestalde, galdetegi bidez aditzak lortzerakoan inkestatuak denbora ere badu aditza pentsatzeko, eta ondorioz, zenbaitetan forma bat baino gehiago eman ditu. Adibidez, eman dezake aurrena forma neutroa, gero tokako alokutiboa eta azkenik nokako alokutiboa. Edo tokako forma eman lezake lehenengo, eta gero nokako aditza asma lezake. Edo hasieran aditz bat esan lezake, guk errepikatzeko eskatu, eta errepikatzearan hasieran esan duen aditza ez egitea, eta beste bat egitea ere gertatu zaizkigu. Horrelakoetan, gure ustez pisu edo nagusitasun handiena duen aditza lehenesten saiatu gara, hau da, aditz berberaren aurrean agertu dizkigun aditzen artean zein da esanguratsuena? Aurrena toka egin izana gero nokako forma alokutiboa eman badu ere? Aditza asmatzea? Inkestagilearen laguntzarekin bada ere, eskatu zaion forma alokutiboa lortzea? Horrelako galderak sortu zaizkigu behin baino gehiagotan datuak sailkatzerako orduan, eta adierazi bezala, kasu bakoitzean esanguratsuena denari, pisu handiena duenari lehenetsuna ematen ahalegindu gara, eta besteak oin-oharretan aipatu ditugu. Baina jakitun gara gure erabakiak beste batekiko desberdinak izan daitezkeela, eta aditz bat aukeratzeak eta beste bat edo bi baztertu beharrak emaitzetan eragin lezakeela. Gainera, gure eguneroko ikuskera ere ez da beti berdina, eta, ondorioz, gaur modu batean ikusten duguna, bihar beste era batera ikus dezakegu, hots, kasu batean lehenetsi beharko litzatekeela iruditzen zaigun aditz forma, beste antzeko kasu batean aurreko kasuan baztertu duguna lehenetsi beharko litzatekeela begitantzen zaigu. Hori bai, beti momentuan garrantzitsuena dena uste izan duguna jarri dugu aurretik. Baina agertu bezala, lehenetsi duguna ez da beti berdina izan agian, eta hori galdetegi bidez datuak biltzeak berarekin dakarren arazo edo ondorioetako bat da, elkarrizketa libreko datuek ez baitute adizkien artean

aukeratzearen behar izan hori sortzen. Dena den, azaldutakoa hobeto ulertzeko hona hemen lgorren adibide bat:

- Ume onek urtebete ola izango → *ume onek urtebete o ola izango?* O izango zian. Ez. Ola izangou, ola izangoik, ola izangoin, ‘ume honek urtebete edo horrela izango du? Edo izango zian. Ez. Horrela izango du, horrela izango dik, horrela izango din’.

Horretaz gain, datuak bideoz jaso izanak ere baditu bere oztopoak, eta horiean artean dago oharmenarekin lotutako alderdia. Izan ere, batzuetan ezin izan dugu ulertu ikasleak dioena, edo beste batzuetan gauza bat ulertu dugu lehen entzunaldian, eta gero, beste entzunaldi batzuetan beste gauza bat, edo hasieran entzuterik lortu ez genuena entzutea lortu dugu beste egun batean. Esaterako, elkarrizketa librean lgorrek dioen “Aik esate zien, e, Andaluzi alden da merke zeola asuntoa” lehen entzunaldian honela entzun dugu: “Arrek esate zian, e, Andaluzi alden da merke zeola asuntoa”. Alegia, horrelako ulermen edo oharmen arazoak sarri gertatuko balira, emaitza okerrak lortzeko bidea litzateke, eta hori ere metodoaren oztopoetako bat da.

Baina ez da oharmen arazoa izan elkarrizketa libreko grabazioetan aurkitu dugun oztopo bakarra. Izan ere, elkarrizketa librean zenbaitetan izenordainak edo pertsonak ez dira aipatzen, eta elkarrizketan parte hartzen ari diren pertsonak eurek ulertzen dute beste mintzalagun eta kasu honetan, herrikidea zertaz edo nortaz ari den hizketan zehatz mehatz adierazi gabe. Ez da, ordea, hori inkestagilearen kasua, eta ikasleek eman duten informaziotik eta testuingurutik ondorioztatu behar izan dugu zenbaitetan aditz forma bat neutroa den edo beste sail bateko aditz alokutiboa den. Izan ere, hainbatetan forma homofonoak dituzte sail desberdinetako forma neutro nahiz aditz alokutiboek. Adibidez, Enaitzek batean dio: “oi dek, zeak esan tzian”. Hor tzian izan daiteke NOR NORK saileko tokako forma alokutiboa, ‘zerak kontu hori esan zian’ edo NOR NORI NORK saileko forma neutroa: ‘zerak kontu hori esan zidan’. Hor sail batekoa edo bestekoa den erabakitze aurretik Ekhi izeneko ikasleak dioena entzun eta ulertu behar izan dugu, eta forma neutrotzat hartu dugu, baina baliteke interpretazio okerra izatea horretan edo horretan ez bada, beste kasuren batean, aurretik aitatu bezala, izenordainak garbi ez adieraztearen ondorioz. Eta testuingurua entzunda ere, beti ez dira kontuak garbi geratzen.

Bestalde, elkarrizketa librean behin baino gehiagotan menpeko perpausak perpaus nagusirik gabe agertzen dira, eta baliteke horrek menpeko perpausen izaera ez hain agerian jartzea. Hona hemen perpaus nagusirik gabeko Enaitzen menpeko perpausen bi adibide:

*Gastuik eztikela in bear kotxen, ezer ez; igual tzeokela, ‘gasturik ez *dikela egin behar kotxean, ezer ez; igual *ziokela’.*

Eta nola jakin erabiltzen dituzten adizki alokutiboak berriak diren, asmatuak diren edo Zaldibian erabiltzen direnak diren gu zaldibitarrak izan gabe? Aurrez aipatu bezala, Saroi Jauregi Aiestaran izan dugu kontuak argitu dizkiguna horrelako zalantza eta ezjakintasun guztien aurrean, izan ere, berari galdetu gabe ezingo baikenuen jakin hainbat aditz forma Zaldibian erabiltzen

zirenentz. Hala, galdetegi bidez ikasleei egindako esaldi berberak agertu dizkiogu berari ere gehienetan, eta toka edota noka egiteko eskatu diogu. Edo ikasleek adierazitako aditz alokutiboa Saroik berak erabiltzen duen ere galdetu diogu zuzenean hainbatetan. Batzuetan berak erabiltzen ez badu ere, kalean entzuten duela adierazi izan digu, eta horrelako erantzunekin zenbait aditz berri gisa sailkatu ditugu. Izan ere, aditz berri gisa identifikatzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu aditz hori bizirik egotea, hau da, jendearen ahotan erabiltzea.

Baina zailtasuna ez da aditz berriekin bakarrik izan, forma alokutibo zahar edo ohikoekin ere bai. Izan ere, guretzat lehenaldiko forma neutro lirartekeen JOAN adizkiari dagozkion aditz sintetikoak Zaldibian forma alokutiboak dira. Hona hemen elkarriketa librean Enaitzek utzitako adibide bat:

- *Juxtu ni etxeaka nijoan e Julen, Julenekin da, oi zerbezak artuta zijoa n plazaldea*, 'juxtu ni etxerantza nindoaan eh, Julen, Julenekin eta, hori garagardoak hartuta zihoaan plaza aldera'.

Saroik berak argitu digu Zaldibian JOAN adizkiaren lehenaldiko tokako eta nokako forma alokutiboak direla *nijoa*n/*nijona*n eta *zijo*a n/*zijona*n; forma neutroak, berriz, *nijon*, 'nindoaan' eta *zijo*n, 'zihoaan'. Horrelako argibiderik gabe interpretazio okerrak egin genitzakeen, eta beraz, zaldibitar toka eta noka hiztun berriemaile baten azalpenak nahitaezko lanabes izan dira gurea bezalako lan bat egiterako garaian.

Eta azkenik, bada agertu nahi dugun beste kontu bat. Metodologiaren deskribapenaren hastapenetan adierazi dugu elkarriketa libreko datuak direla daturik leialenak eta fidagarrienak, eta horregatik baliatu dugula elkarriketa libreko datu elizitatuekin batera. Bada, datu elizitatuaren fidagarritasun maila tamainakoa dela egiaztatu ahal izan dugu Enaitzek eskainitako datu batzuekin. Hau da, Enaitzek datu elizitatuak lortzerakoan toka egiteko eskatu diogun IBILI adizkiaren lehenaldiko forma alokutiboa eman beharrean forma neutroa erabili du, baina elkarriketa libreko datuek erakutsi dute Enaitzek galdetegi bidez eskatu diogun IBILI adizkiaren lehenaldiko tokako forma alokutibo hori badakiela. Hona hemen galdetegi bidez eskuratutako datua, eta elkarriketa libreak emandakoa, hurrenez hurren:

- *Mendin zebiyen bea enteatu uanen*, 'mendian zebilen bera enteratu *zuanean'.
- *Plazan bastante jende zebiyeane¹*, 'plazan dezente jende zebilean'.

Beraz, bi adibide horiek erakusten dute emaitza errealean lortu nahi baditugu, elkarriketa libre bidez datuak lortzeko metodoa edo prozedura ezinbestean erabili behar dela horrelako lan batean.

¹ *Zebiye*a n tokako forma alokutiboa espero bagenuen ere, hori da entzuten duguna.

3.3 Azterketako lagina eta populazioa

Ikerketa honetan hamabost eta hamazazpi urte bitarteko sei ikasle zaldibitarrek hartu dute parte, hain zuzen, Ordiziako Jakintza ikastolako DBH 3, DBH 4 eta lehenengo Batxilergoko ikasle diren Ekhi, Josu, Saioa, Aner, Enaitz eta Igorrek. Horiek eta altzagar bat izan dira hika dakitela edo hitz egiteko gai direla adierazi duten bakarrak DBH 3 eta bigarren Batxilergoa bitarteko ikasle guztien artean. Altzagarra kontu edo ezaugarri geografikoak direla eta, ez zaigu iruditu azterketarako lagin aproposa izan daitekeenik, eta horregatik, ez diogu ikerketan parte har dezan eskatu. Beraz, aipatutako sei ikasleekin egin dugu lan; horietatik bost gizonezkoak izan dira, eta bat emakumezkoa.

Euren hikaren erabilerari dagokionez, Enaitzek adierazi digu gelakide guztien artetik Igorrekin bakarrik egiten duela hiketan (biak lehenengo Batxilergoko ikasleak dira), eta gainontzeko ikaskide ordiziarrekin ez duela erabiltzen. Igorrek ere hika Zaldibian bakarrik hitz egiten duela agertu digu. Hala, horri lotuta, irakasle azpeitiar batek azaldu digu berak ikasle mutilei hika egiten diela, eta ikasleek berari ere hika egin diezaioten eskatzen badie ere, Igorrek “zuka” edo modu neutroan egiten diola. Are, nolabaiteko harridura agertu digu Igorrek hika hitz egiten badakiela adierazi diogunean. Ekhi, DBH 3ko ikasleak, ere ikasgelako lagun guztien artetik Altzagako ikaskidearekin soilik egiten du hika. Beraz, kontu horiek aditzera ematen digutena da Enaitz, Igor eta Ekhiaren hiketa jarduna oso tokian tokikoa dela, eta Igorren kasuan, behintzat, berari hika egite hutsa ez dela nahikoa berak ere hala egin diezaion. Enaitzek, bestalde, hikak gertutasuna transmititzen duela adierazi digu.

Josuk, DBH 4ko ikasleak, adierazi digu ez dagoela neskarik hika egiten dionik. Koadrilako mutilen artean hika hitz egiten dute, eta gelako mutilei ere toka hitz egiten die, besteek hala erantzun ez arren. Irakasle zenbaitekin eta lehengusuekin ere toka hitz egiten du. Anerrek (bera ere DBH 4ko ikaslea) ere Josuren koadrilakoa izanik, ohitura bertsuak ditu. Koadrilan hika hitz egiten du mutilen artean, baina neskei zuka egiten die. Gelakide mutilei eta zenbait irakasleri ere toka egiten die, eta familia kideei dagokienez, aitari eta aitonari ere hika hitz egiten die. Eta azkenik, Saioak (bera ere DBH 4ko ikaslea) azaldu digu bere egunerokoan hika (toka) asko entzuten badu ere, ez duela inorekin hika hitz egiten. Hortaz, Josurekin eta Anerrekin hika hitz egitea guk hala eskatuta egin duen saiakera izan da; gainerakoan eurekin “zuka” edo era neutroan mintzo da, baita gainontzeko lagun edo norbanakoekin ere.

4. Ikasleen adizki alokutibo, neutro eta gainerakoen deskribapena

4.1 Josuren adizkien deskribapena

4.1.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Josuk eskainitako tokako adizki perifrastikoei erreparaturik, NOR saileko tokako lau forma alokutibo bildu ditugu. Horietatik forma bakarra jaso dugu galdetegi bitartez:

- *Bea gaztea izango baluan, gukin geauko uan*, 'bera gaztea izango *baluan, gurekin geratuko zuan'.

Beste hirurak elkarriketa libretik, beraz:

- *Zarautza jun nitxoan*, 'Zarautza joan ninduan'.
- *Ane ta Anartz jutettuk Aiegia*, 'Ane eta Anartz joaten dituk Aiegira'.
- *Goizen jutek zortzitan, da ezte**k** bueltatzen, bo, oain gutxigo*, 'goizean joaten duk zortzietan, eta ez duk bueltatzen, beno, orain gutxiago'.

Baina jaso ditugu forma neutroak ere; hiru guztira. Bi galdetegi bitartez, bat elkarriketa libretik. Galdetegitik eskuratutako biak dira honakoak:

- *Eozin momentutan pasa leike*, 'edozein momentutan pasatu liteke'.
- *Atzoako buka zeiken*, 'atzoko buka zezakeen'.

Elkarriketa librean aditu duguna da, ostera, honakoa:

- *Guri, jun giñen, esan ziguen autobus denak fuera*, 'guri, joan ginen, esan ziguten, autobus denak kanpora'.

NOR NORI saila

Sail honetan tokako forma alokutibo bakarra bildu dugu, eta hura galdetegi bidez:

- *Aragie gustatzen zaiak*, 'haragia gustatzen zaidak'.

Gehiago izan dira bildu ditugun forma neutroak, bi, alegia; horiek ere galdetegi bidez:

- *Aragie gustatzen zaio*, 'haragia gustatzen zaio'.
- *Leno aragie gustatzen zitzaion*, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.

NOR NORK saila

Nabarmenki gailendu dira NOR NORK saileko adizkiak. Galdetegi bitartez tokako hamabi forma alokutibo jaso ditugu, eta elkarriketa libretik, berriz, zazpi. Galdetegi bidez eskuratutako batzuk dira ondorengoak:

- *Gaur gutxi jan diat, 'gaur gutxi jan diat'.*
- *Gutxi jan dik gaur, 'gutxi jan dik gaur'.*
- *Gar asko jan diau, 'gaur asko jan diagu'.*
- *Kotxe bat eosi zien, 'kotxe bat erosi zitean'.*

Elkarriketa librean entzundakoen artetik, honako hauek ekarriko ditugu:

- *Ne amonak artuizkik bi bakuna o, 'nire amonak hartu dizkik bi txerto edo'.*
- *Ni gustoa jungo nitxoan, baño ezin nian da..., 'ni gustora joango ninduan, baina ezin nian eta...'.*
- *Beno, emateik gaztegoa, 'Beno, ematen dik gazteagoa'.*

Baina, NOR NORK sailean ere aditu diogu forma neutro bat Josuri. Galdetegi bitartez jaso dugu, eta honako hau izan da:

- *Asko ean due, 'asko edan dute'.*

Dena den, kontuan izatekoa iruditzen zaigu forma bakoitza eskuratu dugun iturria ere. Beti ere, gure ustez, elkarriketa libretik bildutako datuek fidagarritasun handiagoa agertuko lukete galdetegi bidez lortutakoek baino, elkarriketa libretik lortutako formak hiztunari bat-batean, oharkabea eta bere barrutik egiazki sortzen zaizkionak baitira, batere pentsatu gabe, alegia.

NOR NORI NORK saila

NOR NORI NORK saileko tokako adizkiak bost bildu ditugu galdetegitik, eta bakarra elkarriketa libretik. Galdetegitik eskuratutakoen artean daude ondorengoak:

- *Bei bat saldu zoat karnizeroi, 'behi bat saldu zioat harakinari'.*
- *Bei batzuk saldu zizkiok karnizeroi, 'behi batzuk saldu zizkiok harakinari'.*
- *Nik saldu nitxoan bei bat arakiñai, 'nik saldu nioan behi bat harakinari'.*

Eta elkarriketa librean entzun dugun sail honetako tokako forma bakarra dugu honakoa:

- *Esan ziguan irukoa atea ta ala re, irukokin gustoa eon bear genula, 'esan ziguan hirukoa atera eta hala ere, hirukoarekin gustoa egon behar genuela'.*

Bestalde, sail honetan esanguratsua edota aipagarria iruditzen zaigu tokako forma alokutiborik gabeko NOR NORI NORK saileko adizkiak hiru izatea galdetegi bitartez lortutakoak; bakarra izan da elkarriketa librean entzundakoa. Galdetegi bitartez eskuratutako batzuk dira hauek:

- *Artzaiek pentsua eman die ardiri, 'artzaiek pentsua eman diete ardiei'.*
- *Karamelo bat eman zion beak, 'karamelo bat eman zion berak'.*

- *Artzaiek nai zuen guztiri salduje gazta*, ‘artzaiek nahi zuten guztiari saldu diote gazta’.

Elkarriketa librean entzundako ale bakarra, berriz, hau da:

- *Guri, jun giñen, esan ziquen autobus denak fuera*, ‘guri, joan ginen, esan ziguten, autobus denak kanpora’.

4.1.2 Tokako adizki sintetikoak

Tokako adizki sintetikoei heldurik, tokako hamahiru forma alokutibo bildu ditugu galdetegi bidez, eta lau elkarriketa libretik; hemezortzi orotara. Forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak, ostera, zazpi jaso ditugu galdetegitik eta bakarra eztabaida libretik; zortzi guztira. Ia erdia. Baina aditzetik aditzera aldea dagoela ere adierazi behar dugu. Esaterako, IZAN adizkietan hiru forma alokutibodun jaso ditugu, bi galdetegi bidez:

- *Bea gaztea ek*, ‘bera gaztea duk’.
- *Bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.

Eta beste bat elkarriketa libretik:

- *Oi dek balkoia zekek*, ‘hori duk balkoia zeukak’.

Ez dugu IZAN adizkiaren forma bakarra ere entzun entzulearen marka maskulinorik ez duenik. Gauza bera esan dezakegu EGON eta ETORRI adizkiei buruz ere. Hau da, ez dugu bildu EGON eta ETORRI adizkiei dagokien forma neutrorik. EGON adizkiak hiru eskuratu ditugu denera, bi galdetegi bidez:

- *Lo zeok*, ‘lo zegok’.
- *Etxen zeoan deitu nianen*, ‘etxean zegoan deitu *nianeane’.

Bakarra elkarriketa libretik:

- *Kontue earki etzeok ta*, ‘kontua ederki ez zegok eta’.

ETORRI adizkiak, aldiz, bi bildu ditugu. Horiek biak galdetegi bidez:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik*, ‘nire aita orain zeturrek merkatutik’.
- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zeturrean Pedrorrekin elkartu *zuaneane’.

JOAN adizkiei dagokienez, berriz, bakarra entzun dugu forma alokutiboduna; hura galdetegi bidez:

- *Ne andrea gaur Baiona zijok*, ‘nire andrea gaur Baionara zoak’.

Forma neutro bana ere jaso dugu, ordea, galdetegi zein elkarriketa libretik. Galdetegi bidez lortutakoa da lehenengoa, eta elkarriketa librean entzundakoa bigarrena:

- *Istripue pasau uanen, bea etxeaka zijen*, ‘istripua pasatu *zuaneane, bera etxerantza zihoaan’.
- *Luze dijo, e, luze*, ‘luze doa, eh, luze’.

Hortaz, JOAN adizkien kasu bakanek ez menperatzeko joera handiagoa erakusten dute menperatzekoa baino. IBILI eta ERAMAN aditzak ere ezin esan genezake menperatze bidean

daudenik. Hori ziurtatzeko lekukotasun gehiago beharko genituzke, baina adizki bakoitzean forma alokutibodun eta forma neutro bana entzun dugu. Galdetegi bidez lortutako IBILI adizkiaren tokako forma alokutiboa eta forma neutroa dira ondorengoak, hurrenez hurren:

- *Mendin zebiyek*, 'mendian zebilek'.
- *Mendin zebiyen enteatu uanen*, 'mendin zebilen zerbaiten berri izan *zuanean'.

ERAMAN adizkiaren bi formak ere galdetegi bidez lortu ditugu. Ondorengoetatik lehenengoa tokako adizkia da; bigarrena neutroa:

- *Ikusi nianen txakurre etxea zematikian*, 'ikusi *nianeane txakurra etxera zeramaan'.
- *Arropa buru gañen damaki*, 'arropa buru gaineane darama'.

EDUKI eta JAKIN adizkiek, berriz, zalantza sortu digute menperatzen dituen edo ez esaterako garaian. Izan ere, menperatzeko joera handiagoa erakusten badute ere, ditugun adibideen kopurua txikia izanik, forma neutro bat egote hutsak pisu handi edo esanguratsua hartzen du lortu ditugun bi eta hiru forma alokutibodunen ondoan. Hau da, EDUKI adizkietan nahiz JAKIN adizkietan tokako bina adizki alokutibo eskuratu ditugu galdetegi bidez, eta bana entzun dugu, berriz, elkarrietzeta librean. Horregatik, adibide edo lekukotasun gehiago beharko genituzke auzia argitzeko. Ondorengo hauetatik aurreneko biak galdetegi bidez lortutako EDUKI adizkiak dira, eta hirugarrena, lehenengoaren forma berbera, elkarrietzeta librean aditutakoa:

- *Oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- *Etxe politte bat zeukean*, 'etxe polit bat zeukean'.
- *Oi dek balkoia zekek*, 'hori duk balkoia zeukak'.

Galdetegi bidez lortutako JAKIN adizkiaren tokako forma alokutiboak dira hurrengo adizkietatik lehenengo biak, eta hirugarrena elkarrietzeta librean entzundakoa da:

- *Oi bazekiat nik*, 'hori bazekiat nik'.
- *Etzekik eze*, 'ez zekik ezer'.
- *Ire attak zeoze esateik? Etzekiat*, 'hire aitak zer edo zer esaten dik? Ez zekiat'.

Azkenik, EKARRI aditzarekin agertu du Josuk gabeziarik handiena, galdetegi bidez eskatu dizkiogun bi aditzak era neutroan itzuli baitizkigu:

- *Erropa buru gañen dakarki*, 'arropa buru gaineane dakar'.
- *Beak buru gañen arropa zekarkin*, 'berak buru gaineane arropa zekarren'.

Elkarrietzeta libreak, aldiz, ez du EKARRI aditzari dagokion inolako formarik eskaini. Beraz, ditugun datuekin esan genezake IZAN, EGON eta ETORRI adizkien forma alokutiboak direla Josuk ondoen menperatzen dituenak. EDUKI eta JAKIN adizkiek menperatzeko joera handiagoa badute ere, ez ditugu hain sendo ikusi, eta JOAN, IBILI, ERAMAN eta EKARRI adizkiek erakutsi digute ez menperatzearen joera handiena, hutsune edo galera handiena EKARRI adizkian egonik.

Forma berriak eta asmatuak

Josuren tokako forma alokutibo berriak nahiz asmatuak identifikatzen ere ahalegindu gara. Hala, forma berrien artean sailkatu ditugu zortzi. Horietatik sei galdetegitik, honako hauek:

- *Pedro lenao atea izan bauan etxetio, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera izan *bazuan etxetik, honezkero hemen izango zuan’.
- *Len aragie gustatzen zaiaken*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidaan’.
- *Istripue pasau uanen bea etxeaka zijon*, ‘istripua pasatu *zuanean bera etxerantza zihoan’.
- *Et xen zeoan deitu nianen*, ‘etxean zegoan deitu *nianeanean’.
- *Bazekiat zertan ai naken*, ‘bazekiat zertan ari *nauken’.
- *Bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.

Horiek berriztat jo ditugu batetik, baldintzako protasian nahiz menpeko perpaus guztietan alokutiboa sartzea fenomeno nahiko berriztat dugulako, eta bestetik, *zaiaken* formak *-k* morfema duelako *-a* zaharragoa beharrean, eta gainera, orainaldiko adizkiaren gainean eraiki duelako lehenaldiko forma. Dena den, zalantza dugu *zaiaken* euskara batuko ‘zitzaidaan’ litzatekeena forma berria edo asmatua den. Saroi Jauregi zaldibitarrek adierazi digu berak ez diola inori aditu, bere adineko nahiz zaharragoei ez, bederen. Ondorioz, asmatua da, edo gazteen berrikuntza izan liteke.

Elkarriketa libreak, ostera, ale hauek utzi dizkigu:

- *Ze esan dek Aner? Euneke eun dekela, probabilitatea beste orrena?*, ‘Ze esan duk Aner? Ehuneke ehun *dukela probabilitatea beste horrena?’.
- *Kalderak eskatzeizkiken*, ‘galdarak eskatzen *dizkiken’.

Bi horiek ere menpeko perpauseko forma berriak dira.

Forma asmatuen artean, berriz, bat jo dugu garbiki asmatutzat; galdetegi bidez entzun dugun haxe:

- *Bea gaztea baluan, gukin geauko uan*, ‘bera gaztea *baluan, gurekin geratuko zuan’.

Aditz aldaketak

Aurreko guztiaz gain, gertatu dira bilakabide bitxiak galdetegi bidez tokako forma alokutiboak eskuratzeko garaian. Hona hemen horien lekukoak:

- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bado, lana oain bukau leike*, ‘nahi badu, lana orain buka liteke’.
- Igual tzaten → *igual tzaiak*, ‘berdin zaidak’.
- Atzo semea etorri zaten etxea → *atzo semea etorri, etorri uan etxea*, ‘atzo semea etorri zuan etxera’.
- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuen guztiri salduie gazta*, ‘artzaiek nahi zuten guztiari saldu diete gazta’.
- Nik in neiken → *nik in neike*, ‘nik egin nezake’.

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen dakarki*, ‘berak arropa buru gaineak dakar’.
- Bei bat saldu genion arakiñai → *bei bat saldu genian arakiñai*, ‘behi bat saldu genian harakinari’.

Lehen kasuan eskatu zaion aditzaren denbora orainalditik hipotetikora aldatuta itzuli digu era neutroan. Bigarren kasuan iraganeko tokako forma alokutiboa eskatu, eta orainaldiari dagokion ordaina eman digu. Hurrengo kasuak, berriz, sailez aldatu du, hain zuzen, NOR NORI saileko tokako forma alokutibodun ordaina eskatu, eta NOR saileko forma itzuli digu. Aipatzekoa iruditzen zaigu bigarren adibidea, lehenalditik orainaldira jauzi egin duen kasua, alegia, eta hirugarren adibidea NOR NORI sailekoak izatea. Pertsonaz ere aldatu du laugarren kasuan, baina horretan forma neutroa eskaini digu, baita lehenalditik hipotetikora salto egin duen bosgarren adibidean ere. ERAMAN aditza eskatu eta EKARRI aditzaren forma neutroa itzuli digu, aldiz, beste kasu batean, eta horren atzetik datorren kasuak sail aldaketa erakusten du, NOR NORI NORK sailetik NOR NORK sailera aldatu baita, hain zuzen. Gertakari horien arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeelakoan gaude. Esaterako, izan daiteke ahalerako adizkiak ez hain ondo kontrolatzea, edo orainaldiko formak hobeto menperatzea lehenaldikoak baino, eta NOR NORI saila ere ez hain errotua izatea, eta ondorioz, NOR saileko aditz forma sinpleagoak erabiltzea horien orde. Bestalde, ondo identifikatzen eta azaltzen ez dakigun bestelako errore edo gabezia batzuk ere egon daitezke tartean, horien lekuko lirateke laugarren eta seigarren kasuak. Badakigu *nai zon* forma neutroaren tokako ordain alokutiboa (*zian*) ezagutzen duela, bai galdetegi bidez, bai elkarriketa libretik entzuteko aukera izan baitugu. Ez dakigu azaltzen, berriz, zergatik ERAMAN adizkitik EKARRI adizkira iragan den. Ondo entzun ez digulako? Izan ere, ERAMAN adizkiaren forma alokutibo eta neutroak ere bildu ditugu, beraz, aditza ezagutu ezagutzen du. Bosgarren adibideak, osteraz, adieraz lezake iraganeko formak baino hipotetikoak errazagoak egitea edo tokako forma lortze aldera forma hipotetikoak duen ahalerako *-ke* hori tokako morfema maskulinoa adierazten duen *-k*-rekin lotzea, eta soinu hori lehenaldiko *-n* morfema gabe lotzea edota identifikatzea tokako forma alokutiboarekin. Azkenik, erakutsi dugun azken adibideak gorago adierazi dugun hipotesia sendotuko luke, hau da, Josuk ez dituela NOR NORI NORK saileko adizkiak ondo menperatzen. Horien orde, errazagoak, sinpleagoak edo soilagoak egiten zaizkion adizkiak erabil ditzake, NOR NORK sailekoak kasu, dugun adibideak agertzen duen gisara.

4.1.3 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Nokako adizki perifrastikoei erreparatuz gero, adierazgarria iruditzen zaigu NOR saileko lekuko garbirik ere ez bildu izana. Izan ere, NOR saileko adizkia galdetu zaion batean tokako forma eskaini

digu nokakoarekin batera. Hau da, inertziaz edo lehenengo toka atera zaio, eta gero eskaini du nokako forma:

- *Bidea atea nitxok, nitxon, 'bidera atera nauk, naun'.*

Eta nola egin ditu, oro har, orduan Josuk gainerako NOR saileko adizkiak? Bada, tokako formak edo forma neutroak erabilia. Hala, NOR saileko adizkietan tokako forma bat bildu dugu galdetegitik eta sei elkarrizketa libretik; zazpi denera. Galdetegitik ateratakoak dira honako hauek:

- *Neana etortze uan, 'niregana etortzen zuan'.*

Elkarrizketa librean entzundakoak dira, ostera, honakoak:

- *Zarautza jun nitxoan, 'Zarautza joan ninduan'.*
- *Baño, dittuk sozio, baño ba bakoitza bere kotxeekin ibiltze ttuk, osea, 'baina, dituk sozio, baina *ba bakoitza bere kotxearekin ibiltzen dituk, hau da'.*
- *Eozin etortzek mendi buelta bat eman da, "onek ze...", 'edozein etortzen duk mendi buelta bat eman eta, "honek zer...".*
- *Eske atte konfinauta eon uan, 'izan ere, aita konfinatuta egon zuan'.*

Aldiz, forma neutro bat jaso dugu galdetegi bidez eta bi elkarrizketa libretik; lau guztira. Hauxe da galdetegitik bildutako kasu bakarra:

- *Atzoako bukau zeiken, 'atzoko buka zitekeen'.*

Elkarrizketa librean aditu ditugu, berriz, honako bi hauek:

- *Ni beakin eon nitzen, 'ni berarekin egon nintzen'.*
- *Lana in daike, 'lana egin dezake'.*

NOR NORI saila

NOR NORI sailari dagokionez, bi nokako forma eskuratu ditugu galdetegitik:

- *Aragie gustatzen zaián, 'haragia gustatzen zaidan'.*
- *Aragie gustatze zaion, 'haragia gustatzen zaion'.*

Horietaz gain, baina, tokako forma bat zein bi forma neutro ere bildu ditugu. Galdetegi bidez jasotako tokako adizki alokutiboa aurrez agertu dugun hirugarren pertsona singularreko nokako alokutiboari dagokion bera da; honatx:

- *Ondo iruitze zaiak, 'ondo iruditzen zaidak'.*

Bi forma neutroak ere galdetegi bidez egin dizkigu Josuk, eta honako hauek dira:

- *Atzo semea etorri zaten etxea, 'atzo semea etorri zitzaidan etxera'.*
- *Len aragie gustatzen zitzaion, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.*

NOR NORK saila

Hiru nokako forma alokutibo bildu ditugu NOR NORK sailetik. Nokako adizki perifrastikoek, beraz, tokako adizki perifrastikoen joera berbera erakutsiko lukete. Izan ere, oraingo honetan ere, NOR

NORK saileko adizkiak dira nagusi batengatik bada ere, eta nahiz eta NOR NORI NORK sailekoak oraindik ez agertu, horiek lirake galtzaile NOR saileko adizkiekin batera nolabait. Azken hori da desberdin tokako adizkiekin alderatuz gero. Hau da, tokako adizki perifrastikoetan NOR saileko ale batzuk baino gehiago bildu ditugu, behintzat. Esan bezala, NOR NORK saila, beraz, oraingo honetan ere nagusi da, eta lortutako hiru nokako alokutiboak hauexek dira:

- *Gaur gutxi jan diñat*, 'gaur gutxi jan dinat'.
- *Gutxi jan din beak gaur*, 'gutxi jan din berak gaur'.
- *Ne emaztek sagarrak jan dizkin*, 'nire emazteak sagarrak jan ditin'.

Gehiago izan dira, ordea, tokako formak; sei, hain justu, galdetegi bidez bildu ditugunak, eta beste sei elkarrikereta librean aditutakoak. Beraz, orotara hamabi. Galdetegi bidez jaso ditugun artean daude ondorengoak:

- *Len geiegi eate nian*, 'lehen gehiegi edaten nian'.
- *Kotxe bat eosi zian*, 'kotxe bat erosi zian'.
- *Afarin geiegi ean genian*, 'afarian gehiegi edan genian'.

Elkarrikereta librean identifikatu ditugun adibide batzuk dira, berriz, honakoak:

- *Kriston sintomak e etzizkik ematen*, 'kristoren sintomak ere ez dizkik ematen'.
- *Guk ude eosi ber izate genian*, 'guk ura erosi behar izaten genian'.
- *An iturriko udek etzian balio*, 'han iturriko urak ez zian balio'.
- *Anerrek esan dikena*, 'Anerrek esan *dikena'.

Forma neutroei dagokionez, horiek ere batzuk izan dira: bi forma neutro identifikatu ditugu galdetegi bidez, eta beste hiru elkarrikereta librean. Bost guztira. Galdetegitik ateratakoak dira ondokoak:

- *Asko ean due*, 'asko edan dute'.
- *Kotxe bat eosi, eosi zuen*, 'kotxe bat erosi, erosi zuten'.

Elkarrikereta librekoak, oster, honakoak:

- *Pixu baten positibo eman due ta...*, 'pisu batean positibo eman dute eta...'.
- *Jun ber du eozin tabernata ta, "i, au..."*, 'joan behar du edozein tabernatara eta, "hi, hau..."
- *Osabak. Geo eukikottu*, 'osabak. Gero edukiko ditu'.

Beraz, nokako forma alokutiboetan NOR NORK saileko adizkiak ugariak izan badira ere, gehiago izan dira erabili dituen tokako formak nahiz neutroak.

NOR NORI NORK saila

Ez dugu sail honi dagokion nokako aditz alokutibo bakarra ere bildu. Eta nola egin ditu, oro har, Josuk NOR NORI NORK saileko adizkiak? Bada, forma neutroak erabilia, baina baita aditzak asmatuta ere (azken horiei aurrerago helduko diegu). Baina hori agian ez da hain harrigarria, aurrez ikusi baitugu tokako NOR NORI NORK saileko formak ere ez dituela guztiz menperatzen, forma neutro dezente eman baititu sail horretako adizkiekin ere. Horregatik, forma neutroa izan du

aterabide bakar nokako NOR NORI NORK saileko adizkien ordaina ematerako garaian, aditz asmatuak salbuetsita. Beraz, azken horiez gain, esan bezala, NOR NORI NORK sailaren kasuan jaso ditugun formak neutroak izan dira; sei galdetegi bidez eta bakarra izan da elkarriketa libreak emandakoa. Galdetegi bidez bildu ditugun artean daude hauek:

- *Bei batzuk salduizkio karnizeroi*, 'behi batzuk saldu dizkio harakinari'.
- *Artzaiek pentsue eman die ardii*, 'artzaiek pentsua eman diete ardiei'.
- *Neonek saldu nion bei bat arakiñai*, 'neronek saldu nion behi bat harakinari'.

Elkarriketa libren entzun dugu, berriz, honako hau:

- *Oain Seguran, esan zian eztakit zenbateko presupuestoko lana zabiyele*, 'orain Seguran, esan zidan ez dakti zenbateko aurrekontuko lana zebilele'.

4.1.4 Nokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoei dagokienez, adierazi behar dugu EKARRI eta ERAMAN adizkiak salbuetsita, gainerako adizki guztietan eman digula Josuk nokako forma alokutiboaren ordain bat gutxienez. Baina nokako formez gain, tokako formarik edo forma neutrorik ere bildu dugu guztietan. Hala, IZAN adizkietan galdetegi bidez nokako forma bat bildu dugun bezala, entzun dugu tokako forma bat elkarriketa librean. Ez dugu forma neutrorik identifikatu IZAN adizkietan ez galdetegi bidez, ez elkarriketa librean. Erakuts dezagun, dena den, esandakoa lekukotasunen bitartez. Jasotako nokako adizki alokutiboa honakoa da:

- *Bea gaztea den*, 'bera gaztea dun'.

Toka nokaren ordeaz erabili duen kasua dugu, aldiz, hau:

- *Ude, zea itsasoa ek kristalinoa*, 'ura, zera itsasoa duk gardena'.

JOAN adizkiei dagokienez, nokako formaz gain, forma neutro bat jaso dugu elkarriketa libretik. Nokako alokutiboa hau dugu:

- *Ne andrea gaur Baiona zijen*, 'nire andrea gaur Baionara zion'.

Elkarriketa libreko forma neutroa, berriz, ondorengoa da:

- *Istripue pasau uanen, bea etxeaka zijen*, 'istripua pasatu *zuanean, bea etxerantza zihan'.

EGON adizkietan, osteraz, nokako forma bat eta tokako bi forma entzun ditugu, bana galdetegi bidez eta elkarriketa librean. Adizki neutrorik, berriz, ez dugu bat bera ere identifikatu. Hala, bildutako nokako ale bakarra honakoa da:

- *Lo dao → lo zeon*, 'lo zagon'.

Toka nokaren ordeaz erabili dituen bi adibideak, aldiz, ondokoak dira; lehenengoa galdetegi bidez eskuratu dugu, eta bigarrena elkarriketa libretik:

- *Etxen zeoan deittu nianen*, 'etxean zegoan dietu *niane'.
- *Eske Aner gaizki ottua zeok*, 'izan ere, Aner gaizki ohituta zegok'.

ETORRI adizkiei begiraturik, EGON adizkien modu bertsuan jokatu dute horiek, nokako forma bakarraz gain, tokako forma bat bildu baitugu galdetegi bidez, eta forma neutrorik bat bera ere ez. Nokako alokutiboari heldurik, hauxe da Josuk eskainitakoa:

- *Ne atte oain zeturren merkatutik*, 'nire aita orain zeturren merkatutik'.

Toka nokaren ordezkari erabili du, aldiz, honako honetan:

- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu zanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin elkartu zenean'.

IBILI adizkiek galdetegi bidez lortutako nokako forma eta forma neutro bana eman digute. Nokako alokutiboa hauxe dugu:

- Mending dabil → *mending zebiyen*, 'mending zebilen'.

Neutro egin duena honakoa da:

- *Mending zebiyen enteatu uanen*, 'mending zebilen zerbaiten berri izan *zuanean'.

EDUKI eta JAKIN adizkiak izan dira denetariko joera erakutsi dutenak, nokako, tokako eta forma neutroak agertu baitituzte. Hala, bi adizkietan bildu dugu nokako forma alokutibo bana galdetegi bidez. Ikus dezagun galdetegi bidez lortutako EDUKI adizkiaren nokako aditz alokutiboa:

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zeken*, 'oso etxe polita zeukan'.

Elkarrizketa librean, aldiz, EDUKI adizkiaren tokako bi forma identifikatu ditugu nokakoen ordezkari:

- *Bi kotxe bazezkeau*, 'bi kotxe bazezkeagu'.
- *Zekek garaje bat, atikoa...*, 'zeukak garaje bat, atikoa...'

Eta hiru izan dira EDUKI adizkitik bildutako forma neutroak. Horietako bi galdetegi bidez:

- *Etxe bat neken*, 'etxe bat neukan'.
- Etxe polit bat zeukan → *etxe politte bat zeken*, 'etxe polit bat zeukan'.

Elkarrizketa librean galdetegi bidez entzun dugun baten forma bera den beste hau identifikatu dugu:

- *Inmunitate oi neken*, 'inmunitate hori neukan'.

JAKIN adizkiei berriro heldurik, aipatu dugu nokako adizki alokutibo bat galdetegi bidez bildu dugula. Hauxe izan da, hain zuzen:

- *Oi bazekiñat*, 'hori bazekinat'.

Tokako formen kopurua, baina, handiagoa da JAKIN adizkietan, lau entzun baititugu guztira; bi galdetegi bidez:

- *Bazekik zertaz ai nitxoken*, 'bazekik zertaz ari *nauken'.
- *Etzekik eze*, 'ez zekik ezer'.

Eta beste bi elkarrizketa librean:

- *Baño leno esate zien sei iyabete ittuala inmunitatea, oain iru... nik etzekiat*, 'baina lehen esaten zitean sei hilabete *zituala inmunitatea, orain hiru... nik ez zekiat'.
- *Eske oaindik etzekiau zer deken obena. Ematea o ez*, 'izan ere oraindik ez zekiagu zer *duken onena. Ematea edo ez'.

Forma neutroak, aldiz, EDUKI adizkiek baino ale bat gutxiago bildu dute: bi guztira; bat galdetegi bidez eskuratutakoa:

- *Ne amak oso oso ondo zekin josten*, 'nire amak oso oso ondo zekien josten'.

Eta bestea elkarriketa libretik:

- *Oain Seguran, esan zian eztakit zenbateko presupuestoko lana zabiyla*, 'orain Seguran, esan zidan ez dakit zenbateko aurrekontuko lana zebilela'.

Azkenik, gorago adierazi bezala, EKARRI eta ERAMAN adizkiak izan dira adizki sintetikoetan nokako forma alokutibodun kasurik eman ez diguten bakarrak. Bi adizkietan galdetegi bidez lortutako forma neutroak soilik eskaini dizkigu Josuk, tokako forma alokutiborik gabe. EKARRI adizkietan bi forma neutro erabili ditu:

- *Arropa buru gañen dakarki*, 'arropa buru gaineen dakar'.
- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañen erropa zerkarkin*, 'berak buru gaineen arropa zekarren'.

Eta ERAMAN adizkietan, berriz, neutro bakarra:

- *Beak arropa buru gañen damaki*, 'berak arropa buru gaineen darama'.

Aurrez ere ikusi dugu tokako forma alokutiboetan EKARRI adizkiekin ez dugula tokako formarik entzun, beraz, nekez entzungo dugu nokako formekin ere. Eta ERAMAN adizkiek ere ez digute erakutsi guztiz menperatzeko joerarik, hortaz, Josuk tokako adizkietan dituen gabezia edo ahulguneak nokako formetan ere islatzen direla esan dezakegu. Beraz, guztira, adizki sintetikoetan nokako formak zazpi izan dira, tokakoak eta neutroak hamarna. Horiek biak nagusi.

Forma asmatuak

Nekez espero dugu nokako forma berririk noka bera bizirik ez dagoen hiztun baten ahotan, baina bai, ordea, forma asmatuak. Gorago adierazi bezala, Josuk NOR NORI NORK sailean eskaini dizkigu forma asmatuak, eta guztiak galdetegiaren bitartez lortu ditugu; sei izan dira:

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu ziñoat karnizeroi*, 'behi bat saldu *zinoat harakinari'.
- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat saldu ziño karnizeroi*, 'behi bat saldu *zino harakinari'.
- Arakiñai bei bat saldu diou → *arakiñai bei bat saldu ziñou*, 'harakinari behi bat saldu *zinou'.
- Istorio oi attei attu diote → *istorio oi attei attu ziote*, 'istorio hori aitari aditu *ziote'.
- Karamelo bat eman zion beak → *karamelo bat eman ziñon beai*, 'karamelo bat eman *zinon berari'.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontau ez baziñon, egie zala sinestuko ziñan*, 'ehiztariak istorio hoi kontatu ez *bazinon, egia zela sinetsiko zinan'.

Ikus daitekeenez *-i-* erroaren ostean hitanoaren morfema femenino den *-n* sartu, eta bustira egin du, *attu zio*te kasuna izan ezik. Beste batean, berriz, morfema femeninoaz gain, *-a* maskulinoa ere sartu du: *saldu ziñoa*t. Forma asmatu horiek guztiek berriz ere indartuko lukete NOR NORI NORK sailean Josuk duen forma alokutiboen gabezia.

Aditz aldaketa

Josuk eskainitako adizkiekin amaitzeko, nokako formak ematerako garaian ere gertatu dira fenomeno bitxiak tokako formak ematerakoan gertatu bezala. Hori horrela, bi kasuk indikatibora salto egin dute. Kasu batek baldintzerako apodositik indikatiborako jauzia egiteaz gain, hipotetikotik iraganaldira igarotzeko urratsa ere eman du:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istorio guztia kontatzeko luzegie izango uan*, 'istorio guztia kontatzeko luzeagi izango zuan'.

Eta beste kasua, berriz, ahaleratik mugitu da indikatibora, eta orainaldiko forma beharrean, lehenaldiko forma eman du:

- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai izan ezkeo, oain bukako ziñan*, 'nahi izanez gero, orain bukatu zinan'.

Bi adibide horiek agian adieraz lezakete baldintzera eta ahalera baino errazagoa edo soilagoa dela Josurentzat indikatiboko formak erabiltzea, eta gainera, indikatiboko lehenaldiarekin egingo lituzkeela moldaketa horiek. Beste hiru kasuk, aldiz, pertsona aldaketak erakutsi dituzte. Bik nokako forma alokutiboa agertu dute:

- Gaur asko jan deu → *gar asko jan din*, 'gaur asko jan din'.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat*, 'behi batzuk saldu zizkionat'.

Hirugarrenak ez, ordea:

- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuen guztiri saldu diote gazta*, 'artzaiek nahi zuten guztiari saldu diote gazta'.

Pertsona aldaketa erakutsi duen lehenengo adibidean lehenengo pertsona pluraletik hirugarren pertsona singularrera igarotzen da, eta bigarren adibidean, oster, kontrakoa; hau da, hirugarren pertsona singularretik lehenengo pertsona singularrera. Hirugarren adibidea, aldiz, gaizki ulertu baten ondorio edo izan daitekeela pentsa daiteke, ez baitu hirugarren pertsona singularretik pluralerako jauzia besterik egin. Adibide gutxi ditugu hori esateko, baina baliteke NORK hirugarren pertsona singularra hobeto menperatzea NORK lehenengo pertsona plurala dutenak baino. Izan ere, NORK lehenengo pertsona NORK hirugarren pertsonara aldatu den kasuan, pluraletik singularrera ere aldatu da, eta NORK hirugarren pertsona lehenengo pertsona singularrera aldatu denean, lehenengo pertsonak singularra izateari eutsi dio.

4.2 Saioaren adizkien deskribapena

4.2.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Saioak eskainitako adizki sortari begira jarririk, lehenik tokako adizki perifrastikoei erreparatuko diegu. Horiek, oro har, ezagutzen eta erabiltzen badakiela erakutsi digu, baina tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutroek ere badute pisua eta zeresana. NOR saileko tokako adizkiak hamahiru jaso ditugu orotara, hiru galdetegi bidez eta hamar elkarriketa libretik; azken horiek izanik, gure ustez, benetako errealtatearen lekuko leial edota fidagarrienak. Horregatik, kopuru horrek tokako NOR saileko formak ezagutzen eta erabiltzen badakiela erakusten digulakoan gaude. Baina ikus ditzagun zein diren galdetegi bidez eta elkarriketa bidez Saioak toka egindako aditzak. Galdetegi bidez lortutako hirurak erakutsiko ditugu lehenik:

- *Bea gaztea izango bauan, gukin geatuko uan*, 'bera gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko zuan'.
- *Eozin momentutan pasa zeikek*, 'edozein momentutan pasa zitekek'.
- *Bidea atea nixok*, 'bidera atera nauk'.

Elkarriketa librean aditu eta identifikatu ditugun tokako adizki alokutiboen adibideak dira, berriz, hauek:

- *Gaixo eon dek²*, 'gaixo egon duk'.
- *Pasa in gattuk piyo bat. Pasa in gattuk*, 'pasatu egin gaituk pilo bat. Pasa egin gaituk'.
- *Ni jun nixoan aurreko urten Araba kanpiña pare bat gauetako*, 'ni joan ninduan aurreko urtean Arabara kanpinera pare bat gauetarako'.
- *Jun giñuztean ondoko erria, Santo Domingoa*, 'joan gintuan ondoko herrira, Santo Domingora'.

Dena den, tokako formak ia bezainbat lekukotu zaizkizgu NOR saileko adizki neutroak ere, zortzi, hain zuzen, guztiak elkarriketa libretik lortuak, eta bat bera ere ez galdetegi bidez. Beraz, elkarriketa librean entzundako tokako forma perifrastikoak baino bi gutxiago besterik ez dira izan jaso ditugun tokarik gabeko adizki neutro perifrastikoak. Hona hemen batzuk:

- *Ire atten lana gogorra izangoa, baño...* 'hire aitaren lana gogorra izango da, baino...'.
- *Izan tzan³ ire osaba jun omen uan bazkarin batea o ola*, 'izan zen hire osaba joan omen zuan bazkariren batera edo horrela'.
- *Aurreko urten etzan etorri*, 'aurreko urtean ez ziren etorri'.

² Aldaera hau ere entzun dugu: *biajea luzea izango ek*, 'bidaia luzea izango duk'.

³ Beste aldaera hau ere agertzen da: *etzan*, 'ez zen'.

- *Ta ne atta ta bea ai zien bizikletan*, 'eta nire aita eta bera ari ziren bizikletan'.

NOR NORI saila

NOR NORI sailari dagokionez, berriz, galdetegi bidez soilik lortu ditugu tokako bi forma, eta horietatik bigarrena inkestatzailearen laguntzarekin:

- *Ondo iruitzen zaiak*, 'ondo iruditzen zidak'.
- *Aragie gustatzen zaiok*, 'haragia gustatzen zaiok'.

Elkarriketa libretik ez dugu bat bera ere bildu. Hortaz, NOR NORI saileko tokako adizkiak ezin esan jori darabiltzanik Saioak. Eta ezagutza ere zalantzazkoa dela esango genuke, galdetegi bidez tokarik gabeko adizki neutro bakarra eskaini badigu ere, elkarriketa librean lau erabili baititu. Ikus dezagun lehenik galdetegi bidez Saioak eman duen forma neutroa, bera lehenaldikoa:

- *Leno aragie gustatzen zitzaion⁴*, 'lehenago haragia gustatzen zitzaion'.

Elkarriketa librean, esan bezala, gehiago erabili ditu:

- *Gratis ateako zaiu*, 'dohainik aterako zaigu'.
- *Tentsioa dexente jetsi omen zitzaion*, 'tentsioa dezente jaitsi omen zitzaion'.
- *Beti beti denai ezezkoa esaten zion*, 'beti beti denari ezezkoa esaten zion'.
- *Osea, egunero jutek oñez paseatzea Itsasondoa, ala gustatzen tzaio da*, 'hau da, egunero joaten duk oinez paseatzera Itsasondora, hala gustatzen zaio eta'.

NOR NORK saila

NOR NORK saileko aditzak dira sarrien darabiltzanak. Hamabost tokako forma bildu ditugu galdetegi bidez eta beste hamaika elkarriketa libretik. Galdetegi bidez lortuko zenbait adibide jarriko ditugu lehenik agerian:

- *Gaur asko jan diau*, 'gaur asko jan diagu'.
- *Ne emaztek sagarrak jan dizkik*, 'nire amak sagarrak jan dizkik'.
- *Len geiegi eate nian*, 'lehen gehiegi edaten nian'.
- *Nik in nezake → nik in tzeikeat*, 'nik egin zezakeat'.

Azkeneko adibidean kontuan izan behar dugu Saroi Jauregik adierazitakoa. Alegia, Zalbidian antza, ahalerako aditz hipotetikoa ez da erabiltzen, edo ez da batere ohikoa. Ia guztia orainaldiko adizkiarekin egiten dute, lehenaldikoa ez bada, behintzat. Horregatik, uste dugu Saioaren aditza funtsean denbora aldaketa bada ere, bere herriko hizkeran ohikoa den orainaldiko tokako adizkia erabili duela, eta aditz aldaketa horrek ez duela hutsunerik adierazten.

Elkarriketa librekoak ere bistaratuko ditugu:

- *Pentsa genian Naparro aldea ola jutea*, 'pentsatu genian Nafarroa aldera horrela joatea'.

⁴ Dena den, Saioa ohartu da ez dela hori tokako forma; *gustatzen zitzaion* esan eta berehala adierazi du hori 'ez' baten bitartez. Gero, forma asmatu bat eskaini du. Ikus forma asmatuetan.

- *Ne aittonak bigarrena jaso zian aurreko asten*, ‘nire aitonak bigarrena jaso zian aurreko astean’.
- *Nik kasi kasi naiago nian aurrenekon positibo eman*, ‘nik kasik nahiago nian aurrenekoan positibo eman’.
- *Ingoiau lan politta*, ‘egingo diagu lan polita’.

NOR NORK saileko forma neutroak ere bildu ditugu, ordea; hiru galdetegi bidez:

- *Geiegi ean zuen*, gehiegi edan zuten’.
- *In deiket*, ‘egin dezaket’.
- *Nik in neiken*, ‘nik egin nezakeen’.

Eta beste bost elkarrizketa libretik jaso ditugu. Horietatik hiru ekarriko ditugu hona:

- *Naiagoet kasi kasi itxoin, da aber ze pasatzeken*, ‘nahiago dut kasik itxaron, eta ea zer pasatzen *duken’.
- *Aditzek eta etzittun ondo zeatzen*, ‘aditzak eta ez zituen ondo zeratzen’.
- *Neska emateu*, ‘neska ematen du’.

NOR NORI NORK saila

Eta adizki perifrastikoetan azkenik, NOR NORI NORK sailetik, bederatzi tokako forma lortu ditugu galdetegi bidez, eta hiru elkarrizketa libretik. Hona hemen galdetegitik eskuratu ditugun batzuk:

- *Bei bat saldu zoat karnizeroi*, ‘behi bat saldu zoat harakinari’.
- *Bei bat saldu ziok karnizeroi*, ‘behi bat saldu zioak harakinari’.
- *Istorio oi aittei attu diote → istorio ua aittei attu ziek*, ‘istorio hura aitari aditu ziotek’.
- *Karamelo bat eman zioan beak*, ‘karamelo bat eman zioan berak’.

Elkarrizketa librean entzundako hirurak, berriz, hauek dira:

- *Oain nei esaten tziak Caceresea juteko, ta ni enitxoan jungo*, ‘orain niri esaten zidak Caceresa joateko, eta ni ez ninduan joango’.
- *Lengo urten asi uen kobie, asi uen kobie, ta eskeñi ziguean juteko*, ‘lehengo urtean hasi zuan Covida, hasi zuan Covida, eta eskaini zigutean joateko’.
- *Etzekiat, ta amai esate nioan ta esaten tzian “bat jateatik etzaizu eze gertau bear, ta bost jateatik e ez”*, ‘ez zekiat, eta amari esaten nioan eta esaten zidan “bat jateagatik ez zaizu ezer gertatu behar, eta bost jateagatik ere ez”’.

Sail bereko forma neutroak ere aditu dizkiogu Saioari; hiru orotara. Bakarra izan da galdetegi bidez entzun dioguna, baina forma neutro hori bi forma asmatuen artean esan du, eta uste dugu forma asmatuek esangura handiagoa dutela, eta forma neutroa adizkia bilatzeko erabili duela. Hori dela eta, forma asmatuen artean aipatuko dugu. Dena den, adierazi bezala, elkarrizketa librean bi ere entzun dizkiogu. Honako bi hauek, hain justu:

- *“Beida, au Juli da, au eztaki ze, ta”, esan genion ta, arrittuta geatu uan, “begira, hau Juli da, hau ez dakit zer, eta”, esan genion eta, harrituta geratu zuan’.*
- *Nei esan zian, e, (...) rutan bat, ‘niri esan zidan, eh, (...) ibilbideren bat’.*

4.2.2 Tokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoei heldurik, galdetegi bidez eskatutako aditz guztien tokako ordainen bat bederen, jaso dugu, eta elkarriketa libretik beste zenbait ere bai. Gutxi batzuk izan dira elkarriketa librean entzun ditugun eta tokako forma alokutiboaren morfemarik agertu ez duten adizki sintetikoak. IZAN adizkietan esaterako, bi tokako forma entzun ditugu galdetegi bidez eta bakarra elkarriketa librean. Galdetegi bidez lortutakoak dira lehenengo biak, eta elkarriketa libretik bildutakoa ondorengoa:

- *Bea gaztea dek, ‘bera gaztea duk’.*
- *Bea len gaztea uan, ‘bera lehen gaztea zuan’.*
- *Ta kontue oi dek, ‘eta kontua hori duk’.*

IZAN adizkiari dagokion tokako forma neutro bakarra identifikatu dugu:

- *Oi kutsa, kutsagarriagoa omen da, ‘hori kutsa, kutsagarriagoa omen da’.*

JOAN adizkietan ere IZAN adizkietan bezala bi tokako forma alokutibo bildu ditugu galdetegi bidez:

- *Ne andrea gaur Baiona zijok, ‘nire andrea gaur Baionara zoak’.*
- *Istripue gertau uanen, bea etxeaka zjoan, ‘istripua gertatu *zuanean, bera etxerantza zihoan’.*

Eta haxe entzun dugu elkarriketa librean:

- *Oaingozi ni ondo nijek, ‘oraingozi ni ondo noak’.*

JOAN adizkiari dagokion forma neutrorik, aldiz, ez dugu aditu. EGON adizkia izan da lekukotasun gehien utzi diguna EDUKI eta JAKIN adizkiekin batera. Izan ere, bi tokako forma lortu ditugu galdetegi bidez, eta sei elkarriketa libretik. Galdetegi bidez eskuratu ditugunak hauek dira:

- *Lo zeok, ‘lo zegok’.*
- *Etzen zeoan deitu nianen, ‘etxean zegoan deitu *nianeane’.*

Elkarriketa librean erabilitakoak dira, berriz, besteak beste, honako hauek:

- *Oain ne aizpa zeok konfinauta, ‘orain nire ahizpa zegok konfinatuta’.*
- *Ta Ugaitz ta oik jun dittuk Ibarunea. Ta bik zerek konfinauta, ‘eta Ugaitz eta horiek joan dituk Ibarunera. Eta biak zeudek konfinatuta’.*
- *Ostra, egie, aztuta neoa, ‘ostra, egia, ahaztuta nengoan’.*
- *Oaingozi negatibo eman dik, asike gu libre gerek, ‘oraingozi negatibo eman dik, beraz, gu libre gaudek’.*

Lekukotasun gehien uzte hori, ordea, forma neutroetan ere islatu da, EGON adizkien bi forma neutro entzungai izan baititugu elkarriketa librean:

- *Ire urtetan ez gen, ez genden konfinauta*, 'hire urtebetetzean ez *gen, ez geunden konfinauta'.
- *Oaingo bai, salbu gare*, 'oraingo bai, salbu gaude'.

ETORRI adizkiei dagokionez, lortu ditugun bi tokako forma alokutiboak galdetegi bidez eskuratu ditugu, honako bi hauek:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik*, 'nire aita orain zeturrek merkatutik'.
- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin elkatu *zuanean'.

Elkarriketa libreak, baina, ez du ETORRI aditzari dagokion tokako forma alokutiborik eskaini, ez eta neutrorik ere. Azken horiek galdetegi bidez ere ez. IBILI adizkiari dagokion tokako forma bakarra eskuratu dugu, berriz, eta hura galdetegi bidez:

- *Mendin zebiyek*, 'mendan zebilek'.

Forma neutrorik ez dugu jaso ez galdetegi bidez, ez elkarriketa libretik. EDUKI adizkiak, oster, aurreko bi adizkiak baino gehixeago bildu ditugu bai galdetegi bidez, bai elkarriketa libretik, eta forma alokutiboak bezala, neutro batzuk ere utzi ditu. Izan ere, hiru tokako forma alokutibo eskuratu ditugu galdetegi bidez:

- *Etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- *Oso etxe politte zekek*, 'etxe polita zeukak'.
- *Beak etxe politt bat zeukean*, 'etxe polit bat zeukaan'.

Elkarriketa libreak, berriz, bost tokako forma eskaini dizkigu, honako hauek, hain zuzen:

- *Gañea, bai kuadriyako batzuk eta bai nik Naparron familia zekeau*, 'Gainera, bai koadrilako batzuk eta bai nik Nafarroan familia zeukaagu'.
- *Erikek⁵ bazekean*, 'Erikek bazeukaan'.
- *Baño ire attek zekek sozioa*, 'baina hire aitak zeukak sozioa'.
- *Aurten beste plan batzuk zezkeau*, 'aurten beste plan batzuk zeuzkaagu'.
- *Tabernan batea jun da nik askotan zekeat ottura ude eskatzeko, etzekiat*, 'tabernaren batera joan eta nik askotan zeukaat ohitura ura eskatzeko, ez zekiat'.

.Tokako formak gehiago erabiltzearekin batera entzun ditugu, baina, bi forma neutro ere elkarriketa librean:

- *Nik e etxen bazekeat jardina, baino pixu baten... izan berrake...*, 'nik ere etxean bazeukaat jardina, baina pisu batean... izan beharra dauka...'.
- *Beste bi etxe omen dazke*, 'beste bi etxe omen dauzka'.

EKARRI adizkiari dagokionez, aldiz, galdetegi bidez tokako forma bakarra eskuratu dugu:

- *Arropa buru gañen zekarkik*, 'arropa buru gaineen zekarrek'.

⁵ Ez gaude ziur hori dioenentz.

Eta horrekin batera forma neutroaren lekuko bat ere eskaini digu Saioak galdetegi bidez; preseski, hauxe:

- *Bea buru gañen arropa zekarkin*, 'berak buru gainean arropa zekarren'.

Beste pare bat tokako adizki alokutibo bildu ditugu ERAMAN adizkiari dagozkionak galdetegi bidez:

- *Beak arropa buru gañen zematikik*, 'berak arropa buru gainean zeramak'.
- *Txakurre etxea zematikian*, 'txakurra etxera zeramaan'.

Ez dugu tokako adizki alokutibo bakar bat ere lortu elkarritzeta bidez; forma neutrorik ere ez. Azkenik, sintetikoekin amaitzeko, JAKIN adizkiak gehiago erabili ditu EKARRI, ERAMAN eta IBILI adizkiak baino, hiruna tokako forma eskaini baitizkigu galdetegi nahiz elkarritzeta libretik. Galdetegi bidez lortutako tokako forma alokutiboak izan dira honakoak:

- *Bazekiat zertaz ai nitxoken*, 'bazekiat zertaz ari *nauken'.
- *Beak etzekik eze*, 'berak ez zekik ezer'.
- *Ne amak oso ondo zekian josten*, 'nire amak oso ondo zekian josten'.

Eta elkarritzeta librean adierazitakoak, aldiz, hauek dira:

- *Igual aurten laroitasei ingoizkik, e? Etzekiat seguro*, 'agian aurten laurogeita sei egingo dizkik, eh? Ez zekiat seguru'.
- *Etzekiau, etzekiau. Pentsa genian Nafarro aldea ola jutea*, 'ez zekiagu, ez zekiagu. Pentsatu genian Nafarroa aldera edo horrela joatea'.
- *Nik tarteka beldurra eukitze nian, porke an radiaz, radiaz, radiaziokatik da ola, nik enekian, ba igual txarra izango ittu..., eztakit, etzekiat*, 'nik tarteka beldurra edukitzen nian, zeren han *radiaz, *radiaz, radiazioagatik eta horrela, nik ez nekian, bada, agian txarra izango *hitu..., ez dakit, ez zekiat'.

Elkarritzeta libreak, ordea, tokako formak ez ezik, beste bi forma neutro ere utzi dizkigu, bietako bat gainera, tokako forma alokutiboaren aurretik. Honatx:

- *Nik tarteka beldurra eukitze nian, porke an radiaz, radiaz, radiaziokatik da ola, nik enekian, ba igual txarra izango ittu..., eztakit, etzekiat*, 'nik tarteka beldurra edukitzen nian, zeren han *radiaz, *radiaz, radiazioagatik eta horrela, nik ez nekian, bada, agian txarra izango *hitu..., ez dakit, ez zekiat'.
- *Ta igeri, igeri re etzekin*, 'eta igeri, igeri ere ez zekien'.

Tokako forma berriak

Adizki perifrastiko eta sintetikoaren artean, tokako forma berritatu jo ditugun adizki batzuk ere identifikatu ditugu. Galdetegi bidez eskuratutakoaren artetik bi:

- *Bea gaztea izango bauan, gukin geatuko uan*, 'bera gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko zuan'.

- *Eiztarik istorio oi konta, eiztarik istorio oi kontatu ez baziok, egie zala sinetsiko zian, 'ehiztariak istorio hori konta, ehiztariak istorio hori kontatu ez *baziok, egia zela sinetsiko zian'.*

Horiek berritza jo ditugu, baldintzazko adizkietan ez bailitzateke alokutiboa erabili beharko Euskaltzaindiaren arauak aintzat hartuta (Etxabe eta Garmendia, 2003). Elkarriketa libreko adizkiei erreparatuta, oster, erruz bildu ditugu forma berriak, hamabi denera, eta guztiak menpeko perpausetan agertutako tokako adizki alokutiboak dira. Hona hemen:

- *Usteiat Iñaki etorri uala gure etxea komuneko zerbait ittea, 'uste diat Iñaki etorri *zuala gure etxera komuneko zerbait egitera'.*
- *Ire atte konfinata eon uanen, Iñaki zean, 'hire aita konfinatuta egon *zuanean, Iñaki zegoan'.*
- *Nik usteiat oi dekela bidea baño, 'nik uste diat hori *dukela bidea baino'.*
- *Zaldibin eman diken positibo bakarra izan dittuk umek ta ean gurasok, 'Zaldibian eman *diken positibo bakarra izan dituk umeak eta euren gurasok'.*
- *Gu ibiltze gattuken ingurutik positibo ia ez tik iñork, ta geo gaztengatik esateue, 'Gu ibiltzen *gaituken ingurutik positibo ia ez dik inork, eta gero gazteengatik esaten dute'.*
- *Ni ni galdetua⁶ aer politta eken o ez, 'nik nik galdetu diat ea polita *duken edo ez'.*
- *Aurten beste plan batzuk zezkeau, ta gañea, kontue zeoken bezela, nik etzekeatela bildurrik ez tare auntza juteko, 'aurten beste plan batzuk zezkeagu, eta gainera, kontua *zego-ken bezala, nik ez *zeukaadala beldurrik ezta ere harantza joateko'.*
- *Bai, bai. Kritiko zerekelako, 'bai, bai. Kritiko *zeudekelako'.*
- *Nik aguantatze baiat orrearte, ta zereken bezela, 'nik irauten *badiat horrera arte, eta *zeudeken bezala'.*
- *Ire attek uzteikenen zeñek seittu ber dik?, 'hire aitak uzten *dikenean zeinek segitu behar dik?'.*
- *Egie esan ber tzeok guk produktua eosi in geniala, 'egia esan beharra zegok guk produktua erosi egin *geniala'.*

Tokako forma asmatuak

Tokako forma alokutibo asmatuak ere eskaini dizkigu Saioak. Horiek sei izan dira, guztiak galdetegi bidez lortutakoak, honako hauek, hain zuzen:

- Leno aragie gustatze zitzaion → *len aragie gustatze itzaioan, 'gustatzen *hitzaioan'.*
- Igual tzaten → *igual zitzaia, 'igual *zitzaia'.*
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman diek, die, ziek ardii, 'artzaiek pentsua eman *diek, die, ziek ardii'.*

⁶ Ez da ondo aditzen aditz bukaera.

- Asko ean due → *asko ean die*, ziek, ‘asko edan ditek, ziek’.
- Naiko balo, ingo zon → *naiko balo*, *ingo zoan*, ‘nahiko balu, egingo *zoan’.
- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuan guztii saldu ziek gazta*, ‘artzaiek nahi zuan guztiari saldu ziotek gazta’.

Sei horietatik bi orainaldiko adizkiak dira, *ean ziek*, ‘edan ditek’ eta *eman diek*, ‘eman ziek’, alegia, indikatiboko NOR NORK eta NOR NORI NORK sailetik eratorritakoak, hurrenez hurren. Beste laurak, berriz, lehenaldikoak dira, eta horien sailei erreparatuz gero, NOR NORI sailekoak dira *gustatze itzaioan*, ‘gustatzen *hitzaioan’ eta *igual zitzaiak*, ‘igual *zitzaidak’, eta, aldiz, NOR NORK sailekoak dira *ingo zoan*, ‘egingo *zoan’ eta *nai zuan*, ‘nahi *zuan’. Bina, preseski.

Aditza aldatzea

Formak asmatu ditu batzuetan, eta beste zenbaitetan bestelako aldaketa batzuk ere egin ditu Saioak tokako aditz formak ematerakoan. Galdetegi bidez eskatutako formen artean, kasu batean, baldintzazko NOR saileko protasi hipotetikoa tokara bihurtzerakoan esaterako, indikatibora igaro, eta horko lehenaldia erabili du:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztia kontatzeko luzegia izango uan*, ‘luze-egia izango zuan’.

Bestalde, elkarriketa librean ere entzun dugu aldaketa bat jasan duen adizkia, edo behintzat, NOR NORK saileko adizkia espero genuen tokian, NOR sailekoa egitea. Honako hau da entzun duguna:

- *Gurek funtzionatze uan*, ‘gureak funtzionatzen zuan’.

Hor *zian* beharko zukeen.

Ez dakizkien aditzak

Tokako forma alokutiboekin amaitzeko, Saioak hitzez adierazi digu galdetegi bidez eskatu zaizkion hainbat adizki ez dakizkiela toka nola diren. Horiek bost izan dira, honako hauek, hain zuzen:

- Len aragie guustatzen tzaten⁷, ‘lehen haragi gustatzen zitzaidan’.
- Kotxe bat eosi zuen, ‘kotxe bat erosi zuten’.
- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai, ‘bizilagunek behi bat saldu zioten harakinari’.
- Semek atei laundu daike, ‘semeak aita lagun dezake’.
- Mendin zebillen enteatu zanen, ‘mendian zebilen zerbaiten berri izan zuenean’.

Ikus daitekeenez, bostetik lau lehenaldikoak dira, eta orainaldikoa, berriz, ahalerako NOR NORK saileko orainaldiko adizkia da.

⁷ *Igual tzaten* ere galdetu zaio. Lehenik forma asmatu du, eta gero ez dakiela adierazi du.

4.2.3 Nokako adizki perifrastikoak

Tokako adizkiak aztertu ondotik, nokako adizkiei so egingo diegu. Aipatu behar da oraingo honetan nokako adizki guztiak galdetegi bidez lortu ditugula, elkarriketa librean bi solaskideak mutilak zirelako, eta inkestatzailea neska izan bada ere, bere presentzia edo parte-hartzerik elkarriketa librean ez delako ageri. Beraz, adierazi bezala hemendik aurrera agertuko ditugun forma guztiak galdetegi bidez lortutakoak izango dira, eta ez diogu aipamenik egingo horiek eskuratzeko erabili dugun iturriari.

NOR saila

Lehenik, adizki perifrastikoei heldurik, nokako NOR saileko adizkiak ematerako orduan, hiru modu baliatu ditu, oro har, Saioak. Izan ere, zenbaitetan nokako formak eskaini ditu, baina beste hainbatetan tokako formei nahiz adizki neutroei heldu die. Hala, nokako adizki alokutiboak hiru izan dira, horietatik bi adizki berberari dagozkionak baldin badira ere. Hain zuzen, nokako formak hauek izan dira:

- *Bidea atea nitxon, natxon⁸, 'bidera atera naun'.*
- *Eozein momentutan pasau zeiken, 'edozein momentutan pasa ziteken'.*

Tokako adizkiak eta neutroak, ordea, gehiago izan dira; bost guztiak kontatuta. Tokakoen artean daude honako hauek:

- *Pedro leno atea izango bauan bere etxetio, emen izango uan, 'Pedro lehenago atera izango *bazuan bere etxetik, hemen izango zuan'.*
- *Len geiegi eate nian⁹, 'lehen gehiegi edaten nian'.*
- *Afarin geiegi ean genian, 'afarian gehiegi edan genian'.*

Forma neutroei dagokienez, bakarra atzeman dugu, eta neutroari eutsi dio ondorengo aditz forman:

- *Atzoako bukau zeiken → atzoako bukau zeiken, 'atzoko buka zatekeen'.*

Dena den, baliteke azken forma neutro hori Saioak orainaldiko nokako alokutibo bezala interpretatu izana, eta horregatik bere horretan utzi izana.

NOR NORI saila

NOR NORI sailean, oster, ez da toketako formez baliatu, beste biez baizik. Hau da, noketako forma alokutiboen artean bi eskaini dizkigu, eta bakarra izan da adizki morfema alokutiborik gabe edo forma neutro gisa itzuli diguna. Hain justu, nokako adizki alokutiboak honako hauek izan dira:

- *Ondo iruitze zaian, 'ondo iruditzen zaidan'.*
- *Aragie gustatzen zaion, 'haragia gustatzen zaion'.*

⁸ Saroi Jauregi 43 urteko zaldibitarak adierazi digu *natxon* forma ez dela Zaldibian erabiltzen. Beraz, ez da-kigu forma hori asmatutzat edo berritzat jo beharko genukeen.

⁹ Atzetik ez dakiela adierazi du.

Forma neutroa, berriz, honako honetan erabili du:

- Igual tzaten → *igual tzaten*, 'igual zitzaidan'.

Hemen ere lerro batzuk gorago aipatu dugun zalantza bera sortzen zaigu, ez ote azken adizkia Saioak orainaldiko nokako forma bezala ulertu, eta horregatik, forma berbera itzuli izana? Izan ere, galdetu diogun iraganeko forma neutroa pertsona berberak dituen orainaldiko nokako adizki alokutiboaren forma homofonoa da. Nolanahi ere, pentsa liteke noka sendo duen pertsona bati ariketa zein den jakinik, lehenaldiko bezala ulertzea eta nokako ordaina ematea errazago egin zekiokela. Baina, dena den, ezin dugu ziurtatu.

NOR NORK saila

NORK NORK sailekoak izan dira nokakoen artean ere ugariak, zortzi forma jaso baititugu:

- *Gaur gutxi jan diñat*, 'gaur gutxi jan dinat'.
- *Gutxi jan din beak gaur*, 'gutxi jan din berak gaur'.
- *Gaur asko jan diñau*, 'gaur asko jan dinagu'.
- *Ne emaztek sagarrak jan dizkin*, 'nire emazteak sagarrak jan dizkin'.

Bi, ordea, bustidurarik gabe egin ditu Saioak:

- *Boteia guztik ean zizkinan*, 'boteila guztiak edan zizkinan'.
- *Ume onek urtebe izango zinan*, 'ume honek urtebe izango zinan'.

Zerbaiten adierazle izan daiteke hori, forma horiek bustidurarekin espero baititugu Zaldibian. Bestalde, sail honetan ere ez du tokako formarik eman nokako formaren orde, ez eta forma neutrorik ere.

NOR NORI NORK saila

NOR NORI NORK sailean, aldiz, hiru nokako forma eta bi tokako forma erabili ditu Saioak inkestazaleak emaniko adizkia nokara bihurtzeko eskatu zaionean. Hala, entzun ditugun noketako adizki alokutiboak honako hauek izan dira:

- *Bei bat saldu zonat karnizeroi*, 'behi bat saldu zionat harakinari'.
- *Bei bat saldu zion¹⁰ karnizeroi*, 'behi bat saldu zion harakinari'.
- *Bei bat saldu genionan arakiñai*, 'behi bat saldu genionan harakinari'.

Toketakoak, berriz, adierazi bezala bi izan dira; hauetxek:

- *Neonek saldu nioan bei bat arakiñai*, 'neronek saldu nioan behi bat harakinari'.
- *Karamelo bat eman zioan*, 'karamelu bat eman zioan'.

¹⁰ Inkestagilearen laguntzarekin lortutako nokako adizki alokutiboa. Aurretik aditz aldaketa bat egin du. Salduio → *salduion*, 'saldu dion'.

Tokako adizki berri eta asmatuak nokakoen orde

Orain arte agertutakoaz gain, beste aditz perifrastiko batzuk ematerakoa garain, eta zehazki esanda, menpeko perpausetako adizkiak adierazteko garaian, tokako aditz berriak edo tokako forma asmatuak erabili ditu Saioak bi kasutan:

- *Etxen zeonan deittu nianen ez, nuanen*, ‘etxean zegonan deitu *nianeane ez, *nuaneane’.
- *Bakin zertaz ai nitxoken, ai nitxonon¹¹*, ‘badakin zertaz ari *nauken, ari *naunen’.

4.2.4 Nokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoei dagokienez, aldiz, eskatutako adizki guztien ordainen bat gutxienez jaso dugu noka, eta aditz gutxi batzuetan baino ez ditugu bildu tokako formak edota morfema alokutiborik gabeko adizki neutroak. Hala, IZAN adizkietan nokako forma bakarra jaso dugu:

- *Bea gaztea en*, ‘bera gaztea dun’.

Tokako forma alokutiboa ere bat:

- *Bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.

JOAN adizkietan, oster, bi nokako forma lekukotu zaizkigu:

- *Ne angrea gaur Baiona zijen*, ‘nire andrea gaur Baionara zonan’.
- *Istripue gertau, ez, eztakit, bea etxeaka zijenon¹²*, ‘istripua gertatu, ez, ez dakit, bea etxerantza zihoanan’.

Baina horietatik bigarrena tokako ordaina (*etxeaka zijoan*, ‘etxerantza zihoan’) adierazi ostean esan du Saioak inkestagilearen laguntza tarteko. Ez da gertatu horrelakorik, ordea, EGON aditzekin, jaso ditugun lekuko biak nokakoak izan baitira, tokako adizkirik eta forma neutrorik erabili gabe, alegia:

- Lo dao → *lo zeon*, ‘lo zegon’.
- *Etxen zeonan deittu nianen ez, nuanen*, ‘etxean zegonan deitu *nianeane ez, *nuaneane’.

ETORRI aditzekin ere bi nokako forma alokutibo bildu ditugu:

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zetonren merkatutik*, ‘nire aita orain zetonren merkatutik’.
- Ne atte oñez zetonren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zetonrenan Pedrokin elkatu eztakit*, ‘nire aita oinez zetonrenan Pedrorrekin elkartu ez dakit’.

Baina goiko bietatik bigarrena adierazi ondoren, forma neutro den *oñez zetonren*, ‘oinenez zetonren’ ere esan du, gero berriro atzetik nokako adizkira jo, eta hori berretsi badu ere. IBILI adizkietan, berriz, nokako forma emateaz gain, forma neutroa ere eman du, oraingo honetan, ordea, nokako

¹¹ Dena den, ohartu da ez duela forma zuzena eskaini, “ez” esan baitu azkenik.

¹² Aurretik “zijoan ez” esan du, gero gehitu du “zijenon, zijenon”.

formaren alternantziarik gabe. Hona hemen, hurrenez hurren, nokako adizki alokutiboa, eta erabilitako forma neutroa:

- Mendin dabil → *mendin zebiyen*, ‘mendin zebilen’.
- Mendin zebillen enteatu zanen → *mendin zebiyen enteatu eztakit*, ‘mendin zebilen zerbaiten berri ez dakit’.

JAKIN adizkiari dagokionez, nokako forma alokutiboa soilik eskuratu dugu, eta ez bestelakorik:

- *Oi bazekiñat nik*, ‘hori bazekinat nik’.

EDUKI eta EKARRI adizkietan, berriz, nokako forma alokutibo bana nahiz adizki neutro bana bildu ditugu. Ikus ditzagun bi adizki horien nokako forma alokutiboei lehenik. Ondorengoetatik lehenengoa EDUKI adizkiari dagokio, eta bigarrena EKARRI adizkiari:

- *Etxe bat nekenan*, ‘etxe bat neukanan’.
- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gainean zekarkin*, ‘arropa buru gainean zekarren’.

Eskuratutako forma neutroak, oster, hurrengo hauek dira:

- Beak etxe polit bat zeuken → *beak etxe polit bat zeuken*, ‘berak etxe polit bat zeukan’
- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak arropa buru gañen zerkarkin*, ‘berak arropa buru gainean zekarren’.

ERAMAN adizkiei dagokienez, ezin dugu adierazi egiazki zer gertatu den, zalantza baitugu Saioak zer dioen. Hau da, forma neutroa edo forma asmatuaren artean legoke auzia:

- *Beak arropa buru gañen damaki* edo *damakin*, ‘berak arropa darama’ edo *damakin*, ‘*zeraman’

Beraz, bi horien artean duda-mudan bagaude ere, garbi duguna da eskatutako nokako forma bederen, ez duela erabili.

Nokako forma asmatuak

Orain arte tokako adizki alokutiboak eta forma neutroak aipatu ditugu nokako formen ordezkio edo hutsunea betetzeko baliabide orokor gisa. Baina bada beste errekurtsorik ere. Zenbaitetan nokako aditzak asmatu egin ditu Saioak. Lau izan dira horrela egin dituenak:

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte daken*, ‘oso etxe politte daukan’.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu dizkionan¹³ karnizeroi*, ‘behi batzuk saldu dizkionan harakinari’.
- Ehiztarik istorio hoi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio ori kon-tau ez balionan, eztakit*, ‘ehiztariak istorio hoi kontatu ez *balionan, ez dakit’.
- *Bakin zertaz ai nitxoken, ai nitxonen¹⁴*, ‘badakin zertaz ari *nauken, ari *naunen’.

¹³ Izatez badakigu nokako aditz argumentala dela. Baina aditz hori agertu aurretik *zizkionat* eta *zizkionan* formak ere eskaini ditu. Inkestagilea laguntzen ahalegindu da, eta azkenik *dizkionan* eman du. Adierazi bezala, forma argumentala bada ere, asmatu itxura hartzen diogu, aditz aldaketaren kasuarena baino.

¹⁴ Dena den, ohartu da ez duela forma zuzena eskaini, “ez” esan baitu azkenik.

Aditza aldatzea

Tokako adizkiekin bezala, nokako adizkia eskatzerakoan ere zenbaitetan gertatu da aditza denboraz, pertsonaz, sailez... aldatuta itzultzea, noka, toka, zein forma neutroan. Horien lekuko ditugu ondoren agertuko ditugunak. Zortzi aldaketa lekukotu ditugu, eta lehenengo kasuan baldintzerako apodosis indikatiboko lehenaldira eta tokara bihurtu du:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztia kontatzeko luzegia izango uan*¹⁵, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia izango zuan'.

Bigarren kasu batean NOR sailetik NOR NORIra igaro eta lehenengo pertsona singularra sartzeaz gain, eskaini dituen bi formatako batean lehenalditik orainaldira igaro da noka. Bigarren formak, berriz, *hura-niri* indikatiboko lehenaldiari dagokion forma neutroa eskaini du:

- Neana etortzen zan → *neana etortzen tzaian*, *neana etortzen zitzaian*¹⁶ 'niregana etortzen zaidan, niregana etortzen zitzaidan'.

NOR hirugarren pertsona singularretik pluralera iragandako nokako forma alokutiboa agertu du beste kasu batean Saioak:

- Ume onek urtebete o ola izango g → *ume onek urtebete o ola izangoizkin*, 'ume honek urtebete edo horrela izango dizkin'.

Beste esaldi batean honako hau entzun dugu:

- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat*, *bei batzuk saldu zizkionan*¹⁷ *karnizeroi*, 'behi batzuk saldu zizkionan harakinari'.

Ikus daitekeenez, NORK *hark* egin beharrean NORK *nik* egin du lehen kasuan, eta bigarren kasuan eskatutako formaren iraganeko nokako forma eman du. Horietaz gain, transformazio edo bilakabide hauek ere begiz jo ditugu:

- Baki zertaz ai naizen → *bakin* zertaz ai nitxoken, ai nitxonen, 'bazekin zertaz ari *nauken, ai *naunen'.
- Eztaki eze → *eztakiñ* eze, 'eztakin ezer'.
- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat salduion*, 'behi bat saldu dion'.

Agian asmatutzat hartu beharko bagenituzke ere, hiru adibideetan, NORK hirugarren pertsona singularra izatetik *hi* bigarren pertsona singularra izatera igaro da. Beraz, eskaini dituen hiru formetan *hi* argumentala da, eta ez entzuleari dagokion morfema. Eta azken kasuan ahalerako lehenaldiko adizkiaren orainaldiko nokako forma alokutiboa eman du Saioak:

- Nik in neiken → *nik in zeikenat*, 'nik egin zezakenat'.

¹⁵ Inkestagilea laguntzen ahalegindu da, baina azkenik ez dakiela esan du.

¹⁶ Emandako azken adizkiaren atzetik "eztakit" esan du.

¹⁷ Inkestagilearen laguntzarekin eman duena. Eta berriro laguntzen saiatu, eta forma asmatu du. Aurrez aipatu dugu forma asmatua.

Ez dakizkien aditzak

Saioak eskainitako adizkiekin bukatzeko, Saioak berak nola diren ez dakiela adierazi digun adizkiak agerian jartzea besterik ez zaigu falta. Ez dakiela esan du argiki ondorengo hauetan, hamahirutan, hain zuzen:

- Gukin geauko zan, 'gurekin geratuko zen'.
- Leno aragie gustatze zitzaion, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.
- Len aragie gustatzen tzaten, 'lehen haragia gustatzen zitzaidan'.
- Asko ean due, 'asko edan dute'.
- Kotxe bat eosi zun¹⁸, 'kotxe bat erosi zuen'.
- Kotxe bat eosi zuen, 'kotxe bat erosi zuten'.
- Naiko balo, ingo zon, 'nahiko balu, egingo zuen'.
- Arakiñai bei bat saldu diou guk, 'harakinari behi bat saldu diogu guk'.
- Artzaiek pentsue eman die ardii, 'artzaiek pentsua eman diete ardiei'.
- Istripue pasau zanen bea etxeaka zijen, 'istripua pasatu zenean bera etxerantza zihoan'.
- Etxe politte dake, 'etxe polita dauka'.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemarkin, 'ikusi nuenean txakurra etxera zeraman'.
- Ne amak oso ondo zekin josten, 'nire amak oso ondo zekien josten'.

Banaka banaka begiratu eta lehenaldikoak zenbatzen baditugu, hamahirutik bederatzi lehenaldiko aditzak dira, zehazki sei aditz perifrastikoak eta hiru sintetikoak. Perifrastiko gehienak NOR NORK sailekoak dira, lau, hain justu; bi, oster, NOR NORI sailekoak eta bakarra NOReko. Sintetikoei dagokienez, ERAMAN, JOAN eta JAKIN adizkiak dira iraganekoak. Orainaldiko aditzei erreparaturik, berriz, lau dira orotara, hiru perifrastiko eta bakarra sintetikoa. Perifrastikoen artetik NOR NORI NORK sailekoak bi dira, eta hirugarrena NOR NORK sailekoa da. Azkenik, sintetikoei dagokienez, EDUKI adizkiaren orainaldiko formak jarri du agerian Saioaren ezjakintasuna edo formaren hutsunea.

4.3 Anerren adizkien deskribapena

4.3.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Anerrek NOR sailari dagozkion zazpi tokako forma alokutibo eskaini dizkigu denera. Horietatik bi galdetegi bidez eskuratu ditugu:

¹⁸ Hau esan du: "kotxe bat eosi zian eztek ba, asike ez. Eztakit."

- *Pedro leno ateako bauan etxetik, ue oain etxen izango uan, 'Pedro lehenago aterako *ba-zuan etxetik, hura orain etxean izango zuan'.*
- *Bidea atea neok, 'bidera atera nauk'.*

Beste bostak, beraz, elkarrizketa libretik bildutakoak dira. Hemen horietatik lau:

- *Ta in genian tabernatan da ola ibili lasai, zea baten ordu bik arte, ta geo jun giñuztean, 'eta egin genian tabernetan eta horrela ibili lasai, zera batean ordu biak arte, eta gero joan gintuan'.*
- *Asi ittuan buyaka, 'hasi zituan builaka'.*
- *Ai gitxoan¹⁹ treneko batzuk jolasten, 'ari gintuan treneko batzuk jolasten'.*
- *Ni akordatzen neok, (...) ²⁰ gu zazpi urte ola²¹, 'ni akordatzen nauk (...) gu zazpi urte horrela'.*

Galdetegiko bi kasutan, berriz, forma neutroak erabili ditu Anerrek. Hauexek izan dira forma bakarrak neutro egin dituenak NOR sailean:

- *Istoria guztie kontatzeko luzegia litzeke, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia litzateke'.*
- *Eozein momentutan pasau leike, 'edozein momentutan pasa liteke'.*

NOR NORI saila

NOR NORI sailean lau adizki bildu ditugu galdetegitik, bat berriztat jo duguna (horri aurrerago helduko diogu) eta bakarra ere ez elkarrizketa libretik. Hona hemen, bada, galdetegitik ateratakoak:

- *Ondo iruitze zaiak, 'ondo iruditzen zaidak'.*
- *Aragie gustatzen zaiok, 'gustatzen zaiok'.*
- *Atzo semea etorri zitzaitean etxea, 'atzo semea etorri zitzaidan etxera'.*

Saroi Jauregik adierazi digu berak *zitzatean* erabiltzen duela azken formarako. Hau da, *-i-* baten gorabeheran legoke kontua. Horregatik, funtsean forma berberaren aurrean gaudela esan daiteke, eta Anerrek eskainitakoa aldaera bat litzatekeela. Gauzak horrela, eta eskainitako forma berria kontatuta, orain arteko kopururik altuena eskaini digu Anerrek NOR NORI saileko tokako aditz alokutiboei dagokienez. Bestalde, aipatzekoa da *etorri zitzaitean* toka egin badu ere, aditz perifrastiko bera duten beste bi adibideetan forma neutroa eskaini duela toka egin beharrean; izan ere, horrelaxe itzuli dizkigu Anerrek bi hauek:

- *Len aragie gustatzen zaten, 'lehen haragia gustatzen zitzaidan'.*
- *Igual zitzaitean, 'berdin zitzaidan'.*

¹⁹ *Gintxoan* aldaera ere entzun dugu beste kasu batean.

²⁰ Ez dugu ulertzen zer dioen.

²¹ Ez da garbi entzuten "gu zazpi urte ola" zatia.

NOR NORK saila

NOR NORK saileko aditzak erruz darabiltza Anerrek. Tokako hamabost adizki alokutibo eskaini dizkigu galdetegi bidez, eta beste hamaika elkarriketa librean. Galdetegi bidez lortu ditugunen artean daudenetako batzuk dira honako hauek:

- *Len geiegi eate nian*, 'lehen gehiegi edaten nian'.
- *Kotxe bat eosi zian*, 'kotxe bat erosi zian'.
- *Afarin geiegi ean genian*, 'afarian gehiegi edan genian'.
- *Atzoako buka zeiketan*, 'atzoko buka zitekean'.

Elkarriketa librean entzundakoetako batzuk dira, aldiz, ondorengoak:

- *Pentsau diau Marbella aldea jutea*, 'pentsatu diagu Marbella aldera joatea'.
- *Otzangatio ta jendek uden partez bozka eate omen dik*, 'hotzarengatik eta jendeak udaren partez vodka edaten omen dik'.
- *Iruoitamaika ingoizkik Pakitok*, 'hirurogeita hamaika egingo dizkik Pakitok'.
- *Afaltzen atzo berduritak jan nizkian*, 'afaltzen atzo barazkiak jan nizkian'.

Ez dugu aurkitu NOR NORK sailekoa den forma neutrorik, ez galdetegi bidezko datu elizitatuetan, ez elkarriketa librean.

NOR NORI NORK saila

Sail honetako zortzi tokako forma alokutibo ere bildu ditugu. Galdetegi bidez lortu ditugu zazpi; besteak beste, hauek:

- *Arakiñei bei bat saldu zoau*, 'harakinari behi bat saldu zioagu'.
- *Istorio oi aittei attu diote → istorio oi attei attu ziek*, 'istorio hori aitari aditu ziotek'.
- *Artzaiek pentsue eman die ardii → artzaiek pentsue eman tziek ardiri*, 'artzaiak pentsua eman ziek'.
- *Karamelo bat eman zioan beak*, 'karamelu bat eman zioan berak'.

Bakarra izan da, berriz, elkarriketa libretik jaso duguna:

- *Ez, esate ziak, ez (...) ²², beste zeoze*, 'ez, esaten zidak, ez (...) beste zer edo zer'.

Forma neutrorik ez dugu lekukotu sail honetan.

4.3.2 Tokako aditz sintetikoak

Elkarriketa librean Anerrek aditz sintetiko gehiegi utzi ez badizkigu ere, galdetegi bidez eskatutako adizki guztietan eskuratu dugu gutxienez tokako forma alokutiboren bat, baina gehienetan galdetutako bi adizkiak eman dizkigu toka, eta adizki beraren hiru forma eskatu zaizkionean hiru

²² Ez dugu ulertzen zer dioen.

horien adizki alokutiboak ere agertu dizkigu. Hala, IZAN adizkietan galdetegi bidez eskatutako bi formak toka egin dizkigu Anerrek:

- *Ue gaztea ek, 'hura gaztea duk'.*
- *Ue leno gaztea uan, 'hura lehen gaztea zuan'.*

Elkarriketa librean galdetegi bidez lortutako lehenengo formaren bi aldaera entzun ditugu. Hemen horietako bat:

- *Asteburu ontan beteta eon dek²³, 'asteburu honetan beteta egon duk'.*

Ez dugu forma neutrorik aurkitu tokaren erabilera eskatzen zuen tokian. JOAN adizkiei dagokienez, galdetegi bidez eskatutakoak izan dira eskuratutako tokako bi formak:

- *Ne andrea gar Baiona zijok, 'nire andrea gaur Baionara zoak'.*
- *Istripue pasau uanen ue etxeaka zijoan, 'istripua gertatu *zuanean hura etxerantza zihoan'.*

Elkarriketa librean ez du perpaus nagusian JOAN adizkiaren formarik eskaini, ez tokakorik, ez neutrorik ere. Eskaini duen adibide bakarra menpeko perpausekoa izan da, eta kasu horretan tokaren morfema txertatu diola dirudi:

- *Ola zijoala bezela esate zien, 'horrela *zihoaala bezala esaten zitean'.*

Dena den, baliteke forma neutro gisa erabili izana, Saroi Jauregiren ustetan, batzuk neutroan ere *zijoala* 'zihoala' erabiltzen baitute Zaldibian.

EGON adizkiak bi lekuko utzi dizkigu galdetegi bidez eskatutako tokako alokutiboko formetan:

- *Lo zeok, 'lo zegok'.*
- *Etxen zeoan deittu zioatenen, 'etxean zegoan deitu *zioatenean'.*

Eta elkarriketa bidez emanikoetan beste bi:

- *I, beti zeok ba lana or!, 'hi, beti zegok bada, lana hor!'.*
- *Gaixo zeoan, lenengon negatibo, bigarren negatibo ta geo ama gaixotu uan, 'gaixo zegoan, lehenengoan negatiko, bigarrena negatibo eta gero ama gaixotu zuan'.*

Hala ere, badira gizonezko entzulearen morfema falta zaien beste bi adizki neutro ere elkarriketa librean:

- *Oain Covidengatik krisise dau, 'orain Covidengatik krisia dago'.*
- *Guk ez genian in, baño bestela ondo zeon, 'guk ez genian egin, baina bestela ondo zegoen'.*

ETORRI eta IBILI adizkien tokako formak, berriz, galdetegi bidez soilik lortu ditugu; galdeturiko biak, hain justu. Hala, ETORRI adizkiaren tokako forma alokutiboak hauek dira:

²³ Hauxe da entzun dugun beste aldaera: *eztek lan txarra*, 'ez duk lan txarra'.

- *Ne atte oain tzetorrek merkatutik*, 'nire aita orain zetorrek merkatutik'.
- *Ne atte oñez zetoorean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zetoorean Pedrokekin elkartu *zuanean'.

IBILI aditzarenak, ostera, honako hauek:

- *Mendin zebiyek*, 'mendian zebilek'.
- *Mendin zebiyean enteatu uanen*, 'mendian zebilean zerbaiten berri izan *zuanean'.

ETORRI eta IBILI adizkien forma neutrorik ere ez dugu entzun elkarriketa librean. Bestalde, EDUKI eta JAKIN adizkiek utzi dizkigute lekuko gehien, bietan hiruna tokako forma eskuratu baititugu galdetegitik, eta elkarriketa librean tokako bi forma alokutibo EDUKI adizkietan, eta bat JAKIN adizkian. Hala, galdetegi bidez lortutako EDUKI aditzak dira hauek:

- *Etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- *Oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- *Etxe politt bat zeukean*, 'etxe polit batz zeukaan'.

Elkarriketa librean eman dizkigu, aldiz, tokako alokutibo hauek:

- *Jesto on bat zekean*, 'keinu on bat zeukaan'.
- *Oi zekek txarra, asteburutan (...)²⁴ ik lana in bearra ekekela*, 'hori zeukak txarra, asteburuetan (...) hik lana in beharra *dukekela'.

Forma neutrorik ez dugu kausitu. JAKIN adizkiarenak dira, ostera, galdetegi bidez lortutako ondorengo adizki alokutiboak:

- *Bazekik²⁵ zertaz ai neoken*, 'bazekik zertaz ari *nauken'.
- *Oi bazekiat nik*, 'hori bazekiat nik'.
- *Ne amak oso ondo zekian josten*, 'nire amak oso ondo zekian josten'.

Elkarriketa askeak utzi digun alea da honako hau:

- *Oi re etzekiat*, 'hori ere ez zekiat'.

Tokarik gabeko lekuko bat ere, baina, eman digu galdetegiak:

- *Bakit zertaz ai neoken*, 'badakit zertaz ari *nauken'.

Dena den, forma neutroa erabili duen horretan, ikusi dugu lehentxeago tokako forma alokutiboa ere badakiela. Baliteke inkestagileak galdetutakoa oharkabeen errepikatu izana, eta horregatik adizki neutroa erabiltzea Anerrek. Edo bestela adizki horren forma alokutiboa zein den jakin arren, ez hain sendo izatearen adierazle izan liteke. Nolanahi ere, elkarriketa librean ere erabili du *etzekiat* tokako aldaera. Hortaz, bi aldiz eman du tokako forma. Gure aburuz, elkarriketa librean tokako alokutiboa aditu izanak eta forma neutrorik entzun ez izanak nagusitasuna hartzen du edo adizki alokutiboa menperatzeko joera handiagoa erakusten du galdetegi bidez lortutako forma neutroaren ondoan.

²⁴ Ez dugu ulertzen zer dioen.

²⁵ Inkestagilearen laguntzarekin lortutako forma alokutiboa. Aurretik *bakik* forma eskaini du.

Azkenik, EKARRI eta ERAMAN adizkiak ditugu tokako bana adibiderekin. Bana adibide tokakoak eta galdetegi bidez jasotakoak. Hemen, hurrenez hurren, tokako EKARRI eta ERAMAN adizkiak:

- *Beak buru gañen arropa zekarkian*, 'berak buru gainean arropa zekarreen'.
- *Beak arropa buru gañen zemarkik*, 'berak arropa buru gainean zeramak'.

Eta beste forma neutro bana:

- *Erropa buru gañen dakarki*, 'arropa buru gainean dakar'.
- *Beak txakurre etxea zemarkin*, 'berak txakurra etxera zeraman'.

Horiek ere galdetegiaren bidez eskuratu ditugu. Elkarriketa libreak ez du halako adibiderik; ez tokakorik, ez neutrorik.

Tokako forma berriak

Tokako forma berrizat jo ditugu galdetegi bidez entzundako sei hauek:

- *Ue gaztea izango bauan, gukin geatuko ukean*, 'hura gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko *zukean'.
- *Leno aragie gustatze zitzaiokean*, 'lehen haragia gustatzen *zitzaiokean'.
- *Nai badik, lana oain buka zeikek*, 'nahi *badik, lana orain buka zitekek'.
- *Artzaiek nai zien guztiri saldu ziek gazta*, 'artzaiek nahi *zitean guztiari saldu ziek gazta'.
- *Istripue pasau uanen, ue etxeaka zijoan*, 'istripua gertatu *zuanean, hura etxerantza zihooan'.

Seitik bost, alegia, *gustatze zitzaiokean*, 'gustatzen zitzaiokean' izan ezik, menpeko perpauseko aditzak dira, eta baldintzazko perpausetan, denborazkoetan, perpaus erlatiboetan, kausazkoetan eta konpletiboetan ez litzateke alokutiborik erabili behar (Etxabe eta Garmendia, 2003). Ikus daitekeenez, ordea, Anerrek erabiltzen ditu alokutiboak perpaus horietan, horregatik jo ditugu berrizat. *Gustatze zitzaiokean* berrizat hartzeko arrazoa, ostera, *-k* morfema maskulinoa gehitzea izan da aurrez badagoen *-a* gizonezkoaren markaren gainean. Bi marka maskulino ikusten ditugu, beraz, eta hori da gure ustez, berritasuna. Izan ere, Saroi Jauregik adierazi digu berak aditz horretarako *gustatzen zitzaioan* erabiltzen duela. Dena den, elkarriketa librean entzuteak berria dela esateko arrazoi sendoagoa emango liguke.

Tokako forma asmatuak

Tokako forma asmatuen artean, bestalde, bi adizki kokatu ditugu. Galdetegi bidez lortutako bat:

- Etxen zeon deitu nuen → *etxen zean deitu zioatenen*, 'etxean zegoan deitu *zioatenean'.

Eta elkarriketa librean entzundako beste bat:

- *Ekonomian estruputz in tzeniala ta*, 'ekonomian estropozu egin *zenuala'.

Lehendabizi galdetegi bidez lortutako formari erreparatuko diogu. *Dettu zioatenen*, 'deitu *zioatenean' gertatu dena da gure iritziz, orainaldiko tokako adizki alokutiboari, *zioat-i*, alegia,

menpeko denborazko perpausaren atzizki den *-(e)an* eta lehenaldiko *-n* morfema uztartuta edo gehitzea. Gainera asmatzeaz gain, sailez ere aldatu du, NOR NORK sailetik NOR NORI NORK sailera egin baitu salto. Hain zuzen, deitu nunen → *deittu zioatenen*, ‘deitu *nioanean’ bihurtu du. Alegia, NORK *nik* eta NOR *hura* pertsonak dituen tokako adizki alokutiboa eskaini beharrean, NORI *hari* singularra gehitutako NOR NORI NORK saileko tokako adizki alokutibo asmatua eman du. Eta azkenik, elkarriketa librean identifikatutakoari egingo diogu aipamena. Horretan *zu* eta *hi* pertsonak nahasten edo uztartzen direla iruditzen zaigu. Hau da, *zenuela* eta *ziala*. Lehenengoa forma neutroa edo eztabadakoa litzateke, eta bigarrena tokako *zian* ‘zian’ adizki perifrastikoa menpeko forma bihurtuta.

Aditza aldatzea

Hiru adizkietan egin ditu espero gabeko aldaketak Anerrek eskatutako tokako alokutiboko formetan. Aldaketa bat NOR NORK saileko adizkian izan da, eta beste biak, berriz, NOR NORI NORK sailekoetan. NOR NORK saileko aldaketari dagokionez, NORK pertsonaren aldaketa gertatu da:

- *Baki* zertaz ai naizen → *bakik* zertaz ai neoken, ‘badakik zertaz ari *nauken’.

NOR NORI NORK sailekoetan ere NORK pertsonaren aldaketa dugu:

- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat salduiok* karnizeroi, ‘behi bat saldu diok harakinari’.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk salduizkiok* karnizeroi, ‘behi batzuk saldu dizkiok harakinari’.

Hau da, bai NOR NORK saileko forman, bai NOR NORI NORK saileko adizkietan NORK *hark* pertsonaren ordeztu, NORK *hik* egin du, eta, ondorioz, adizki alokutiboak eman beharrean aditz argumentalak eskaini ditu.

4.3.3 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Tokakoak ez ezik, nokako adizkiak erabiltzeko ere eskatu diogu Anerri. Horietan zer egin duen ikusteko, lehenik, aditz perifrastikoei erreparatuko diegu. NOR sailari dagokionez, nokako forma alokutibo bana bildu dugu galdetegi bidez eta elkarriketa bidez. Forma hau eman digu galdetegiak:

- *Beana inguratu* neon, ‘berarengan inguratu naun’.

Eta beste hau jaso dugu elkarriketa libretik:

- *Leno gauetan kriston jende piya etortze* unan, ‘lehen gauetan kristoren jende pila etortzen zunan’.

Ustez elkarriketa librean hori entzun diogu, datu elizitatuetan hori erabili ez badu ere. Orain ikusiko dugu. Nokaren ordeztu toka egin ditu galdetu dizkiogun hiru, eta bi bider erabili ditu tokako alokutiboak elkarriketa librean. Galdetegi bidez jaso ditugunak hauek izan dira:

- *Pedro leno ateako bauan etxetik, emen izango uan onuzkeo*, 'Pedro lehenago aterako *ba-zuan etxetik, hemen izango zuan honezkero'.
- *Lana oain bukau zeikek*, 'lana orain buka zezakek'.
- *Atzoako buka zeikean*, 'atzoko buka zitekean'.

Elkarriketa librean entzundakoak izan dira tokako forma hauek:

- *Amak positibo eman zian. Or berriz konfinau uan*, 'amak positibo eman zian. Hor berriz konfinatu zuan'.
- *Asi gintxoan insultok botatzen*, 'hasi gintuan intsultok botatzen'.

Beste lau alditan, berriz, adizki neutroak erabili ditu NOR sailean. Hala, galdetegi bidez forma neutro bakarria lekukotu dugu:

- *Eozin momentutan pasau leike*, 'edozein momentutan pasa liteke'.

Elkarriketa askean, ordea, hiru:

- *Ez, baño beintzat etzea kontajiatzen*, 'ez, baina behintzat ez zara kontajiatzen'.
- *Funda oik jartzeie*, 'funda horiek jartzen dira'.
- *Oain denak kriston peña²⁶ a*, 'orain denak kristoren lagun-taldea etortzen da'.

NOR NORI saila

NOR NORI sailari begira jarririk, galdetegi bidez bi nokako forma alokutibo eskuratu ditugu; hauek, hain zuzen:

- *Ondo iruitze zaian*, 'ondo iruditzen zaidan'.
- *Aragie gustatze zaion*, 'haragia gustatzen zaion'.

Dena den, horiek biak esan aurretik pentsatu egin behar izan du; aditzaren bila ibili da bietan. Beste aditz perifrastiko bat, aldiz, toka egin du kasu batean:

- *Len aragie gustatze zitzaiten*, 'lehen haragia gustatzen zitzaidan'.

Eta forma neutroa erabili du, berriz, hurrengo honetan; aurreko aditz perifrastiko berberarekin, alegia:

- *Igual zitzaiten*, 'berdin zitzaidan'.

Gauza bera gertatu da tokako adizkietan ere, hau da, tokako ordaina nahiz forma neutroa erabili ditu Anerrek NOR NORI saileko lehenengo pertsona singularra duen lehenaldiko adizkiarekin. Eta nokakoa eskatu zaionean ere, toka eta forma neutroa eman ditu, ikusi dugunez.

NOR NORK saila

Nokako adizki perifrastikoetan ere, NOR NORK sailekoak izan dira gehien bildu ditugunak. Izan ere, elkarriketa librean sail honetako bakar bat ere entzun ez badugu ere, nokako hamar forma alokutibo eman dizkigu Anerrek galdetegi bidez. Horien artean daude hauek:

²⁶ Ez da oso ondo ulertzen.

- *Gar gutxi jan diñat*, 'gaur gutxi jan dinat'.
- *Gutxi jan din beak gaur*, 'gutxi jan din berak gaur'.
- *Gar asko jan diñau*, 'gaur asko jan dinagu'.
- *Asko ean diñe*, 'asko edan diten'.

Alabaina, gehiago izan dira nokaren ordeztoka egin dituen adizkiak; hamabi guztira. Horietatik hiru eskuratu ditugu galdetegi bidez. Hemen hiru horiek:

- *Afarin geiegi ean genian*, 'afarian gehiegi edan genian'.
- *Eiztarik istoria kontatuko ez balion, egie zala sinestuko zian*, 'ehiztariak istoria kontatuko ez *balion, egia zela sinetsiko zian'.
- *Nik in neiketan*, 'nik egin nezakean'.

Bederatzi izan dira elkarrizketa libretik erauzi ditugun tokako adizkiak. Horietatik batzuk erakustearren, hemen ale batzuk:

- *Pentsa genian abioie artzea*, 'pentsatu genian hegazkina hartzea'.
- *Eon uan ordu bik arte, ta ordu bitan taberna ixte zien*, 'egon zuan ordu biak arte, eta ordu bietan taberna ixten zitean'.
- *Gauzak galtzeizkik*, 'gauzak galtzen dizkik'.
- *Guante obenak poltsikok ttuk . Oi, oi Egoitzek esan tzian*, 'eskularru onenak poltsikoak dituk. Hori, hori Egoitzek esan zian'.

Eta sail berari dagozkion hiru forma neutro ere agertu dizkigu Anerrek. Galdetegi bidez bakarra:

- *Kotxe bat eosi zuen*, 'kotxe bat erosi zuten'.

Gainontzeko biak, hortaz, elkarrizketa librean aditutakoak izan dira:

- *Guk oaindik lanik ezteu itten ta*, 'guk oraindik lanik ez dugu egiten eta'.
- *Ya egun bertan jaten da ya utzi zuen*, 'ja egun bertan jaten eta utzi zuten'.

NOR NORI NORK saila

NOR NORI NORK sailak ere utzi dizkigu bai nokako, bai tokako, bai forma neutroko aleak. Hala ere, nokako forma alokutiboak izan dira ugariak; hiru, hain zuzen:

- *Arakiñai beti bat saldu zionau*, 'harakinari behi bat saldu zionagu'.
- *Artzaiek pentsue eman zien²⁷ ardiri*, 'artzaiek pentsua eman zien ardieri'.
- *Karamelo bat eman zianan beak*, 'karamelu bat eman zionan berak'.

Nokaren ordeztoka behin erabili du Anerrek galdetegi bidez eskuratutako formetan. Honako honetan:

- *Bei bat saldu zioat karnizeroi*, 'behi bat saldu zioat harakinari'.

²⁷ Hasieran *ziek* esatera zihoala, *zie* esan, *-k* esan aurretik gelditu, eta *-n* gehitu behar diola ohartu da.

Eta elkarriketa librean ere noka egitea eskatzen zuen testuinguruan, tokako eta NOR NORI NORK sailari dagokion forma alokutibo bakarra entzun dugu. Hauxe, hain justu:

- *Joe, poltsikuk beteta! Nei pixkat emate ziak, baño*. 'Arraioa, poltsikoak beteta! Niri pixka bat bat ematen zidak baina'.

Forma neutroak, ostera, bi zenbatu ditugu galdetegi bidez lortutako datu elizitatuetan. Horiek honako hauek:

- *Neonek saldu nion bei bat*, 'neronek saldu nion behi bat'.
- *Bei bat saldu genion arakiñai*, 'behi bat saldu genion harakinari'.

Elkarriketa librean ez dugu Anerren adizki neutrorik topatu.

4.3.4 Nokako aditz sintetikoak

Nokako adizki sintetikoak eskatu edota erabiltzerako garaian, nokakoen pare edo gehiago eskaini dizkigu Anerrek tokako alokutiboak nahiz forma neutroak. IZAN adizkietan galdetegi bidez nahiz elkarriketa bidez forma bana lortu dugu nokako alokutiborako. Galdetegi bidez Anerrek eskaini diguna dugu hau:

- *Bea gaztea den*, 'bera gaztea dun'.

Solasaldi librean erabilitakoa, berriz, galdetegian agertutako bera da:

- *Oi den*, 'hori dun'.

Tokako alokutiboak, ordea, bat entzun dugu galdetegi bidez, eta bi elkarriketa librean. Galdetegi bidez jasotakoa da ondorengoa:

- *Bea len gaztea uan*, 'bera lehen gaztea zuan'.

Eta elkarriketa libretik bildutakoak dira tokako beste hauek:

- *Ondon beste erri bat zeok, ta ue bastante merkea ek*, 'ondoan beste herri bat zegok, eta hura nahiko merkea duk'.
- *Bai, enpresakok ttuk. Enpresa zekek konstrukziokoa*, 'bai, enpresakoak dituk. Enpresa zeu-kak eraikuntzakoa'.

Forma neutroei dagokienez, galdetegi bidez eskuratu dugun bakarra dugu hau:

- *Istori guztia kontatzeko luzegie litzeke*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia litzateke'.

Elkarriketa libreak, ordea, bi forma neutro ere utzi ditu:

- *Jende dexente gea ta*, 'nahikoa jende gara eta'.
- *Oi da*, 'hori da'.

JOAN adizkiari erreparatuz gero, ostera, nokako eta tokako alokutibo forma bana eskuratu dugu galdetegi bidez. Hona hemen nokako eta tokako alokutibo horiek, hurrenez hurren:

- *Ne andrea gaur Baiona dijo → ne andrea gaur Baiona zijen*, 'nire andrea gaur Baionara zoan'.

- *Istripue pasau uanen bea etxeaka zijoan, 'istripua gertatu *zuanean bera etxerantza ziho-
aan'.*

JOAN adizkiari dagokion forma neutrorik ez dugu entzun. EGON adizkietan, bestalde, paretsu ibili dira nokako, tokako eta forma neutroak. Izan ere, nokako adizki alokutibo bat bildu dugu galdetegi bidez:

- Lo dao → *lo zeon*, 'lo zagon'.

Bi tokako alokutibo jaso ditugu, galdetegi bidez bakarra, eta bestea hizketaldi librean. Ondorengoetatik aurrenekoa galdetegi bidez egindako tokako adizkia da, eta elkarrizketa librean erabilitakoa, aldiz, bigarrena:

- *Etxen zeoan deittu nionen*, 'etxean zegoan deitu nionean'.
- *Ondon beste erri bat zeok*, 'ondoan beste herri bat zegok'.

Eta EGON adizkiekin bukatzeko, elkarrizketa librean aditutako forma neutroa ekarriko dugu hona:

- *An lana beti dau*, 'han lana beti dago'.

EDUKI adizkietan, berriz, bi nokako adizki atera dizkiogu Anerri galdetegi bidez. Hauexek:

- *Etxe bat nekenan*, 'etxe bat neukanan'.
- Oso etxe politta dake → *oso etxe politta zeken*, 'oso etxe polita zeukan'.

Baina tokako alokutibo bat ere erabili du elkarrizketa librean:

- *Enpresa zekek konstrukziokoa*, 'enpresa zeukak eraikuntzakoa'.

Forma neutroei heldurik, galdetegian behin erabili du forma neutroa nokako alokutiboaren ordeiz, eta bitan elkarrizketa librean. Ikus ditzagun horiek aipatutako iturriaren hurrenkera berean:

- Beak etxe polit bat zeuken → *beak etxe politt bat zeken*, 'berak etxe polit bat zeukan'.
- *Gureak gañea zeken, jesto on bat zekean*²⁸ 'gureak gainera zeukan, keinu on bat zeukean'.
- *Jendek etxen zezkan sobrak*, 'jendeak etxean zeuzkan soberakinak'.

IBILI eta ERAMAN adizkiek, aldiz, emaitza bertsuak erdietsi dituzte; galdetegi bidez nokako forma alokutibo eta forma neutro bana eman baitute. ERAMAN adizkiak horiez gain, tokako adizki alokutibo bat ere agertu du galdetegi bidez. Hala, IBILI adizkiaren nokako aditz alokutiboa eta forma neutroa dira hauek, hurrenez hurren:

- Mending dabil → *mending zebiyen*, 'mending zebilen'.
- *Mending zebiyen enteatu uanen*, 'mending zebilen zerbaiten berri izan *zuanean'.

ERAMAN adizkiak emandako nokako, tokako eta forma neutroak, berriz, honakoak:

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik*²⁹, *zemarkin*, 'berak arropa buru gaineen zeramak, zeraman'.
- *Ikusi nunen txakurre etxea zemarkin*, 'ikusi nuenean txakurra etxera zeraman'.

²⁸ Zekean esatean Josuri begiratu dio. Horregatik, Josuri esango balio bezala ulertu dugu, hau da, Josuri egin diola toka. Zeken esatean, berriz, Saioari begiratu dio.

²⁹ Baliteke nokako emateko makulu bezala erabili izana.

JAKIN adizkiarekin eskaini dizkigu Anerrek azken nokako forma alokutiboak, horiek galdetegi bidez eskuratutako hiru izanik; honako hauek, hain zuzen:

- *Oi bazekiñat nik*, 'hori bazekinat nik'.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekin zertaz ai neoken*, 'bazekin zertaz ari *nauken'.
- *Oso ondo zekiñan josten*, 'oso ondo zekinan josten'.

Nokako adizki alokutiboez gain, baina, tokako adizki alokutibo bat ere eman du Anerrek elkarriketa librean. Forma neutrorik ez du eskaini. Hala, hauxe da elkarriketa librean nokaren ordeztoka egin duen adizkia:

- *Etzekiat*, 'ez zekiat'.

ETORRI adizkiei erreparaturik, nokako eta tokako alokutibo bana erabili du galdetegi bidez eskuratutako formetan, eta ez dugu adizki horri dagokion forma neutrorik aditu. Hauexek ditugu, beraz, nokako eta tokako adizkiak, hurrenez hurren:

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturren merkatutik*, 'nire aita orain zeturren merkatutik'.
- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin elkartu zuanean'.

Azkenik, EKARRI adizkiak utzi dizkigun bi lekukoetako bat gutxienez, forma neutroa dugu:

- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañen arropa zekarkin*, 'berak buru gañen arropa zekarren'.

Beste forma batekin, ordea, zalantza dugu zer dioen. Bi aukera hauek ditugu:

- *Arropa buru gañen dakarki*, 'arropa buru gainean dakar'.
- *Arropa buru gañen dakarkin*, 'arropa buru gainean dakarren'.

Hau da, forma neutro eta asmatuaren artean legoke auzia. Izan ere, batzuetan aditzaren bukaeran sudurkaria egiten ote duen iruditzen zaigu, baina garbi-garbi ere ez dugu entzuten. Horregatik, biak aipatzea iruditu zaigu egokiena. Nolanahi ere, argi dagoena da nokako alokutiboa ez duela eskaini.

Forma berriak eta asmatuak

Nokako adizki perifrastiko eta sintetiko guztien artean, berritatzat jo dugun nokako forma bat bakarrik dago, hori honako hau izanik:

- *Nai badin, lana oain bukau zeikek*, 'nahi *badin, lana orain buka zitekek'.

Nokako forma asmatuek lekukotasun gehiago utzi dizkigute berriek baino, nokako aditz perifrastikoen artean hiru eskuratu baititugu galdetegi bidez. Horietatik bat NOR sailekoa da:

- *Bea gaztea bauan, gukin geatuko uen*, 'bera gaztea *bazuan, gurekin geratuko *huen'.

Beste bat, berriz, NOR NORK sailean:

- Afarin geiegi ean genun → *Afarin geiegi ean geniyan*, 'afarian gehiegi edan *geniyan'.

Bestalde, NOR NORI NORK sailak eskaini duen forma asmatuak argiago erakusten du asmatua direla gure irudikoz. Galdetegi bidez lortutako datu elizitatuen artean dago honako hau:

- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatuko ez balion, egie zala sinestuko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatuko ez *balion, egia zela sinetsiko zian’.

Eta nokako forma berri eta asmatuez gain, tokako forma berri bat ere erabili du NOR NORI sailean galdetegi bidez galdeginda; honako hau, preseski:

- *Atzo semea etorri zitzaia etxea*, ‘atzo semea etorri zitzaidaan etxera’.

Aditz sintetikoetan, oster, ez dugu nokako forma asmatuak entzun, edo entzutekotan bakar, lehenago azaldu dugun bezala. Hots, *arropa dakarkin* ‘arropa *dakarren’ baldin bada benetan Anerrek esaten duena, asmatuen artean legoke. Aldiz, *dakarki* baldin bada dioena, forma neutroa izango litzateke, eta ondorioz, ez genuke nokako forma asmatuak izango.

Aditza aldatzea

Bestalde, Anerrek ere egin ditu Josu eta Saioarekin ikusi ditugun aditzen barruko aldaketak, hiru baino ez badira ere. Lehenengo aldaketa NOR NORI NORK saileko adizki batekin jazo da:

- Bei bat salduio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat*, ‘behi batzuk saldu zizkionat’.

Bertan ikus daitekeena da NORK hirugarren pertsona singularra duen nokako adizki alokutiboaren orde, lehenengo pertsona singularra duen nokako aditz alokutiboa eman digula Anerrek. Hori gertatzean, inkestatzailea Anerri laguntzen saiatu da, eta orduan, *saldu zizkiok*, ‘saldu zizkiok’ tokako forma alokutiboa eskaini digu. Hots, tokako alokutibora bihurtu du nokakora beharrean. Horretaz gain, NOR hirugarren pertsona singularra egin beharrean, hirugarren pertsona plurala egin du (*behi bat* erabili beharrean *behi batzuk* hartu baitu oinarritzat). Aditz sintetikoei dagokienez, ez dugu aditz aldaketarik kausitu.

Eta Anerren adizkien deskribapenarekin bukatzeko, aipatu nahi dugu kasu batean galdetutako noketako forma alokutiboa ez dakiela adierazi digula zuzenean. Ez du inolako adizkirik eman. Hori gertatu da ondorengo honetan:

- *Bidea atea naz*, ‘bidera atera naiz’.

Baina ez da guztiz egia. Hurrena galdetu diogun esaldian berriro aditz perifrastiko berbera agertu da, eta horretan nokako adizki alokutiboa eman du. NOR saileko nokako adizki alokutiboen artean ikus daiteke hori.

4.4 Ekhiren adizkien deskribapena

4.4.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Lau izan dira Ekhi egin dizkigun eta tokako forma alokutiboa duten NOR saileko adizkiak. Forma horiek ondorengo esaldi hauetan topa ditzakegu:

- *Bea gaztea balitz, gukin geatuko uan*, 'bera gaztea balitz, gurekin geratuko zuan'.
- *Bidea atea neok*, 'bidera atera nauk'.
- *Atzoako buka zeikean*, 'atzoko buka zezakean'.

Elkarriketa librekoak, aldiz, zalantza dugu guztira egiazki zenbat diren; izan ere, lau seguru baditugu ere, beste bi ez. Seguru ditugunekin hasiko gara:

- *Juxtu oi izango uan*, 'justu hori izango zuan'.
- *Ni bozina jartzen ai nitxoan*, 'ni bozina jartzen ari ninduan'.
- *Orain ya eneok maitzen asko*, 'orain ja ez nauk mugitzen asko'.
- *Ez gattuk biya attuko*, 'ez gaituk bila arituko'.

Beste bi formatako batean zalantza dugu *gintxoan*, 'gintxoan' edo aurrez aipatutako *nitxoan*, 'ninduan'-i egiten dion erreferentzia. Guk *gintxoan* izatea espero dugu, baina entzuten duguna, honako hau da:

- *Izketan atxu itxoan, ta pena eman zitxala i*, 'hizketan aritu ninduan?/gintuan? eta pena eman *zitxala hi'.

Beste forma bat, oster, uste dugu *neok* formaren aldaera dela, edo hobeto esanda, *neok* dela aldaera berria:

- *Ni seriek ikusten zalea nauk*, 'ni telesailak ikusten zalea nauk'.

Horiek lirake, beraz, elkarriketa libretik aterako NOR saileko tokako forma alokutiboak edota aldaerak.

Beste zenbaitetan, aldiz, toka erabiltzea eskatu edo toka erabiltzeko ingurunea izanik ere, ez du forma alokutiborik erabili NOR sailean Ekhi. Hala, galdetegi bidez eskatutako adizkietan forma neutro bat eman du :

- *Nereana etortzen zan*, 'niregana etortzen zen'.

Eta lau forma neutro erabili ditu elkarriketa librean:

- *Da asi nintzan korrika gora*, 'eta hasi nintzen korrika gora'.
- *Oi loko ibiltze omen tzan korrika ta*, 'hori zoro moduan ibiltzen omen zen korrika eta'.
- *Azkenen oain, Instagramen eotea, beste konfigurazio osti orrekin*, 'azkenean orain, Instagramen egoten da, beste konfigurazio malapartatu horrekin'.
- *Ze amar urte o, zenba ie?*, 'zeren hamar urte edo, zenbat dira?'.

NOR NORI saila

NOR NORI sailari dagokionez, tokako forma alokutibo bakarra eta ustez berbera entzun diogu bai galdetegi bidez, bai elkarrizketa librean Ekhiri. "Ustez" diogu galdetegi bidez lortutako forma honela entzun baitugu:

- *Ondo iruitze zaia*, 'ondo iruditzen zaidak'.

.Hau da, *zaiak* forma entzutea espero badugu ere, bukaerako herkaririk ez dugu entzun. Elkarrizketa libretik bildutako forma, berriz, honela egin duela aditu dugu:

- *Gustatze zaiak dena*, 'gustatzen zaidak dena'.

Beraz, funtsean forma berberaz ari garela esango genuke. Tokako forma alokutiborik gabeko NOR NORI saileko adizkiak, osteraz, gehiago izan dira; bost, hain zuzen. Bostak galdetegi bidez eskuratu ditugu, eta hauek dira horien lekuko batzuk:

- *Aragie gustatzen zait*, 'haragia gustatzen zait'.
- *Aragie gustatzen zaio*, 'haragia gustatzen zaio'.
- *Leno aragie gustatzen zaitzaion*, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.

NOR NORK saila

NOR NORK saileko tokako adizkiak oraingo honetan ere gehiengoa dira. Hamaika adizki bildu ditugu galdetegi bidez, eta beste hamabost elkarrizketa libretik. Galdetegi bidez jaso ditugun formatoko batzuk dira honakoak:

- *Gaur gutxi jan dia*t, 'gaur gutxi jan diat'.
- *Beak gutxi jan dik*, 'berak gutxi jan dik'.
- *Gar asko jan dia*u, 'gaur asko jan diagu'.
- *Ne emaztek sagarrak jan dizkik*, 'nire emazteak sagarrak jan dizkik'.
- *Len geiegi eate ni*a, 'lehen gehiegi edaten nian'.

Eta elkarrizketa librean aditu ditugun beste zenbait dira ondorengoak:

- *Nik uste*ia*t aurtengo udaran okerragoa izango*ek*ela*, 'nik uste diat aurtengo udaran okerragoa izango *dukela'.
- *Oa*ñ* olako gauza asko itteiz*ki*a*u, 'orain horrelako gauza asko egiten dizkiagu'.
- *Ta geo lau patruia ikusi nizkian*, 'eta gero lau patruila ikusi nizkian'.
- *Eskue ausi zia*n, 'eskua hautsi zian'.

Forma alokutiborik gabeko NOR NORK saileko adizkiak, aldiz, gutxiago izan dira. Bi forma bildu ditugu galdetegi bidez:

- *Asko ean due*, 'asko edan dute'.
- *Nik in neiken*, 'nik egin nezakeen'.

Bost adizki neutro elkarrizketa librean ere erabili ditu. Horietako hiru dira ondorengoak:

- *Beste udara baten olako egualdik eztittu in da*, ‘beste udara batean horrelako eguraldirik ez ditu egin eta’.
- *Ganaduik ezteu eukiko*, ‘ganadurik ez dugu edukiko’.
- *Ne etxen beñe eztet ikusi kontrola itten da*, ‘nire etxean behin ere ez dut ikusi kontrola egiten eta’.

NOR NORI NORK saila

NOR NORI NORK saileko tokako adizkiei erreparatuz gero, ez ditugu NOR NORK sailekoak bezainbat bildu, baina bost galdetegitik eta hiru elkarrizketa libretik izanik, zortzi bederen, eskuratu ditugu denera. Galdetegi bidez lortutakoen artetik lau azaleratuko ditugu:

- *Bei bat saldu zoat karnizeroi*, ‘behi bat saldu zioat harakinari’.
- *Bei bat saldu ziok karnizeroi*, ‘behi bat saldu zioak harakinari’.
- *Arakiñai bei bat saldu zoau*, ‘harakinari behi bat saldu zioagu’.
- *Bei bat saldu genioan arakiñai*, ‘behi bat saldu genioan harakinari’.

Eta elkarrizketa libretik eskuratutako biak dira, ostera, honako hauek:

- *Lengon bere urtek. Zoriondu in nitxoan eta “eskerrik asko” esan zitean*, ‘lehengoan bere urteak. Zoriondu egin nioan eta “eskerrik asko” esan zidaan’.
- *Jendek kulpa botatzen tziek*, ‘jendeak kulpa botatzen ziek’.

Tokako alokutiborik gabeko NOR NORI NORK saileko adizki neutroak, berriz, tokakoak baino gehiago izan dira; sei galdetegi bidez lortutakoak dira, eta beste hiru elkarrizketa libretik eskuratutakoak. Galdetegi bidez lortutako batzuk agertze aldera, hona hemen hiru lekuko:

- *Neonek saldu nion arakiñai bei bat*, ‘neronek saldu nion harakinari behi bat’.
- *Karamelo bat eman zion beak*, ‘karamelo bat eman zion berak’.
- *Artzaiek pentsue eman die ardii*, ‘artzaiek pentsau eman die ardiei’.

Elkarrizketa librean entzundako hirurak dira, aldiz, honako hauek:

- *Konpetitze (...) kriston egurra emate omen die, ta motok asko sufritze omen dik*, ‘lehian izugarrizko egurra ematen omen diote, eta motoak asko sufritzen omen dik’.
- *Prestatu in ber omen die, e, zeak esan tzian, nola dek beste karre (...) ibiltzean oi, Artola, Artola*, ‘prestatu egin behar omen dute, eh, zerak esan zidan, nola dek beste karre (...) ibiltzen den hori, Artola, Artola’.
- *Ta tipok esan tzion Inaxioi*, ‘eta tipoak esan zion Inaxiori’.

4.4.2 Tokako adizki sintetikoak

Tokako adizki sintetikoei heldurik, galdetutako adizki guztietan eskuratu dugu gutxienez tokako adizki alokutibo bat. Hala, IZAN adizkietan tokako bi forma ditugu galdetegi bidez lortutakoak:

- *Bea gaztea ek*, ‘bera gaztea duk’.

- *Bea len gaztea uan, 'bera lehen gaztea zuan'.*

Eta beste bat elkarriketa libretik erauzitakoa:

- *Nola dek³⁰ beste karre (...) in tzon oi, Artola, Artola, 'nola duk beste karre (...) egin zuen hori, Artola, Artola'.*

Baina IZAN adizkiaren forma neutro bat ere lekukotu dugu datu elkarriketa librean:

- *Enaiz futbol zalea, 'ez naiz futbol zalea'.*

JOAN adizkiari dagokionez, galdetegi bidez soilik izan dugu tokako bi forma alokutibo entzuteko aukera. Bi horiek hauexek dira:

- *Ne andrea gaur Baiona zijok, 'nire andrea gaur Baionara zoak'.*
- *Istripua pasau zanen, bea etxe aldea zijoan, 'istripua gertatu zenean bera etxe aldera ziho-
aan'.*

Elkarriketa libreak eman duen JOAN adizkiaren forma bakarra neutroa izan da:

- *Erruedajoa aiden, 'gurpila doa airean'.*

Galdetegi bidez ez dugu JOAN adizkiaren forma neutrorik eskuratu. EGON adizkiak ditugu hurrena zerrendan, eta horietako bi adizki alokutibo jaso ditugu galdetegi bidez:

- *Lo zeok, 'lo zegok'.*
- *Etxen zeoan dettu noanen, dettu nitxoanen, nionen, 'etxean zegoan deitu *noanean, deitu
nitxoanean, nionean'.

Eta elkarriketa libre bidez bakarra:

- *Bakunak eta in arte, etzeok, 'txertoak eta egin arte, ez zegok'.*

Hizpide dugun adizkiko forma neutro bakarra lekukotu dugu, eta hura elkarriketa librean izan da:

- *Bizkarretik e gaizki omen tzeon, 'bizkarretik ere gaizki omen zegoen'.*

ETORRI adizkiekin JOAN adizkiekin bezala bi tokako forma alokutibo eskaini dizkigu Ekhi galdetegi bidez, eta bakarra ere ez elkarriketa librean, ezta inolako forma neutrorik ere galdetegi zein elkarriketa libre bidez. Hortaz, galdetegitik bakarrik eskuratu ditugun tokako bi adizki alokutiboak hauek dira:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik, 'nire aita orain zeturrek merkatutik'.*
- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu zanen, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin el-
kartu zenean'.*

IBILI adizkiak ere ETORRI aditzen emaitza berdinak utzi dizkigu, bi tokako forma alokutibo lortu baititugu galdetegi bidez, eta batere ez elkarriketa libretik; ezta adizki neutrorik ere galdetegi bidez nahiz solasaldi asketik. Bada, hauek dira galdetegi bidez eskuratutako IBILI adizkiaren tokako adizki alokutiboak:

- *Mendin zebiyek, 'mendian zebilek'.*

³⁰ Ek eta eztek aldaera ere entzun ditugu: *berez politta ek, 'bere polita duk' eta oi re eztek earra, 'hori ere ez duk ederra'.*

- *Mendian zebiyean enteatu uanen*, ‘mendian zebilean enteratu *zuanean’.

EDUKI adizkiarekin ale gehixeago utzi dizkigu Ekhi. Hiru alokutibo galdetegi bidez, eta beste bi elkarrizketa librean entzun ahal izan diitugu. Galdetegiak utzi dizkigun tokako adizki alokutiboak honako hauek dira:

- *Etxe bat nekean*, ‘etxe bat neukaan’.
- *Oso etxe politte zekek*, ‘oso etxe polita zeukak’.
- *Beak etxe politte zeukean*, ‘berak etxe polita zeukaan’.

Elkarrizketa librean, oster, bi hauek identifikatu ditugu:

- *Karneta ateata omen zeukek*, ‘karneta aterata omen zeukak’.
- *Nik joerak zezkeat*, ‘nik joerak zeuzkaat’.

EDUKI adizkiaren forma neutrorik ez dugu topatu. EKARRI eta ERAMAN aditzei dagokienez, emaitza berberak lortu ditugu, hau da, tokako adizki alokutibo bakarra eskuratu dugu galdetegi bidez bi adizkietan, hizketaldi asketik batere ez, eta aditz batean zein bestean ez dugu forma neutrorik aurkitu. Hala, EKARRI aditzarekin Ekhi eman digun adizki alokutiboa haxe izan da:

- *Arropa buru gañen zekarkik³¹*, ‘arropa buru gaineen zekarrek’.

ERAMAN adizkiarekin eskaini digun tokako forma alokutiboa, oster, honako hau izan da:

- *Beak arropa buru gañen zemakik*, ‘berak arropa buru gaineen zeraamak’.

Aditz sintetikoetan azkenik, JAKIN adizkia dugu, eta horretan bina adizki alokutibo bildu ditugu galdetegi bidez zein elkarrizketa libretik; lehenengotik lortutakoak hauek:

- *Oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- *Etzekik eze*, ‘ez zekik ezer’.

Eta elkarrizketa librean entzundakoak beste hauek:

- *Etzekiat, bestela alperrik eosiek*, ‘ez zekiat, bestela alferrik erosi duk’.
- *Nola attek etzekik puta ideaik e*, ‘nola aitak ez zekik ideiarik ere’.

JAKIN adizkiaren forma neutroak ere, ordea, bildu ditugu bakan batzuk. Bakarra galdetegi bidez eta bi elkarrizketa libretik. Galdetegiak eskaini diguna hau izan da:

- *Nere amak oso ondo zekin josten*, ‘nire amak oso ondo zekien josten’.

Solasalditik jasotakoak dira, berriz, azken hauek:

- *Ta beak etzekin e*, ‘eta berak ez zekien, eh’.
- *Eztakit*, ‘ez dakit’.

³¹ Inkestatzailearen laguntzarekin lortutako forma. Hasieran, *zema*kik adierazi du Ekhi. Baina orduan, inkestatzaileak “ekarri, ekarri” esan dio, “arropa buru gañen dakarki”. Ekhi horren ostean “eske oi ola enun esango, baño”. Inkestatzaileak orduan: “ik esan dek *zema*kik”. Eta Ekhi jarraitzen du: “arropa gañen *zema*-*kik* o, eske eztakit, oain etzait ola okurritzen”. Inkestatzaileak adierazi dio “dakarki” aditza dela interesatzen zaiona, eta esaldia errepikatu dio. Ekhi, azkenik, “*zema*, *zekarkik*”. Igual bai. Eztakit, ola esango nuke igual? Eztakit” adierazi du.

Tokako forma berriak

Hamalau tokako alokutiboko forma berri eskaini dizkigu denera Ekhik galdetegi bidez jasotakoak eta elkarriketa librean entzundakoak zenbatuz gero. Horietatik lau galdetegi bidez lortutakoak izan dira, eta beste hamarrek, hortaz, elkarriketa libretik bildu ditugu. Honako hauek dira galdetegitik eskuratu ditugun datu elizitatuen artetik tokako forma berriak:

- *Nai baik lana buka zeikek, oain buka zeikek* ‘nahi badik, lana buka zitekek, orain buka zitekek’.
- *Etxen zeoan deitu noanen, dettu nitxoanen*³², ‘etxean zegoan deitu *noanean, deitu *nioanean’.
- *Ikusi nianen zakurre etxea, etxea damaki*, ‘ikusi *nianeanean zakurra etxera, etxera darama’.
- *Bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.

Elkarriketa libretik erauzi ditugunak dira, berriz, ondorengo hamarrek:

- *Nik usteiat aurtengo udaran okerragoa izangoekela*, ‘nik uste diat aurtengo udaran okerragoa izango *dukela’.
- *Nik attuiatenangatik beintzat, ostias, zeoze inbenta bearkoiau*, ‘nik aditu *diatenarengatik behintzat, ostia, zer edo zer asmatu beharko diagu’.
- *Izketan atxu itxoan, ta pena eman zitxala i*, ‘hizketan aritu gintuan, eta pena eman *zioala hi’.
- *Itteikena euskeraz itte baik, seguru ikusikoekela*, ‘egiten *dikena euskaraz egiten *badik, seguru ikusiko *dukela’.
- *Ikusikoik emengo lau katuk o, ikusteikenak, behintzat*, ‘ikusiko dik hemengo lau katuk edo, ikusten *dikenak’.
- *Jendea bazeokela, baño ikusikoik (...), baño erderaz geio ikusikoie nik uste*, ‘jendea *bazeokela, baina ikusiko dik (...), baina erderaz gehiago ikusiko ditek nik uste’.
- *Egualdi ona itteikenen kanpoa, osea, eztek eze itten baño*, ‘eguraldi ona egiten *dikenean kanpora, hau da, ez duk ezer egiten baina’.
- *Oantxe esanezkeo, ta gauzak garbi azaldu ezkeo, etzekiat, zenbat, zemuz jun deken o, etzekiat*, ‘oraintxe esanez gero, eta gauzak garbi azalduz gero, ez zekiat, zenbat, zer moduz joan *duken edo, ez zekiat’.

Guztiei erreparatu gero, ezaugarri bat dute denek komunean: menpeko perpausetako adizkiak dira.

Tokako forma asmatuak

Bi izan dira gure ustez Ekhik asmatu dituenak. Galdetegitik eskuratutakoa bat:

³² Inkestatzaileak esaldia berriro esateko eskatzen dio. Orduan Ekhik honako erantzun hau eman du: “*dettu nitxoanen, nionen*. Etzekit nola esan. Segun ze persona”.

- *Etzen zeoan deitu noanen, dettu nitxoanen*, ‘etxean zegoan dietu *nuanean, deitu *nioa-nean’.

Eta elkarriketa librean entzun duguna bestea:

- *Alako baten jartzeik: “este libro será siniestro total”. Etzenian ezerrez! Pistatik kanpoa ate-ata, ez paratxokeseik ausita, ez ezer*, ‘halako batean jartzen dik: “este libro será siniestro total”. Ez *zenian ezer ez! Pistatik kanpora aterata, ez kolpe-leungailurik hautsita, ez ezer’.

Badirudi azken horretan EDUKI adizkiaren lehenaldiko tokako alokutiboa erabili behar zuela, baina antza, adizki hori ez izan, edo ez etorri, eta asmatu egin du hutsunea betetzeko.

Aditza aldatzea

Denera zazpi aditz aldatze kasu zenbatu ditugu Ekhirri galdetutako edo testuinguru jakin batean espero zen adizkiarekin bat ez datozenen artean. Aldaketak ikusi ditugu galdetegi bidez eskuratutako NOR NORK saileko bi kasutan eta JAKIN adizkiaren beste kasu batean:

- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosiyat, kotxe bat eosi nian, beak atzo kotxea eosi zun*³³, ‘kotxe bat erosi diat, kotxe bat erosi nian, berak atzo kotxea erosi zuen’.
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zian*, ‘kotxe bat erosi zian’; *eztakit, kotxe bat eosi zuen*, ‘ez dakit, kotxe bat erosi zuten’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.

Lehenengo kasuan aldaketa erakusten duten bi adizki ikus daitezke. Lehenengo aldaketan lehenaldiko aditza orainaldiko bihurtu du, eta gainera, NORK hirugarren pertsona singularrekoa egin beharrean, lehenengo pertsona singularra erabili du. Bigarren adibidean, berriz, lehenaldiari eutsi dio, baina NORKeko lehenengo pertsona singularrak bere horretan jarraitu du, hau da, ez du eskatu zaion hirugarren pertsona singularra erabili. Bigarren kasuan, aldaketa duen aditz forma bakarra eskaini digu Ekhirri, eta horretan gertatu dena izan da hirugarren pertsona plurala erabili beharrean hirugarren pertsona singularreko tokako forma alokutiboa erabili duela. Hirugarren kasuari heldurik, badu lehenengo kasuko lehen aldaketaren antzik, izan ere, Ekhirri NORK hirugarren pertsona singularra duen tokako adizki alokutiboa erabili beharrean, NORK lehenengo pertsona duen tokako alokutiboa eman du. Horrek iradokitzen digu errezago zaizkiola Ekhirri NORK lehenengo pertsona duten adizki alokutiboak hirugarren pertsonakoak baino.

Bestalde, elkarriketa librean ere aurkitu ditugu mintzagai ditugun aldaketak bezalakoak lau. Baina elkarriketa librekoek badute aurreko guztiekiko berezitasunik: hauek ez dute inkestagileak eskatutakoa gaizki entzun edo ulertu duen gisako errore aukerarik uzten, Ekhirri berari bat-batean ateratakoak baitira. Hala, hauexek dira espero genuen adizki baten tokian testuinguruak eskatzen ez zuen adizkia agertzen duten adibideak:

³³ Aurreko bi formak entzun eta gero, inkastatzaileak “kotxe bat eosi zun atzo beak” esan ostean adierazitako forma neutroa.

- *Ne etxen beñe eztet ikusi kontrola itten da, lengo eunen bi kontrol in zizkian³⁴ da, Jaiaken beste bat, 'nire etxean behin ere ez dut ikusi kontrola egiten eta, lehengo egunean bi kontrol egin zizkian eta, Jaiaken beste bat'.*
- *Ikusikoik emengo lau katuk o, ikusteikenak, beintzat, 'ikusiko dik hemengo lau katuk edo, ikusten *dikenak'.*
- *Lengon (...) bere urtek. Zoriondu in nitxoan eta "eskerrik asko" esan zitean, 'Lehengoan (...) bere urtek zoriondu egin ninduan, eta "eskerrik asko" esan zidaan'.*
- *Ya lenao gaizki genitxoan da, oain kobidan asuntokin da, etzeok, 'jada lehenago gaizki genioan eta, orain Covidaren kontuarekin eta, ez zegok'.*

Lehen kasuan ertzainen kontrolez ari da, beraz, *haiek*, ertzainek, alegia, egindako bi kontrol egin zizkiela adierazi beharko luke. Baina Ekhik NORK hirugarren pertsona plurala duen adizkia erabili orde, NORK hirugarren pertsona singularreko forma eskaini du. Eta uste dugu NORI *niri* pertsonari dagokion morfemak ere adizkian agertu beharko zukeela. Eskaini duen adizkia, ordea, tokako forma alokutiboa baldin bada, NOR NORK sailekoa da, eta testuinguruak NOR NORI NORK sailekoa izatea eskatzen du.

Bigarren adibidean ere aurreko kasuan bezala, NORK hirugarren pertsona singularra darabil hirugarren pertsona plurala erabili orde, subjektua *lau katu* izanik, plurala espero baitugu. Hirugarren adibidean sail aldageta ikusten dugu. Hau da, NOR NORI NORK saileko tokako adizki alokutiboa darabil NOR NORK sailekoaren partez. Eta azken kasuak EGON adizkiaren NOR lehenengo pertsona pluralaren tokako adizki alokutiboa eskatzen bazuen ere, Ekhik NOR NORI NORK saileko tokako adizki perifrastikoa erabili du bere hutsunea betetzeko. EDUKI adizkiarekin ere ikusi dugu adizkia asmatu duela. Aditz sintetikoak, eta biak lehenaldikoak izanik, agian lehenaldikoak hain ondo ez menperatzearen iragarle izan daitezke.

4.4.3 Nokako adizki perifrastikoak

Nokako adizki alokutiboek dagokienez, horiek deskribatzen hasi baino lehen adierazi nahi dugu, lortutako forma bakarrak galdetegi bidezkoak izan direla; Saioaren antzera, Ekhiaren elkarriketa lagunak ere mutilak izan baitira. Beraz, ez genuen espero nokako formarik elkarriketa librean, eta ez dugu bakar bat ere bildu. Horregatik, azpisail honetan eta datozen azpisailetan agertutako datu guztiak galdetegi bidez lortutako datu elizitatuak izango dira. Hori dela eta, ez dugu bildutako iturriaren aipamenik egingo jakintzat ematen delakoan.

³⁴ Zalantza sortu zaigu ea forma neutroa ote den, hau da, *zizkidan* ote den. Baina uste dugu Ekhik neutroa *zizkiten* egingo lukeela. Baina ez gaude ziur. Neutroa balitz ere, ez litzateke testuinguruak eskatzen duen adizkia.

NOR saila

NOR saileko nokako adizki perifrastikoei erreparaturik, bi nokako forma alokutibo lortu ditugu. Lehenaldikoa bata, eta orainaldikoa bestea:

- *Pedro leno abittu balitz, e leno etorriko onan, e etxetio, etxea*, 'Pedro lehenago abiatu balitz, eh, lehenago etorriko zunan, eh etxetik, etxera'.
- *Beana inguratu naun, naun*, 'beregana inguratu naun, naun'.

Beste batean, aldiz, tokako zein nokako adizkiki perifrastikoak eman ditu:

- *Bea gaztea balitz, eztaikit, balitz, gukin geatuko uan, gukin geatuko onan*³⁵, 'bera gaztea balitz, ez dakit, balitz, gurekin geratuko zuan, gurekin geratuko zunan'.

Eta toka nokaren ordeaz erabili duen kasurik ere bildu dugu:

- *Atzoako buka zeikean*, 'atzoko buka zitekean'.

Berriz, ez dugu NOR saileko adizki neutrorik bildu.

NOR NORI saila

Sail honetan ere, NOR sailean bezala, bi nokako adizki alokutibo eskuratu ditugu, biak lehenaldikoak:

- *Lenau aragie gustatze zitzaionan*, 'lehen haragia gustatzen zitzaionan'.
- *Atzo semea etorri zitzatenan*, 'atzo semea etorri zitzaidanan'.

Ez dugu sail honi dagokion bestelako formarik eskuratu, ez toka zein noka erabiltzen duen adizkirik, ez toka nokaren ordeaz egiten duenik. Forma neutrorik ere ez.

NOR NORK saila

Lau nokako adizki alokutibo eman dizkigu Ekhi NOR NORK sailean, guztiak lehenaldikoak, eta ez du egin Zaldibian esperotzekoa dugun ahoskerarik. Sudurkariak busti gabe egin ditu:

- *Len geiegi eate ninan*, 'lehen gehiegi edaten ninan'.
- *Afarin geiegi ean geninan*, 'afarian gehiegi edan geninan'.
- *Boteya guztik ean zizkinan*, 'boteila guztiak edan zizkinan'.
- *Ume onek urtebe izango zinan*, 'ume honek urtebete izango zinan'.

Sail berean noka egiteko eskatu badiogu ere, behin tokako adizki alokutiboa erabili du Ekhi nokakoaren ordeaz:

- *Kotxe bat eosi zian*, 'kotxe bat erosi zian'.

Eta bi kasutan forma neutroei eutsi die:

- *In daiket*, 'egin dezaket'.

³⁵ Inkestagilearen laguntzarekin ateratako adizkia.

- *Nik in neiken, 'nik egin nezakeen'.*

NOR NORI NORK saila

Sail honetan ere lehenaldiko nokako aditzak soilik eman dizkigu Ekhik, hiru, hain zuzen:

- *Neonek saldu nionan bei bat arakiñai, 'neronek saldu nionan behi bat harakinari'.*
- *Karamelo bat eman zionan beak, 'karamelo bat eman zionan berak'.*
- *Bei bat saldu genionan arakiñai, 'behi bat saldu genionan harakinari'.*

Oraingo honetan ez du tokako aditzik erabili nokaren orde, baina bai forma neutro bat:

- *Artzaiek pentsue eman die ardii, 'artzaiek pentsua eman die ardiei'.*

Nokako forma asmatuak adizki perifrastikoetan

Orain arte nokako forma alokutiboak, eta horiek ez dakizkienean tokako formak nahiz forma neutroak erabiltzen dituela ikusi dugu. Baina badarabil Ekhik jori beste errekurtsio bat: nokako formak asmatzea. Baliabide hori da gainera, sail guztietan maizen darabilena. Hala, NOR sailean bost forma asmatu dizkigu Ekhik. Hauexek, hain zuzen:

- *Jun in da → jun in denan, 'joan egin *denan'.*
- *Bidea atea naz → bidea atea neonan, 'bidera atera *naunan'.*
- *Neana etortze zan → neana etortze zitzanan, zitzan, 'niregana etortzen *zitzanan, *zitzan'.*
- *Baki zertaz ai naizen → bakit zertaz ai naukenan, 'badakit zertaz ari *naukenan'.*

la guztietan ikus daiteke, *zitzan* kasuan salbu, Ekhik nokako formak asmatzeko garaian *-nan* morfema edo atzizkia gehitzen diola aditzari. Hau da, badirudi Ekhirentzat emakume entzulearen morfema edo marka *-nan* dela. Azken kasuan, gainera, tokako forma alokutibo berriaren gainean eraiki du nokako adizki alokutibo asmatua.

NOR NORI sailari dagokionez, hiru forma asmatu utzi ditu Ekhik:

- *Ondo iruitzen zat → ondo iruitze zaitenan, 'ondo iruditzen *zaidanan'.*
- *Aragie gustatzen zaio → aragie gustatzen zaionan, 'haragia gustatzen *zaionan'.*
- *Len aragie gustatzen zitzaiten → leno aragia gustatze zitzainan, 'lehen haragia gustatzen zitzainan'.*

Forma asmatu horietan ere berriki aipatu dugun bidea erabiltzen duela ikus daiteke. NOR NORK saileko adizkiekin, berriz, gehienbat *-nan* erabili badu ere, eskaini dituen lau aditz asmatuetatik hirutan ez du atzizki hori baliatu. Ikus dezagun:

- *Gaur gutxi jan det → gaur gutxi jan dina, gar gutxi jan nian, jan dinan, 'gaur gutxi jan *dina, gaur gutxi jan nian, jan *dinan'.*
- *Gaur asko jan deu → gaur asko jan dinaun, 'gaur asko jan *dinagun'.*
- *Ne emaztek sagarrak jan dittu → ne emaztek sagarrak jan dinan, jan di, 'nire emazteak sagarrak jan *dinan, jan *di'.*

Aipatu bezala, bi bider ez du *-nan* erabili. Horren lekuko ditugu lehen esaldiko *dina*, eta hirugarreneko *dinaun*.

Eta orain arte esandakoa berrestera datoz NOR NORI NORK saileko nokako adizki asmatuak ere. Izan ere, hamar forma asmatutatik seitan asmatzen ditu aditzak *-nan* erabilia. Hona hemen:

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat salduion, salduion, salduionan, saldu zonan, eztatit, saldu zonaun*, ‘behi bat saldu dion, saldu dion, saldu *dionan, saldu zionan, ez dakit, saldu *zionagun’.
- Arakiñai bei bat saldu diou → *arakiñai bei bat saldu zion... zionaun*, ‘harakinari behi bat saldu zion... *zionagun’.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi aittei attu... diena, dienan*, ‘istorio hori aitari aditu... *diena, *dienen’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egia zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatuko ez balionan, egie zala sinestuko zion, o zionan o*, ‘ehiztariak istorio hori kontatutako ez *balionan, egia zela sinetsiko zion, edo zionan edo’.

Adierazi behar dugu lehen postuan agertzen diren lehenak argumentalak badira ere, gero berehala atzetik beste bi adibide ere *-nan* erabilia eman dituela. Hirugarrenari eta laugarrenari *-naun* gehitu dio. Eta azkeneko forma asmatuetan *-na* soilik erabili du, baina atzetik *-nan* berriro ere.

Aditza aldatzea

Hamaika aditz aldaketa lekukotu ditugu nokako formak eskatu eta ematerako garaian. Ondorengo hauetan ikusi ditugu aldaketak:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztie kontatzeko luzegia izango onan*, ‘istorio guztia kontatzeko luzeegia izango zunan’.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasako uan, pasako onan*, ‘edozein momentutan pasatuko zuan, pasatuko zunan’.
- Eune allau leike → *eune...(...) allauko onan*, ‘eguna ailegatuko zunan’.
- Botella bat ean det → *boteya bat ean unan*, ‘boteila bat edan huen’.
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zinan*, ‘kotxe bat erosi zinan’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bado, lana oain buka zeikean*, ‘nahi badu, lana orain buka zezakean’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egia zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatuko ez balionan, egie zala sinestuko zion, o zionan o*, ‘ehiztariak istorio hori kontatutako ez *balionan, egia zela sinetsiko zion, edo zionan edo’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bado, lana oain buka zeikean*, ‘nahi badu, lana orain buka zezakean’.

- Gutxi jan do beak gaur → *gutxi jan dun beak gaur*, 'gutxi jan dun beak gaur'.
- Semek attei laundu daike → *semek attei laundu zeikenan*, 'semeak aita lagun zezakenan'.
- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat salduion, salduion, salduionan, saldu zonan, eztaikit, saldu zonaun*, 'behi bat saldu dion, saldu dion, saldu *dionan, saldu zionan, ez dakit, saldu *zionagun'.

Lehen kasuan aldaketa gertatu dela diogu baldintzako protasiaren ordezt, indikatiboko lehenaldiko nokako adizkia erabili duelako. Bigarren eta hirugarren kasuan ahaleratik indikatibora igaro da berriz ere Ekhi, baina bigarren adibidean, tokako eta nokako forma alokutiboak eskaini ditu Ekhi, eta aldiz, hirugarrenean nokakoa bakarrik. Laugarren datorren aditz aldaketari erreparatuta, aldiz, indikatiboko orainalditik lehenaldira igaro da Ekhi, eta gainera, pertsonaz aldatu du, hau da, NORK lehen pertsona singularra duen nokako adizki alokutiboa eskaini beharrean, NORK *hik* bigarren pertsona singularra duen nokako forma argumentala erabili du. Bosgarren kasuak ere pertsona aldaketa erakusten du, NORK hirugarren pertsona plurala duen nokako forma alokutiboa eskatu badiogu ere, NORK hirugarren pertsona singularra duen nokako adizki alokutiboa eman baitu Ekhi. Seigarren kasuak erakusten duen aldaketa, berriz, denborari dagokio, ahalerako orainalditik lehenaldira egin baitu jauzi Ekhi, eta gainera, tokako forma alokutiboa eskaini du nokakoa erabili beharrean. Zazpigarren adibideak sail aldaketa erakusten digu. Hots, NOR NORK saileko adizki alokutiboa eman beharrean, NOR NORI NORK saileko NORI hirugarren pertsona singularra duen adizki neutroa eman du lehenik Ekhi, eta adizki neutro horren nokako forma alokutiboa atzetik. Zortzigarren kasuan ikusten dugu ahalerako orainaldiko adizkia eman beharrean, lehenaldikoa erabili duela, eta gainera, toka egin duela nokaren ordezt. Bederatzigarren adibideak pertsona aldaketa erakusten du, NORK hirugarren pertsona singularra duen nokako alokutiboa eman ordezt, NORK *hik* bigarren pertsona singularra duen NOR NORK saileko adizki argumentala eman baitu. Hamargarren aditz aldaketa zortzigarrenaren berdina da, baina kasu honetan iraganeko nokako adizkia erabili du. Hamaikagarren kasuak, berriz, berriro ere pertsona aldaketa baten aurrean jartzen gaitu. Izan ere, *-n* gehituta, NORK *hik* bigarren pertsona singularra adizkiaren osagai eta subjektu den nokako adizkia eman du, eta guk NORK lehenengo pertsona singularra duen adizkiaren forma alokutiboa eskatu diogu. Hala ere, azken adibidean *-n* bakarrik erabili du, eta ez *-nan*. Beraz, orain arte agertutakoaren kontrara, *-n* bakarrik joan daitekeela ere erakutsiko luke Ekhi.

Ez dakizkien nokako forma perifrastikoak

Adizki perifrastikoekin bukatzeko, orain arteko baliabiderik erabili ez, eta Ekhi ez dakizkien formen artean sailkatu ditugu ondorengo bi hauek, biak NOR NORK sailekoak izanik:

- *Asko ean due*, 'asko edan dute'.
- *Bei bat salduio karnizeroi*, 'behi bat saldu dio harakinari'.

4.4.4 Nokako adizki sintetikoak

Adizki trinkoek ale gutxi batzuk baino ez dizkigute utzi. Adizki bakoitzean nokako forma alokutibo bakarra bildu dugu. Hala, IZAN adizkiari heldurik, forma neutrorik ez, tokakorik ere ez. Hauxe da jaso dugun nokako ale bakarra, bera lehenaldikoa:

- *Len gaztea onan*, 'lehen gaztea zunan'.

EGON adizkiarekin Ekhik eskaini digun nokako forma alokutiboa da, ostera, ondorengoak:

- *Etxen zeonan deitu nianen*, 'etxean zegonan deitu *nianeana'.

Ez dugu EGON adizkiari dagokion beste inolako adizkirk bildu. ETORRI adizkiari dagokionez ere, tokako aletxo bat utzi digu; ez forma neutrorik, ez bestelakorik:

- *Ne atte oñez zeturtean Pedrokin elkartu zanen*, 'nire aita oinez zeturtean Pedrokekin elkartu zenean'.

IBILI adizkiak ere ezin bada, esan uzta oparorik eman digunik, eta honako nokako adizki alokutibo hau da bildu dugun bakarra:

- *Mendian zebiyenan enteatu uanen*, 'mendian zebilenan zerbaiten berri izan zuanean'.

EDUKI adizkiak, ostera, nokako ale bat alde batetik, eta bestetik, nokako zein tokako forma alokutibo bana eskaini dizkigu. Hona hemen, hurrenez hurren:

- *Beak etxe polit bat zeukanan*, 'berak etxe polit bat zeukanan'.
- *Etxe bat nekenan, nekean*, 'etxe bat neukanan, neukaan'.

EKARRI adizkiak ere utzi du nokako adizki alokutiboaren lekuko bat; ez du bestelakorik utzi. Hori bai, Ekhik ez du egin Zaldibian espero dugun sudurkariaren bustidurarik:

- *Beak buru gañean arropa zekarkinan*, 'berak buru gainean arropa zekarrenan'.

JAKIN adizkia da azken nokako forma alokutiboa eman diguna; honetan ere ez du sudurkaririk busti:

- *Ne amak oso ondo zekinan josten*, 'nire amak oso ondo zekinan josten'.

Bestalde, forma neutro bat ere bildu dugu JAKIN adizkian:

- *Oi bakit, oi bakit nik³⁶*, 'hori badakit, hori badakit nik'.

ERAMAN adizkiarekin, berriz, nokako formarik ez, eta forma neutroa bildu dugu:

- *Ikusi nunen zakurre etxea zeraman*, 'ikusi nuenean zakurra etxera zeraman'.

Nokako forma asmatuak adizki sintetikoetan

Adizki perifrastikoetan bezainbeste izan ez badira ere, eskatutako zortzi adizkitan eman digu Ekhik forma asmatuaren bat; IZAN adizkietan izan ezik, beste guztietan, alegia. Hala, EGON adizkiarekin Ekhik eman duen forma hau asmatutzat dugu:

- Lo dao → *lo zeonan*, 'lo zegonan'.

³⁶ Egia da ondoren, *bakinan* eta *naun* forma asmatuak eman dituela, baina bi bider erabili duenez forma neutroa, naturalena hori zaiola sentitu dugu, hori dela egiazki beraren baitan dagoena.

Badakigu *zeonan* adizkia lehenaldiko nokako forma alokutiboa dela, baina adizki perifrastikoekin ikusi dugu, eta beste adizki sintetiko batzuekin ere ohartuko gara Ekhik adizkiari *-nan* atxikitzearekin sortzen dituela nokako adizki alokutiboak. Gainera, *-n* morfema femeninoarekin soilik eman dituen formak urriak dira, eta horregatik, uste dugu aditza asmatu egin duela kasu horretan, eta ez dela orainalditik lehenaldira igaro den aditz aldaketa bat. Bestalde, JOAN adizkiari dagokionez, forma bat asmatu du Ekhik:

- Istripua pasau zanen, bea etxeaka zija → *istripue pasau zanean, bea etxe alde zijoanan*, 'istripua pasatu zenean, bera etxe aldera *zihooanan'.
- Ne andrea gaur Baiona dijo → *ne andrea gar Baiona zijoan*, 'nire andrea gaur Baiona *zo-aan'.

Ikus daitekeenez, bai batean, bai bestean tokako forma oinarri hartuta asmatu du nokako forma. Hau da, bi kasuetan dago gizonezko entzulearen marka den *-a*, eta horren ondotik Ekhik adizki perifrastikoetan ere nokako forma ematerakoan hain sarri darabilen *-nan* marka lehen kasuan, eta bigarrenean, berriz, *-a*-ren gainean *-n* morfema femeninoa gehitu duelakoan gaude. Baina funtsean JOAN adizkiaren tokako lehenaldia da. Asmatu ez badu, aditz aldaketaren aurrean geundeke.

ETORRI adizkiari dagokion nokako forma alokutiboa asmatzeko ere *-nan* marka erabili du Ekhik, honetan berez lehenaldiko nokako adizki alokutiboa eskaini badu ere:

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zettorrenan merkatutik*, 'nire aita orain *zeto-rrenan merkatutik'.

ETORRI adizkiaren forma asmatuak erakusten duen gauza bera esan dezakegu IBILI adizkiari buruz ere. Hau da, *-nan* atzizkia erabili du Ekhik. Modu horretan lehenaldiko nokako forma alokutiboa sortu du, baina forma asmatua delako apustua lehenago egingo genuke aditz aldaketaren aldekoa baino. Izan ere, aurrez ere ikusi dugu adizki perifrastikoetan adizki asmatu gehienak aditzari *-nan* txertatuta sortu dituela, eta ildo berari jarraitzen diolakoan gaude honetan ere. Hona hemen esandakoaren lekukoa:

- Mending dabil → *mending zebiyenan*, 'mending zebilenan'.

EDUKI adizkiei dagokienez, aditz baten nokako forma alokutiboa eskatu, eta bi forma asmatu dizkigu Ekhik:

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekenan, zenan*, 'oso etxe polita zeukanan, *zenan'.

Bi kasuetan erabili du *-nan* oraingoan ere. Oinarria izan da aldatu duena. Lehen kasuan lehenaldiko forma sortu du, *zeke-* oinarri hartuta, eta bigarrenengan, aldiz, *ze-* oinarri duen adizkia asmatu du. Eta EKARRI, EDUKI eta JAKIN adizkiei dagokienez ere, behin eta berriz aipatzen ari garen baliabidea erabili du Ekhik nokako aditzak asmatzeko. Hala, EKARRI aditzaren forma asmatu bat, ERAMAN adizkiaren beste bat eta JAKIN adizkiaren bi forma asmatu bildu ditugu. Hurrenez hurren, hauek dira aipatuko adizkien forma asmatuak:

- Erropa buru gañen dakarki → *erropa buru gañean dakarkinan*, ‘arropa buru gainea *dakarkinan’.
- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañean damakinan*, ‘berak arropa buru gainea *damakinan’.
- Eztaki eze → *eztakinan eze*, ‘ez *dakinan ezer’.
- Oi bakit nik → *oi bakit, oi bakit nik. Oi bakinan, naun nik*, ‘hori badakit, hori badakit nik. Hori *badakinan, naun nik’.

Nokako forma sintetikoekin amaitzeko, aipatu nahi dugu ez dugula sailkatu aditzik aditz aldaketa baten aurrean gaudela iradokitzen digunik. Zenbaitetan egiazki hori gertatu dela baldin badakigu ere, agertu ditugun arrazoiengatik guztiak asmatuen artean sailkatu ditugu.

4.5 Igorren adizkien deskribapena

4.5.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Igorrek NOR sailari dagozkion adizki perifrastikoetatik tokako forma alokutibodunak eskaini dizkigu gehien, horiek hamaika izan baitira guztira, eta bakarra, berriz, sail bereko adizki neutroa. Forma alokutiboen artetik sei aditz forma galdetegi bidez lortu ditugu, eta bost, berriz, elkarritzeta libretik. Galdetegiak emandako adibide batzuk dira honakoak:

- *Ue jun in dek*, ‘hura joan egin duk’.
- *Bidea atea nauk*, ‘bidera atera nauk’.
- *Atzoako bukau zeikean*, ‘atzoko buka zitekean’.

Elkarritzeta libretik jasotako beste batzuk, oster, dira ondorengoak:

- *Gu jun gattuk asteburu batzutan*, ‘gu joan gaituk asteburu batzuetan’.
- *Kriston parrek izan ittuan*, ‘kristoren barreak izan zituan’.
- *Enauk ateatzen ni or, txabal*, ‘ez nauk ateratzen ni hor, motel’.

Eta adierazi bezala, elkarritzeta librean entzun dugun forma neutro bakarra hau izan da:

- *Kiston ambientea eotea*, ‘kristoren giroa egoten da’.

NOR NORI saila

NOR NORI sailean ere gehiago izan dira Igorrek toka egin dizkigun adizkiak forma neutroak baino. Izan ere, galdetegitik eta elkarritzeta libretik lortu ditugun forma alokutiboak lau izan dira dena, eta bakarra, aldiz, sail berari dagokion adizki neutroa, hura galdetegi bidez bildutakoa. Eskuratu ditugun tokako adizki alokutiboen artetik hiru izan dira galdetegi bitartez ateratakoak, honako hauek:

- *Ondo iruitze zaiak*, ‘ondo iruditzen zaidak’.

- *Aragie gustatze zaiok, 'haragia gustatzen zaiok'.*
- *Lenao aragie gustatze zitzaitean, 'lehen haragia gustatzen zitzaidaan'.*

Elkarriketa libreak galdetegi bidez bildutako adizkietako baten, *zaiak*-en, erabilera berretsi digu, honako esaldi honetan agertu baita:

- *Bai, eske nei normalen oi pasatze zaiak, 'bai, izan ere niri normalean hori pasatzen zaidak'.*

Gizonezko entzulearen markarik txertatu ez dion adizkia, ostera, hau izan da, bera lehenaldikoa:

- *Lenao aragie gustatzen zitzaion, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.*

NOR NORK saila

Igorrengan ere sail honetako adizkiek izan duten presentziarik handiena. Horiek entzun ditugu gehien. Galdetegi bidez hamahiru tokako forma alokutibo eskuratu ditugu, eta hizketaldi askean erabilitako formen kopurua ere ez da urruti ibili galdetegi bidez lortutako zenbakitik, hamaika izan baitira elkarriketa librean entzun ditugunak. Galdetegi bidez lortutako tokako adizki alokutiboen artean daude hauek:

- *Asko ean die, 'asko edan ditek'.*
- *Afarin geiegi ean genian, 'afarian gehiegi edan genian'.*
- *Kotxe bat eosi zien, 'kotxe bat erosi zitean'.*

Solasaldi librean entzundako beste batzuk dira, berriz, hauek:

- *Nik e denboa geiena etxetik kanpoa pasatze*iat*, 'nik ere denbora gehiena etxetik kanpora pasatzen diat'.*
- *Erre itteizkie kantak, 'erre egiten dizkitek kantak'.*
- *Nik txikitan ikuste nian, baño oain ya telebisioa re..., 'nik txikitan ikusten nian, baina orain jada telebista ere...'*

NOR NORK saileko adizki neutroei dagokienez, aurreko sailetan baino ale batzuk gehiago bildu ditugu, hiru, alegia, eta hirurak elkarriketa librean. Honako hauek dira horien erakusgarri:

- *Saltsak armatzetu, 'saltsak armatzen ditu'.*
- *Nik kuarentenan jarri nun Netflix, 'nik berrogeialdian jarri nuen Netflix'.*
- *Oain asi ber omen due prepatzen Amezketako, 'orain hasi behar omen dute prepatzen Amezketarako'.*

Dena den, aipagarria edota adierazgarria iruditzen zaigu Igorrek forma neutroak erabili dituen hiru kasuetan Igor Ekhirri begira zegoela edo Ekhiren aipamenen ondotik Igorrek elkarriketa jarraitu duen aldietan ateratako formak izan direla. Beraz, horrek pentsarazten digu Ekhi elkarriketa kidea izatea Igorrek adizki neutroak erabiltzearen eragile izan daitekeela.

NOR NORI NORK saila

Sail honetako tokako adizki alokutiboak ere dezente bildu ditugu galdetegi bidez, hamar, alegia, baina ez hainbeste elkarrizketa bidez; hiru besterik ez. Dena den, forma neutroak baino ugariagok izan dira horiek, galdetegi bidez ez baitugu ikusi forma neutrorik eta hizketaldi askean, oster, bakar. Sail honetako tokako adizki alokutibo batzuk erakuste aldera, galdetegi bidez eskuratutako lekuko batzuk agertuko ditugu jarraian:

- *Bei bat saldu zoat, 'behi bat saldu zioat'.*
- *Arakiñai bei bat saldu zoau, 'harakinari behi bat saldu zioagu'.*
- *Nik saldu nitxoan bei bat arakiñai, 'nik saldu nioan behi bat harakinari'.*

Elkarrizketa libreak eman dituen aleak ditugu, berriz, hauek:

- *Ta nei orrek asko tiatze zia, 'eta niri horrek asko tiratzen zidak'.*
- *Radiadoreen (...) ³⁷zuloa in omen tzioan ta beotu itte omen uan, 'erradiadorean (...) zuloa egin omen zioan eta berotu egiten omen zuan'.*
- *Oaingo etziuek botako Zaldibin kulpea, 'oraingoan ez zigutek botako Zaldibian errua'.*

Eta NOR NORI NORK sailekoekin eta adizki perifrastikoekin bukatzeko, elkarrizketa librean Igorri entzun diogun adizki neutroa agertuko dugu. Honatx:

- *Nei aurrekon esaten ziten Gaizkak, 'niri aurrekoan esaten zidan Gaizkak'.*

Kasu horretan, Enaitzi begira hasi da perpausa osatzen, baina *ziten* esaterakoan Ekhirri so egin dio, berari esango balio bezala.

4.5.2 Tokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoak erreparaturik, eta lehenengo IZAN adizkiei heldurik, forma neutrorik ez, eta jaso ditugun ale bakarrak tokako adizki alokutiboak izan dira, bi izanik galdetegi bidez bildutakoak:

- *Ue gaztea ek, 'hura gaztea duk'.*
- *Ue leno gaztea uan, 'hura lehen gaztea zuan'.*

Elkarrizketa librean, aldiz, forma bakarra erabili du Igorrek, hura galdetegi bidez emandako adizkietako baten berbera:

- *Kamarera artista bat dek, 'zerbitzaria artista bat duk'.*

JOAN adizkiei dagokienez, oraingo honetan tokako forma nahiz forma neutro bana eskuratu dugu; biak galdetegi bidez. Tokako adizki alokutiboa dakarren adibidea dugu hau:

- *Ne andrea gar Baiona zijek, 'nire andrea gaur Baionara zoak'.*

Neutroa, oster, lehenaldian erabili du:

³⁷ Ez dugu ulertzen ondo zer dioen.

- *Istripue pasau uanen, bea etxe alde zijen, 'istripua gertatu *zuanean, bera etxe aldera zihoan'.*

EGON adizkiei erreparaturik, maizago erabili ditu aditz hauek aurrekoak baino, nola alokutiboak, hala neutroak. Izan ere, galdetegi bidez nahiz elkarrizketa bidez bina tokako forma alokutibo entzun ditugu, baina baita beste bi forma neutro ere elkarrizketa librean. Tokako adizki alokutibo heldurik, galdetegi bidez aditz beraren orainaldiko eta lehenaldiko formak eskaini dizkigu lgorrek. Hona hemen:

- *Lo zeok, 'lo zegok'.*
- *Bea lo zeoan, 'bera lo zegoan'.*

Solasaldi askeak utzi dizkigun tokako forma alokutiboak dira, berriz, ondorengoak:

- *Ola etzeok ibiltzeik, 'horrela ez zegok ibiltzerik'.*
- *Etxen tzeudek, 'etxean zeudek'.*

Baina adierazi bezala, forma neutro bat ere bildu dugu elkarrizketa bidez, honako hau, hain zuzen:

- *Irakurtzea ek, nola esan, gizartea nola egituratuta zeuden, 'irakurtzea duk, nola esan, gizartea nola egituratua zeuden'.*

Adibide horretan ezin esan aurrekoetan bezala Ekhiren eragina izan denik, *zeuden* lgorren ahotik atera denean begirada ez baitio bietako inori zuzendu. ETORRI adizkiei heldurik, bi tokako forma lortu ditugu, eta neutroik ez. Eskuratu ditugun biak, gainera, galdetegi bidez izan dira; hirugarren pertsona singularreko orainaldiko eta iraganeko adizki formak, hain zuzen:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik, 'nire aita orain zeturrek merkatutik'.*
- *Ne atte oñez zeturrean, 'nire aita oinez zeturrean'.*

Beste bi tokako forma lortu ditugu IBILI adizkiarekin ere galdetegi bidez:

- *Mendin zebiyek, 'mendian zebilek'.*
- *Mendin zebiyea enteatu uanen, 'mendian zebilean zerbaiten berri izan *zuanean'.*

Baina oraingo honetan elkarrizketa libreak beste ale bat ere eman du. Hona hemen bera:

- *Bai, tope zebiltzek, 'bai, topera zebiltzak'.*

EDUKI aditza izan dela esan daiteke aditz sintetiko guztietan uztarik emankorrena, galdetegi bidez hiru tokako aditz forma eskaintzeaz gain, elkarrizketa libreak ere utzi baititu tokako lau ale. Hauetxek dira galdetegi bidez bildutako lekukoak:

- *Etxe bat nekean, 'etxe bat neukaan'.*
- *Oso etxe politte zekek, 'oso etxe polita zeukak'.*
- *Beak etxe politt bat zekean, 'berak etxe polit bat zeukaan'.*

Elkarrizketa libretik eskuratutakoak, oster, honakoak:

- *Itxura oso ona etzekek baño, 'itxura oso ona ez zeukak baina'.*

- *Ala re Zaldibin, toke de keda aundik etzekau baño*, ‘hala ere, Zaldibian, etxeratze agindu handirik ez zeukaagu baina’.
- *Zaldibin kontrol batzuk zezkeau*, ‘Zaldibian kontrol batzuk zeuzkaagu’.
- *Nik denbora re etzekeat oi, oi ikusteko*, ‘nik denbora ere ez zeukaat hori, hori ikusteko’.

EDUKI adizkien atzetik, ETORRI adizkiko tokako forma alokutiboak bildu ditugu. Oraingo honetan bi baino ez ditugu eskuratu, eta biak galdetegi bidez. Bi horiek, beste zenbaitetan bezala, pertsona berberak dituen orainaldiko eta lehenaldiko aditz formak dira, hauetxek, hain zuzen:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik*, ‘nire aita orain zeturrek merkatutik’.
- *Ne atte oñez zeturrean*, ‘nire aita oinez zeturrean’.

Beste hainbeste esan dezakegu ERAMAN adizkiei buruz ere. Izan ere, galdetegi bidez lortutako bi forma alokutibo ditugu, eta bat bera ere ez neutroa. Hau da, elkarrizketa libreak ez du eman ERAMAN adizkiari dagokion ez tokako adizki alokutiborik, ez neutrorik. Galdetegi bidez eskurautakoak beraz, honako hauek dira:

- *Beak erropa buru gañean zematik*, ‘berak arropa buru gainean zeramak’.
- *Ikusi nianen zakurre etxea zematikian*, ‘ikusi *nianearen zakurra etxera zeramaan’.

JAKIN adizkia dugu azkenik sintetikoaren artean, eta aurreko biek baino ale batzuk gehixeago utzi dizkigu. Izan ere, galdetegi bidez hiru tokako adizki alokutibo eskuratu ditugu, beste bat elkarrizketa libretik, baita beste forma neutro bat ere hizketaldi libretik. Galdetegi bidez lortutako forma alokutiboak dira ondorengoak:

- *Oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- *Etzekik eze*, ‘ez zekik ezer’.
- *Ne amak oso ondo zekian josten*, ‘nire amak oso ondo zekian josten’.

Elkarrizketa libreak emandakoa, oster, hurrengoak:

- *Goi mallan bat o, beste karreraren bat o, etzekiat*, ‘goi mailaren bat edo, beste karreraren bat edo, ez zekiat’.

Eta azkenik, solasaldi libreak agertutako forma neutroa erakustea besterik ez zaigu falta. Honatx:

- *Or aitze omen dek eztaki ze buelta ematen, da eztaki ze*, ‘hor aritzen omen duk ez dakit zer buelta ematen, eta ez dakit zer’.

Ikus daitekeenez, bi aldiz darabil forma neutroa, eta lehenengo kasuan gainera tokako adizki den *deken* ostean. Igorren hitzak, bestalde, Enaitzenen jarraian etorri dira, eta ez Ekhirenen atzetik. Dena den, gure aburuz, *eztaki ze* esatea bada nolabait, esapide tankerako zerbait: *eztaki ze ta bakize*, ‘ez dakit zer eta badakit zer’. Orokorrean asko erabiltzen den “esapidea” dela uste dugu. Hori horrela, neutroaren erabilera hori ez zaigu hutsune edo galera baten adierazle garbiena iruditzen.

Tokako forma berriak

Berritzat jo ditugun tokako adizki alokutiboak batzu-batzuk izan dira. Galdetegi bidez bildu ditugunak sei, eta elkarriketa librean entzundakoak beste sei; hamabi denera. Gainera, hamabiak desberdinak dira, hau da, ez dago galdetegi eta elkarriketatik jasotako tokako adizkien artean errepikatzen den formarik. Hala, galdetegi bidez eskuratutako sei adizki berriak honako hauek dira:

- *Igual zitzaiokean*, 'igual *zitzaiokean'.
- *Ue gaztea izango bauan*, *gukin geittuko uan*, 'hura gaztea izango *bazuan, gurekin geldituk zuan'.
- *Naiko bazian*, *ingo zian*, 'nahiko *bazian, egingo zian'.
- *Nai baik*, *lana oain buka zeikek*, 'nahi *badik, lana orain buka zitekek'.
- *Istripue pasau uanen*, *bea etxe aldea zijon*, 'istripua pasau *zuanean, bera etxe aldera zihoan'.
- *Etzen zeoan deitu nianen*, 'etxean zegoan deitu *nianeane'.

Sei adizki horiei erreparatu badiogu, seiatik bost, hau da, lehenengoa izan ezik beste guztiak, menpeko perpauseko adizkiak dira. Eta berritzat hatzen ditugu, orain gutxi arte menpeko perpausetan alokutiborik erabiltzen ez zelako, hau da, debeku sintaktiko bat ezarrita zegoelako eurekin alokutiboa erabiltzerako garaian. Baina Igorri eta besteei antza, ez zaie debeku hori iritsi, eta alokutiboa erabiltzen dute menpeko perpausetan ere. Are, menpeko adizkietan entzulearen marka errotuta dagoela esaten ere ausartuko ginateke. Lehenengo kasua, berriz, NOR NORI saileko iraganeko adizkia da, eta ikusi dugu Anerrek ere erabili duela *zitzaiokean* forma berria. NORIri dagokion pertsona marka soilik da aldatzen dena. Gure ustez berritasuna iragartzen du bokal arteko tokako morfema maskulinoa *-k-* gehitzeak *-a-* zaharragoaren gainean. Eta elkarriketa libretik jasotako beste sei adizki berriak ere, galdetegi bidez jasotako bost adizki bezala menpeko perpausetako aditzak izan dira. Hona hemen horiek: ‘

- *Esateik kriston lan piya itteikela*, 'esaten dik kristoren lan pila egiten *dikela'.
- *Nik eskerrak euskeraz itzetteien ang launak*, 'nik eskerrak euskaraz hitz egiten *ditean hango lagunek'.
- *Eztakit, etzekiat ortik irabazteiken*, 'ez dakit, ez zekiat hortik irabazten *diken'.
- *Osea, jendeak esateikenen "irakurtzea etzaiak gustatzen" dekelak eztekelako biyatzen ze irakurri*, 'hau da, jendeak esaten *dikenean "irakurtzea ez zaidak gustatzen" *dukela ez *dikelako bilatzen zer irakurri'.

Aipatu bezala guztiak menpeko perpauseko aditzak izateaz gain, sei aditzetatik bostek erakusten dute berriki aipatu dugun tokako gizonezko morfema gisa *-k* herskaria bokal artean. Hau da, ez darabilte zaharragoa den *-a-* morfema. Azken adibidea da horren adibide garbiena. Perpaus berean hiru menpeko adizki ikus daitezke *-k* herskaria bokal artean dutela.

Aditza aldatzea

Aditz asmatuak ez, baina aditzen barruan hainbatetan zenbait aldaketa egin ditu Igorrek, galdetegi bidez eskatutako aditza kontuan hartzen baldin badugu. Hala, bost adizkitan ikusi dugu galdegindako aditz forma horri ez zegokion aldaketaren bat. Moldaketa horiek ondorengo kasuek erakutsiko lituzkete:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istorio guztie kontatzeko luzegia ek*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia duk'.
- Nik in nezake → *nik in neikean*, 'nik egin nezakean'.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekik zertaz ai neoken*, 'bazekik zertaz ari *nauken'.
- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu zioan arakiñai*, 'bizilagunak behi bat saldu zioan harakinari'.

Lehenengo kasuari erreparatzen badiogu, baldintzako apodosiaren tokako forma alokutiboa eman beharrean, indikatibora jauzi egin, eta bertako NOR hirugarren pertsona singularraren orainaldiko tokako adizki alokutiboa eskaini du Igorrek. Bigarren kasuan ahalerako forma hipotetikoa eskatu badiogu ere, kasu honetan ez du orainaldiko tokako forma alokutiboa eskaini Zaldibian egin ohi den moduan, lehenaldikoa baizik. Baina oinarria ere ez da egokia izan, eta baliteke erantzuna gure metodoaren akatsaren ondorio izan izana. Eta hirugarren eta laugarren kasuak azkenik, ildo beretik doaz. Pertsona aldaketak agertzen dituzte biek bere baitan. Izan ere, hirugarren kasuan NORK lehenengo pertsona singularra duen JAKIN adizkiaren forma alokutiboa eskatu badiogu ere, Igorrek NORK hirugarren pertsona singularra duen tokako adizki alokutiboa eman digu. Eta laugarren eta azken kasuan, NORK hirugarren pertsona pluralaren forma alokutiboa eskaini beharrean, NORK hirugarren pertsona singularraren tokako adizki alokutiboa erabili du Igorrek. Dena den, *zioten* ez denez Zaldibian erabiltzen, jabetzen gara metodoaren akatsa ere izan daitekeela Igorrek ordain hori eman izana.

4.5.3 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saila

NOR saileko adizki perifrastikoak noka egiteko eskatu diogunean Igorri, ezin esan nokako forma alokutiboak nagusitu direnik, bakarra izan baita noka egin diguna. Hauxe, hain zuzen:

- *Bereana inguratu neon*, 'beregana inguratu naun'.

Gainerako adizki perifrastikoak ematerakoan tokako forma alokutiboez edo forma neutroez baliatu da Igor. Hala, bi tokako forma alokutibo eskuratu ditugu galdetegi bidez eta beste bi elkarrizketa libretik; izan ere, elkarrizketan parte hartu duten hiru ikasleak mutilak badira ere, inkestagilea emakumezkoa izaki, elkarrizketan zehar zenbaitetan galdera batzuk egin dizkie, eta Igorrek inkestagileari erantzutean tokako formak erabili ditu batzuetan, eta aditz neutroak beste hainbatetan.

Beraz, elkarrizketa librean agertzen diren datuek Igorrek inkestagileari egiten diona islatzen dute. Dena den, lehenik, galdetegi bidez eskatutako aditz formetan toka egindako bi kasuak agertuko ditugu:

- *Neana etortze uan, 'niregana etortzen zuan'.*
- *Atzoako buka zeikean, 'atzoko buka zitekean'.*

Elkarrizketa librean entzundako tokako bi adizkiak dira, berriz, ondorengoak:

- *Ordun, enauk ondo sentitzen pelikula bat hainbeste denboan ikusten, 'orduan, ez nauk ondo sentitzen pelikula bat hainbeste denboran ikusten'.*
- *Azkenen bizi gattuk emen, 'azkenean bizi gaituk hemen'.*

Baina adierazi bezala, forma neutroak ere erabili ditu Igorrek nokako formen ordeaz. Eskuratu ditugun bi adizki neutroak elkarrizketa bidez jaso ditugu. Hona hemen biak:

- *Asianetik pandemia Zaldibin nabarmen notau da, 'hasi denetik pandemia Zaldibian nabarmen nabaritu da'.*
- *Normalen, eztait, apodosia ikustea, igual sartzen naiz, sartzen (...) telebisioi beida jartzea serien bat ikusten, azkenen denbora galtzea iruitze zaiak, 'normalean, ez dakit, apodosia ikustera, igual sartzen naiz, sartzen (...) telebistari begira jartzea telesail bat ikusten, azkenean denbora galtzea iruditzen zaidak'.*

NOR NORI saila

Sail honetan bi nokako aditz alokutibo eskuratu ditugu galdetegi bidez, elkarrizketa librean ez digu noka aditz bakar bat ere egin Igorrek, eta, toka, osteraz, behin galdetegi bidez, eta beste behin elkarrizketa askean. Gauza bera esan daiteke forma neutroei buruz. Alegia, galdetegi bidez eta solasaldi libretik NOR NORI saileko forma bana ateratu dugu. Hori horrela, eskuratutako NOR NORI saileko nokako formak hauek izan dira:

- *Aragie gustatze zai, 'haragia gustatzen zaidan'.*
- *Aragie gustatze zaion, 'haragia gustatzen zaion'.*

Tokako forma alokutiboei dagokienez, galdetegi bidez lortu duguna da honakoa:

- *Atzo semea etorri zitzaitean etxea, 'atzo semea etorri zitzaidean etxera'.*

Elkarrizketa librean inkestagileari toka egin izanaren lekuko dugu, osteraz, beste hau:

- *Ordun, hainbeste denboa telebisioi beida jartzea serien bat ikusten azkenen denbora galtzea iruitze zaiak, 'orduan, hainbeste denbora telebistari begira jartzea telesailen bat ikusten azkenean denbora galtzea iruditzen zaidak'.*

Forma neutroei heldurik, galdetegi bidez eskuratutako aditz forma neutroa aurrez toka egin duela erakutsi dugun *zitzaitean* forma alokutiboaren forma neutroa da:

- *Igual zitzaitean, 'berdin zitzaidean'.*

Elkarriketa libretik erauzitako adizki neutroa, berriz, galdetegi bidez lortutako forma neutroari dagokion orainaldiko aditz forma da:

- *Ni beidatzen attuta ola, filosofia dexente gustatzen zait*, 'ni begiratzen arituta horrela, filosofia dezente gustatzen zait'.

NOR NORK saila

Sail honetan alde handiz nagusitu dira tokako forma alokutiboak, nokako aditz alokutiboen kopuruari erreparatzen baldin badiogu. Izan ere, nokako aditz alokutiboak galdetegi bidez lau eskuratu baditugu ere, galdetegi bidez galdetutako beste hamar aditz forma toka itzuli dizkigu lgorrek, eta elkarriketa librean bi bider erabili ditu tokako alokutiboak nokakoen orde. Beraz, kopurua hirukoizten dute tokako alokutiboak. Bestalde, forma neutro bat ere entzun dugu; hura elkarriketa librean. Esandakoaren erakusgarri, lehenik galdetegi bidez lortutako lau nokako forma alokutiboak agertuko ditugu:

- *Gutxi ean diñau*, 'gutxi edan dinagu'.
- *Ne emaztek sagarrak jan dizkin*, 'nire emazteak sagarrak jan dizkin'.
- *Ume onek urtebete o ola izango³⁸*, 'ume honek urtebete edo horrela izango din'.
- *In tzeikenat*, 'egin zezakenat'.

Tokako forma alokutiboei dagokienez, galdetegi bidez eskuratuko hamarren artean daudenetako batzuk dira ondorengoak:

- *Len geiegi eate nian*, 'lehen gehiegi edaten nian'.
- *Kotxe bat eosi zian*, 'kotxe bat erosi zian'.
- *Afarin geiegi ean genian*, 'afarian gehiegi edan genian'.
- *Kotxe bat eosi zien*, 'kotxe bat erosi zitean'.

Elkarriketa librean jasotakoak, oster, honakoak:

- *Normalen, eske etxen e denboa gutxi pasatzeiat baño*, 'normalean, izan ere, etxean denbora gutxi pasatzen diat'.
- *Nik oaindio enike jarriko*, 'nik oraindik ez nitek jarriko'.

Sail honekin amaitzeko, solasaldi librean erabili duen forma neutroaren adibidea baino ez zaigu falta.

Hona hemen:

- *Ola, musika denetik. Musikakin, asko aitzet*, 'horrela, musika denetik. Musikarekin, asko aditzen dut'.

NOR NORI NORK saila

Sail honetan ere tokako adizki alokutiboak gehiengoa izan dira. Nokako forma alokutibo bakarra bildu dugu, hura galdetegi bidez, eta bera ere kostata, inkestagilearen laguntzarekin, alegia. Izan

³⁸ Aurretik forma neutroa eta tokako forma alokutiboa aitatu ditu: "*Ola izangou, ola izangoik, ola izangoi*".

ere, lehendabizi tokako forma alokutiboa eskaini du; inkestagileak, ordea, neska bati nola esango liokeen galdetu dio, eta orduan eman du lortu dugun sail honetako nokako forma alokutibo bakarra, hauxe, hain zuzen:

- *Bei bat saldu zion karnizeroi*, 'behi bat saldu zion harakinari'.

Tokako alokutiboak, berriz, galdetegi bidez lortutakoak ez dira NOR NORK sailean bezainbeste izan, askoz gutxiago izan dira, lau, hain justu; eta bat elkarrikeria librea entzundakoa izan da. Galdetegi bidez eskuratutako laurak hauek dira:

- *Behi bat saldu zoat karnizeroi*, 'behi bat saldu zioat harakinari'.
- *Bei batzuk saldu zizkiok³⁹ karnizeroi*, 'behi batzuk saldu zizkiok harakinari'.
- *Neonek saldu nitxoan bei bat arakiñai*, 'neronek saldu nioan behi bat harakinari'.
- *Bei bat saldu genitxoan arakiñai*, 'behi bat saldu genioan harakinari'.

Elkarrikeria libretik erauzitako tokako alea da, aldiz, ondorengoa:

- *Bizin askoz geio launduko ziak (...) olako gauzetan*, 'bizitzan askoz gehiago lagunduko zidak (...) horrelako gauzetan'.

Eta orain arte aipatu ez badugu ere, galdetegi bidez forma neutro bat erabili du Igorrek NOR NORI NORK sailean. Horren lekuko dugu honako hau:

- *Karamelo bat eman zion beak*, 'karamelo bat eman zion berak'.

Tokako forma asmatuak nokako adizki perifrastikoetan

Orain arte ikusi dugu nokako eta tokako forma alokutiboak nahiz forma neutroak erabili dituela Igorrek nokako adizkiak emateko edo erabiltzeko eskatu diogunean. Baina beste pare bat kasutan, aditza asmatzen ere ikusi dugu. Asmatu, ordea, toka asmatu ditu, gizonezkoari dagokion morfema herskaria baitute bokal artean. Bestalde, asmatutako bi adizkiak galdetegi bidez eskuratu ditugu, NOR NORI sailekoak dira, eta biak ere lehenaldikoak. Hona hemen bi horiek:

- Len aragie gustatze zitzaion → *leno aragie gustatze zaiokean*, 'lehen haragia gustatzen *zaiokean'.
- Len aragie gustatzen zitzaiten → *leno aragie gustatze zaiakean*, 'lehen haragia gustatzen *zaidakean'.

Aditza aldatzea

Tokako forma alokutiboekin erakutsi dugu tokako ordain batzuk ematerakoan zenbait aditzek espero gabeko "aditz barruko" aldaketa batzuk pairatu dituztela. Bada, nokako adizkiak eskatu eta ematerakoan ere, hainbatek tankera horretako eraldaketak jasan dituzte. Horrelako sei zenbatu ditugu denera, ondorengo hauetan begiz jo daitezkeenak, hain zuzen:

³⁹ Aditz hori inkestagilearen laguntzen ahalegindu eta gero emandako forma da. Aurretik *zizkionat* esan du. Biek ala biek aditz aldaketa erakusten dute, aditz barruko pertsona aldaketarena, hain zuzen.

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istorio guztie kontatzeko luzegie izango uan*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia izango zuan'.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasa zeikek*, 'edozein momentutan pasa zitekek'.
- Arakiñai bei bat saldu dious → *arakiñai bei bat saldu zion*, 'harakinari behi bat saldu zion'.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi attei attu ziok, zion*, 'istorio hori aitari aditu ziok, zion'.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman ziok ardiri*, 'artzaiek pentsua eman ziok ardiei'.
- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu zioan arakiñai*, 'bizilagunak behi bat saldu zioan harakinari'.

Lehenengo kasuan baldintzatik indikatibora egin du salto Igorrek, eta hain justu, indikatiboko lehenaldiko tokako adizkia erabili du. Modu aldaketa bera gauzatu du tokako adizkiekin ere. Bigarren kasuan egin duen eraldaketa ere, toka egiteko eskatu zaionean ere egin du, hau da, ahalerako aditz hipotetikoa eskatu, eta berak orainaldiari dagokion forma alokutiboa eman du. Oraingo honetan, baina, nokakoa beharko genukeen, eta ahalerako orainaldiko tokako ordaina eman du. Hirugarren adibidean, berriz, pertsona aldaketa ikus daiteke, NORK lehenengo pertsona plurala duen adizkiaren nokako forma alokutiboa eskaini beharrean, NORK hirugarren pertsona singularra duen nokako adizki alokutiboa erabili baitu. Laugarrenean ere pertsona aldaketa gertatu da, bain oraingo honetan NORK hirugarren pertsona plurala duen nokako adizki alokutiboaren ordaina galdegin badiogu ere, Igorrek berriro ere NORK hirugarren pertsona singularreko tokako forma alokutiboa eman du aurrena, eta haren atzetik pertsona eta numero bereko nokako adizkia. Bosgarren eta seigarren kasuetan ere, pertsona aldaketak gertatu dira, baina NORK beharrean NORI edo datiboari dagokion pertsona aldatu du Igorrek bosgarren kasuan. Izan ere, NORI hirugarren pertsona plurala duten adizkiak noka nola izango liratekeen galdetu badiogu ere, NORI hirugarren pertsona singularra duen tokako forma alokutiboa erabili du. Azkenik, seigarren kasuak laugarren adibidearen pertsona aldaketa bera erakusten du, baina tokako adibidearekin bakarrik.

4.5.4 Nokako adizki sintetikoak

Nokako adizki sintetikoei heldurik, galdetegi bidez lortu ditugun nokako forma alokutiboak gehiago izan dira tokako adizki alokutiboak edo forma neutroak baino. ETORRI eta ERAMAN adizkietan izan ezik, beste guztietan bildu dugu behinik behin nokako aleren bat. Hala, IZAN adizkiei dagokienez, nokako, tokako zein forma neutro bana eskuratu dugu. Nokako forma alokutiboa galdetegi bidez lortu dugun haxe izan da:

- *Bea gaztea den*, 'bera gaztea dun'.

Tokako aditz alokutiboa, aldiz, elkarritzeta libretik ateratakoa da; honako hau:

- *Ya sakon sartzea ek*, 'ja sakon sartzea duk'.

Forma neutroa ere solasaldi libretik atera dugu:

- *Oantxe ezta momentua*, 'oraintxe ez da momentua'.

JOAN adizkiek nokako adizki alokutibo eta forma neutro bana utzi digute, ez, ordea, tokako forma alokutiborik. Eskuratu ditugun nokako forma alokutibo guztiak bezala, ale hau ere galdetegi bidez lortu dugu:

- Ne andrea gaur Baiona dijo → *ne andrea gaur Baiona zijen*, 'nire andrea gaur Baionara zoan'.

Eta JOAN adizkiari dagokion forma neutroa ere galdetegi bidez jasotakoa dugu:

- *Istripue pasau uanen, bea etxeaka zijen*, 'istripua gertatu *zuanean, bera etxerantza zihoan'.

EGON adizkiekin, berriz, bi nokako adizki alokutibo eta tokako alokutibo bat eman dizkigu Igorrek galdetegi bidez. Nokako bi formak dira hauek:

- Lo dao → *lo zeon*, 'lo zegon'.
- *Lo zeonan*, 'lo zegonan'.

Tokako adizki alokutiboaren erakusle dugu, aldiz, honakoa:

- *Etxen zeoan dettu nian*, 'etxean zegoan deitu nian'.

EGON adizkiari dagokion forma neutrorik ez dugu bildu. Bestalde, EDUKI aditza izan da bai nokako formak, bai tokakoak, bai forma neutroak aintzat hartuta ale gehien utzi dituztenen artean bigarren postuan legokeena. Izan ere, guztietan bina forma eskuratu ditugu. Nokako eta tokako formen kasuan galdetegi bidez lortu ditugu, eta forma neutroak, oster, elkarriketa librean entzun ditugunak izan dira. Nokako aditz alokutiboak erakusteari ekingo diogu. Hona hemen EDUKIri dagozkion bi formak, lehena orainaldiari dagokio, eta bigarrena lehenaldiari:

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zeken*, 'oso etxe polita zeukan'.
- *Beak etxe polit bat zekenan*, 'berak etxek polit bat zeukanan'.

Toka egin dizkigun EDUKI adizkiak, berriz, biak lehenenaldikoak izan dira:

- *Etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- *Etxe bat zekean*, 'etxe bat zeukaan'.

Eta orainaldikoak izan dira entzun ditugun forma neutroak:

- *Duda asko azket, o goi mallan bat in, o karreraren bat o... atek bastante irikita auzket ola*, 'duda asko dauzkat, edo goi mailaren bat egin, edo karreraren bat edo... ateak aski irekita dauzkat horrela'.

IBILI adizkiari begira jarririk, nokako eta tokako adizki alokutibo bana jarri dizkigu eskura Igorrek galdetegi bidez galdegindako aditzetan. Hala, nokari dagokion alea dugu honakoa; bera orainaldikoa:

- Mending dabil → *mending zebiyen*, 'mending zebilen'.

Toka egin digu, aldiz, ondorengo aditzean; lehenaldikoan, preseski:

- *Mendian zebiyean enteatu uanen*, 'mendian zebilean zerbaiten berri izan *zuanean'.

EKARRI adizkiei heldurik, nokako eta forma neutro bana bildu dugu, biak galdetegi bidez. Nokako forma orainaldikoa da:

- Erropa buru gañen dakarki → *beak buru gañean erropa zekarkin*, 'berak buru gainean arropa zekarren'.

Lehenaldikoa da, ostera, forma neutroa:

- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañean arropa zekarkin*, 'berak buru gainean arropa zekarren'.

ERAMAN eta ETORRI adizkiek ere nokako adizki alokutibo nahiz tokako adizki alokutibo bana utzi digute. Hala, nokako adizkiak orainaldikoak dira bi adizkietan, eta tokakoak, aldiz, lehenaldikoak. Hona hemen ERAMAN eta ETORRI adizkien orainaldiko formak:

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañean zemakin*, 'berak arropa buru gainean zeraman'.
- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturren merkatutik*, 'nire aita orain zeturren merkatutik'.

Lehenaldiko tokako adizkien lekukoak dira, ostera, ERAMAN eta ETORRI adizkien ondorengo formak:

- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen zakurra etxea zemakian*, 'ikusi *nianeaz zakurra etxera zeramaan'.
- Ne atte oñez zeturren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin elkartu *zuanean'.

JAKIN adizkiei dagokienez, horiek dira bildu ditugun nokako azken aditz alokutiboak. Horiek izanik gainera, alerik gehien utzi dutenak, hiru, hain justu; galdetegi bidez lortutakoak. Baina tokako aditz alokutibo bana ere jaso dugu galdetegi bidez eta elkarritzeta libretik, eta beste hainbeste forma neutro galdetegi nahiz solasaldi libretik. Beraz, JAKIN adizkiekin Igorrek hiru baliabide erabili baditu ere, nokakoak izan dira nagusi. Hona hemen aipatu ditugun nokako adizki alokutiboen hiru lekukoak:

- *Oi bazekiñat nik*, 'hori bazekinat nik'.
- Beak baki ni zertaz ai naizen → *beak bazekin ni zertaz ai neoken*, 'berak bazekin ni zertaz ari *nauken'.
- Eztaki eze → *etzekin eze*, 'ez zekin ezer'.

Tokako adibideen artean lehenengoa galdetegi bidez eskuratutakoa da; bigarrena, aldiz elkarritzeta libreak entzundakoa:

- *Bazekiat zertaz ai neoken*, 'bazekiat zertaz ari *nauken'.
- *Ya sakon sartzea ek, etzekiat*, 'ja sakon sartzea duk, ez zekiat'.

Forma neutroen artean ere ondorengoetatik lehenengoa galdetegi bidez bildutakoa dugu; bigarrena, berriz, elkarriketa librean entzundakoa da:

- Nere amak oso ondo zekin josten → *ne amak oso ondo zekin josten*, 'nire amak oso ondo zekien josten'.
- *O, azkenaldin, igual, ola, geio, e ba, musika polemizatue ta ola, baño, eztakit, rapa re asko, regetoia re, denetik*, 'edo, azkenaldian, agian, horrela, gehiago, eh, bada, musika polemizatua eta horrela, baina, ez dakit, rapa re asko, regetoia re, denetik'.

4.6 Enaitzen adizkien deskribapena

4.6.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Tokako forma alokutiboak erabili ditu Enaitzek gehien NOR sailean. Bost forma galdetegi bidez eta beste zortzi elkarriketa librean aditzeko aukera izan dugu. Galdetegi bidez jasotako formen artean daude ondorengo hauek:

- *Bidea atea nauk*, 'bidera atera nauk'.
- *Beana inguratu neok*, 'beregana inguratu nauk'.
- *Neana etortze uan*, 'niragana etortzen zuan'.
- *Atzoako buka zeikean*, 'atzoko buka zitekean'.

Elkarriketa librean entzundako beste zenbait dira, berriz, honakoak:

- *Sofan balin baneok, ta igual ikusten jartze nauk⁴⁰, baño bestela ez*, 'sofan baldin *banagok, eta igual ikusten jartzen nauk, baina bestela ez'.
- *Ni juxtu lengo eunen, etxea jun nitxoan, ta Kalezulotakoi kiston bokaiyoa in tzien*, 'ni justu lehengo egunean, etxera joan ninduan, eta Kale Zulotakoei kristoren ogitartekoa egin zien'.
- *Oañ Amezketa eotek⁴¹ bastante ondo*, 'orain Amezketa egoten duk nahiko ondo'.
- *Lenengo lau etorri ittuan, e bi pla, bi patruya zean, e, kaleko ortan jarri ittuan*, 'lehenengo lau etorri zituan, eh, bi *pla, bi patruila zeran, eh, kaleko horretan jarri zituan'.
- *Oain dala iru bat aste jun giñuztean da, zortzik aldea itxi ta, ya ertzaiñak*, 'orain dela hiru bat aste joan gintuan eta, zortziak aldera itxi eta, ja ertzainak'.

NOR saileko forma neutroei dagokienez, oso gutxi izan dira tokako forma alokutiborik gabe Enaitzek erabili dituen adizkiak; bi baino ez. Horiek elkarriketa librean aditu dizkiogun honako hauek dira:

⁴⁰ Aldaera hau ere entzun dugu: *eunero enauk jartzen ikusten baño, asten pare bat aldiz ola, zeoze ikusteiak*, 'egunero ez nauk jartze ikusten baina, asten pare bat aldiz horrela, zer edo zer ikusten diat'.

⁴¹ Eztek aldaera ere erabili du: *oain iñor eztek ibiltzen*, 'orain inor ez duk ibiltzen'.

- *Garbi ikusia beintzet. Umek ta gurasok positibo geienak*, ‘garbi ikusi da behintzat. Umeak eta gurasoak positibo gehienak’.
- *Oi wazenen atea zan⁴², zea baten*, ‘hori Wazenen atera zen, zera batean’.

NOR NORI saila

Sail honetan NOR sailean bezainbeste forma eskuratu ez baditugu ere, bildu ditugunak gehiago izan dira tokako alokutiboak adizki neutroak baino. Hala, hiru tokako adizki lortu ditugu galdetegi bidez, bat elkarrizketa libretik, eta adizki neutro bakarra izan da galdetegi bidez galdetutako aditzen artean Enaitzek egin diguna. Elkarrizketa librean ez dugu forma neutrorik atzeman. Forma alokutiboek begira jarririk, galdetegi bidez lortutako eta aipatutako hiru tokako forma alokutiboak honako hauek dira:

- *Ondo iruitze zatek*, ‘ondo iruditzen zaidak’.
- *Aragie gustatzen zaiok⁴³*, ‘haragia gustatzen zaiok’.
- *Leno aragie gustatze zitzaioan⁴⁴*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaioan’.

Eta elkarrizketa librean eman duen NOR NORI saileko tokako adizki alokutibo bakarra, berriz, honakoa izan da:

- *Nei irakurtzea etzaiak bate gustatzen*, ‘niri irakurtzea ez zaidak batere gustatzen’.

Enaitzek eman duen forma neutroari dagokionez, hura galdetegi bidez eskuratu dugu, eta lehenaldikoa izan da. Hain zuzen ere, NORI lehenengo pertsona singularra duen eta NOR hirugarren pertsona singularra duen indikatiboko adizkiaren forma neutroa eskaini du:

- *Len aragie gustatze zitzaiten*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidan’.

NOR NORK saila

NOR NORK sailean entzun ditugun ia adizki guztiak tokako forma alokutiboak izan dira, bakarra izan baita Enaitzek erabili duen adizki neutroa. Hain justu, galdetegi bidez hamahiru egin dizkigu toka, eta bederatzi elkarrizketa librean. Azken horretan NOR sailean baino bat gehiago. Galdetegi bidez ateratako tokako formei heldurik, horien artean dauden batzuk erakutsiko ditugu:

- *Gar gutxi jan diat*, ‘gaur gutxi jan diat’.
- *Asko ean die*, ‘asko edan ditek’.
- *Kotxe bat eosi zien*, ‘kotxe bat erosi zitean’.
- *In tzeikeat*, ‘egin zezakeat’.

Elkarrizketa librean entzundako sail honetako tokako formen artetik, aldiz, honako hauek bistaratuko ditugu:

⁴² Ekheri esaten ari zaio, baina emakume inkestagileak egindako galdera baten harira. Hau da, uste dugu emakume inkestagilearen eragina dela forma neutroa erabili izana kasu honetan.

⁴³ Inkestagilearen bultzada txiki batekin ateratako forma. Hasieran “eztakit” esan du.

⁴⁴ Hasieran forma neutroa eman du, baina berak zuzendu du, eta tokako forma eskaini du azkenik.

- *Guk aste ontan pixkat hitzein diau, planen batzuk eta, aber noaldea jun o*, 'guk aste honetan pixkat bat hitz egin diagu, planen batzuk eta nora aldera joan edo'.
- *Zortzik aldea, ya, ondo, puntual ixteizkie, e, ta arauak ondo zeatzeizkie*, 'zortziak aldera, ja, ondo, puntual ixten ditiztek, eh, eta arauak ondo zeratzen dizkitek'.
- *Nik lenau regetoia entzute nian⁴⁵ baño, oain ya musika gutxi entzuteiat⁴⁶*, 'nik lehen regetoia entzuten nian baina, orain ja musika gutxi entzuten diat'.
- *Ta Perurenak izotza bota zian⁴⁷*, 'eta Perurenak izotza bota zian'.
- *Geo, plan igualak ingoizkia, erreka jun, atsaldea pasa, afaldu kalen, taa, betikoa*, 'gero, plan berdina egingo dizkiagu, erreka joan, arratsaldea pasa, afaldu kalean, eta, betikoa'.

Sail honekin bukatzeko, elkarriketa librean entzun dugun forma neutro bakarra ere agerian jarriko dugu:

- *Nik ala re, naizta interesantea izan, naiagoet beste zeoze in*, 'nik hala ere, nahizta interesgarria izan, nahiago dut beste zer edo zer egin'.

NOR NORI NORK saila

NOR NORI NORK sailean ere tokako ale dezente bildu dugu; bederatzi izan dira galdetegi bidez lortu ditugunak, eta bost elkarriketa libreak eman dituenak. Galdetegi bidez eskuratu ditugunen artean daude honakoak:

- *Bei bat saldu zoat karnizeroi*, 'behi bat saldu zioat harakinari'.
- *Istoria oi atei attu ziek⁴⁸*, 'istorio hori aitari aditu ziotek'.
- *Neonek saldu nitxoan bei bat arakiñai*, 'neronek saldu nioan behi bat harakinari'.
- *Bei bat saldu genioan arakiñai*, 'behi bat saldu genioan harakinari'.

Elkarriketa librean aditutako zenbait dira, ostera, ondorengoak:

- *Nik esan nitxoan bi Daniela zereala*, 'nik esan nioan bi Daniela *zeudeala'.
- *Atzo komenta, atzo esan nitxoa, o esan tzitean, etzekiat, e, i ka te, marrazketa tekniko ta etzekiat, beste industri teknologikoa artu omen tzian prematrikulan*, 'atzo komenta, atzo esan *nioa, edo esan zidaan, ez zekiat, IKT, marrazketa tenikoa, eta ez zekiat, beste industria teknologikoa hartu omen zian aurrematrikulan'.
- *Parre ite ziquek erderaz guri*, 'barre egiten zigutek erdaraz guri'.

⁴⁵ Aldaera hau ere entzun dugu: *ni asiean enian ikusten*, e, 'nik hasieran ez nian ikusten, eh'.

⁴⁶ Eztiat aldaera ere badarabil elkarriketa librean: *ni eztiat eze in bear*, 'nik ez diat ezer egin behar'. Eta *diat* ere entzun dugu: *ba, gaur lo in ber diat*, 'bada, gaur lo egin behar diat'.

⁴⁷ Tzian aldaera ere lekukotu dugu elkarriketa librean: *buelta eman tzian*, 'buelta eman zian'.

⁴⁸ Inkestagilearen eraginez hasieran forma neutroa errepikatu balu bezala izan da, baina gero berari bakarrik atera zaio *ziek* forma alokutiboa. Hona Enaitzen hitzak: "istorio oi atei attu diete, eztaiz. Attu ziek".

- *Eske itteje⁴⁹ kapitulu bat ikustek, ta bukaera alden, urrungoako intriga bezela sartzeje*, ‘izan ere, egiten ditek kapitulu bat ikusten duk, eta bukaera aldean, hurrengorako intriga bezela sartzen ditek’.

Hala ere, elkarriketa librean ere izan dira beste bi adizki tokako markarik agertu ez, eta Enaitzek neutro egin dituenak. Hona hemen:

- *Ni juxtu lengo eunen, etxea jun nitxoan ta, e, Kalezulotakoi kiston bokaiyoa in tzien*, ‘ni juxtu lehengo egunean, etxera joan ninduan eta, eh, Kalezulotakoei kristoren ogitarteakoa egin zien’.
- *Zeak esan tzian, gero gora*, ‘Zerak esan zidan, gero gora’.

4.6.2 Tokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoen artean ere, tokako forma alokutiboak gailendu dira. Hain zuzen, IBILI, EKARRI eta JOAN adizkien forma neutro bana bildu dugu; gainerako adizki sintetiko guztiak tokako adizki alokutiboak izan dira. Hala, IZAN adizkiei dagokienez, bina forma alokutibo eskuratu dugu galdetegi bidez nahiz solasaldi libretik. Galdetegi bidez lortu ditugunak dira ondorengoetatik lehenengo biak, eta elkarriketan entzundakoak, berriz, atzetik datozenak:

- *Bea gaztea ek*, ‘bera gaztea duk’.
- *Bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.
- *Oi dek*, ‘hori duk’.
- *Ta ya afaltzeko ordua uan*, ‘eta ja afaltzeko ordua zuan’.

JOAN adizkiari dagokionez, galdetegiak tokako forma bat eman digu, hura honako hau izanik:

- *Ne andrea gaur Baiona zijok*, ‘nire andrea gaur Baionara zoak’.

Elkarriketa libreak ere tokako honako beste bi ale utzi dizkigu:

- *Juxtu ni etxeaka nijoan e Julen, Julenekin da, oi zerbezak artuta zijoan⁵⁰ plazaldea*, ‘juxtu ni etxerantza nindoaan eh, Julen, Julenekin eta, hori garagardoak hartuta zihoaan plaza aldera’.

Eta lehentxeago aipatu bezala, JOAN adizkiak forma neutro bat ere utzi du galdetegi bidez jasotakoen artean. Elkarriketa librean erabili duen adizki bera da:

- *Istripue pasau uanen, bea etxeaka zijon*, ‘istripua pasatu *zuanean, bera etxerantza zihoaan’.

EGON adizkia izan da tokako forma gehien eskuratu ditugun adizki sintetikoa EDUKI adizkiarekin batera. Galdetegi bidez EGON adizkiaren bi forma alokutibo erdietsi baditugu ere, elkarriketa

⁴⁹ Aldaera hau ere erabili du Enaitzek: *ni beintzet kanpiña jute naonen beti, parra besteik ezteje itten*, ‘ni behintzat kanpingera joatean *naonean, barre besterik ez zidatek egiten’.

⁵⁰ *Etzijoan* aldaera ere entzun dugu: *etzijoan mendia, kaleko erropakin da zijoan*, ‘ez zihoaan mendira, kaleko arroparekin eta zihoaan’.

librean bost erabili ditu Enaitzek. Galdetegi bidez lortutakoak dira ondorengoetatik lehenengo biak, besteak elkarriketa librean aditutakoak dira:

- *Lo zeok*, 'lo zegok'.
- *Bea lo zeoan*, 'bera lo zegoan'.
- *Toke de keda amarrak aldea o toke de keda bazeoan*, 'etxeratze agindua hamarrak aldera edo, etxeratze agindua bazegoan'.
- *Beñatentzako oi earki zeok⁵¹, il*, 'Beñatentzako hori, ederki zegok, hi!'.
- *Rotondako ortan bi taberna zerek. Lenengon Perurena ta zerean, ta geo gu*, 'biribilguneko horretan bi taberna zeudek. Lehenenengoan Perurena eta zeudean, eta gero gu'.
- *Ya ottuta neok*, 'jada ohituta nagok'.

ETORRI adizkiak, berriz, ez du ekarpen handiregirik egin, bi tokako forma besterik ez baititugu lortu, eta horiek galdetegi bidez. Hona hemen biak:

- *Ne atte oain zeturrek merkatutik*, 'nire aita orain zeturrek merkatutik'.
- *Ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedrokekin elkartu *zuanean'.

IBILI adizkiei dagokienez, gehixeago izan dira, hiru tokako adizki alokutibo bildu baititugu guztira; bat galdetegi bidez, eta bi elkarriketa libretik. Galdetegi bidez eskuratu dugu ondorengoetatik lehenengoa, eta elkarriketatik bigarrena eta hirugarrena:

- *Mendin zebiyek*, 'mendian zebilek'.
- *Azkenaldin tope zeiztek, e?*, 'azken aldian topera zebiltzak, eh?'.
- *Plazan bastante jende zebiyeane⁵²*, 'plazan dezente jende zebilean'.

Baina IBILI aditzak forma neutro bat ere eman duela agertu dugu. Hura galdetegi bidez izan da, eta honako hauxe da:

- *Mendin zebiyen bea enteatu uanen*, 'mendian zebilen bera enteratu *zuanean'.

Aipatu dugu EDUKI aditza izan dela EGON adizkiarekin batera emankorrena, galdetegi bitartez hiru tokako adizki eta elkarriketa librean lau atzeman baititugu. Ondorengo formatatik lehenengo hirurak galdetegi bidez jaso ditugunak dira, elkarriketa libretik bildutakoak, aldiz, besteak:

- *Etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- *Oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- *Beak etxe politt bat zeukean*, 'berak etxe polit bat zeukaan'.
- *Aber suertea zekeaun da obetxe juteken, zeoze in bearra zekeau, beintzet*, 'ea zortea *zeukaagun eta hobetzen joaten *duken, zer edo zer egin beharra zeukaagu, behintzat'.
- *Neska batek e bazekek elea*, *neska batek ere bazeukak elea'.

⁵¹ Beste honako aldaera hau erabili du Enaitzek: *oain praktketan tzeok*, 'orain praktketan zegok'.

⁵² *Zebiyeane* tokako forma alokutiboa espero bagenuen ere, hori da entzuten duguna.

- *Ni⁵³ asiean⁵⁴ enian ikusten, e, nekean burun zeoze*, ‘nik hasieran ez nian ikusten e, neukaan buruan zer edo zer’.

EKARRI aditzaren gainean ezin esan EDUKI eta EGON adizkiekin esan dugun gauza bera, beste muturrean dagoela ere esan baitaiteke. Izan ere, tokako adizki bakarra galdetegi bidez lortzeaz gain, forma neutro bat ere bildu dugu, eta hura ere galdetegi bidez. Hona hemen hurrenez hurren, jaso ditugun EKARRIren tokako adizki alokutiboa lehenaldian, eta adizki beraren orainaldiko forma neutroa:

- *Beak arropa buru gañen zekarkian⁵⁵*, ‘berak arropa buru gainean zekarkian’.
- *Beak erropa buru gañean dakarki⁵⁶*, ‘berak arropa buru gainean dakar’.

ERAMAN adizkiak, oster, EKARRI adizkiak baino tokako ale bat gehiago eman du, bi bederen lortu baititugu galdetegi bidez. Bi horiek hauexek dira:

- *Beak arropa buru gañen zematik*, ‘berak arropa buru gainean zeramak’.
- *Ikusi nianen txakurre etxea zematikian*, ‘ikusi *nianearen txakurra etxera zeramaan’.

Eta sintetikoaren artean azkenik, JAKIN adizkia dugu, aurreko biak baino emankorrago, lau tokako forma bildu baititugu galdetegi bidez, eta bi elkarrizketa libretik. Galdetegi bidez lortutakoak dira lehenengo hirurak, eta elkarrizketa librekoak azkeneko biak:

- *Oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- *Beak bazekik ni zertaz ai neoken*, ‘berak bazekik ni zertaz ari *nauken’.
- *Ne amak oso ondo zekian⁵⁷ jeisten, o josten*, ‘nire amak oso ondo zekian jaisten, edo josten’.
- *Etzekiau pixkat noaldea jun o, txartzea, txartzea jungoeken kontue o... etzekiat*, ‘ez zekiagu pixka bat nora aldera joan edo, txartzera, txartzera joango *duken kontua edo’.

Tokako forma berriak

Enaitzekin topatu ditugun eta guk berritza hartu ditugun tokako adizki alokutibo guztiak menpeko perpausetako adizkiak dira. Galdetegi bidez Enaitzek eskaini dizkigun forma berri horiek sei izan dira, eta elkarrizketa librean erabili dituenak, aldiz, hamaika. Galdetegi bidez lortutako seiak dira honakoak:

- *Pedro leno atea balin bauan etxetik, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera baldin *bazun etxetik, honezkero hemen izango zuan’.
- *Ikusi nianen txakurre etxea zematikian*, ‘ikusi *nianearen txakurra etxera zeramaan’.

⁵³ *Nik* entzutea espero badugu ere, ez dugu herskaria entzuten.

⁵⁴ *Asieran* entzutea espero dugu, baina *asiean* da entzuten duguna.

⁵⁵ Dena den, ez da oso seguru geratu. Atzetik “etzekiat” esan du.

⁵⁶ Hasieran *zematik* aditza eman du. Inkestagileak berriro galdetu dio, ordea, eta orduan *dakarki* forma neutroa eman du.

⁵⁷ Dena den, lehenik orainaldiko tokako forma, *zekik*, alegia, eman du; inkestagilearen laguntzarekin eman du iraganeko forma.

- *Beak bazekik ni zertaz ai neoken*, ‘berak bazekik ni zertaz ari *nauken’.
- *Nai balin baik, lana oain bukaukoik*, ‘nahi baldin *badik, lana orain bukatuko dik’.
- *Etxen zeoan dettu nitxoanen*, ‘etxean zegoan deitu *nioanean’.
- *Ne atte oñez zetorrean Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zetorrean Pedrokekin elkartu *zuanean’.

Elkarriketa librean libreki eta oparo erabili dituen tokako menpeko hamaika aditz berriak dira, oster, ondorengoak:

- *Etzekiau pixkat noaldea jun o, txartzea, txartzea jungoeken kontue o... etzekiat*, ‘ez zekiagu pixka bat nora aldera joan edo, txartzera, txartzera joango *duken kontua edo’.
- *Aber, beintzet, Zaldibiko festak o ittettuken, zeoze itteko re*, ‘ea, behintzat, Zaldibiako jaiak edo egiten *dituken, zer edo zer egiteko ere’.
- *Zaldibi herritik pixkat ateata zeok, oain gañea positibokin da, ezin diaula atera re in*, ‘Zaldibia herritik pixka bat aterata zegok, orain gainera positiboekin eta, ezin *diagula atera ere egin’.
- *Aber gorritik noiz kentzen gattuken, zeoze itteko re*, ‘ea gorritik noiz kentzen *gaituken, zer edo zer egiteko ere’.
- *Gaur zeoze esangoik, ta bihar beste kontu bat. Gaur au nai dikela⁵⁸, biar otxentaizinkoa, urrungo eztai ze...*, ‘gaur zer edo zer esango dik, eta bihar beste kontu bat. Gaur hau nahi *dikela, bihar ochenta y cinco, hurrengoan ez dakit zer...’.
- *Sofan balin baneok, ta igual ikusten jartze nauk, baño bestela ez*, ‘sofan baldin banagok, eta igual ikusten jartzen nauk, baina bestela ez’.
- *Oain gañea, bigarrena in ber diela usteiat*, ‘orain gainera, bigarrena egin behar *diatela uste diat’.
- *Nik esan nitxoan bi Daniela zereala*, ‘nik esan nioan bi Daniela *zeudeala’.
- *Gastuik eztikela in bear kotxen, ezer ez; igual tzeokela*, ‘gasturik ez *dikela egin behar kotxean, ezer ez; igual *ziokela’.
- *Nik pentsatze nian “La casa de papel” txarra uala zeozeatik*, ‘nik pentsatzen nian “La casa de papel” txarra *zuala zerbaitengatik’.
- *Bein ikusita ya jendea txertoa jartzen ai dekela ta ondo, ba nik e jarriko nian*, ‘behin ikusita jendea txertoa jartzen ari *dukela eta ondo, bada, nik ere jarriko nian’.

Aditza aldatzea

Beste ikasle guztien antzera, Enaitz ere ikusi dugu toka egiteko eskatu zaion zenbait aditzi eskatu gabeko edo egitea ez zegokion aldaketa batzuk egiten. Hau da, kasu batean gertatu da baldintzako

⁵⁸ -ikela aldaera ere erabili du Enaitzek: *aman kotxea eukikoikela, beak eukikoikela, Beñatek eukikoikela, ‘amaren kotxea edukiko *dikela, berak edukiko *dikela, Beñatek edukiko *dikela’.*

apodosiko aditza tokara bihurtzeko eskatu, eta Enaitzek baldintzako tokako aditza eskaini beharrean, indikatiboko orainaldiari dagokion tokako forma alokutiboa ematea. Horren lekuko dugu honakoa:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztia kontatzeko luzegie geitzen dek*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia gelditzen duk'.

Ondorengo bi adibideetan, berriz, denbora aldaketa gauzatu duela ikusten dugu, hots, indikatiboko lehenalditik orainaldira jauzi egin du:

- Igual zitzaiten → *igual zaiak*⁵⁹, 'berdin zaidak'.

Sail aldaketa ere kausitu dugu beste batean, hau da, NOR NORI saileko tokako forma alokutiboa eman edo eskaini beharrean, NOR saileko tokako adizkia erabiltzea NOR NORI sailekoaren ordeaz. Honatx:

- Atzo semea etorri zitzaiten etxea → *atzo semea etorri uan*⁶⁰ etxea, 'atzo semea etorri zuan etxera'.

Bestalde, agertu dugun lehen adibideak bezala, hurrengo kasuak ere modu aldaketa erakusten du, baina oraingo honetan, ahalerako orainalditik indikatiboko orainaldira igaro da Enaitz, eta indikatiboko tokako forma eskaini digu ahalerako orainaldikoaren partez:

- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai balin baik, lana oain bukaukoik*, 'nahi baldin *badik, lana orain bukatuko dik'.

Azken aditz aldaketako adibideak, ostera, denbora aldaketa jartzen du agerian, hau da, iraganeko tokako adizki alokutiboa eman beharrean, orainaldikoa erabili baitu:

- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu ziek*⁶¹, 'bizilagunek behi bat saldu ziotek'.

4.6.3 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saila

Nokako adizki perifrastikoei heldurik, eta horietatik NOR sailekoei erreparaturik, ezin esan nokako adizki perifrastikoak tokakoen maiztasun berarekin darabiltzanik Enaitzek, asko murriztu baita nokako alokutiboen kopurua. Hain justu, nokako bi forma alokutibo jaso ditugu galdetegi bidez. Eta elkarriketa librean Enaitzek izandako solaskideak mutilak izan badira ere, zenbait momentutan emakume inkestagileak galderak egin dizkienean, Enaitzek tokako formak nahiz forma neutroak erabili ditu berari erantzuteko. Ondorioz, NOR sailari dagozkion nokako bi aditz alokutiboez gain,

⁵⁹ Inkestagilea laguntzen saiatu da, baina "etzekit" dio Enaitzek.

⁶⁰ Inkestagilea laguntzen ahalegindu da, baina laguntzaren ostean forma neutroa eskaini du; *zitzaiian*, alegia.

⁶¹ Inkestagailea laguntzen saiatu da: "baño atzo, e? Bizilaunek bei bat saldu zioten atzo arakiñai" esan dio Enaitzi. Horren ondoren forma neutroa eskaini du Enaitzek, eta ez dakiela ere adierazi du: "bei bat saldu zieten. Eztakit ikaz".

tokako hiru forma (bi galdetegi bidez eta bat elkarriketa libretik) nahiz nokarik gabeko beste bi forma neutro ere erabili ditu Enaitzek. Baina lehenik, nokako formak agertuko ditugu:

- *Beana inguratu naun*, ‘beregana inguratu naun’.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasa zeiken*⁶², ‘edozein momentutan pasa ziteken’.

Noka erabili ez, eta tokara jo duela agertzen duten hiru adibide dira, berriz, ondokoak; lehenengo biak galdetegi bidez lortutakoak izanik, eta hirugarrena, aldiz, elkarriketa libretik:

- *Neana etortze uan*, ‘niregana etortzen zuan’.
- *Atzoako buka zeikean*⁶³, ‘atzoko buka zitekean’.
- *Eneok jarri or saltseatzen e, baño...*, ‘ez nauk jarri hor saltseatzen e, baina...’.

Sail honetan azkenik, nokako nahiz tokako forma alokutiborik gabe erabili dituen forma neutroak elkarriketa librean aditu ditugu, eta bi hauek izan dira:

- *Telebistan da, sare sozial geienetan da, ola ibiltzeje, beintzet*, ‘telebistan eta, sare sozial gehienetan eta, horrela ibiltzen dira, behintzat’.
- *Ni etxetik kanpoa asko ibiltze naiz*, ‘ni etxetik kanpora asko ibiltzen naiz’.

NOR NORI saila

NOR NORI saila emankorragoa izan da NOR saila baino, bost nokako forma eskaini baitizkigu Enaitzek, guztiak galdetegi bidez. Hona hemen horien lekukoak:

- *Aragie gustatze zaten, aragie gustatze zaian*, ‘haragia gustatzen zaidan, haragia gustatzen zaidan’.
- *Aragie gustatze zaion*, ‘haragia gustatzen zaion’.
- *Leno aragie gustatze zitzaionan*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaionan’.
- *Len aragie gustatze zatenan*⁶⁴, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidanan’.

Sail honetan tokako formarik ez, baina forma neutroak erabili ditu Enaitzek. Horietatik bat galdetegi bidez eskatutako lehenaldiko aditz bat ematerakoan eskaini du, eta beste bi elkarriketa librean. Hurrengo hauetatik lehenengoa galdetegia tarteko dela ateratakoa da, eta ondorengo biak elkarriketa librean aditutakoak:

- *Atzo semea etorri zitzaian etxea*, ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’.
- *Asieran denoi pixkat raro ingo zaiu nik uste*, ‘hasieran denoi pixka bat arraro egingo zaigu nik uste’.
- *Baño nei etzait gustatzen*, ‘baina niri ez zait gustatzen’.

⁶² Gogoratu Zaldibian hipotetikorako orainaldiko adizkia erabiltzen dela.

⁶³ Atzetik *zekenan* forma asmatua eskaini du.

⁶⁴ Dena den, ez da seguru geratu, atzetik “eztaikit” esan baitu.

NOR NORK saila

NOR NORK saila izan da sail guztietan era guztietako ale gehien utzi dituen, zortzi forma noka egin baititu Enaitzek, lau toka eta beste hiru formatan ez du inolako alokutiborik erabili. Hala, zortzi nokako formen artean daude ondorengo hauek:

- *Gutxi jan din gar beak*, ‘gutxi jan din gaur berak’.
- *Geiegi ean tziñan afarin*, ‘gehiegi edan zinan afarian’.
- *Nik in neikenan*, ‘nik egin nezakenan’.

Aipatutako lau tokako formen artetik, hiru galdetegi bidez jasotako adizkiak dira, eta bakarra elkarriketa librean entzundakoa. Aitatutako iturrien hurrenkerari jarraiki, hona hemen galdetegi bidez egindako tokako hiru adizkiak, eta elkarriketan erabilitako bakarra:

- *Asko ean die*, ‘asko edan ditek’.
- *Len geiegi eate nian*, ‘lehen gehiegi edaten nian’.
- *Naiko balu, ingo zian*, ‘nahiko balu, ingo zian’.
- *Yutuben da ola jende geiok ikusikoik erderaz*, ‘Yutuben eta horrela jende gehiagok ikusiko dik erdaraz’.

Forma neutroei dagokienez, agertu bezala, hiru izan dira denera, eta hirurak elkarriketa librean entzundakoak. Hona hemen horiek:

- *Azkenaldin gutxi entzute⁶⁵*, ‘azkenaldian gutxi entzuten dut’.
- *Da ordun, jende geiok ikusteko, erderaz ingo_u*, ‘eta orduan, jende gehiagok ikusteko, erdaraz egingo du’.
- *Atzo igual, partikularra euki nun*, ‘atzo agian, partikularra eduki nuen’.

NOR NORI NORK saila

Azkenik, NOR NORI NORK saileko adizkiei erreparatzea geratzen zaigu. NOR NORK sailekoak baino gutxiago izan dira oro har, lau egin baititu noka Enaitzek, eta bana toka zein era neutroan. Nokako adizki alokutiboen artean ondorengo hauek daude:

- *Beak bei bat saldu zion⁶⁶ karnizeroari*, ‘berak behi bat saldu zion harakinari’.
- *Arakiñari bei bat saldu zionau⁶⁷*, ‘harakinari behi bat saldu zionagu’.

⁶⁵ *Eztet* aldaera ere erabili du Enaitzek: *nik bakit zein dan, baño eztet ikusten*, ‘nik badakit zein den, baina ez dut ikusten’.

⁶⁶ Inkestagilearen laguntza txiki batekin lortuko forma. Lehenik, *zionan* esan du Enaitzek, eta orduan etorri da inkestagilearen laguntza. Behia gaur saldu zaiola harakinari adierazi dio inkestagileak, eta orduan Enaitzek “*beak bei bat saldu zion, zion edo ziok, saldu zion e, zeñi?*” Inkestagileak “karnizeroi”. Enaitzek “karnizeroari” esan du.

⁶⁷ Inkestagilearen laguntzarekin ateratako nokako adizki alokutiboa. Lehenengo “*arakiñai bei bat saldu zionan*” esan du Enaitzek. Inkestagileak errepikatzeko eskatu, eta Enaitzek berdina adierazi du. Baina inkestagileak “guk e?” azpimarratu dio Enaitzi, eta orduan, “a guk? *Arakiñari bei bat saldu zionau, ziounau*” erantzun du Enaitzek.

- *Istorio oi attei attu ziene⁶⁸*, ‘istorio hori aitari aditu zioten’.
- *Karmelo bat eman zianan⁶⁹*, ‘karmelo bat eman zianan’.

Galdetegi bidez adierazitako tokako adizki alokutiboa eta elkarrizketa librean erabilitako forma neutroak dira, ostera, hurrengoak, hurrenez hurren:

- *Bei bat saldu genioan*, ‘behi bat saldu genioan’.
- *Oantxe bertan “nai dezu txertoa jarri” ta nik ezezkoa esango nion*, ‘oraintxe bertan “nahi duzu txertoa jarri”, eta nik ezezkoa esango nion’.

Nokako forma berriak adizki perifrastikoetan

Bestalde, Enaitz izan da ikasle guztietan nokako forma berri gehien erakutsi dizkiguna. Menpeko perpausetan erabili ditu, eta adizki perifrastikoak direnez, azpiatal hau eskainiko diegu aditz sintetikoen deskribapenari itxaron gabe. Hori horrela, hiru forma berri erabili ditu Enaitzek, hirurak galdetegi bidez eskuratutakoak izan dira, eta horietako bi baldintzaren protasiko formak dira; orainaldikoa bat, eta lehenaldikoa bestea. Hirugarrena, berriz, denborazkoa da, baina gero, oso seguru edo konbentzituta geratu ez delako edo, tokako forma berria ere eskaini du. Honatx esanikoaren lekukoak:

- *Nai bain, lana oain bukaukoin*, ‘nahi *badin, lana orain bukatuko din’.
- *Eiztarik istorio oi kontatu izan ez pazionan, egie uala sinetsiko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatu izan ez *bazionan, egia *zuala sinetsiko zian’.
- *Ikusi niñanen, nianen, txakurre etxea zemakian*, ‘ikusi *ninanean, *nianeane, txakurra etxera zeramaan’.

Nokako forma asmatuak adizki perifrastikoetan

Zenbaitetan nokako aditz alokutiboak asmatzen ahalegindu da Enaitz. Forma asmatu bat menpeko perpauseto aditza izan da, eta beste hiru indikatiboko NOR NORI NORK sailekoak. Lehenik, NOR NORI NORK sailari dagozkion hiru formak erakutsiko ditugu, hurrena ahalerako adizkia eta atzetik, eta azkenik, menpeko perpausetan erabili duen forma asmatua:

- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk salduizkiño, saldu zizkiño⁷⁰*, ‘behi batzuk saldu *dizkiño, saldu *zizkiño’.
- Neonek saldu nion bei bat arakiñai → *neonek saldu zoñat bei bat arakiñari*, ‘neronek saldu *zoñat behi bat harakinari’.

⁶⁸ Baina atzetik “attu zianan” ere esan du.

⁶⁹ Lehenengo zioan esan du galdera eginez bezala. Horren atzetik berehala zianan; ziurtasunik gabe.

⁷⁰ Saldu zizkinan eta *bei batzuk saldu zizkionan* formak ere erabili ditu fomatua asmatuekin batera. “Eztakit” ere esan du saldu zizkiño forma eman aurretik.

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu zoñat*⁷¹ ‘behi bat saldu *zoñat’.
- Beak baki ni zertaz ai naizen → *beak bazekin ni zertaz ai nauen*, ‘berak bazakin ni zertaz ari *nauen’.

Enaitzen forma asmatuek iradokitzen digutena da beste zenbait nokako adizkiren sudurkariaren bustiduraren analogiaz asmatu dituela azkenengoa izan ezik, beste guztiak.

4.6.4 Nokako adizki sintetikoak

Adizki sintetikoak noka egiteko eskatu diogunean, erdiak baino gehiago, behintzat, noka egin dizkigu Enaitzek. Beste hiru adizkitan tokako zein nokako aditzak eskaini dizkigu aldi berean, lautan tokako formak ere agertu ditu, eta, azkenik, bi adizkitan nokako edo tokako alokutiborik erabili ez, eta forma neutroez baliatu da. Hala, IZAN adizkiekin hasirik, lehen adizkia noka egin du, baina bigarren toka:

- *Bea gaztea en*, ‘bera gaztea dun’.
- *Bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.

Horiek biak galdetegi bidez eskuratu ditugu. JOAN adizkiari dagozkion eta entzun ditugun adizkiak ere modu berean bildutakoak izan dira, eta horiek nokako forma alokutiboak bakarrik izan dira:

- *Ne andrea gaur Baiona zijen*⁷², ‘nire andrea gaur Baionara zoan’.
- *Istripue pasau uanen, bea etxeaka zijonan*⁷³, ‘istripua pasatu *zuanean, bera etxerantza zihoanan’.

ETORRI adizkiei heldurik, bi nokako forma aditu baditugu ere, batean nokakoaren atzetik tokakoa ere agertu du, eta galdetegia tarteko dela emandako formak dira honako hauek:

- *Ne atte oain zeturren merkatutik*, ‘nire aita orain zeturren merkatutik’.
- *Ne atte oñez zeturrenan, zeturrean, Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zeturrenan, zeturrean, Pedrokekin elkartu *zuanean’.

IBILI adizkiarekin, berriz, galdetegi bidez galdetu, eta orainaldiko forma noka egin du Enaitzek, baina lehenaldikoa toka:

- Mending dabil → *mending zebiyen*, ‘mending zebilen’.
- *Mending zebiyea enteatu uanen*, ‘mending zebilean zerbaiten berri izan *zuanean’.

EDUKI adizkiarekin hiru ale jaso ditugu noka, baina horietatik bik tokako forma ere aldamenean izan dute:

- Etxe bat zeken → *etxe bat zekenan*⁷⁴, ‘etxe bat zeukanan’.
- Etxe bat neken → *len etxe bat nekean, nekenan*, ‘lehen etxe bat neukaan, neukanan’.

⁷¹ Aurretik tokako forma ere eskaini du: *zoat*, hain zuzen. Eta “eztakit e, neskakin” ere badio *zoñat* forma eman ostean.

⁷² *Zijonen* atzetik iraganeko forma den *zijonan* esan du.

⁷³ Nokako forma alokutiboaren aurretik forma neutro bezala ulertu dugun *zioan* esan du.

⁷⁴ Lehendabizi forma neutroa eman du, inkestagileak emandako aditza nahi gabe errepikatuz edo.

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekek, zeken*⁷⁵, ‘oso etxe polita zeukak, zeukan’.

Goiko bi adibideetan ikus daitekeenez, badirudi zenbaitetan Enaitzek tokako formak makulu gisa erabiltzen dituela nokako formetara iristeko, baina hori galdetegia tarteko dela baino ez da gertatu. Izan ere, elkarriketa librean emakume inkestagileari erantzuten ari dela, ez du ez nokako, ez tokako forma alokutiborik erabili, eta EDUKI adizkiaren forma neutroaz baliatu da Enaitz. Honatx:

- *Eskolatik atea ta, bazkaldu ta settun partikularra auket*, ‘eskolatik atera eta, bazkaldu eta segituan partikularra daukat’.

JAKIN adizkiarekin erabili ditu Enaitzek nokako aditz alokutibo gehien, baina tokako adizki eta forma neutro bana ere eskaini ditu. Hori horrela, nokako formen artean daude ondorengo hirurak:

- *Oi bazekiñat nik*, ‘hori bazekinat nik’.
- Eztaki eze → *etzekin eze*, ‘ez zekin ezer’.
- *Ne amak oso ondo zekinan*⁷⁶ *josten*, ‘nire amak oso ondo zekinan josten’.

Nokako forma guztiak lortu ditugu galdetegi bidez, tokako forma alokutiboa eta neutroa, aldiz, elkarriketa librean erabili ditu Enaitzek inkestagileari erantzuterakoan. Hona hemen bi horiek, lehenengoa toka izanik, eta bigarrena, berriz, aditz berberaren aldaera neutroa:

- *Nik oaindik etzekiat*, ‘nik oraindik ez zekiat’.
- *Nik bakit zein dan, baño eztet ikusten*, ‘nik badakit zein den, baina ez dut ikusten’.

EGON adizkiari dagokio azken nokako forma alokutiboa, beraren aurretik tokako adizkia eskaini badu ere:

- *Bea lo zeoan, zeonan*, ‘bera lo zegoan, zegonan’.

Galdetegi bidez lortutako adizkien artean tokako beste forma bat ere badugu, baina hura nokako alokutiborik gabe eman digu:

- *Etzen zeoan dettu nitxoanen*⁷⁷, ‘etxean zegoan deitu *nioanean’.

Azkenik, tokako adizkia bakarrik eman diguten EKARRI eta ERAMAN adizkiak ditugu, bi horiek galdetegia tarteko bildutakoak izanik:

- *Beak buru gañean arropa zekarkian*⁷⁸, ‘berak buru gaineen arropa zekarrean’.
- *Ikusi niñanen, txakurre etxea zemarkian*, ‘ikusi *ninanean, txakurra etxera zeramaan’.

Aditza aldatzea

Hamabi aditzetan atzeman ditugu pertsona, modu, denbora edo aditz aldaketak Enaitzi noka egiteko eskatu diogunean. Hala, ondorengo hauek pertsona aldaketak erakusten dituzte:

⁷⁵ Bi forma alokutiboak inkestagilearen laguntzarekin lortu ditugu. Lehendabizi, eskatu zaion aditzaren iraganez nokako forma den *zekenan* eskaini du.

⁷⁶ Ez dakigu zergatik, baina ez du beste zenbaitetan bezala sudurkaria busti goiko bokalaren eraginez espero genuen bezala.

⁷⁷ Ondoren, “*dettu, dettu nitxon*, ez. Eztait” esan du Enaitzek.

⁷⁸ Inkestagilearen laguntzarekin emandako forma. Aurretik *zemarkin* esan du.

- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu zizkienan*, ‘bizilagunek behi bat saldu zizkienan’.
- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosi niñan*⁷⁹, ‘kotxe bat erosi ninan’.
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zenuen*⁸⁰, ‘kotxe bat erosi zenuten’.

Lehen kasuan funtsean ikusten dugu NOR hirugarren pertsona singularra duen adizkia eman beharrean, NOR hirugarren pertsona plurala duen nokako forma alokutiboa eman duela. Izan ere, Zaldibian *zianan* erabiltzen dute *ziotenen* forma alokutiborako, Saroi Jauregik argitu digunez. Bigarren adibideak agertzen du, berriz, NORK hirugarren pertsona singularra izatetik lehenengo pertsona singularra izatera iragan dela, eta beraz, NORK lehenengo pertsona duen nokako alokutiboa bere buruan bilatzea agian errazagoa egin zaiola. Hirugarren eta azken kasuak, oster, ez du forma alokutiborik erakusten, NORK bigarren pertsona pluralari dagokion adizkia baita. Bestalde, aditzaren modu aldaketa agertzen dute honako beste bi hauek:

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istorio guztie kontatzeko luze geitzen*, ‘istorio guztia kontatzeko luze gelditzen den’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bain, lana oain bukaukoin*, ‘nahi *badin, lana orain bukatuko din’.

Bi horietatik lehenengoak baldintzako apodosotik indikatiboko orainaldira jauzi egin duela agerian uzten du, eta akaso, hori egin du Enaitzek indikatiboko nokako forma egitea errazagoa zaiolako. Eta bigarren adibidea ere, agian horren adierazle izan daiteke, hau da, ahalerako nokako forma alokutiboa egitea baino errazagoa edo soilagoa dela indikatibokoa erabiltzea. Beste batzuk, aldiz, denbora aldaketa erakusten dute, eta ondorengoak dira:

- Igual zitzaiten → *igual zaiian, igual tzaiian*, ‘berdin zaidan, berdin zaidan’.
- Boteia guztik ean zittun → *boteia guztik ean dizkin, dizkie*⁸¹, ‘boteila guztiak edan dizkin’.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman zianan*⁸² *ardiei*, ‘artzaiek pentsua eman zianan ardiei’.
- Lo dao → *lo zeonan*, ‘lo zegonan’.
- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gañean zemarkin*, ‘arropa buru gaineen zeraman’.

Aurrena dakargun etsenpluan lehenalditik orainaldira igaro da, eta gainera, orainaldiko nokaren bi aldaera eskaini ditu. Bigarreanean ere lehenalditik orainaldirako jauzia ikusten dugu, bigarren adierazten duen formak pertsona aldaketa berarekin badakar ere; izan ere, NORK hirugarren

⁷⁹ Inkestagilea laguntzen saiatu da, eta ondoren, tokako forma alokutiboa eskaini digu: “*kotxe bat eosi zian*” baitio. Dena den, kasu honetan *niñan* erabiltzea intereseko zaigu. Horregatik azaleratu dugu bera.

⁸⁰ Inkestagilea laguntzen saiatu da, kotxea erosi zutenak *haiek* izan zirela azpimarratu nahirik. Enaitzek ez dakiela erantzun du.

⁸¹ Inkestagilea laguntzen ahalegindu da, “baño ean zittun atzo, e? Gaur ez” esanez. Orduan Enaitzek “*boteia guztik ean zizkian*” erantzun du. Toka egin du, alegia.

⁸² Lehenengo tokako alokutiboa erabili du, *ziek*, alegia. Baina gero ahalegina egin, eta nokako forma ematen saiatu da. Horregatik, nokako forma horrek erakusten duena agertzea lehenetsi dugu.

pertsona singularraren nokako forma alokutiboaren partez, NORK hirugarren pertsona plurala duen tokako aditz alokutiboa eman du Enaitzek azken horretan. Denbora aldaketa erakusten duten hurrengo bi adibideek, orain arteko besteen kontrara, orainaldiko forma eskaini beharrean, lehenaldiko nokako ordainak eman ditu. Azkenik, aitzatzeko geratzeko zaigun aditz aldaketak aditz erroaren eraldaketa du ardatz, EKARRI adizkiaren nokako formaz eskatu bazaio ere, ERAMAN adizkiaren nokako forma alokutiboa eskaini baitu Enaitzek.

Ez dakiela adierazi duen aditz formak

Enaitzen deskribapenarekin amaitzeko, azaldu nahi dugu galdetegi bidez eskatutako aditz perifrastiko eta sintetiko banatan Enaitzek ez duela inolako aditz formarik eman, eta argi eta garbi adierazi duela aditz horien nokako formak ez dakizkiela. Hain zuzen, “eztaikit” erantzun du ondorengo adizki hauetan:

- Artzaiek nai zon guztiri salduiote gazta.
- Beak arropa buru gañen damaki.

Ikus daitekeenez, NOR NORI NORK sailari dagokio lehenengoa, eta ERAMAN adizkiari bigarrena.

4.7 Guztien joera orokorrak

4.7.1 Bitariko formak

Galdetegi bidez lortutako datu elizitatuetan nahiz elkarrizketa librean entzundako adizkietan ikasle guztiek erakutsi dute zenbait aditzekin aditz berbera adierazteko bi aditz forma edo gehiago dituztela edota erabiltzen dituztela. Bada, bi forma (edo gehiago) dituzten adizki horiei bitariko formak deitzen diegu. Hau da, modu, sail, denbora eta pertsona berberari dagozkion aditz formak dira bitariko formak. Hala, galdetegi bidez hiru aditzekin topatu dizkiogu Josuri bitariko formak tokako eta nokako adizki alokutiboak ematerakoan; Saioari aditz bakarrarekin, Anerri bostekin, Ekhirri seirekin eta Igor eta Enaitzi zazpirekin. Adibidez, *naizen* adizki neutrorako Josuk *naken* eta *neoken* aditz formak erabili ditu toka egiteko eskatu diogunean, eta noka egiteko galdegin diogunean, berriz, *nitxoken* tokako forma berria ere eman du:

- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertan ai naken* ‘bazekiat zertan ari *nauken’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken* ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekik zertaz ai nitxoken*, ‘bazekik zertaz ari *nauken’.

Beraz, esan genezake Josuk *naizen* adizkirako hirutariko formak dituela, nahiz eta azkena erakutsi duguna nokako adizkiekin batera egin; izan ere, berez tokako morfema maskulinoa den *-k* du, eta horregatik, baliteke noiz edo noiz toka egitean erabiltzea. Saioak ere *zun* edo *zon* adizki neutroa Josuren *naizen* adizkia bezala hiru eratara egin digu toka jardutean:

- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosi zian* ‘kotxe bat erosi zian’.

- Naiko balo, ingo zon → *naiko balu, ingo zoan* 'nahiko balu, egingo *zoan'.
- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuan guztii saldu ziek gazta*, 'artzaiak nahi *zuan guztiari saldu ziotek gazta'.

Ez diogu beste bitariko formarik atzeman Saioari ez tokako datu elizitatuetan, ez nokakoetan. Anerrek, ostera, galdetegi bidez tokako aditz alokutiboak erabiltzeko eskatu diogunean bi adizkirekin topatu dizkiogu bitariko formak, eta noka egiteko galdegin diogunean, berriz, hirurekin. Hona hemen *zan* adizkia nola egin duen Anerrek toka, eta nola *zitzaitean* "noka":

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *ue gaztea izango bauan, gukin geatuko ukean*, 'hura gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko *zukean'.
- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno ateko bauan etxetik, ue oain etxen izango uan*, 'Pedro lehenago aterako *bazuan etxetik, hura orain etxean izango zuan'.
- Len aragie gustatzen zitzaitean → *len aragie gustatze zitzaitean*, 'lehen haragia gustatzen zitzaidean'.
- Igual zitzaitean → *igual zitzaitean*, 'berdin zitzaidean'.
- Atzo semea etorri zitzaitean etxea → *atzo semea etorri zitzaidean etxea*, 'atzo semea etorri *zitzaidean etxera'.

Ikus daitekeenez, Anerrek *zan* adizki neutrorako bi tokako forma alokutibo ditu. Nokarako, aldiz, erabili dituen hiru formak izan dira tokako alokutiboa, forma neutroa eta tokako forma alokutibo berria; nokako formarik bat bera ere ez, alegia.

Ekhiri dagokionez, agertu dugu sei adizkirekin erakutsi dituela bitariko formak. Sei horietatik hiru galdetegi bidez toka egiteko eskatu diogunean eskuratu ditugunak dira, eta beste hirurak, aldiz, nokako forma alokutiboak erabiltzeko galdegin diogunean egindakoak. Tokako datu elizitatuen artean dugun *zait* adizkiaren bitariko formak agertuko ditugu lehenik, eta nokako datu elizitatuen artean *naz* edo *naiz* adizkiaren bitariko formak ondoren. Hona hemen:

- Ondo iruitzen zat → *ondo iruitzen zaiak*, 'ondo iruiditzen zaidak'.
- Aragie gustatzen zait → *aragie gustatzen zait*, 'haragia gustatzen zait'.
- Bidea atea naz → *bidea atea neonan*, 'bidera atera negonan'.
- Beana inguratu naiz → *beana inguratu naun*, 'beregana inguratu naun'.

Lehenengo bitariko formei erreparatzen badiegu, ikus daiteke tokako forma alokutiboa nahiz forma neutroa erabili dituela Ekhi *zait* adizkirako. *Naiz* adizkiarekin, aldiz, EGON adizkiari dagokion lehenaldiko forma nahiz NOR saileko nokako forma alokutiboa eskaini ditu. Dena den, Saroi Jauregi zaldibitarrak adierazi digu *ni naun* eta *ni nauk* adierazteko *ni nitxon/neon* eta *ni nitxok/neok* erabiltzen dituela berak, eta beraz, uste dugu aurreneko forma hori *neon* oinarritik datorrela. Alegia,

IZAN zentzuarekin ulertu behar dela EGON esanahiarekin beharrean. Hori horrela izanik ere, *neonan* Ekhiaren deskribapenean eman ditugun arrazoiengatik, asmatutzat dugu.

Igorrek eskaini dituen bitariko formen artetik, eta toka egiteko eskatu dizkiegun adizkietatik, berriki aipatu duguna berrestera dator Igor *naz* edo *naiz* adizkiarekin; izan ere, Saroi azaldu diguna ikus baitaiteke bitariko bi formatoko batean. Hona hemen:

- Bidea atea naz → *bidea atea nauk*, ‘bidera atera nauk’.
- Beana inguratu naiz → *beana ingura neok*, ‘beregana inguratu nauk’.

Aipatu nahi dugu dena den, berrikuntza berria dela. Izan ere, Yrizarren (1991) lanak Zaldibian jasotako tokako eta nokako adizki alokutiboak dakartza: *nauk*, *nitxok* eta *netxok* tokarako, eta *naun* eta *nitxon* nokarako. Alegia, ez da ageri gure ikasleek eta Saroi Jauregik darabilten *neok/neon* toka-noka bikotea. Baina bada beste datu interesgarri bat: adizki horietako batzuk 1984ean bildu zituen Artolak, hain zuzen, *nitxok/netxok* eta *nitxon*. Horrek esan nahi du azken hogeita hamazazpi urteetan gertatutako berrikuntza dela *neok/neon* erabiltzea. Berri-berria, alegia. Baina, jarrai dezagun Igorren bitariko formak ikusten. Ondorengo bitariko formekin, tokako forma alokutibo zahar eta berria agertu dizkigu Igorrek:

- Len aragie gustatzen *tzaten* → *lenao aragie gustatze zitzaitean*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidaan’.
- Igual *tzaten* → *igual zitzaiakean*, ‘berdin zitzaidaan’.

Adierazi nahi dugu bigarren forma berri hori beste behin ere eman duela Igorrek galdetegi bidez eskatu diogun beste adibide batekin, kasu horretan *zitzaidakean* bezala ahoskatu badu ere. Hau da, horrekin aditzera eman nahi duguna da forma berria zaharrari nagusitzen ari zaion zantzua dagoela. Igorren nokako bitariko formei dagokienez, ostera, bitasuna ez dago forma zahar eta berriaren artean, tokako alokutibo eta nokakoaren artean edo forma neutro eta tokakoaren artean baizik. Hala, bi kasutan tokako eta nokako forma alokutiboak erabili dituenek Igorrek aditz berbera noka adierazteko, horietako kasu bat erakutsiko dugu:

- *Bakit* zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.
- Oi *bakit* nik → oi *bazekiñat nik*, ‘hori bazekinat nik’.

Enaitzek galdetegi bidez agertu dizkigun bitariko formen artetik, berriz, eta horietatik tokako bitasunen artetik, ondorengo aditz forma hauek ekarriko ditugu:

- Bea gaztea *balitz*, gukin geauko zan → *bea gaztea balitz, gukin geauko uan*, ‘bera gaztea balitz, gurekin geratuko zuan’.
- Pedro leno atea izan *balitz* bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno atea balin bauan etxetik, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera baldin *bazun etxetik, honezkero hemen izango zuan’.
- Bidea atea naiz → *bidea atea nauk*, ‘bidera atera nauk’.

- Beana inguratu naiz → *beana inguratu neok*, ‘beregana inguratu nauk’.

Goiko adibideetatik lehenengoak erakusten duenez, murriztapen sintaktikoa errespetatzen du, hau da, menpeko perpausa izanik, ez darabil tokako alokutiborik; bigarren formak, ordea, berritasuna agertzen du, eta tokako alokutiboa baldintzako protasira iritsi dela begi bistan jartzen du. Dena den, badirudi *bauan* nagusi dela, noka esaldi berberak egiteko eskatu diogunean *bauan* tokako forma berria erabili baitu bi kasutan. Ondorengo bitariko forma, ostera, jada ezaguna dugu. Berriro azaleratzea erabaki dugu berriztat dugun *neok* formaren presentzia azpimarratzeko, eta *nauk* adizkiarekin nolabaiteko lehia beste ikaskideen artean ere badagoela agerian uzteko. Gainera, Igorrek eta Enaitzek toki berberetan kokatu dituzte bata eta bestea, hau da, “bidea atea naiz” toka egiteko eskatu zaienean erabili dute biek *nauk* eta, aldiz, *neok* “beana inguratu naiz” toka nola egingo luketen galdetu diegunean. Eta galdetegi bidez lortu ditugun bitariko formekin amaitzeko, Enaitzek nokako formen artean utzi dizkigun hiru adibideetatik bat agertuko dugu:

- Geiegi ean tzon afarin → *geiegi ean tziñan afarin*, ‘gehiegi edan zinan afarian’.
- Naiko balo, ingo zon → *nahiko balu, ingo zian*, ‘nahiko balu, egingo zian’.

Ikus daitekeenez, nokako eta tokako forma bana erabili ditu. Nokakoa oso seguru edota presente ez duen adierazle.

Elkarriketa libreko datuei heldurik, Josuren aditzetan bakarra ikusi dugu bi adierazmolderekin, Saioarenetan bederatzi, Anerrenetan zazpi Josurekin eta Saioarekin erabiltzen dituenak aintzat hartuta, Ekhirenetan bi, Igorrenetan sei eta Enaitzenetan bakarra. Ikasle guztien bitariko formen artetik aipagarrienak jarriko ditugu agerian:

- *Bakoitza bere kotxeekin ibiltze ttuk*, ‘bakoitza bere kotxearekin ibiltzen dituk’;
- *Aik e zeozeptik etorrikoia*, ‘haiek ere zerbaitegatik etorriko dira’.

Bi forma horiek Josuk Saioari egitean erabili dituenak dira. Ikus daiteke tokako forma zein neutroa erabili dituela; nokakorik ez. Bestalde, Anerri egiterakoan ez dugu aurkitu Josuren adizkietan horrelako alternantziarik, ez tokakoen artean, ezta tokako edo forma neutroen artean ere. Saioaren eta Anerren bitariko formen artean aditz berberarekin topatu ditugu bitariko formak, Saioak, ordea, forma bererako lau adizki erabili ditu. Honatx:

- *Ez giñuan ezautzen*, ‘ez gintuan ezagutzen’.
- *Gu giñuztean e, zean, arraunen o, zean ai giñen, kanoatan ai giñen errekan*, ‘gu gintuan e, zeran, arraunean edo, zera ari ginen, kanoatan ari ginen errekan’.
- *Eskola ez ginttuan etorri*, ‘eskola ez gintuan etorri’.

Ikus daitekeenez, hiru tokako alokutiboak dira, baina bat forma neutroa. Anerrek Saioaren lau forma horien artetik bai Josurekin, bai Saioarekin *giñuztean* erabiltzeaz gain, beste tokako forma alokutibo bat ere agerian jarri digu:

- *Ai gitxoan (...) batzutan jolasten*, ‘ari gintuan (...) batzuetan jolasten’.

- *Zea baten ordu bik arte, ta geo jun giñuztean, ‘zera batean ordu biak arte, ta gero joan gintuan’.*

Bi adibide horiek Josurekin erabilitakoak dira, baina horiexek horrelaxe egin ditu Saioarekin ere, toka, alegia. Ekhik, ostera, Enaitzekin eta Igorrekin toka ari denean tokako forma alokutiboa zein forma neutroa txandakatzen dituela ikusi dugu pare bat adizkirekin. Hona bikote horietako bat:

- *Asi nitzan korrika gora, ‘hasi nintzen korrika gora’.*
- *Bozina jartzen ai nitxoan, ‘bozina jartzen ari ninduan’.*

Igorrengan ere tokako forma alokutiboaren eta forma neutroaren erabilera txandakatzen da, zenbaitetan solaskideekin ari denean, baina batez ere emakumezkoa den inkestagileak egindako galderaren bati erantzuten ari denean. Hona inkestagilearekin erabilitako bitariko formen adibide bat:

- *Et xen e denbo gutxi pasatze*iat*, ‘etxean ere denbora gutxi pasatzen diat’.*
- *Naiago de ne denbora beste gauza batzuk itten aprobetxau, ‘nahiago dut nire denbora beste gauza batzuk egiten aprobetxatu’.*

Enaitzek azkenik, tokako forma alokutiboen bitariko formen kasu bat jarri digu agerian:

- *Lenengo lau etorri ittuan, e bi pla, bi patruya zean, e, kaleko ortan jarri ittuan, ‘lehenengo lau etorri zituan, eh, bi *pla, bi patruila zeran, eh, kaleko horretan jarri zituan’.*
- *Ta Perurena ta asi itxoan izotza botatzen, ‘eta Perurena eta hasi zituan izotza botatzen’.*

4.7.2 Alokutiboen murriztapen sintaktikoa dela-eta

Oinarri teorikoetan azaldu dugu forma alokutiboek halako debeku sintaktiko batzuk dituztela berez, eta menpeko perpausetan, galdera eta harridura perpausetan, subjuntibo nahiz hirugarren pertsonako aginte formetan erabiltzea ez dela ohikoa edota ez luketela azaldu behar. Bada, ikusi dugu aztergai ditugun sei ikasleen mintzoan hika ari direlarik, bai galdetegi bidez, bai elkarriketa librean erabilitako perpausetan murriztapen edo debeku sintaktiko horiek, oro har, jada eurengan indarra galdu dutela, eta kontrako joera dela nagusi. Izan ere, bai galdetegi bidez, bai elkarriketa librean entzun ditugun menpeko perpaus, galde perpaus eta harridura perpaus guztietan adizki alokutiboak gehiago izan dira forma neutroak baino. Hala, galdetegi bidez jasotako menpeko perpausetan ikasle guztien berrogeita hamasei perpausetan ikusi ditugu adizki alokutiboak, eta elkarriketa librekoak zenbatzen baditugu, aldiz, berrogeita hemezortzi menpeko perpausetan. Orotara ehun eta hamalau. Murriztapen sintaktikoa errespetatzen duten adizkiei begira jarritz gero, berriz, ikasle guztien eta galdetegi bidez eskuratutako hogeit hamar menpeko perpausetan kontatu ditugu adizki neutroak, eta elkarriketa librean halako beste hogeita hamar. Guztira berrogeita hamar. Menpeko perpaus guztien erdia baino gutxiago, alegia. Gainera, ikasle batetik bestera kopuruan alde handiagoa edo txikiagoa badago ere, ia ikasle guztiek erabili dituzte alokutiboak gehiago menpeko perpausetan bai galdetegi bidez jasotakoetan, bai elkarriketa librekoetan. Ekhik galdetegi

bidez eskuratutako lau menpeko perpausetan baino ez ditu erabili alokutiboak, eta zazpi menpeko perpausetan agertu ditu forma neutroak. Baina elkarrizketa libreko menpeko perpausari erreparatu eta horiek zenbatzen baditugu, bederatzi menpeko perpausetan erabili ditu adizki alokutiboak Ekhi ere, eta zortzitan forma neutroak. Beraz, alde handiz ez bada ere, Ekhirengan ere esan daiteke alokutiboak nagusi direla menpeko perpausetan, elkarrizketa libreko datuak izanik benetako erabileraren lekuko leialenak. Hori horrela izanik, elkarrizketa libretik ateratako eta menpeko perpausetan forma alokutiboak agertzen dituzten ikasle bakoitzaren adibide bana erakutsiko dugu jarraian, Josu, Saioa, Aner, Ekhi, Igor eta Enaitzen perpaus bana hurrenkera horretan azaldurik:

- *Baño leno esate zien sei iyabete ittuala inmunitatea*, ‘baina lehen esaten zitean sei hilabete *zituala inmunitatea’.
- *Aurten beste plan batzuk zezkeau, ta gañea, kontue zeoken bezela, nik etzekeatela bildurrik eztare auntza juteko*, ‘Aurten beste plan batzuk zezkeagu, eta gainera, kontua *zegoken bezela, nik ez *zeukaatela beldurrik harantza joateko’.
- *Marruka asi uan etziala sartu nai*, ‘marruka hasi zuan ez *ziala sartu nahi’.
- *Itteikena euskeraz itte baik, seguru ikusikoekela*, ‘egiten *dikena euskaraz egiten *badik, seguru ikusiko *dukela’.
- *Bai, eske normalen oi pasatzen zaiak. Osea, jendek esateikenen “irakurtzea etzaiak gustatzen” dekela eztikelako billatzen ze irakurri*, ‘Bai, izan ere, normalean hori pasatzen zaidak. Hau da, jendeak esaten *dikenean “irakurtzea ez zaidak gustatzen” *dukela ez *dikelako bi-latzen zer irakurri’.
- *Aber gorritik noiz kentzen gattuken, zeoze itteko re*, ‘ea gorritik noiz kentzen *gaituken, zer edo zer egiteko ere’.

Murritzapen sintaktikoak errespetatzen dituzten adizkien artetik, berriz, ondorengo perpaus hauek ere elkarrizketa librean entzundakoak ditugu, berrito ere Josu, Saioa, Aner, Ekhi, Igor eta Enaitzen perpausak hurrenkera horretan:

- *Esan ziguan irukoa atea ta ala re, irukokin gustoa eon bear genula. Irukokin gustoa eon bear genula*, ‘esan ziguan hirukoa atera eta hala ere, hirukoarekin gustura egon behar genuela. Hirukoarekin gustura egon behar genuela’.
- *Ta eak azentue euskeraz itzeiteuenen*, ‘ta eurak azentua euskaraz hitz egiten dutenean’.
- *Pentsa genian obena autobuse, luze ingo zala baño*, ‘pentsatu genian onena autobusa, luze egingo zela baina’.
- *Etzeiat zein tzan*, ‘ez zekiat zein zen’.
- *Aik esate zien, e, Andaluzi alden da merke zeola asuntoa*, ‘haiek esaten zitean, eh, Andaluzia aldean eta merke zegoela kontua’.

- *Nik (...) ⁸³ eztetela in bear injeneritza. Oi garbi zekeat, 'nik (...) ez dudala egin behar ingeniariatza. Hori garbi zeukaat'.*

Bestalde, menpeko perpausei dagokienez, baditugu beste pare bat kontu aipatzeko. Batetik, ikusi dugu galdetegi bidez noka egiteko eskatu diegun hogeita bat menpeko perpausetan tokako adizki alokutibo berriak erabili dituztela; batzuetan perpaus nagusian nokako alokutiboa izanik, eta beste batzuetan tokakoa. Enaitzek hiru bat aldiz nokako forma berriak ere erabili ditu menpeko perpausetan. Eta bestetik, galdetegi bidez jasotako beste hamalau perpausetan perpaus nagusian forma alokutiborik erabili ez, eta menpeko perpaus soilik agertu dute forma alokutiboa. Ikasle guztiei lekukotu diegu gutxienez horrelakoaren bat; eta elkarriketa librean Saioari bat. Segidan erakutsiko dugu nokako menpeko perpaus tokako adizki berria dakarren, eta perpaus nagusian adizki neutroa eta menpekoan alokutiboa darabilen adibide bana; biak Anerrek eskainitakoak dira:

- *Bazekiñat zertaz ai neoken, 'bazekinat zertaz ari *nauken'.*
- *Bakit zertaz ai neoken, 'badakit zertaz ari *nauken'.*

Galde perpausei dagokienez, horietan ere alokutiboak nagusi izan dira ikasle guztietan. Galdetegi bidez egin dizkiegun bi galderetatik bietan erabili dituzte tokako eta nokako forma alokutiboak ikasle ia guztiek, hau da, hamabitik hamaika galdera perpausetan forma alokutiboak eskaini dituzte; tokakoak zein nokakoak. Eta elkarriketa librean ere hamabost galde perpausetan forma alokutiboak atzeman ditugu; horietan guztiak toka izan dira. Forma alokutiborik gabeko galdera perpaus bakarra jaso dugu, oster, galdetegi bidez, eta sei elkarriketa libretik.

Harridura perpausei erreparaturik, galdetegian halakorik ez, eta elkarriketa librean bost entzun ditugu denera; guztiak tokako adizki alokutiboarekin. Dena dela, menpeko perpausekin alderaturik bai galde perpausen, bai harridura perpausen lekukotasuna murriztagoa izanik, horien adibideak ez ditugu hona ekarriko, baina edonork ikusi nahiko balitu, lan honen eransketan topatuko ditu. Azkenik, murriztapen sintaktikoari dagokion atal honekin amaitzeko adierazi nahi dugu ez dugula entzun ez subjuntiberazko perpausik, ez aginte perpausik ikasleen ahotan horietan murriztapen sintaktikorik bizi den edo ez esateko.

4.7.3 Hitanoaren higatzea

Norbanakoak hiketan ari direla erakusten dituzten hutsune, gabezia edo hainbat alternantziari deitzen diogu hitanoaren higatzea. Hau da, hitanoa sendo ez duen hiztunak hiketan ari dela zenbait hikako forma ez jakitearen edo menperatzearen ondorioz, hutsune hori betetzeko zenbait baliabide edo alternatiba topatzen ditu, dela adizki neutroak erabiltzea, dela tokako alokutiboak baliatzea nokakoen ordeztu, dela adizkiak asmatzea, dela aditzaren denbora aldatzea... ikasleen adizkien deskribapenean ikusi dugun legez. Edo hika sendo duen pertsona batengan ere ez dugu espero hika ari delarik *zu* izenordaina eta berari dagozkion adizkiak agertzea hikako adizkiekin tartekatuta,

⁸³ Ez dugu ulertzen zer dioen.

adibidez. Bada, horrelako kasu guztiak hitanoaren higatze bezala identifikatu eta izendatuko ditugu. Hala, ikasleei toka egiteko eskatu diegun galdetegi bidezko datu elizitatuen artetik, tokako hirurogeita sei higatze kasu gutxienez begiz jo ditugu ikasle guztien datuak aintzat hartuta. Galdetegi bidez lortutako nokako higatze kasuei erreparatzen badiegu, berriz, ehun eta hirurogeita hamabost gutxienez. Ikasle guztietan dira gehiago nokako higatze kasuak tokakoak baino; ia ikasle guztien tokako higatze kasuen erdia baino gehiago, hain zuzen. Enaitzen kasuan, ia boskoitza gehiago ere bai. Eta elkarriketako datuek ere ez dute kontrarik esaten. Izan ere, Josuk Saioari gutxienez hogeita hamabost kasutan toka egin dio edo adizki neutroez baliatu da. Ustez, behin entzun diogu nokako adizki bat Josuri, baina hori bera ere ez dugu oso garbi entzun, eta ale bakar hori ere ezin dugu guztiz ziurtatu. Aldiz, Josuk Anerri nola egin dion aztertzen badugu, adizki neutroa tokakoarekin tartekatuta erabili duen kasu bakarra topatu dugu. Anerren kasuan, nokaren bederatzi higatze kasu identifikatu ditugu elkarriketa librean, eta horietan guztietan forma neutroak edo tokakoak erabili ditu Saioari hitz egiterakoan. Bi nokako adizki soilik entzun dizkiogu elkarriketa osoan Anerri. Tokako higatze kasu agerikorik, oster, ez diogu aurkitu elkarriketan. Saioak, berriz, neska solaskiderik izan ez, eta tokako higatze kasuak bakarrik zenbatu ahal izan dizkiogu. Hogeita hemezortzi higatze ale identifikatzeko gai izan gara, behintzat.

Ekhi, Igor eta Enaitzen elkarriketari dagokionez, guztiek erakutsi dituzte tokako higatze kasuak, hamabost gutxienez Ekhi, zazpi Igorrek eta beste zortzi Enaitzek. Igorren tokako higatze kasuetan Ekhi elkarriketakide izateak eragina izan duela antzeman dugu. Eta emakume inkestagileak hainbat momentutan elkarriketak aurrera jarrai zezan ikasleei egin dizkien galderen ondorioz, berari eman dizkieten erantzunak nokako higatze kasu bezala identifikatu ditugu. Bai Igorrekin, bai Enaitzekin halako zortzina higatze kasu gutxienez zenbatu ditugu. Ekhi, aldiz, ez zaigu iruditu inkestagileari zuzenean erantzun dionik, eta beraz, ez dugu Ekhi dagokion eta elkarriketa libretik atearatakoa den nokako higatze adibiderik jaso.

Gauzak horrela, esandakoa adibidez janztea besterik ez zaigu geratzen. Tokako higatzea nahiz nokakoa erakusten duten lekukoak eskainiko ditugu jarraian. Galdetegi bidez identifikatutako tokako higatze kasuak dira honakoak, Josu, Saioa, Aner, Ekhi, Igor eta Enaitzenak, hurrenez hurren:

- *Leno aragie gustatze zitzaion, 'lehen haragia gustatzen zitzaion'.*
- *Artzaiek pentsue eman diek, die, ziek ardiri, ziek, 'artzaiek pentsua eman *diek, die, ziek ardiei, ziek'.*
- *Igual zitzaiten, 'berdin zitzaidan'.*
- *Nereana etortzen zan, 'niregana etortzen zen'.*
- *Istripue pasau uanen, bea etxe aldea zijen, 'istripua pasatu zuanean, bera etxe aldera zihoan'.*

- Igual zitzaiten → *igual zaiak*⁸⁴, ‘berdin zaidak’.

Galdetegitik lortutako eta nokako higatzeen adibide dira, berriz, ondorengoak, aurreko adibideak bezala, Josu, Saioa, Aner, Ekhi, Igor eta Enaitzenak, hurrenkera berean:

- *Karamelo bat eman ziñon beai*, ‘karamelo bat eman *ziñon berari’.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat karnizeroi*, *bei batzuk saldu zizkionan*⁸⁵, *bei batzuk saldu dizkionan*⁸⁶, ‘behi batzuk saldu zizkionat harakinari, behi batzuk saldu zizkionan, bei batzuk saldu *dizkionan’.
- *Atzo semea etorri zitzaiken etxea*, ‘atzo semea etorri *zitzaidean etxera’.
- *Bea gaztea denan*, ‘bera gaztea *dunan’.
- *Bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk salduizkiño*, *saldu zizkinan*, *eztakit*, *saldu zizkiño*, *bei batzuk saldu zizkionan*, ‘behi batzuk saldu *dizkiño, saldu zizkinan, ez dakit, saldu *zizkiño, behi batzuk saldu zizkionan’.

Elkarriketa librean jasotako tokako higatze adibideei heldurik, honakoak Josurena, Saioarena, Ekhirena, Igorrena eta Enaitzena dira:

- *Guri, jun giñen, esan ziguen autobus denak fuera. Bai. Ire attak esan zian lau terdi, beno, gu geio eon giñuztala, baño lau terditan fuera*, ‘guri, joan ginen, esan ziguten, autobus denak kanpora. Bai. Hire aitak esan zian lau terdi, beno, gu gehiago egon ginela, baina lau terdietan kanpora’.
- *Asten zear lanik itte al dik zure attek?*, ‘astean zehar lanik egiten al dik zure aitak?’.
- *Jarri genian, baño arandela falta zitzaion*, ‘jarri genian, baina arandela falta zitzaion’.
- *Bai, gu jun gattuk asteburu batzutan da, kiston ambientea eotea*, ‘bai, gu joan gaituk asteburu batzuetan eta, sekulako giroa egoten da’.
- *Jetsi uan pixkat pentsatze*, ‘jaitsi zuan pixka bat pentsatzen dut’.

Eta azkenik, elkarriketa librean entzundako nokako higatzeen adibideekin itxiko dugu atal hau, Josu, Aner, Igor eta Enaitzen lekukotasunekin, hain zuzen:

- *Ne ustez inmunitate oi, zeoze bazekek geio ze, amek eta positibo eman duenen, ni beakin eon nitzen, baño nola inmunitate oi neken, baño leeno esate zien sei hilabete ittuala inmunitatea, oain iru... nik etzekiat. Nik e konfinatuta iru eunengatik eon ber izan nian*, ‘nire ustez inmunitate hori, zer edo zer bazeukak gehiago zeren, amak eta positibo eman dute-

⁸⁴ Inkestagilea laguntzen saiatu bada ere, “eeen... etzekit” erantzun du Enaitzek.

⁸⁵ Inkestagilearekin laguntzarekin egindako forma.

⁸⁶ Inkestagilea berriro laguntzen saiatuta atera zaiona.

nean, ni berarekin egon nintzen, baina nola inmunitate hori neukan, baina lehen esaten zitean sei hilabete *zituala inmunitatea, orain hiru... nik ez zekiat. Nik ere konfinatuta hiru egunengatik egon behar izan nian'.

- *Atzo etziñen oso gustoa atea eskolatio, 'atzo ez zinen oso gustura atera eskolatik'.*
- *Nolako bizitza, eztakit, baño oantxe, ya sakon sartzea ek, etzekiat, azkenen bizi gattuk emen. Naiagoet ez sartu. Oantxe ezta momentua, 'nolako bizitza, ez dakit, baina oraintxe, ja sakon sartze duk, ez zekiat, azkenean bizi gaituk hemen. Nahiago dut ez sartu. Oraintxe ez da momentua'.*
- *Nik bakit zein dan, baño ezte ikusten, 'nik badakit zein den, baina ez dut ikusten'.*

5. Ondorioak

Lan honetan hamabost eta hamazazpi urte bitarteko sei ikasle zaldibitarren hitanoaren ezagutza eta erabilera deskribatzen eta aztertzen aritu gara. Jakin nahi izan dugu euskararen tratamendu informalean aritzeko euren gaitasuna zenbaterainokoa den, nola egiten duten edota menderatzen ote duten, sendo ote dagoen hika euren hizketa jardunean. Zaldibitar horiek, baina, Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleak dira, eta hasiera batean gure asmoa zen Ordiziako ikasleen hiketa aztertzea. Kontua da DBH 3 eta bigarren Batxilergoa bitarteko ordiziarrek diren ikasleen artetik ez duela inork adierazi hiketan badakienik edo jarduteko gai denik. Zaldibitarrek, berriz, zortzi dira maila horietan dabilzanak, baina zortzitik seik, Josuk, Saioak, Anerrek, Ekhik, Igorrek eta Enaitzek, adierazi digute hitanoaren ezagutza badutela edota erabiltzeko gai direla. Hori horrela, eurekin eta euren datuekin lan egin dugu.

Baina zer da hitanoa ezagutzea eta kontrolatzea? Lan honetan sei ikasle horien tokako eta nokako datu elizitatuak bildu ditugu, alde batetik, eta bestetik, hiruko bi taldetan elkarriketa libreak elkarren artean hika jarduteko eskatu diegu, eta elkarriketa horietatik ere datuak, hots, entzundako adizki alokutibo, neutro nahiz bestelakoak eta hainbat perpaus jaso ditugu, eta horiekin lan egin dugu. Hau da, ikasleek hitanoaren ezagutza baduten eta nolakoa duten jakiteko begiz jo ditugu tokako zein nokako adizki alokutibo perifrastikoak, sintetikoak, adizki alokutibo berriak, adizki alokutibo asmatuak, espero gabeko aditz aldaketak, alokutiboaren murriztapen sintaktikoa eskatzen duten perpausak, bitariko formak agertzen dituzten aditzak eta hitanoaren higatzea edo ahitzea dagoela erakusten duten datu edo zantzuak. Hala, bateko eta besteko datuak aztertuta, ondorio hauetara irisi gara:

Oro har, Enaitz da sei ikasleen artetik hitanoaren ezagutza maila altuena erakutsi duena, tokako nahiz nokako datu gehien eskaini dituen izan baita. Datu elizitatuak tokako adizki perifrastiko nahiz sintetikoaren ezagutza maila egokia baduela erakutsi dute, eta elkarriketa librean ere tokako adizki perifrastikoak nahiz sintetikoak erabiltzeko gaitasuna eta erraztasuna ikusi dizkiogu Enaitzi. Bera izan da elkarriketa librean mota bateko eta besteko tokako adizki sintetikoaren ugaritasun handiena erakutsi duena, eta kopuru aldetik ere gehien erabili dituen. Beraz, tokaren ezagutza ez ezik, erabilera maila egokia duela ere esan dezakegu.

Nokaren ezagutzari dagokionez, berriz, tokaren ezagutza maila baino apalagoa duela erakutsi dute Enaitzen nokako datu elizitatuak, baina hala eta guztiz ere, Enaitz izan da nokako adizki perifrastikoaren nahiz adizki sintetikoaren ezagutza orekatu edo mailakatuena agertu duena. Gainera, nokako forma berri gehien eskaini dituen ere bera izan da, eta berritasuna zerbait bizirik dagoelako seinale bezala ulertzen dugu.

Nokaren erabilerari erreparatuz, Enaitzek elkarriketa librean solaskideak mutilak izan dituenek, ezin dugu esan ziurtasunez nola moldatuko litzatekeen Enaitz noka, baina emakume inkestagileari eman dizkion erantzunetan forma neutroak nahiz tokakoak erabili ditu. Hitanoa konfiantza edo hurbiltasun kontua ere bada, ordea, eta horregatik, ikusteke edo aztertzeke geratzen da Enaitzek gertuko sentitzen dituen neska solaskideekin hiketan jarritz gero, nola egingo lukeen.

Enaitzen ondoren Aner ikusi dugu hitanoaren ezagutza maila altuenarekin. Izan ere, Enaitzek bezala, oro har, tokako adizki perifrastiko nahiz sintetikoaren ezagutza maila egokia izateaz gain, nokako adizki perifrastiko dezente ere eskaini ditu Anerrek datu elizitatuak, eta adizki sintetiko zenbait noka egiteko gai izan bada ere, Enaitzek baino gutxiago egin ditu Anerrek noka. Hau da, nokako adizki sintetikoaren ezagutza urriagoa agertu du Anerrek datu elizitatuak Enaitzek baino.

Erabilera datuak aintzat hartzen badira, tokako adizki perifrastikoak egoki eta ugari erabili ditu Anerrek elkarriketa librean; tokako adizki sintetikoak, aldiz, gutxi agertu ditu, eta alde horretatik ere, Enaitzengan tokako adizki sintetikoaren erabilera sendoago dagoela dirudi. Dena den, baliteke Anerrek elkarriketa luzeago baten beharra izatea tokako adizki sintetiko gehiago erakusteko.

Bestalde, elkarriketa librean ez da gai izan Saioarekin noka jarduteko. Tokako adizkiez eta adizki neutroez baliatu da, orokorrean. Hortaz, bere ezagutza maila ez da nahikoa izan noka aritzeko.

Sei ikasleetatik tokaren ezagutza eta erabilera egokiena agertu duen hurrengo ikaslea dugu Igor. Izan ere, tokako adizki perifrastiko nahiz sintetikoaren ezagutza eta erabilera maila txukuna duela erakutsi digu, orokorrean, baina ezin esan dezakegu gauza bera nokako adizki perifrastikoei buruz, horien ezagutza oso murrizta duela ere agerian utzi baitu, tokako adizki alokutiboak erabili baititu nokakoen ordeez barra-barra.

Nokako adizki sintetikoak, berriz, perifrastikoak baino gehiago ezagutzen dituela erakutsi du, eta alde horretatik, Enaitzek eta Igorrek ezagutza maila bertsua dutela azpimarra daiteke. Hala eta guztiz ere, biena ere nahiko hala moduzkoa dela iruditzen zaigu. Noka aritzeko behar bestekoa ez, ziur aski.

Nokaren erabilerari heldurik, Igorrek Enaitzek bezala solaskide mutilak soilik izan ditu, eta beraz, Igorrekin ere aztertu beharko litzateke neskekin hika egiteko eskatuz gero nola egingo lukeen, baina elkarriketan emakume inkestagileari eman dizkion erantzunetan tokako forma alokutiboak nahiz neutroak txandakatuta ikusi ditugu. Hau da, nokaren erabilera saiakerarik ez da egon. Baina datuek agertu dute Igorren nokaren ezagutza ez dela nahikoa nokako maila txukuna erakusten duen elkarriketa posible baterako.

Igorren atzetik Saioa dugu hitanoaren ezagutza eta erabilera maila egokiena agertu duena, tokari bagagozkio, behintzat. Izan ere, Saioaren tokako datu elizitatuek nahiz elkarriketa librekoek agerian jarri dute tokako adizki perifrastiko nahiz sintetikoaren ezagutza oro har, egokia duela, eta erabiltzeko gai ere badela. Ordea, adizki neutroak ere dezente erabili ditu elkarriketa librean tokakoekin tartekatuta, eta hori ez dugu espero hika ondo menderatzen duen pertsona batengan. Beraz, ezin esan genezake toka oso sendo dagoenik Saioarengan.

Nokako datuei erreparatuz gero, berriz, nokako adizki perifrastikoen nolabaiteko ezagutza baduela agertu badu ere, nokako adizki sintetikoak oso gutxi ezagutzen dituela erakusten dute datuek. Eta, oro har, Saioak berak adierazi du datu elizitatuak lortzerakoan hamahiru kasutan noka egiteko eskatu zaion adizki hori ez dakiela. Beraz, ikusi dugu Saioak ez duela nokaren ezagutza maila alturik noka jarduteko. Dena den, hori hobeto ziurtatuko litzateke hizketa-lagunak neskak soilik dituen elkarriketa batean, oraingo honetan Aner eta Josu izan baititu solaskide. Hortaz, Enaitz eta Igorrekin bezala, Saioarekin ere ikusteko geratzen da neskak diren solaskideekin hika hitz egin beharko balu, nola egingo liekeen.

Saioaren ondotik Josuk erakutsi du hitanoaren ezagutza eta erabilera maila egokiena, baina ezin esan toka zein noka sendo dituenik. Izan ere, tokako adizki perifrastikoetan aurreko ikasleengan ikusi ez dugun NOR NORI NORK saileko tokako forma alokutiboen nolabaiteko gabezia atzeman diogu Josuri. Eta elkarriketa librean sail horretako bi adizkitatik bakarra aditu diogunez toka, ez dugu kontrakoa adieraziko lukeen argumentu edo daturik. Gainerako datuek NOR eta NOR NORK sailtako tokako adizki alokutiboen ezagutza nahikoa izateaz gain, elkarriketa librean egoki erabili dituela ikusi dugu.

Tokako adizki sintetikoei dagokienez, aldiz, horien ezagutza apala duela erakusten dute datuek, eta elkarriketa libreak ere adizki sintetikoaren lekukotasun gutxi utzi duenez, ezin adieraz genezake bestelakorik.

Nokako forma alokutiboei erreparaturik, begi-bistakoa da Josuk ere ez dituela orokorrean, nokako forma alokutiboak menderatzen. Izan ere, adizki perifrastiko nahiz sintetikoaren ezagutza

maila baxua erakutsi dute datu elizitatuek. Nokako ale bakar batzuen ondoan, forma neutroak, tokakoak nahiz formak asmatzen ikusi dugu Josu, beste gehientsuenen antzera. Eta elkarriketa librean ere Saioari, oro har, toka egin dio, edo toka egin ez dionetan forma neutroak erabili ditu. Beraz, esan dezakegu Josuk duen nokako adizkien ezagutza maila ez dela nahikoa izan edo Josu ez dela gai sentitu Saioarekin normalean hitz egiten duen hizketa molde neutroa bazterrean utzi, eta noka jarduteko.

Eta sei ikasleen artetik Ekhirengan ikusi dugu bai toka, bai noka aritzeko ezagutza eta gaitasun maila apalena. Tokako adizki perifrastikoetako NOR eta NOR NORK sailtako eta tokako adizki sintetikoetako datu elizitatuek ezagutza maila txukuna duela agertu badute ere, Enaitz eta Igor hizketa-lagunak zituen elkarriketa librean tokako forma alokutiboak adizki neutroekin txandakatuta entzun dizkiogu Ekhirri sarri samar, baita pare bat kasutan aditz perifrastikoak sintetikoen ordeztatu erabiltzen ere. Agerian geratu da Ekhiak ez duela toka guztiz menderatzen.

¹¹⁹ Laster ikusiko dugun bezala, jarraian nokako forma ere eskaini zigen.

2.19 Nokako forma berriak

- Bidea atea naz → *bidea atea natxon*¹²⁰, 'bidera atera naun'.

2.20 Nokako forma asmatuak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte daken*, 'oso etxe polita zeukan'.
- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat salduio karnizeroi*, 'behi bat saldu zion karnizeroari'.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu dizkionan karnizei*, 'behi batzuk saldu zizkion karnizeroari'.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio → *eiztarik istorio oi kontau ez balionan*, 'eiztariak istorio hori kontatu ez *balionan'.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeonan deitu nuanen*, 'etxean zegonan deitu *nuanean'.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiñat zertaz ai nitxonon*, 'zertaz ari *naunen'.

2.21 Nokako forma ematerakoan aditza aldatzea

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istorio guztia kontatzeko luzegia izango uan*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia izango zuan'.
- Neana etortzen zan → *neana etortzen tzaian, zitzaian*, 'neana etortzen zaidan, zitzaidan'.
- Urtebete o ola izango → *urtebete o ola izango izkin*, 'urtebete edo horrela izango dizkin'.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat, zizkionan karnizeroi*, 'behi batzuk saldu zizkionat karnizeroari'.
- Baki zertaz ai naizen → *bakin zertaz ai nitxoken, ai nitxonon*, 'bazekin zertaz ari *nauken, ai *naunen'.
- Eztaki eze → *eztakiñ eze*, 'eztakin ezer'.
- Nik in neiken → *nik in zeikenat*, 'nik egin zezakenat'.

2.22 Nokako forma ematerakoan ez dakiela adierazi du

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan.
- Istori guztia kontatzeko luzegia litzeke¹²¹.

¹²⁰ Saroi Jauregik Zaldibian *natxon* ez dela erabiltzen esan digu. Zalantza dugu forma hau berri bezala hartu behar ote genukeen, baina forma hori existitu existitzen denez, berrien artean kokatzea erabaki dugu asmatutakoen artean sailkatu partez.

¹²¹ Ez dakiela adierazi aurretik *luzegia izango uan* esan digu. Gero esan du *luzegia, luzegie eztakit, eztakit*.

- Leno aragie gustatzen zitzaion.
- Len aragie gustatzen tzaten.
- Neana etortze zan¹²².
- Asko ean due.
- Len geiegi eate nun¹²³.
- Kotxe bat eosi zun¹²⁴.
- Kotxe bat eosi zuen.
- Naiko balo, ingo zon¹²⁵.
- Arakiñai bei bat saldu diou.
- Artzaiek pentsue eman die ardii.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon.
- Istripue pasau zanen bea etxeaka zijen.
- Etxe politte dake¹²⁶.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin¹²⁷.
- Nere amak oso ondo zekin josten.

3 Aner

3.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan. → *Pedro leno ateko bauan etxetik; ue oain etxen izango uan 'Pedro lehenago aterako *baluan etxetik; orain etxean izango zuan'.*
- Bidea atea naz → *bidea atea neok, 'bidera atera nauk'.*

¹²² Aurrez jaso dugu *gukin geauko zan* ez dakiela adierazi duela, baina kasu honetan aurreko horretan bezala aditz laguntzailea *zan* bada ere, erantzun desberdina jaso dugula ekarri dugu. Izan ere, kasu honetan, ez dakiela adierazi aurretik *neana etortze tzaian*, *neana etortzen zitzaian* formak ere esan dizkigu, alegia, NOR NORI saileko hura niri pertsonak barne dituen orainaldiko nokako forma, batetik, eta sail bererako eta pertsona berberen forma neutroa den *zitzaian*, bestetik.

¹²³ Ez dakiela agertu aurretik, tokako forma eman du, *eate nian*, alegia. Horren atzetik etorri da, *ni*, *eztakit*, *eztakit* esatea.

¹²⁴ Hauxe dio: *eosi zian eztek ba, asike ez. Eztakit*.

¹²⁵ Aditza osatzen saiatu nahian hasten da, baina ez du osatzen: *ingo zia, eztakit*.

¹²⁶ Lehenik forma asmatu bat eskaini digu, eta ondoren, esan du ez dakiela. Honelaxe, hain zuzen: *oso etxe politte daken, ez, eztakit*.

¹²⁷ Menpeko perpausoko adizkia osatzen saiatzen hasten da, baina ez dakiela ohartu eta bertan uzten du: *ikusi nitxe... eztakit*.

Elkarriketa libretik lortutako adizkiak

- *Ta in genian tabernatan da ola ibili lasai, zea baten ordu bik arte, ta geo jun giñuztean, ‘eta egin genian tabernetan eta horrela ibili lasai, zera batean ordu biak arte, eta gero joan gintuan’.*
- *Ni akordatzen neok, (...) ²¹gu zazpi urte ola²², ‘ni akordatzen nauk (...) gu zazpi urte horrela’.*
- *Ai gitxoan¹²⁸ treneko batzuk jolasten, ‘ari gintuan treneko batzuk jolasten’.*
- *Asi ittuan buyaka, ‘hasi zituan garrasika’.*
- *Gaixo zean, lenengon negatibo, bigarren negatibo, ta geo ama gaixotu uan, ‘gaixo zegoan, lehenengoan negatibo, bigarren negatibo, eta ama gaixotu zuan’.*

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Ondo iruitzen zait → *ondo iruitze zaiak, ‘ondo iruditzen zaidak’.*
- Aragie gustatzen zaio → *aragie gustatzen zaiok, ‘aragia gustatzen zaiok’.*
- Leno aragie gustatze zitzaion → *leno aragie gustatze zitzaiokean, ‘lehenago haragia gustatzen zitzaion’.*
- Atzo semea etorri zuten etxea → *atzo semea etorri zitzaitean etxea ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’.*

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Gaur gutxi jan det → *gaur gutxi jan diat, ‘gaur gutxi jan diat’.*
- Gutxi jan do beak gaur → *gutxi jan dik beak gaur, ‘gutxi jan dik beak gaur’.*
- Gaur asko jan deu → *gaur asko jan diau, ‘gaur asko jan diagu’.*
- Gaur gutxi jan due → *gaur gutxi jan die, ‘gaur gutxi jan ditek’.*
- Ne emaztek sagarrak jan dittu → *nere emaztek sagarrak jan dizkik, ‘nire emazteak sagarrak jan dizkik’.*
- Len geiegi eate nun → *len gehiegi eate nian, ‘lehen gehiegi edaten nian’.*
- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosi zian, ‘kotxe bat erosi zian’.*
- Afarin geiegi ean genun → *afarin geiegi ean genian, ‘afari gehiegi edan genian’.*
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zien, ‘kotxe bat erosi zitean’.*
- Botella guztik ean zittun → *boteya guztik ean zizkian, ‘boteila guztik edan zizkian’.*

¹²⁸ *Gintxoan* aldaera ere entzun dugu beste kasu batean.

- Atzoako buka zeiken → *atzoako buka zeikean*, ‘atzoako buka zitekean’.
- Semek attei laundu daike → *semek attei laundu zeikek*, ‘semeak aitari lagun zezakek’.
- In daiket → *in tzeikeat*, ‘egin zezakeat’.
- Nik in neiken → *nik in neikean*, ‘nik egin nezakean’.

Elkarrizketa bidez lortutakoak

- *Pentsau diau¹²⁹ Marbella aldea jutea*, ‘pentsatu diagu Marbella aldera joatea’.
- *Otzangatio ta jendek uden partez bozka eate omen dik*, ‘hotzarengatik eta jendeak udaren partez vodka edaten omen dik’.
- *Iruoitamaika ingoizzik Pakitok*, ‘hirurogeita hamaika egingo dizkik Pakitok’.
- *Afaltzen atzo berduritak jan nizkian*, ‘afaltzen atzo barazkiak jan nizkian’.
- *Pentsa genian obena autobuse, luze ingo zala baño* ‘pentsatu genian onena autobusa, luze egingo zela baina’.
- *Nik attuat uda bukaerako euneko iruoitamarra bakunatukoala*, ‘nik aditu diat uda bukaerarako ehuneko hirurogeita hamar txertatuko dela’.
- *Nik artuko niake oi*, ‘nik hartuko nitek hori’.
- *Nik gaizki pasa nian etxen*, ‘nik gaizki pasatu nian etxean’.
- *Ikasi zian¹³⁰*, ‘ikasi zian’.
- *Attonak eta konbentzitu omen zien¹³¹*, ‘aitonak eta konbentzitu omen zitean’.
- *Ordun itteje konpondu*, ‘orduan egiten ditek konpondu’.

NOR NORI NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu zoat karnizeroi*, ‘behi bat saldu zioat karnizeroari’.
- Arakiñai bei bat saldu diou → *arakiñai bei bat saldu zoau*, ‘harakinari behi bat saldu zioagu’.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi attei attu ziek*, ‘istorio hori aitari aditu ziotek’.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman tziek ardiri*, ‘artzainak pentsua eman ziek ardiei’.
- Neonek saldu nion bei bat arakiñai → *neonek saldu nitxoan behi bat arakiñai*, ‘neronek saldu nioan behi bat harakinari’.
- Karamelo bat eman zion beak → *karamelo bat eman zioan beak*, ‘karamelo bat eman zioan beak’.

¹²⁹ *Ingoiau* aldaera ere entzun dugu.

¹³⁰ *Tzian* eta *etzian* ‘ez zian’ aldaerak ere entzun ditugu elkarrizketan zehar.

¹³¹ *Tzien* aldaera ere lekukotu dugu.

- Bei bat saldu genion arakiñai → *bei bat saldu genioan arakiñai*, 'behi bat saldu genioan harakinari'.

Elkarrizketa libretik lortutako adizkiak

- *Ez, esate ziak, ez (...) ¹³², beste zeoze*, 'ez, esaten zidak, ez (...) beste zer edo zer'.

3.2 Tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Istorio guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztie kontatzeko luzegia litzeke ¹³³*, 'istorio guztia kontatzeko luzeegia litzateke'.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasau leike ¹³⁴*, 'edozein momentutan pasa liteke'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Len aragie gustatzen tzaten → *len aragie gustatzen zaten*, 'lehen haragia gustatzen zitzaidan'.
- Igual zitzaiten → *igual zitzaiten*, 'igual zitzaidan'.

3.4 Tokako adizki sintetikoak

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea da → *bea gaztea ek*, 'bera gaztea duk'.
- Bea len gaztea zan → *bea leno gaztea uan*, 'bera lehen gaztea zuan'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Asteburu ontan beteta eon dek ¹³⁵*, 'egon duk'.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne andrea gaur Baiona dijo → *Ne andrea gar Baiona zijok*, 'Nire andrea gaur Baiona zoak'.

¹³² Ez dugu ulertzen zer dioen.

¹³³ Geldialdia egin du adizkia esan baino lehen.

¹³⁴ Pentsatu egin behar izan du aditza adierazi baino lehen, eta ematerakoan erdi barrez, ziurtasunik gabe eman du.

¹³⁵ *Eztek* 'ez duk' aldaera ere lekukotu dugu.

- Istripue pasau zanen, bea etxeaka zijon → *istripue pasau uanen, ue etxeaka zijoan* 'istri-pua pasatu zenean, hura etxerantza zihoaan.'

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Lo dao → *lo zeok*, 'lo zegok'.
- Etxen zeon → *etxen zeoan*, 'etxean zegoan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *I, beti zeok¹³⁶ ba lana or!*, 'hi, beti zegok bada lan hor!'.
- *Gaixo zeoan¹³⁷, lenengon negatibo, bigarren negatibo ta geo ama gaixotu uan*, 'gaixo zegoan, lehenengoan negatiko, bigarrena negatibo eta gero ama gaixotu zuan'.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain tzetorrek merkatutik*, 'nire aita orain zetorrek merkatutik'.
- Ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zuanen → *ne atte oñez zetoan Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zetoan Pedrorrekin elkartu zuanean'.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending dabil → *mending zebiyek*, 'mending zebilek'.
- Mending zebillen → *mending zebiyea*, 'mending zebilean'.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat neken → *etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- Etxe polita bat zeuken → *etxe polit bat zeukean*, 'etxe polit bat zeukaan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Jesto on bat zekean*, 'jesto on bat zeukaan'.

¹³⁶ *Etziok* aldaera ere entzun dugu ustez; baliteke *etzeok* esan izana, hori baita bai Saioari, bai Josuri garbiki entzun dieguna.

¹³⁷ *Etzeoan* 'ez zegoan' aldaera ere lekukotu dugu.

- *Oi zekek txarra, asteburutan (...)¹³⁸ ik lana in bearra ekekela*, ‘hori zeukak txarra, asteburuetan (...) hik lana in beharra *dukekela’.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañen arropa zekarkian*, ‘berak buru gainean arropa zekarrean’.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik*, ‘berak arropa buru gainean zeramak’.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Baki zertaz ai naizen → *bazekik¹³⁹ zertaz ai neoken*, ‘bazekik zertaz ari *nauken’.
- Oi bakit nik → *oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- Nire amak oso ondo zekin josten → *ne amak oso ondo zekian josten*, ‘nire amak oso ondo zekian josten’.

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Oi re etzekiat*, ‘hori ere ez zekiat’.

3.5 Tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak

IZAN adizkiak

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Et~~xe~~n ez~~ta~~ ola*, ‘etxean ez duk horrela’.

EGON adizkiak

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Covidengatik krisise dau*, ‘Covidengatik krisia dago’.
- *Bestela ondo zeon*, ‘bestela ondo zegoen’.

¹³⁸ Ez dugu ulertzen zer dioen.

¹³⁹ Inkestatzailearen laguntza txiki batekin lortutako adizkia. Bestalde, *etzekik* ‘ez zekik’ aldaera ere eman digu Anerrek beste kasu batean.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gañen dakarki*, 'arropa buru gainean dakar'.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ikusi nunen, txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen, txakurre etxea zemakin*, 'ikusi nianean, txakurra etxera zeraman'.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bakit zertaz ai naizen → *bakit zertaz ai neoken*, 'badakit zertaz ari *nauken'.

3.6 Tokako forma berriak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea balitz → *bea gaztea izango bauan*, 'bea gaztea izango balitz¹⁴⁰'.
- Gukin geauko zan → *gukin geatuko ukean*, 'gukin geratuko *zukean'.
- Leno aragie gustatze zitzaion → *leno aragie gustatze zitzaiokean¹⁴¹*, 'lehen aragia gustatzen *zitzaiokean'.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai badik, lana oain buka zeikek*, 'nahi *badik, lana orain buka zitekek'.
- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zien guztiri saldu ziek gazta*, 'artzaiek nahi *zitean guztiei saldu ziotek gazta'.
- Istripue pasau zanen, bea etxeaka zijon → *istripue pasau uanen, ua etxeaka zijon* 'istripua pasatu *zuanean, hura etxerantza zihooan'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Marruka asi etziala sartu nai*, 'marruka hasi zuan ez *ziala sartu nahi'.

3.7 Tokako forma asmatuak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeon deitu zioatenen*, 'etxean zegoan deitu *zioatenean'.

¹⁴⁰ *Balitz* adizkiari legokiokeen tokako forma alokutiboa.

¹⁴¹ Saroi Jauregi 42 urteko zaldibitarak adierazi digu berak *zitzaioan* erabiltzen duela. Horregatik, jo dugu forma berrizat.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Ekonomian estruputz in tzeniala ta...*, ‘ekonomian estropezu egin *zenuala¹⁴² eta...’.

3.8 Tokako forma alokutiboa ematerakoan aditza aldatzea

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Etxen zeon, deitu nunen → *etxen zeoan zioatenen*, ‘etxean zegoan deitu *zioatenean’.
- Baki zertaz ai naizen → *bakik zertaz ai neoken*, ‘badakik zertaz ari *nauken’.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat salduiok karnizeroi*, ‘behi bat saldu diok karnizeroari’.
- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk salduizkiok karnizeroi*, ‘behi batzuk saldu dizkiok karnizeroari’.

3.9 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Beana inguratu naiz → *beana inguratu neon*, ‘beana inguratu naun’.

Elkarriketa libretik lortutako adizkiak

- *Jende piya etortze unan*, ‘jende pila etortzen zunan’.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Ondo iruitzen zat → *ondo iruitze zaian¹⁴³*, ‘ondo iruditzen zaidan’.
- Aragie gustatzen zaio → *aragie gustatzen zaion¹⁴⁴*, ‘haragia gustatzen zaion’.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Gaur gutxi jan det → *gaur gutxi jan diñat*, ‘gaur gutxi jan dinat’.

¹⁴² Ez dugu ziur zenuela den edota *zu* eta *hiren* arteko uztarketa batek ekarri duen adizki asmatu bat.

¹⁴³ Forma hori eman aurretik pentsatu edo bilatu egin behar izan du, ‘*zaia-*, *zaia-*’ esan baitu ozen, azkean *zaian* seguru eta indarrez esan duen arte.

¹⁴⁴ Aditz forma honen bila ibili da. Honela egin du: ‘*zai-*, *zaion*’.

- Gutxi jan do beak gaur → *gutxi jan din¹⁴⁵ beak gaur*, 'gutxi jan din berak gaur'.
- Gaur asko jan deu → *gaur asko jan diñau*, 'gaur asko jan dinagu'.
- Asko ean due → *asko ean diñe*, 'asko edan diten'.
- Ne emaztek sagarrak jan dittu → *nere emaztek sagarrak jan dizkin*, 'nire emazteak sagarrak jan dizkin'.
- Len gehiegi eate nun → *len geiegi eate niñan¹⁴⁶*, 'lehen gehiegi edaten ninan'.
- Botella guztik ean zittun → *boteya guztik ean zizkiñan*, 'boteila guztiak edan zizkinan'.
- Semek attei laundu daike → *semek attei laundu zeiken*, 'semeak lagun zezaken'.
- In daiket → *in tzeikeñat*, 'egin *zezakeñat'.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Arakiñai bei bat saldu diou → *arakiñai bei bat saldu zionau*, 'harakinari behi bat saldu zionagu'.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman zien¹⁴⁷ ardiri*, 'artzaiek pentsua eman zien ardiei'.
- Karamelo bat eman zion beak → *karamelo bat eman zianan beak*, 'karamelo bat eman zionan berak'.

3.10 Toka nokaren orde adizki perifrastikoetan

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno atea izango bauan bere etxetio, emen izango uan*, 'Pedro lehenago atera izango *bazuan bere etxetik, hemen izango zuan'.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai badik, lana oain bukau zeikek*, 'nahi *badik, lana orain buka zitekek'.
- Atzoako bukau zeiken → *atzoako buka zeikean*, 'atzoako buka zezakean'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Amak positibo eman zian. Or berriz konfinau uan*, 'amak positibo eman zian. Hor berriz konfinatu zuan'.

¹⁴⁵ *Izango*in aldaera ere bildu dugu.

¹⁴⁶ Dena den, ziurtasunik gabe esan du, gero berak horrela dela baieztatu badu ere.

¹⁴⁷ *Zien* esan aurretik, *tzie* egin du. *Ziek* esatera zihoala esango genuke, baina -k esan aurretik gelditu eta -n gehitu behar diola ohartu da. Orduan esan du *zien*.

- *Asi gintxoan insultok boltatzen*, ‘hasi gintuan intsultok botatzen’.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Atzo semea etorri zuten etxea → *atzo semea etorri zitzaiten etxea*, ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Afarin geiegi ean genun → *afarin geiegi ean genian*¹⁴⁸, ‘afarin gehiegi edan genian’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egia zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egia zala sinetsiko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatu izan ez balio, egia zela sinetsiko zian’.
- Nik in neiken → *nik in neikean*, ‘nik egin nezakean’.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Pentsa genian abioie artzea*, ‘pentsatu genian hegazkina hartzea’.
- *Eon uan ordu bik arte, ta ordu bitan taberna ixte zien, ta in tzien*, ‘egon zuan ordu biak arte, eta ordu bietan taberna ixten zitean, eta egin zitean’.
- *Gauzak galtzeizkik*, ‘gauzak galtzen dizkik’.
- *Guante obenak poltsikok ttuk . Oi, oi Egoitzek esan tzian*¹⁴⁹, ‘eskularru onenak poltsikoak dituk. Hori, hori Egoitzek esan zian’.
- *Batek itteiken (...) ¹⁵⁰ ezin dik*¹⁵¹ *in*, ‘ezin dik egin’.
- *Ta esateiat*, ‘eta esaten diat’.
- *Nik oi kenduta re, nik ingo nian*, ‘nik hori kenduta ere, nik egingo nian’.
- *Ta amonak in zizkian, ba igual, betiko plater konbinatuak ta, baarrunak, ta ollaskoa ta*, ‘eta amonak egin zizkian, bada agian, betiko plater konbinatuak eta babarrunak eta oilaskoa eta’.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu zioat karnizeroi*, ‘behi bat saldu zioat karnizeroari’.

¹⁴⁸ Forma horren aurretik *genian* forma asmatua entzun dugu. Hau da, *genian* ez da lehen aukera izan.

¹⁴⁹ *Zian* ‘zian’ aldaera ere entzun dugu.

¹⁵⁰ Ez dugu ulertzen zer dioen.

¹⁵¹ *Eztik* ‘ez dik’ aldaera ere bildu dugu.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Nei pixkat emate ziak baño*, 'niri pixka bat ematen zidak baino'.

3.11 Toka zein noka adizki sintetikoetan

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik, zemarkin*, 'beak arropa buru gaineen zeramak, zeraman'.

3.12 Nokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasau leike*, 'edozein momentutan pasatu liteke'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Baño beintzat etzea kontajiatzen*, 'baina behintzat ez zara kutsatzen'.
- *Funda oik jartzeje*, 'funda horiek jartzen dira'.
- *Oain denak kristoren peña etortze a*, 'orain denak kristoren lagun-taldea etortzen da'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Igual zitzaiten → *igual zitzaiten*, 'igual zitzaidan'.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zuen*, 'kotxe bat erosi zuten'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Guk oaindik lanik ezteu itten ta*, 'guk oraindik lanik ez dugu egiten eta'.
- *Ya egun bertan jaten da ya utzi zuen*, 'ja egun bertan jaten eta utzi zuten'.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Neonek saldu nion bei bat arakiñai → *neonek saldu nion bei bat arakiñai*, 'neronek saldu nion harakinari'.

- Bei bat saldu genion arakiñai → *bei bat saldu genion arakiñai*, ‘behi bat saldu genion harakinar’.

3.13 Nokako forma berriak adizki perifrastikoetan

Galdetegi bidez lortutakoak

NOR NORK saileko adizkiak

- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai badin, lana oain buka zeikek*, ‘nahi *badin, lana orain buka *zitekek’.

3.14 Nokako forma asmatuak adizki perifrastikoetan

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea bauan, gukin geatuko uen*, ‘bea gaztea *balitz, gurekin geratuko *huen¹⁵²’.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Afarin geiegi ean genun → *afarin ean geniyan*, ‘afarin gehiegi edan *geniyan¹⁵³’

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egia zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatuko ez balion, egie zala sinestuko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatuko ez *balion¹⁵⁴, egia zela sinetsiko zian’

3.15 Tokako forma berria nokako forma perifrastikoean ordeztu

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Atzo semea etorri zitzaiten etxea → *atzo semea etorri zitzaiaken etxea*, ‘atzo semea etorri zitzaidaan’.

¹⁵² *Zunan* adizkiaren ordeztu sortu duen nokako forma asmatuari legokioketena. 2 aldiz erabili du gainera, forma asmatu bera.

¹⁵³ Forma asmatu horri legokioketen euskara batuko nokako forma alokutiboa litzateketena.

¹⁵⁴ *Balio* adizkiaren nokako forma alokutiboa izan daiteketena.

3.16 Nokako forma ematerakoan aditza aldatzea

Galdetegi bidez

- Bei bat salduio karnizeroi → *bei batzuk saldu zizkionat*, 'behi batzuk saldu zizkionat'.
- Bei batzuk salduio → *bei batzuk saldu zizkiok¹⁵⁵*, 'behi batzuk saldu zizkiok'.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeon deitu nionen*, 'etxean zeon deitu nionean'.

3.17 Ez dakizkien nokako forma perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bidea atea naz → *bidea atea... a ezta^{kit} bidea ata, bua ezta^{kit}*, 'bidera atera... ah, ez dakit, bidera atera, bua, ez dakit'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Len aragia gustatze zitzaion → *leno aragi gustatze zi-, zi-, puff, ezta^{kit}*, 'lehenago haragia gustatzen zi-, zi-, puff, ez dakit'.

3.18 Nokako adizki sintetikoak

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea da → *bea gaztea den*, 'bera gaztea dun'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Oi den*, 'hori dun'.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne andrea gaur Baiona dijo → *ne andrea gaur Baiona zijen*, 'nire andrea gaur Baionara zoan'.

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Lo dao → *lo zeon*, 'lo zegon'.

¹⁵⁵ *Saldu zizkionat* esan ondoren inkestatzailea laguntzen saiatuta eman duen bigarren forma.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturren merkatutik*, ‘ne atte orain zeturren merkatutik’.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending dabil → *mending zebiyen*, ‘mending zebilen’.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat neken → *etxe bat nekenan*, ‘etxe bat neukanan’.
- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zeken*, ‘oso etxe polita zeukan’.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zemakin*¹⁵⁶, ‘beak arropa buru gañen zeraman’.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Oi baki nik → *oi bazekiñat nik*, ‘hori bazekinat nik’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekin*¹⁵⁷ *zertaz ai neoken*, ‘bazekin zertaz ari *nauken’.
- Oso ondo zekin josten → *oso ondo zekiñan josten*, ‘oso ondo zekinan josten’.

3.19 Toka nokaren orde adizki sintetikoetan

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea len gaztea zan → *bea len gaztea uan*, ‘bea lehen gaztea zuan’.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Bastante merkea ek*¹⁵⁸, ‘nahiko merkea duk’.

¹⁵⁶ Forma hori eman aurretik tokako forma alokutibo den *zematik* ‘zeramak’ eskaini du.

¹⁵⁷ Inkestatzailearen laguntza txiki batekin lortutako forma. Aurrena *bakik*, gero *bazekiñat* eta azkenik, *bazekin* forma eman du. Horretaz gain, *etzekin* ‘ez zekin’ aldaera ere eskuratu dugu galdetegi bidez.

¹⁵⁸ *Dek* aldaera ere entzun dugu Saioari ari zaiola.

- *Enpresakok ttuk, 'bai, enpresakoak dituk'.*

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Istripua pasau zanen, etxeaka zijoan → *istripua pasau uanen, bea etxea zijoan*, 'istripua pasatu zuanen, bera etxera zihoaan'.

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxen zeon → *etxen zeoan*¹⁵⁹, 'etxean zegoan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Ondon beste erri bat zeok*, 'ondoan beste herri bat zegok'.

EDUKI adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Enpresa zekek*¹⁶⁰ *konstrukziokoa*, 'enpresa zeukak eraikuntzakoa'.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zetoan Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zetoan Pedrokekin elkartu zuanean'.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik*¹⁶¹, 'berak arropa buru gainea zeramak'.

JAKIN adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Etzekiat*, 'ez zekiat'.

¹⁵⁹ Inkestatzaileak esaldia berriro esanarazi dio Aner Azurmendiri, eta orduan *tzeoan* aldaera erabili du.

¹⁶⁰ *Zeukek* 'zeukak' aldaera ere jaso dugu.

¹⁶¹ Forma hori eman ostean nokako forma alokutiboa den *zemarkin* 'zeraman' esan du.

3.20 Nokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Luzegia litzeke → *luzegie litzeke*, 'luzeegia litzateke'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Jende dexente gea*, 'jende dezente gara'.
- *Oi da*¹⁶², 'hori da'.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak etxe polit bat zeuken → *beak etxe politt bat zeken*, 'berak etxe polit bat zeukan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Gureak gañea zeken*, 'gureak gainera zeukan'.
- *Ba jendek etxen zezken sobrak*, 'ba jendeak etxean zeuzkan soberakinak'.

EGON adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *An lana beti dau*, 'han lana beti dago'.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending zebillen → *mending zebiyen*, 'mending zebilen'.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gañen dakarki*¹⁶³, 'arropa buru gaineen dakar'.
- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañen arropa zekarkin*, 'berak buru gaineen arropa zekarren'.

¹⁶² Ezta 'ez da' aldaera ere aditu dugu beste perpaus batean.

¹⁶³ Zalantza dugu hitz bukaeran -n bat gehitzen dion edo ez, hau da, *dakarki* edo *dakarkin* dioen.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Txakurre etxea zemakin → *txakurre etxea zemakin*, 'txakurra etxera zeraman'.

3.21 Tokako forma berriak nokako forma sintetikoaren ordez

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Gaztea balitz → *gaztea bauan*, 'gaztea *balitz¹⁶⁴'.

3.22 Nokako forma asmatuak adizki sintetikoetan

Galdetegi bidez lortutakoak

- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gañen dakarkin*¹⁶⁵, 'arropa buru gainean zekarren'.

4. Ekhi

4.1 Tokako adizki perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea balitz, gukin geatuko uan*, 'bera gaztea balitz, gurekin geratuko zuan'.
- Bidea atea naz → *bidea atea neok*, 'bidera atera nauk'.
- Atzoako bukau zeiken → *atzoako buka zeikean*, 'atzoko buka zitekean'.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasa zeikek*, 'edozein momentutan pasa zitekek'.
- Lana oain bukau daike → *lana buka zeikek, oain buka zeikek*, 'lana buka zezakek, orain buka zitekek'.

Elkarrizketa libretik lortutako adizkiak

- *Juxtu oi izango uan*, 'justu hori izango zuan'.
- *Ni bozina jartzen ai nitxoan*, 'ni bozina jartzen ari ninduan'.

¹⁶⁴ *Balitz* adizkiari legokiokeen tokako forma alokutiboa izango litzatekeena.

¹⁶⁵ Zalantza dugu *dakarki* edo *dakarkin* egiten duen. Bukaeran *-n* bat entzuten dugun iruditzen zaigu, baina ziurtasunik gabe.

- *Izketan atxu itxoan¹⁶⁶, ta pena eman zitxala i*, 'hizketan aritu ninduan/gintuan, eta pena eman *zioala hi'.
- *Oain ya eneok¹⁶⁷ muitzen asko*, 'orain ja ez nauk mugitzen asko'.
- *Ni seriek ikusten zalea nauk*, 'ni telesailak ikusten zalea nauk'.
- *Ez gattuk biya attuko*, 'ez gaituk bila arituko'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Ondo iruitzen zat → *ondo iruitze zai¹⁶⁸*, 'ondo iruditzen zaidak'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Gustatzen zaiak dena*, 'gustatzen zaidak dena'.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Gaur gutxi jan det → *gaur gutxi jan diat*, 'gaur gutxi jan diat'.
- Gutxi jan do beak gaur → *beak gutxi jan dik¹⁶⁹gar*, 'berak gutxi jan dik gar'.
- Gaur asko jan deu → *gar asko jan diau*, 'gaur asko jan diagu'.
- Ne emaztek sagarrak jan dittu → *ne emaztek sagarrak jan dizkik*, 'jan dizkik'.
- Len geiegi eate nun → *len geiegi eate nian*, 'lehen gehiegi edaten nian'.
- Afarin geiegi ean genun → *afarin geiegi ean genian*, 'afarian gehiegi edan genian'.
- Botella guztik ean zittun → *boteya guztik ean zizkian*, 'boteila guztiak edan zizkian'.
- Ume onek urtebete izango zon, erria zu etorri ziñenen → *ume onek urtebete izango zian, erria i etorri itzeanen*, 'ume honek urtebete izango zian, herrira hi etorri hintzenen'.
- Semek atei laundu daike → *semek atei laundu zeikek*, 'semeak aita(ri) lagun zezakek'.
- In daiket → *in tzeikeat*, 'egin zezakeat'.
- Nik in nezake → *nik ein tzeikeat oi*, 'nik egin zezakeat hori'.

Elkarrizketa bidez lortutakoak

- *Nik ustejat¹⁷⁰ aurtengo udaran okerragoa izangoekela*, 'nik uste diat aurtengo udaran okerragoa izango *dukela'.

¹⁶⁶ Zalantza dugu izatez *gintxoan* edo *nitxoan* den. Berez, *gintxoan* izatea espero dugu.

¹⁶⁷ *Neok* aldaera ere jaso dugu: *etxea jute neok* da, 'etxera joaten nauk eta'. Beste honetan, berriz, *neok* herskariduna espero badugu ere, *neon* entzuten dugula iruditzen zaigu: *aste neon ta eztiat bukatzen*, 'haste naun eta ez diat bukatzen'.

¹⁶⁸ *Zaiak* espero badugu ere, hori da entzuten duguna.

¹⁶⁹ *Ume onek urtebe izango ik*, 'ume honek urtebete izango dik' aldaera ere jaso dugu.

¹⁷⁰ *Eztiat* aldaera ere badarabil Ekhiak: *aste neon ta eztiat bukatzen*, 'haste naun eta ez diat bukatzen'.

- *Oaiñ olako gauza asko itteizkia, 'orain horrelako gauza asko egiten dizkiagu'.*
- *Ta geo lau patrulla ikusi nizkian, 'eta gero lau patruila ikusi nizkian'.*
- *Arruinatukoik¹⁷¹ taberna, 'suntsituko dik taberna'.*
- *Leno ikuste nian geio, 'lehenago ikusten nian gehiago'.*
- *Karneta atea bearra zeok, bestela... aztu zeikeu, 'karneta atera beharra zegok, bestela ahaztu zezakeagu'.*
- *Eskue ausi zian¹⁷², 'eskua hautsi zian'.*
- *Ta esan zitean¹⁷³ kontuz ibiltzeko, 'eta esan zidatean kontuz ibiltzeko'.*
- *Gero reklamatzera etortze omen dittuk¹⁷⁴, 'gero erreklamatzera etorten omen dituk'.*
- *Errueda ijoa aiden (...), bestek ez omen die¹⁷⁵ horrenbeste indar itten, 'gurpila doa airean (...), besteek ez omen ditek horrenbeste indar egiten'.*
- *Geo fetxa bat bota zien¹⁷⁶ hasieratik da, 'gero fetxa bat bota zitean hasieratik eta'.*
- *Jarri genian, baño arandela falta zitzaion, 'jarri genian, baina arandela falta zitzaion'.*
- *Nik e ostian kalek jotze izkiat, 'nik ere sekulako kaleak jotzen dizkiat'.*
- *Nei zea itten tziak¹⁷⁷, asper, aspergarria bezela, 'niri zera egiten zidak, asper, aspergarria bezala'.*
- *Oain oain, duda ingo niake jartzea o ez, 'orain dudatu egingo niake jartzea edo ez'.*

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu zoat karnizeroi, 'behi bat saldu zioat karnizeroari'.*
- Bei bat salduio karnizeroi → *bei bat saldu ziok karnizeroi, 'behi bat saldu zioak harakinari'.*
- Arakiñai bei bat saldu diou guk → *arakiñai bei bat saldu zoau guk, 'harakinari behi bat saldu zioagu guk'.*
- Bei bat saldu genion arakiñai → *bei bat saldu genioan arakiñai¹⁷⁸, 'behi bat saldu genioan arakinari'.*

¹⁷¹ *Dik eta eztik aldaerak ere jaso ditugu. Jende askok itte omen dik, 'jende askok egiten omen dik' eta a bai? Ta gauez? Eztik in, 'a bai? Eta gauez? Ez dik egin'.*

¹⁷² *Tzian aldaera ere entzun dugu. Konpradorek nai omen tzian super (...) jarri, 'erosleak nahi omen zian super(...) bat jarri'.*

¹⁷³ *Hori da entzuten duguna, oso garbi entzuten ez badugu ere.*

¹⁷⁴ *Ittettuk aldera ere aditu dugu esaldi honetan: kanta guztik potrotaño ittettuk, 'kanta guztiak potrotaraino egin dituk'.*

¹⁷⁵ *Beste aldaera hau ere badarabil Ekhik: Jendea bazeokela, baño ikusikoik (...), baño erderaz geio ikusi-koie nik uste, 'jendea *bazegokela, baina ikusiko dik (...), baina erderaz gehiago ikusiko ditek nik uste'.*

¹⁷⁶ *Tzien aldaera ere erabili du honako honetan: ta artu in tzien, bai, artu in tzien, 'eta hartu egin zitean, bai, hartu egin zitean'.*

¹⁷⁷ *Dena den, ez da oso garbi entzuten.*

¹⁷⁸ *Berriz esanarazi diogu, eta berriro genioan esan du.*

- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → (...) zizkiok¹⁷⁹, ‘zizkiok’.

Elkarrizketa libretik lortutako adizkiak

- *Lengon (...) bere urtek. Zoriondu in nitxoan eta “eskerrik asko” esan zitean, ‘zoriondu egin ninduan, eta “eskerrik asko” esan zidaan’.*
- *Jendek kulpa botatzen tziek, ‘jendeak kulpa botatzen ziek’.*

4.2 Tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Neana etortzen zan → *nereana etortzen zan*, ‘niregana etortzen zen’.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Da asi nintzan korrika gora*, ‘eta hasi nintzen korrika gora’.
- *Azkenen oain, Instagramen eotea, beste konfigurazio osti orrekin*, ‘azkenean orain, Instagramen egoten da, beste konfigurazio malapartatu horrekin’.
- *Oi loko ibiltze omen tzan korrika ta*, ‘hori zoratuta ibiltzen omen zen korrika eta’.
- *Ze amar urte o, zenba ie?*, ‘zeren hamar urte edo, zenbat dira?’.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Aragie gustatzen zait → *aragie gustatzen zait*, ‘haragia gustatzen zait’.
- Aragie gustatzen zaio → *aragie gustatzen zaio*, ‘haragia gustatzen zaio’.
- Leno aragie gustatzen zitzaion → *leno aragie gustatzen zitzaion*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaion’.
- Len aragie gustatzen zitzaiten → *leno aragie gustatzen zitzaiten*, ‘lehenago haragia gustatzen zitzaidan’.
- Igual tzaten → *igual tzaten*, ‘berdin zitzaidan’.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Askoe ean due → *asko ean due*, ‘edan dute’.

¹⁷⁹ *Zizkiok* esan aurretik forma neutroa duen esaldia egin du. Hau da, *bei batzuk salduizkio karnizeroi*, ‘behi batzuk saldu dizkio harakinari’ esan du, eta gero isolatuki edo *zizkiok* forma eman du. Iruditzen zaigu aurrena eman duen forma neutroa inkestagailearen eraginez izan daitekeela, eta gero etorri zaiola berez erabiko lukeen forma. Horregatik, hori lehenestea erabaki dugu.

- Nik in neiken → *nik in neiken*, 'nik egin nezakeen'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Beste udara baten olako egualdik eztittu¹⁸⁰ in da*, 'beste uda batean horrelako eguraldiak ez ditu egin eta'.
- *Ganaduik ezteu¹⁸¹ eukiko*, 'ganadurik ez dugu edukiko'.
- *Ne etxen beñe eztet ikusi kontrola itten da*, 'nire etxea behin ere ez dut ikusi kontrola egiten eta'.
- *Ni aspaldi (...) atea ta, esan tzin ikusteko*, 'ni aspaldi (...) atera eta esan zidan ikusteko'.
- *Esan nion ezetz*, 'esan nion ezetz'.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi aittei attuio¹⁸² o, attuie o*, 'istorio hori aitari aditu diote, edo aditu die edo'.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman die¹⁸² ardii*, 'artzaiek pentsua eman die ardiei'.
- Neonek saldu nion bei bat arakiñai → *neonek saldu nion arakiñai bei bat, arakiñai*, 'neronek saldu nion harakinari behi bat, harakinari'.
- Karamelo bat eman zion beak → *karamelo bat eman zion¹⁸³ beak*, 'karamelo bat eman zion berak'.
- Bizilagunek bei bat saltu zioten arakiñai → *bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai*¹⁸⁴, 'bizilagunek behi bat saldu zioten harakinari'.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontau ez balio, igual igual¹⁸⁵*, 'ehiztariak istorio hori kontatu ez balio, igual igual'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- *Konpetitze (...) kriston egurra emate omen die, ta motok asko sufirtze omen dik*, 'konpetitzen (...) izugarritzko egurra ematen omen diote, eta motoak asko sufirtzen omen dik'.

¹⁸⁰ Honako aldaera hau ere entzun dugu: *olako egualdik itte attu gañea, la ostia!* 'horrelako eguraldiak egiten baditu gainera, la ostia!'.

¹⁸¹ *Ingo deu zeoze*, 'egingo dugu zer edo zer' aldaera ere lekukotu dugu.

¹⁸² *Salduie* aldaera ere lekukotu dugu.

¹⁸³ Berriz eskatu diogu esaldia errepikatzeko, eta beste pare bat alditan ere *zion* esan du.

¹⁸⁴ Inkestatzaileak aditza ondo entzun ez duela eta, berriro esanarazi dio Ekhiri, eta 'igual' dio Ekhik. 'Zioten', alegia.

¹⁸⁵ Inkestatzaileak 'egie zala sinetsiko zon?' galdetzen dio. Ekhik erantzuten du : 'sinetsi ez, sinistuko'.

Orduan inkestatzaileak 'sinistuko...' esan, eta Ekhik : 'zon'. Inkestatzaileak : 'ika ola esango uke?' Ekhik : 'puff. Oain (...) okurritzen. Geo enuke ola esango'.

- *Prestatu in ber omen die, e, zeak esan tzian, nola dek beste karre(...) ibiltzean¹⁸⁶ oi, Artola, Artola. (...), prestatu egin behar omen ditek, eh, zerak esan zidan, nola duk beste karre (...) ibiltzen den hori, Artola, Artola.*
- *Ta tipok esan tzion Inaxioi, 'eta tipoak esan zion Inaxiori'.*

4.3 Ez dakiela adierazi duen tokako adizki perifrastikoak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bei bat salduio karnizeroi → *beak karnizeroi bei bat salduio, naun, eztakit*, 'berak harakinari behi bat saldu dio, naun, ez dakit'.

4.4 Tokako adizki sintetikoak

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea da → *bea gaztea ek*, 'bera gaztea duk'.
- Bea gaztea zan → *bea gaztea uan*, 'gaztea zuan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Nola dek¹⁸⁷ beste karre(...) in tzon oi, Artola, Artola*, 'nola duk beste karre(...) egin zuen hori, Artola, Artola'.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne andrea gaur Baiona dijo → *ne andrea gaur Baiona zijok*, 'ne andrea gaur Baiona zoak'.
- Bea etxeaka zijon → *bea etxe alde zijoan*, 'bera etxe aldera zihoaan'.

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Lo dao → *lo zeok*, 'lo zegok'.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeoan dettu noanen, dettu nitxoanen, dettu nitxoanen, nionen. Etzekit nola esan. Segun ze pertsona*, 'etxean zegoan deitu *noanean, deitu *nioanean, deitu *nioanean, nioanean. Ez zekiat nola esan. Segun zer pertsona'.

¹⁸⁶ Garbi entzuten ez bada ere, hori da ulertzen duguna.

¹⁸⁷ *Ek* eta *eztek* aldaera ere entzun ditugu: *berez politta ek*, 'bere polita duk' eta *oi re eztek earra*, 'hori ere ez duk ederra'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Bakunak eta iñ arte, etzeok¹⁸⁸, 'txertoak eta egin arte, ez zegok'.*

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturrek merkatutik*, 'nire aita orain zeturrek merkatutik.'
- Ne atte oñez zeturrean → *ne atte oñez zeturrean*, 'nire aita oinez zeturrean'.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending dabil → *mending zebiyek*, 'mending zebilek'.
- Mending zebillen enteatu zanen → *mending zebiyeen enteatu uanen*, 'mending zebilean, zerbaiten berri izan *zuanean'.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat neken → *etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- Beak etxe polit bat zeuken → *beak etxe politte zeukean*, 'berak etxe polita zeukaan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Karneta ateata omen zeukek¹⁸⁹*, 'karneta aterata omen zeukak'.
- *Nik joerak zezkeat*, 'nik joerak zezkaat'.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Errropa buru gañen dakarki → *...zema, zekarkik igual bai, eztakit, ola esango nuke igual? Eztakit*, 'zerama, zekarrek igual bai, ez dakit, horrela esango nuke igual? Ez dakit'.

¹⁸⁸ Zeok aldaera ere leukotu dugu adibide honetan: *ostiraletan, ostia, peligroa zeok*, 'ostiraletan, ostia, arris-kua zegok'.

¹⁸⁹ Zekek ere bai: *joe, zekek arri bat!*, 'joder, zeukak arri bat!'.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik*¹⁹⁰, ‘berak arropa buru gainean zeramak’.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Oi bakit nik → *oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- Eztaki eze → *etzekik eze*, ‘ez zekik ezer’.

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Etzekiat*¹⁹¹, *bestela alperrik eosiek*, ‘ez zekiat, bestela alperrik erosi duk’.
- *Nola attek etzekik puta ideaik e*, ‘nola aitak ez zekik idearik ere’.

4.5 Tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak

IZAN adizkiak

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Enaiz futbol zalea*, ‘ez naiz futbol zalea’.

EGON adizkiak

Elkarizketa libretik lortutakoak

- *Bizkarretik e gaizki omen tzeon*, ‘bizkarretik ere gaizki omen zegoen’.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen arroka zekarkin → ... *oi re igual. Zekarkin*¹⁹², ‘... hori ere berdin. Zekarren’.

¹⁹⁰ *Zematik* esan eta gero, “beno, damaki” dio. Inkestatzaileak nola esan duen galdetzen dio, eta “zematik, igual” adierazten du. Beraz, ezin esan guztizko ziurtasunik duenik formarekin.

¹⁹¹ *Etzekit* aldaera ere erabili du Ekhiak, baita *bazekiat* ere beste kasu batean: *Bazekiat, ezta geigi re, ezta gutxigi re*, ‘bazekiat, ez eta gehiegi ere, ez eta gutxiegi ere’.

¹⁹² Hasieran, Ekhiak esaldia noka egin dugun galdetetzen du. Hau da. “neskan (...) zekarkin?”. Orduan inkestatzaileak agertu dio “atzo atzo. Atzo beak buru gañen zekarkin”. Horren ondorenean eman du forma neutroa, eta “bai, eske etzait okurritzen” gehitzen dio.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Nere amak oso ondo zekin josten → *nere amak, nere amak oso ondo zekin josten*, 'nire amak, nire amak oso ondo zekien josten'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- Ta beak etzekin e*, 'eta berak ez zekien, eh'.
- Eztakit*, 'ez dakit'.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Erruedaijoa aiden (...)*, 'gurpila doa airean'.

4.6 Tokako forma berriak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai baik, lana oain lana buka di¹⁹³, lana buka zeikek, oain buka zeikek*, 'nahi *badik, lana orain lana buka di, lana buka zezakek, orain buka zezakek'.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeoan deitu noanen, dettu nitxoanen*, 'etxean zegoan deitu *nuanean, deitu *nioanean'.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen zakurre etxea, etxea damaki*, 'ikusi *nianen zakurra etxera, etxera darama'.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, 'bazekiat zertaz ari *nauken'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- Nik usteiat aurtengo udaran okerragoa izangoekela*, 'nik uste diat aurtengo udaran okerragoa izango *dukela'.
- Nik attuiatenangatik beintzat, ostias, zeoze inbenta bearkoiau*, 'nik aditu *diatenarengatik behintzat, ostia, zer edo zer asmatu beharko diagu'.
- Izketan atxu itxoan, ta pena eman zitxala i*, 'hizketan aritu gintuan, eta pena eman *zioala hi'.
- Itteikena euskeraz itte baik, seguru ikusikoekela*, 'egiten *dikena euskaraz egiten *badik, seguru ikusiko *dukela'.
- Ikusikoik emengo lau katuk o, ikusteikenak, behintzat*, 'ikusiko dik hemengo lau katuk edo, ikusten *dikenak'.

¹⁹³ Ez dugu ondo ulertzen hemen dioena.

- Jendea bazeokela¹⁹⁴, *baño ikusikoik (...), baño erderaz geio ikusikoie nik uste*, 'jendea *bazeokela, baina ikusiko dik (...), baina erderaz gehiago ikusiko ditek nik uste'.
- Egunaldi ona itteikenen kanpoa, osea, eztek eze itten baño, 'eguraldi ona egiten *dikenean kanpora, hau da, ez duk ezer egiten baina'.
- Oantxe esanezkeo, ta gauzak garbi azaldu ezkeo, etzekiat, zenbat, zemuz jun deken o, etzekiat, 'oraintxe esanez gero, eta gauzak garbi azalduz gero, ez zekiat, zenbat zer moduz joan *duken edo, ez zekiat'.

4.7 Tokako forma asmatuak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeon deitu noanen, dettu nitxoanen*¹⁹⁵, 'etxean zegoan deitu *nuanean, deitu *nioanean'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

- Alako baten jartzeik: "Este libro será siniestro total". Etzenian ezerrez! Pistatik kanpoa ateata, ez paratxokeseik ausita, ez ezer, 'halako batean jartzen dik: "este libro será siniestro total". Ez *zenian ezer ez! Pistatik kanpora aterata, ez kolpe-leungailurik hautsita, ez ezer'.

4.8 Tokako forma alokutiboa ematerakoan aditza aldatzea

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosiyat, kotxe bat eosi nian*¹⁹⁶, *beak atzo kotxea eosi zun*¹⁹⁷, 'kotxe bat erosi diat, kotxe bat erosi sina, berak atzo kotxea erosi zuen'.
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zian*, 'kotxe bat erosi zian'; *eztakit, kotxe bat eosi zuen*¹⁹⁸, 'ez dakit, kotxe bat erosi zuten'.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*¹⁹⁹, 'bazekiat zertaz ari *nauken'.

¹⁹⁴ Zeokela aldaera ere erabili du Ekhik: *nik uste oi gaizki zeokela*, 'nik uste hori gaizki *zegokela'.

¹⁹⁵ Inkestatzaileak esaldia berriro esateko eskatzen dio. Orduan Ekhik honako erantzun hau eman du: 'dettu nitxoanen, nionen. Etzekit nola esan. Segun ze pertsona.'

¹⁹⁶ Inkestatzaileak berriro esanarazita eman duen forma.

¹⁹⁷ Aurreko bi formak entzun eta gero, inkestatzaileak "kotxe bat eosi zun atzo beak" esan ostean adierazitako forma neutroa.

¹⁹⁸ Hori adierazteko, inkestatzaileak honako hau esan dio: "zuen. Beak ez e? Aik eosi zuen".

¹⁹⁹ Neoken dioela uste badugu ere, zalantza egin dugu *naoken* eta *neoken*-en artean.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Ne etxen beñe eztet ikusi kontrola itten da, lengo eunen bi kontrol in zizkian²⁰⁰ da, Jaiaken beste bat, 'nire etxean behin ere ez dut ikusi kontrola egiten eta, lehengo egunean bi kontrol egin zizkian eta, Jaiaken beste bat'.*
- *Ikusikoik emengo lau katuk o, ikusteikenak, beintzat, 'ikusiko dik hemengo lau katuk edo, ikusten *dikenak'.*
- *Lengon (...) bere urtek. Zoriondu in nitxoan eta "eskerrik asko" esan zitean, 'Lehengoan (...) bere urtek zoriondu egin ninduan, eta "eskerrik asko" esan zidaan'.*
- *Ya lenao gaizki genitxoan²⁰¹ da, oain Covidan asuntokin da, etzeok, 'ja lehenago gaizki geundean eta, orain Covidarekin kontuarekin eta, ez zegok'.*

4.9 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno abittu balitz, e leno etorriko onan, e etxetio, etxea*²⁰², 'Pedro lehenago abiatu balitz, eh, lehenago etorriko zunan, eh etxetik, etxera'.
- Beana inguratu naiz → *beana inguratu naun, naun*, 'beregana inguratu naun, naun'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Leno aragie gustatze zitzaion → *lenau aragie gustatze zitzaionan*, 'lehenago haragia gustatzen zitzaionan'.
- Atzo semea etorri zuten etxea → *atzo semea etorri zitzatenan*²⁰³, 'atzo semea etorri zitzaidanan etxera'.

²⁰⁰ Zalantza sortu zaigu ea forma neutroa ote den, hau da, "zizkidan" ote den. Baina uste dugu Ekhiik neutroa "zizkiten" egingo lukeela. Baina ez gaude ziur.

²⁰¹ Hori dioen guztiz ziur ez bagaude ere, hori da entzuten duguna.

²⁰² Inkestagileak "onuzkeo emen izango zan" zatia esanarazten dio Ekhiiri, eta Ekhiik "onuzkeo emen izango onan" egiten du. Inkestatzaileak berriro esateko eskatu, eta "unan. Onuzeko emen izan uan. Eztakit" dio Ekhiik. Hau da, gure galderekin zalantza sortu diogula ikusten dela iruditzen zaigu.

²⁰³ Beste aldaera hau ere lortu dugu: *igual zatenan*, 'igual zitzaidanan'. Baina inkestatzailearen laguntzarekin eskaini du Ekhiik aldaera hori.

NOR NORK saileko adizkiak

- *Beñatentzako oi earki zeok²⁸⁵ i*, 'Beñatentzako hori, edarki zegok, hil'.
- *Rotondako ortan bi taberna zerek. Lenengon Perurena ta zerean, ta geo gu*, 'biribilguneko horretan bi taberna zaudek. Lehenenengoan Perurena eta zeudean, eta gero gu'.
- *Ya ottuta neok*, 'jada ohituta nagok'.

²⁸⁴ *Etzija*oan aldaera ere entzun dugu: *etzija*oan mendia, kaleko erropakin da zijaoan, 'ez zihoaan mendira, kaleko arroparekin eta zihoaan'.

²⁸⁵ Beste honako aldaera hau erabili du Enaitzek: *oain praktiket*an *tzeok*, 'orain praktiketan zegok'.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturrek merkatutik*, 'nire aita orain zeturrek merkatutik'.
- Ne atte oñez zeturren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zeturrean Pedrokin elkartu uanen*, 'nire aita oinez zeturrean Pedorekin elkartu *zuanean'.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mendin dabil → *mendin zebiyek*, 'mendian zebilek'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Azkenaldin tope zeiztek, e?*, 'azken aldian topera zebiltzak, eh?'.
- *Plazan bastante jende zebiyeane²⁸⁶*, 'plazan dezente jende zebilean'.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat neken → *etxe bat nekean*, 'etxe bat neukaan'.
- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekek*, 'oso etxe polita zeukak'.
- Beak etxe polit bat zeukan → *beak etxe polit bat zeukean*, 'berak etxe polit bat zeukaan'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Aber suertea zekean da obetxe juteken, zeoze in bearra zekean, beintzet*, 'ea zortea *zeukaagun eta hobetzen joaten *duken, zer edo zer egin beharra zeukaagu, behintzat'.
- *Neska batek e bazekek elea*, 'neska batek ere bazeukak elea'.
- *Nik (...) ²⁸⁷ ezteela in bear injeneritza. Oi garbi zekeat*, 'nik (...) ez dudala egin behar ingeniariatza. Hori gari zeukaat'.
- *Ni asiean enian ikusten, e, nekean burun zeoze*, 'nik hasieran ez nian ikusten e, neukaan buruan zer edo zer'.
- *Ni asiean enian ikusten, e, nekean burun zeoze*, 'nik hasieran ez nian ikusten e, neukaan buruan zer edo zer'.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

²⁸⁶ *Zebiye*an tokako forma alokutiboa espero bagenuen ere, hori da entzuten duguna.

²⁸⁷ Ez dugu ulertzen zer dioen.

- Beak arropa buru gañen arropa zekarkin → *beak arropa buru gañen zekarkian*²⁸⁸, ‘berak arropa buru gainean zekarkian’.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañen zematik*, ‘berak arropa buru gainean zeramak’.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen txakurre etxea zematikian*, ‘ikusi *nianeanean txakurra etxera zeramaan’.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Oi bakit nik → *oi bazekiat nik*, ‘hori bazekiat nik’.
- Beak baki ni zertaz ai naizen → *beak bazekik ni zertaz ai neoken*, ‘berak bazekik ni zertaz ari *nauken’.
- Beak eztaki eze → *beak etzekik eze*, ‘bera ez zekik ezer’.
- Nere amak oso ondo zekin josten → *ne amak oso ondo zekian*²⁸⁹ *jeisten, o josten*, ‘nire amak oso ondo zekian jaisten, edo josten’.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Etzekiau pixkat noaldea jun o, txartzea, txartzea jungoeken kontue o... etzekiat*, ‘ez zekiagu pixka bat nora aldera joan edo, txartzera, txartzera joango *duken kontua edo’.

6.4 Tokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending zebillen enteatu zanen → *mending zebiyen bea enteatu uanen*, ‘mending zebilen bera enteratu *zuanean’.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

²⁸⁸ Dena den, ez da oso seguru geratu. Atzetik “etzekiat” esan du.

²⁸⁹ Dena den, lehenik orainaldiko tokako forma, *zekik*, alegia, eman du; inkestagilearen laguntzarekin eman du iraganeko forma.

- Erropa buru gañen dakarki → *beak erropa buru gañean dakarki*²⁹⁰, ‘berak arropa buru gañen dakar’.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Istripue pasau zanen, bea etxeak zijon → *istripue pasau uanen, bea etxeaka zijon*, ‘istripua pasatu *zuanean, bera etxerantza zihoan’.

6.5 Tokako forma berriak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno atea balin bauan etxetik, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera baldin *bazun etxetik, honezkero hemen izango zuan’.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen txakurre etxea zemakian*, ‘ikusi *nianean txakurra etxera zeramaan’.
- Beak baki zertaz ai naizen → *beak bazekik ni zertaz ai neoken*, ‘berak bazekik ni zertaz ari *nauken’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai balin baik, lana oain bukaukoik*, ‘nahi baldin *badik, lana orain bukatuko dik’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeoan dettu nitxoanen*, ‘etxean zegoan deitu *nioanean’.
- Ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zetorrean Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zetorrean Pedrokein elkartu *zuanean’.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Etzekiau pixkat noaldea jun o, txartzea, txartzea jungoeken kontue o... etzekiat*, ‘ez zekiagu pixka bat nora aldera joan edo, txartzera, txartzera joango *duken kontua edo’.
- *Aber, beintzet, Zaldibiko festak o ittetukun, zeoze itteko re*, ‘ea, behintzat, Zaldibiako jaiak edo egiten *ditukun, zer edo zer egiteko ere’.
- *Zaldibi herritik pixkat ateata zeok, oain gañea positibokin da, ezin diaula atera re in*, ‘Zaldibia herritik pixka bat aterata zegok, orain gainera positiboekin eta, ezin *diagula atera ere egin’.
- *Aber gorritik noiz kentzen gattukun, zeoze itteko re*, ‘ea gorritik noiz kentzen *gaitukun, zer edo zer egiteko ere’.

²⁹⁰ Hasieran *zemakik* aditza eman du. Inkestagileak berriro galdetu dio, ordea, eta orduan *dakarki* forma neutroa eman du.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu ziek*²⁹⁴, 'bizilagunek behi bat saldu ziotek'.

6.8 Nokako adizki perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak.

- Beana inguratu naiz → *beana inguratu naun*, 'beregana inguratu naun'.
- Eozein momentutan pasau leike → *eozein momentutan pasa zeiken*, 'edozein momentutan pasa ziteken'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Ondo iruitze zat → *ondo iruitze zaten*, 'ondo iruitze zaidan'.
- Aragie gustatzen zait → *aragie gustatze zaten, aragie gustatze zaian*, 'haragia gustatzen zaidan, haragia gustatzen zaidan'.
- Aragie gustatzen zaio → *aragie gustatze zaion*, 'haragia gustatzen zaion'.
- Leno aragie gustatze zitzaion → *leno aragie gustatze zitzaionan*, 'lehenago haragia gustatzen zitzaionan'.
- Len aragie gustatzen zaiten → *len aragie gustatze zatenan*²⁹⁵, 'lehen haragia gustatzen zaidanan'.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Gaur gutxi jan det → *gar gutxi jan diñat*, 'gaur gutxi jan dinat'.
- Gutxi jan do beak gaur → *gutxi jan din gar beak*, 'gutxi jan din gaur berak'.
- Gaur asko jan deu → *gar asko jan diñau*, 'gaur asko jan dinagu'.
- Ne emaztek sagarrak jan dittu → *ne emaztek sagarrak jan dizkin*, 'nire emazteak sagarrak jan dizkin'.
- Geiegi ean tzon afarin → *geiegi ean tziñan afarin*, 'gehiegi edan zinan afarian'.

²⁹⁴ Inkestagailea laguntzen saiatu da: "baño atzo, e? Bizilaunek bei bat saldu zioten atzo arakiñai" esan dio Enaitizi. Horren ondoren forma neutroa eskaini du Enaitzek, eta ez dakiela ere adierazi du: "bei bat saldu zieten. Eztakit hikaz".

²⁹⁵ Dena den, ez da seguru geratu, atzetik "eztakit" esan baitu.

- Afarin geiegi ean genun → *afarin geiegi ean geniñan*, ‘afarian gehiegi edan geninan’.
- Nik in neiken → *nik in neikenan*, ‘nik egin nezakeenan’.
- In daiket → *in tzeikeñat*²⁹⁶, ‘egin zezakenat’.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Beak bei bat salduo karnizeroi → *beak bei bat saldu zion*²⁹⁷ *karnizeroari*, ‘berak behi bat saldu zion harakinari’.
- Arakiñai bei bat saldu diou → *arakiñari bei bat saldu zionau*²⁹⁸, ‘harakinari behi bat saldu zionagu’.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi attei attu ziene*²⁹⁹, ‘istorio hori aitari aditu zioten’.
- Karamelo bat eman zion beak → *karamelo bat eman zionan*³⁰⁰, ‘karamelo bat eman zionan’.

6.9 Toka nokaren ordezkari perifrastikoetan

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Neana etortze zan → *neana etortze uan*, ‘niregana etortzen zuan’.
- Atzoako bukau zeiken → *atzoako buka zeikean*³⁰¹, ‘atzoko buka zitekean’.

Elkarrizketa bidez lortutako adizkiak

- *Eneok jarri or saltseatzen e, baño...*, ‘ez nauk jarri hor saltseatzen e, baina...’.

NOR NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Asko ean due → *asko ean die*, ‘asko edan ditek’.
- Len geiegi eate nun → *len geiegi eate nian*, ‘lehen gehiegi edaten nian’.

²⁹⁶ Ez du espero genuen ahoskera egin, testuinguruak ez baitu sudurkariaren bustidura eskatzen. Bustidura-rik gabeko forma da espero duguna. Gainerakoan, nokako forma zuzena litzateke.

²⁹⁷ Inkestagilearen laguntza txiki batekin lortuko forma. Lehenik, *zionan* esan du Enaitzek, eta orduan etorri da inkestagilearen laguntza. Behia gaur saldu zaiola harakinari adierazi dio inkestagileak, eta orduan Enaitzek “beak bei bat saldu zion, zion edo ziok, saldu zion e, zeñi?” Inkestagileak “karnizeroi”. Enaitzek “karnizeroari” esan du.

²⁹⁸ Inkestagilearen laguntzarekin ateratako nokako adizki alokutiboa. Lehenengo “arakiñai bei bat saldu zionan” esan du Enaitzek. Inkestagileak errepikatzeko eskatu, eta Enaitzek berdina adierazi du. Baina inkestagileak “guk e?” azpimarratu dio Enaitzi, eta orduan, “a guk? Arakiñari bei bat saldu zionau, zionau” erantzun du Enaitzek.

²⁹⁹ Baina atzetik “attu zionan” ere esan du.

³⁰⁰ Lehenengo “zionan” esan du galdera eginez bezala. Horren atzetik berehala “zionan”; ziurtasunik gabe.

³⁰¹ Atzetik *zekenan* forma asmatua eskaini du.

- Naiko balo, ingo zon → *naiko balu, ingo zian*, 'nahiko balu, ingo zian'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Yutuben da ola jende geiok ikusikoik erderaz*, 'Yutuben eta horrela jende gehiagok ikusiko ditk erdaraz'.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutako adizkiak

- Bei bat saldu genion arakiñai → *bei bat saldu genioan arakiñari*, 'behi bat saldu genioan harakinari'.

6.10 Nokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro perifrastikoak

NOR saileko adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Telebistan da, sare sozial geienetan da, ola ibiltzeie, beintzet*, 'telebistan eta, sare sozial gehienetan eta, horrela ibiltzen dira, behintzat'.
- *Ni etxetik kanpoa asko ibiltze naiz*, 'ni etxetik kanpora asko ibiltzen naiz'.

NOR NORI saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Atzo semea etorri zitzaiten etxea → *atzo semea etorri zitzaian etxea*, 'atzo semea etorri zitzaidan etxera'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Asieran denoi pixkat raro ingo zaiu nik uste*, 'hasieran denoi pixka bat arraro egingo zaigu nik uste'.
- *Baño nei etzait gustatzen*, 'baina niri ez zait gustatzen'.

NOR NORK saileko adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Azkenaldin gutxi entzutet³⁰²*, 'azkenaldian gutxi entzuten dut'.
- *Da ordun, jende geiok ikusteko, erderaz ingou*, 'eta ordun, jende gehiagok ikusteko, erdaraz egingo du'.
- *Atzo igual, partikularra euki nun*, 'atzo agian, partikularra eduki nuen'.

³⁰² *Eztet* aldaera ere erabili du Enaitzek: *nik bakit zein dan, baño eztet ikusten*, 'nik badakit zein den, baina ez dut ikusten'.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Elkarriketa asketik lortutakoak

- *Oantxe bertan “nai dezu txertoa jarri” ta nik ezezkoa esango nion*, ‘oraintxe bertan “nahi duzu txertoa jarri”, eta nik ezezkoa esango nion’.

6.11 Nokako forma berriak adizki perifrastikoetan

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi niñanen, nianen, txakurre etxea zemakian*, ‘ikusi *ninanean, *nianeane, txakurra etxera zeramaan’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bain, lana oain bukaukoin*, ‘nahi *badin, lana orain bukatuko din’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatu izan ez pazionan, egie uala sinetsiko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatu izan ez *bazionan, egia *zuala sinetsiko zian’.

6.12 Nokako forma asmatuak adizki perifrastikoetan

NOR saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak baki ni zertaz ai naizen → *beak bazekin ni zertaz ai nauen*, ‘berak bazakin ni zertaz ari *nauen’.

NOR NORI NORK saileko adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bei batzuk salduizkio karnizeroi → *bei batzuk salduizkiño, saldu zizkinan, eztakit, saldu zizkiño, bei batzuk saldu zizkionan*, ‘behi batzuk saldu *dizkiño, saldu zizkinan, ez dakit, saldu *zizkiño, behi batzuk saldu zizkionan’.
- Neonek saldu nion bei bat arakiñai → *neonek saldu zoñat bei bat arakiñari*, ‘neronek saldu zionat bei bat harakinari’.
- Bei bat salduiot karnizeroi → *bei bat saldu zoñat³⁰³*, ‘behi bat saldu zioat’.

6.13 Nokako forma ematerakoan aditza aldatzea

Galdetegi bidez lortutakoak

³⁰³ Aurretik tokako forma ere eskaini du: *zoat*, hain zuzen. Eta “eztakit e, neskakin” ere badio “zoñat” esan osten.

- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu zizkienan*, ‘bizilagunek behi bat saldu zizkienan’.
- Istori guztia kontatzeko luzegia litzeke → *istori guztie kontatzeko luze geitzen*, ‘istorio guztia kontatzeko luze gelditzen den’.
- Igual zitzaiten → *igual zaidan, igual tzaian*, ‘berdin zaidan’.
- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosi niñan*³⁰⁴, ‘kotxe bat erosi ninan’.
- Kotxe bat eosi zuen → *kotxe bat eosi zenuen*³⁰⁵, ‘kotxe bat erosi zenuten’.
- Botella guztik ean zittun → *boteya guztik ean dizkin, dizkie*³⁰⁶, ‘boteila guztiak edan dizkin’.
- Artzaiek pentsue eman die ardii → *artzaiek pentsue eman zianan*³⁰⁷ *ardiei*, ‘artzaiek pentsua eman zianan ardiei’.
- Bizilagunek bei bat saldu zioten arakiñai → *bizilaunek bei bat saldu zizkienan*³⁰⁸, ‘bizilagunek behi bat saldu zizkienan harakinari’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bain, lana oain bukaukoin*, ‘nahi *badin, lana orain bukatuko din’.
- Erropa buru gañen dakarki → *arropa buru gañean zemarkin*, ‘arropa buru gaineen zemarkin’.
- Lo dao → *lo zeonan*, ‘lo zegonan’.

6.14 Nokako adizki sintetikoak

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea gaztea da → *bea gaztea en*, ‘bera gaztea dun’.

JOAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne andrea gaur Baiona dijo → *ne andrea gaur Baiona zijen*³⁰⁹, ‘nire andrea gaur Baionara zoan’.

³⁰⁴ Inkestagilea laguntzen saiatzen da, eta ondoren, tokako forma alokutiboa eskaini digu: “kotxe bat eosi zian” baitio. Dena den, kasu honetan *niñan* erabiltzea intereseko zaigu. Horregatik azaleratu dugu bera.

³⁰⁵ Inkestagilea laguntzen saiatu da, kotxea erosi zutenak *haiek* izan zirela azpimarratu nahirik. Enaitzek ez dakiela erantzun du.

³⁰⁶ Inkestagilea laguntzen ahalegindu da, “baño ean zittun atzo, e? Gaur ez” esanez. Orduan Enaitzek “boteya guztik ean zizkian” erantzun du. Toka egin du, alegia.

³⁰⁷ Lehenengo tokako alokutiboa erabili du, *ziek*, alegia. Baina gero ahalegina egin, eta nokako forma ematen saiatu da. Horregatik, nokako forma horrek erakusten duena agertzea lehenetsi dugu.

³⁰⁸ Galdera eginez eman du aditza Gero inkestagileak esaldia errepikatu dio Enaitzi, eta ez dakiela erantzun du.

³⁰⁹ *Zijonen* atzetik iraganeko forma den *zijonan* esan du.

- Istripue pasau zanen, bea etxeaka zijon → *istripue pasau uanen, bea etxeaka zijonan*³¹⁰, 'istripua pasatu *zuanean, bera etxerantza zihoanan'.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oain dator merkatutik → *ne atte oain zeturren merkatutik*, 'nire aita orain zeturren merkatutik'.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Mending dabil → *mending zebiyen*, 'mending zebilen'.

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat zeken → *etxe bat zekenan*³¹¹, 'etxe bat zeukanan'.

JAKIN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Oi bakit nik → *oi bazekiñat nik*, 'hori bazekinat nik'.
- Beak baki ni zertaz ai naizen → *beak bazekin ni zertaz ai nauen*, 'berak bazakin ni zertaz ari *nauen'.
- Eztaki eze → *etzekin eze*, 'ez zekin ezer'.
- Nere amak oso ondo zekin josten → *ne amak oso ondo zekinan*³¹² *josten*, 'nire amak oso ondo zekinan josten'.

6.15 Toka zein noka adizki sintetikoetan

EDUKI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxe bat neken → *len etxe bat nekean, nekenan*, 'lehen etxe bat neukaan, neukanan'.
- Oso etxe politte dake → *oso etxe politte zekek, zeken*³¹³, 'oso etxe polita zeukak, zeukan'.

³¹⁰ Nokako forma alokutiboaren aurretik forma neutro bezala ulertu dugun *zioan* esan du.

³¹¹ Lehendabizi forma neutroa eman du, inkestagileak emandako aditza nahi gabe errepikatuz edo.

³¹² Ez dakigu zergatik, baina ez du beste zenbaitetan bezala sudurkaria busti goiko bokalaren eraginez espero genuen bezala.

³¹³ Bi forma alokutiboak inkestagilearekin laguntzarekin lortu ditugu. Lehendabizi, eskatu zaion aditzaren iraganeko nokako forma den *zekenan* eskaini du.

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea lo zeon → *bea lo zeoan, zeonan*, ‘bera lo zegoan, zegoan’.

ETORRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zeturrenan, zeturrean, Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zeturrenan, zeturrean, Pedrokekin elkartu *zuanean’.

6.16 Toka nokaren orde adizki sintetikoetan

IZAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Bea len gaztea zan → *bea len gaztea uan*, ‘bera lehen gaztea zuan’.

EGON adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zeoan dettu nitxoanen*³¹⁴, ‘etxean zegoan deitu *nioanean’.

IBILI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoa

- Mendin zebillen enteatu zanen → *mendin zebiyeen enteatu uanen*, ‘mendian zebilean zerbaiten berri izan *zuanean’.

EKARRI adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Beak buru gañen arropa zekarkin → *beak buru gañean arropa zekarkian*³¹⁵, ‘berak buru gaineen arropa zekarrean’.

ERAMAN adizkiak

Galdetegi bidez lortutakoak

- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi niñanen, txakurre etxea zemakian*, ‘ikusi *ninanean, txakurra etxera zeramaan’.

³¹⁴ Ondoren, “dettu, dettu nitxon, ez. Eztait” esan du Enaitzek.

³¹⁵ Inkestagilearen laguntzarekin emandako forma. Aurretik “zemarkin” esan du.

JAKIN adizkiak

Elkarriketa bidez lortuakoak

- *Nik oaindik etzekiat, 'nik oraindik ez zekiat'.*

6.17 Nokako forma alokutiborik gabeko adizki neutro sintetikoak

EDUKI adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Eskolatik atea ta, bazkaldu ta settun partikularra auket, 'eskolatik atera eta bazkaldu eta segituan partikularra daukat'.*

JAKIN adizkiak

Elkarriketa libretik lortutakoak

- *Nik bakit zein dan, baño ez tet ikusten, 'nik badakit zein den, baina ez dut ikusten'.*

6.18 Ez dakizkiela adierazi duen nokako forma sintetikoa

ERAMAN adizkia

Galdetegi bidez lortutakoa

- Beak arropa buru gañen damaki → *beak arropa buru gañean, puff, ez takit*, 'berak arropa buru gainea, puff, ez dakit'.

7 Guztien joera orokorrak

7.1 Bitariko formak

Galdetegi bidez lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea izango baluan, gukin geauko uan*, 'bera gaztea izango *baluan, gurekin geatuko zuan'; Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro lena atea izan baluan etxetio, onuzkeo emen izango uan*, 'Pedro lehenago atera izan *bauan etxetik, honezkero hemen izango zuan'.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertan ai naken* 'bazekiat zertaz ari *nauken'; baki zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken* 'bazekiat zertaz ari *nauken'; baki zertaz ai naizen → *bazekik zertaz ai nitxoken*³¹⁶, 'bazekik zertan ari *nauken'.

³¹⁶ Noka egiteko eskatu zaio.

- Ondo iruitzen zat → *ondo iruitze zaiak*³¹⁷, ‘ondo iruditzen zaidak’; aragie gustatzen zait → *aragie gustatze zai*, ‘haragi gustatzen zaidan’.

SAIOAK eskainitakoak

- Kotxe bat eosi zun → *kotxe bat eosi zian* ‘kotxe bat erosi zian’; naiko balo, ingo zon → *naiko balu, ingo zoan* ‘nahiko balu, egingo *zoan’; artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuan guztii saldu ziek gazta*, ‘artzaiak nahi *zuan guztiari saldu ziotek gazta’.

ANERREK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *ue gaztea izango bauan, gukin geatuko ukean*, ‘hura gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko *zukean’; Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno ateako bauan etxetik, ue oain etxen izango uan*, ‘Pedro lehengo aterako *bazuan etxetik, hura orain etxean izango zuan’.
- Atzo semea etorri zaten etxea → *atzo semea etorri zitzaitean etxea* ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’; len aragie gustatzen zaten → *len aragie gustatzen zaten*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidan’; o igual zitzaitean → *o igual zitzaitean*, ‘edo igual zitzaidan’.
- Bea gaztea balitz, gukin geatuko zan → *bea gaztea bauan, gukin geatuko uen*³¹⁸, ‘bera gaztea *bazuan, gurekin geratuako *zuen’; Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno ateako bauan etxetik, emen izango uan*³¹⁹ onuzkeo, ‘Pedro lehenago aterako *bazuan etxetik, hemen izango zuan honezkero’.
- Len aragie gustatzen zitzaitean → *len aragie gustatze zitzaitean*³²⁰, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidan’; igual zitzaitean → *igual zitzaitean*³²¹, ‘igual zitzaidan’; atzo semea etorri zitzaitean etxea → *atzo semea etorri zitzaitean*³²² etxea, ‘atzo semea etorri *zitzaidan etxera’.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi, istorio oi aittei attu zionatek*³²³, ‘istorio hori, istorio hori aitari aditu *zionatek’; artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zian guztiri, saldu zioten*³²⁴ gazta, ‘artzaiak nahi zian guztiari saldu zioten gazta’.

EKHIK eskainitakoak

- Gukin geatuako zan → *gukin geatuko uan*³²⁵, ‘gurekin geratuko zuan’; neana etortzen zan → *nereana etortzen zan*³²⁶, ‘nirregana etortzen zen’.

³¹⁷ Noka egiteko eskatuta eman duen tokako forma.

³¹⁸ Noka egiteko eskatu zaionean erabili duen formetako bat.

³¹⁹ Noka egiteko eskatu zaionean erabili duen beste forma bat.

³²⁰ Noka egiteko eskatu diogu; tokako forma eman du.

³²¹ Hori ere noka egiteko galdegin diogunean eskaini duen aditza da.

³²² Noka egiteko eskatu zaio.

³²³ Noka egiteko eskatu zaio.

³²⁴ Noka egiteko eskatu zaio.

³²⁵ Toka egiteko eskatu zaio.

³²⁶ Toka egiketeo eskatu zaio.

- Ondo iruitzen zat → *ondo iruitzen zaiak*³²⁷, ‘ondo iruiditzen zaidak’; aragie gustatzen zait → *aragie gustatzen zait*³²⁸, ‘haragia gustatzen zait’.
- Mendin zebillen enteatu zanen³²⁹ → *mendin zebiyenan enteatu uanen*, ‘mendian zebilenan zerbaiten berri izan *zuanen’; ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zanen³³⁰ → *ne atte oñez zetorrenan Pedrokin elkartu zanen*, ‘nire aita oinez zetorrenan Pedrorrekin elkartu zenean’.
- Bidea atea naz³³¹ → *bidea atea neonan*, ‘bidera atera negonan’; beana inguratu naiz³³² → *beana inguratu naun*, ‘beregana inguratu naun’.
- Len aragie gustatzen zitzaiten³³³ → *leno aragia gustatze zizainan, zitzainan*³³⁴, ‘lehenago haragia gustatzen zitzainan, zitzainan’; igual tzaten³³⁵ → *igual zatenan, igual tzatenan*; ‘igual zitzaidanan, igual zitzaidanan’; atzo semea etorri zaten etxea → *atzo semea etorri zitzatenan*, ‘atzo semea etorri zitzaidanan’.
- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea balitz, eztakit, balitz gukin geatuko uan*³³⁶, *gukin geatuko onan*; neana etortze zan → *neana etortze zitzanan, zitzan*³³⁷, ‘niregana etortzen *zitzanan, *zitzan’.

IGORREK eskainitakoak

Toka egiteko eskatutakoen artetik

- Bidea atea naz → *bidea atea nauk*, ‘bidera atera nauk’; beana inguratu naiz → *beana ingura neok*, ‘beregana inguratu nauk’.
- Len aragie gustatzen tzaten → *lenao aragia gustatze zitzaiten*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidaan’; igual tzaten → *igual zitzaiakean*, ‘berdin zitzaidaan’; atzo semea etorri zitzaiten etxea → *atzo semea etorri zitzaiten, zitzaiakean, ez, zitzaidakean*, ‘atzo semea etorri zitzaiten-, *zitzaidakean, ez, *zitzaidakean’.
- Istorio oi aittei attu diote → *istorio oi attei attu ziotek*, ‘istorio hori aitari aditu ziotek’; artzaiek nai zon guztiri salduiote gazta → *artzaiek nai zuen guztiri saldu ziek gazta*, ‘artzaiek nahi zuten guztiari saldu ziotek gazta’.

³²⁷ Toka egiteko eskatua eman duena.

³²⁸ Toka egiteko eskatua eman duena.

³²⁹ Toka egiteko galdegin diogu.

³³⁰ Toka egiteko galdeginda adierazi duena.

³³¹ Noka egiteko eskatu diogu.

³³² Noka egiteko eskatu diogu.

³³³ Noka egiteko galdegin diogu.

³³⁴ Atzetik “zeoze esateatik” esan du.

³³⁵ Noka egiteko eskatu zaio.

³³⁶ Inkestaileari galdetu dio: “nola esan dezu?”. Inkestagileak perpausaren bigarren zatia errepikatu dio, eta orduan bigarren forma eskaini du.

³³⁷ Horren ondoren “o yo, eztakit” esan du.

Noka egiteko eskatutakoen artetik

- BbBakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’; oi bakit nik → *oi bazekiñat nik*, ‘hori bazekinat nik’.
- Igual *zitzaiten* → *igual zitzaiten*; atzo semea etorri *zitzaiten* etxea → *atzo semea etorri zitzaiten* etxea, ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’.
- Istorio oi aittei attu *diote* → *istorio oi attei attu zio, zion*, ‘istorio hori atiari aditu zio, zion’; artzaiek nai zon guztiri *salduiote* gazta → *artzaiek nai zian guztiri saldu zio gazta* ‘artzaiek nahi *zian guztiri saldu zio gazta’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zegoan dettu nian*, ‘etxean zegoan deitu nian’; bea lo zeon → *bea lo zegoan*, ‘bera lo zegoan’.

ENAITZEK eskainitakoak

Toka egiteko eskatutakoen artetik

- Bea gaztea *balitz*, gukin geauko zan → *bea gaztea balitz, gukin geauko uan*, ‘bera gaztea balitz, gukin geratuko zuan’; Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno atea balin bauan* etxetik, *onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera baldin *bazun etxetik, honezkero hemen izango zuan’.
- Bidea atea naiz → *bidea atea nauk*, ‘bidera atera nauk’; beana inguratu naiz → *beana inguratu neok*, ‘beregana inguratu nauk’.
- Len aragie gustatze *zitzaiten* → *len aragie gustatze zitzaiten*³³⁸; igual *zitzaiten* → *igual tzaia*, ‘igual zaidak’; atzo semea etorri *zitzaiten* etxea → *atzo semea etorri zitzaian*³³⁹, ‘atzo semea etorri zitzaidan’.

Noka egiteko eskatutakoen artetik

- Ondo iruitze zat → *ondo iruitze zaten*, ‘ondo iruitze zaidan’; aragie gustatzen zait → *aragie gustatze zaten*, *aragie gustatze zaijan*, ‘haragia gustatzen zaidan, haragia gustatzen zaidan’.
- Len aragie gustatze zaten → *len aragie gustatze zatenan*, ‘lehen haragia gustatzen zitzaidan’; igual *zitzaiten* → *igual zaijan, tzaian*, ‘berdin zaidan, zaidan’; atzo semea etorri *zitzaiten* etxea → *atzo semea etorri zitzaian* etxea, ‘atzo semea etorri zitzaidan etxera’.
- Geiegi ean *tzon* afarin → *geiegi ean tziñan* afarin, ‘gehiegi edan zinan afarian’; naiko balo, ingo *zon* → *nahiko balu, ingo zian*, ‘nahiko balu, egingo zian’.

³³⁸ Atzetik “eztakit ikaz nola esan” adierazi du.

³³⁹ Inkestagilearen laguntzarekin aterako forma; aurretik “uan” esan du.

TOKA eta NOKA egitko eskatuta

- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatu izan ez pazionan, egie uala sinetsiko zian*, 'ehiztariak istorio hori kontatu izan ez *bazionan, egia *zuala sinetsiko zian'; eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatu ez palin bazion, egie zala sinetsiko zian*, 'ehiztariak istorio hori kontatu ez baldin bazion, egia zela sinetsiko zian'.

Elkarriketa libretik lortutakoak

JOSUK esakinitakoak

Saoari egiterakoan entzundakoak

- Bakoitza bere kotxekin ibiltze ttuk³⁴⁰*, 'bakoitza bere kotxearekin ibiltzen dituk'; *aik e zeozeitik etorrikoia*³⁴¹, 'haiek ere zerbaitegatik etorriko dira'.

SAIOAK eskainitakoak

- Marbella politta al dek o dek zona turistiko bat ta oixe*, 'horrelakoren bat izan omen duk'; *kutsagarrigoa omen da*, 'kutsagarriagoa omen da'.
- Nik usteiat oi dekela bidea baño*, 'nik uste diat hori *dukela bidea baino'; *nik uste presentazioa naiko itxura ona*, 'nik uste dut aurkezpena nahiko itxura ona'.
- Ba igual, eztakit ba, ekonomika o, nik etzekiat*, 'ba igual, ez dakit bada, ekonomika edo, nik ez zekiat'.
- Aste Santutan konfinauta eon bear, i. Ni ala eon nitxoan, e?*; 'ni hala egon ninduan'; *ni aztuta eon nitzan*, 'ni ahaztuta egon nintzen'.
- Baño obe re igual in zeikek*, 'baina hobeto ere agian egin zitekek'; *ya in daike bizi normala*, 'jada egin daiteke bizi normala'.
- Oaingoz negatibo eman dik, asike gu libre gerek*, 'oraingoz negatibo eman dik, beraz, gu libre geudek'; *oaingoz bai, salbu gare*, 'oraingoz bai, salbu gaude'.
- Izan tzan ire osaba jun omen uan bazkarin batea o ola*, 'izan zen hire osaba joan omen zuan bazkariren batera edo horrela'.
- Ez giñuan ezautzen*, 'ez gintuan ezagutzen'; *gu giñuztean e, zean, arraunen o, zean ai giñen, kanoatan ai giñen errekan*, 'gu gintuan e, zeran, arraunean edo, zera ari ginen, kanoatan ari ginen errekan'; *eskola ez gintuan etorri*, 'eskola ez gintuan etorri'.
- Neska emateu*, 'neska ematen du'; *zeñek seittu ber dik*, 'zeinek segitu behar dik'.

³⁴⁰ Saioari.

³⁴¹ Saioari.

ANERREK eskainitakoak

Josuri begira egin dituenak

- *Pentsa diau Marbella aldea jutea*, ‘pentsatu diagu Marbella aldera joatea’; *guk oaindik lanik ezteu itten ta diruik etziok oseake...*, ‘guk oraindik lanik ez dugu egiten eta dirurik ez zegok, beraz...’.
- *Baño bestela ondo zeon*³⁴², ‘baina bestela ondo zegoen’; *gaixo zeoan, lenengon negatibo, bigarren negatibo, ta geo ama gaixotu uan*, ‘gaixo zegoan, lehenengoan negatibo, bigarrengoan negatibo, eta gero ama gaixotu zuan’.
- *I, beti zeok ba lana or!*, ‘hi, beti zegok bada lana hor!’, *oain Covidengatik krisise dau*, ‘orain Covidengatik krisia dago’.
- *Ai gitxoan (...) batzutan jolasten*, ‘ari gintuan (...) batzuetan jolasten’; *zea baten ordu bik arte, ta geo jun giñuztean*, ‘zera batean ordu biak arte, ta gero joan gintuan’.

Saioari begira egin dituenak

- *Gu re jun gitxoan*³⁴³, *Amets ta... jun giñuztean*, ‘gu ere joan gintuan, Amets eta... joan gintuan’.
- *Oi da*³⁴⁴, ‘hori da’; *oi den*, ‘hori dun’.
- *Komune igual igual izorrauko ek*, ‘komuna igual igual izorratuko duk’; *kotxen da lasai ibiltzea ba, e?*, ‘kotxean eta lasai ibiltzen da bada, e?’.

EKHIK eskainitakoak

- *Kriston zea in dik, papera, (...) -k paperak betetzen asi, ustei*, ‘izugarritzko zera egin dik, papera (...) -k betetzen hasi, uste diat’; *baino naiko aurren ustet*, ‘baina nahiko aurrean uste dut’.
- *Asi nitzan korrika gora*, ‘hasi nintzen korrika gora’; *bozina jartzen ai nitxoan*, ‘bozina jartzen ari ninduan’.

IGORREK eskainitakoak

- *Nik kuarentenan jarri nun*³⁴⁵ *Netflix, ta geo kuarentena (...) kendu in nian*, ‘nik berrogeialdian jarri nuen Netflix, ta geo berrogeialdia (...) kendu egin nian’.
- *Eztakit, etzekiat ortik irabazteiken*, ‘ez dakit, ez zekiat hortik irabazten *diken’.
- *Kiston ambientea eotea*, ‘kristoren giroa egoten da’; *Tolosan ai dek*, ‘Tolosan ari dek’.

³⁴² Josuri.

³⁴³ Saioari.

³⁴⁴ Saioari.

³⁴⁵ Ekhiri.

- *Oain asi ber omen due*, ‘orain hasi behar omen dute’; *ezautze omen die*, ‘ezagutzen omen ditek’.
- *Etxen e denbo gutxi pasatzeiat³⁴⁶*, ‘etxean ere denbora gutxi pasatzen diat’; *naiago det³⁴⁷ ne denbora beste gauza batzuk itten aprobetxau*, ‘nahiago diat nire denbora beste gauza batzuk egiten aprobetxatu’.
- *Nolako bizitza, eztakit, baño oantxe, ya sakon sartzea ek, etzekiat³⁴⁸*, ‘nolako bizitza, ez dakit, baina oraintxe, ja sakon sartzea duk, ez zekiat’.

ENAITZEK eskainitakoak

- *Lenengo lau etorri ittuan, e bi pla, bi patruya zean, e, kaleko ortan jarri ittuan*, ‘lehenengo lau etorri zituan, eh, bi *pla, bi patruila zeran, eh, kaleko horretan jarri zituan’; *ta Perurena ta asi itxoan izotza botatzen*, ‘eta Perurena eta hasi zituan izotza botatzen’.

7.2 Murritzapen sintaktikoa errespetatzen ez duten perpausak

Menpeko perpausak

Galdetegi bidez lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea izango baluan, gukin geauko uan*, ‘bera gaztea izango *baluan, gurekin geratuko zuan’.
- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro lenao atea izan bauan etxetio, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atera izan *bazuan etxetik honetzeko hemen izango zuan’.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai naken*, ‘bazekiat zertaz ari naizen *nauken’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekik zertaz ai nitxoken*, ‘bazekik zertaz ari naizen’.
- Ne atte oñez zetorren Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zetorrean Pedrokin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zetorrean Pedorekin elkartu zenean’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zegoan deitu nianen*, ‘etxean zegoan deitu *nianean’.

SAIOAK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *bea gaztea izango bauan, gukin geatuko uan*, ‘bera gaztea izango *bazuan, gurekin geratuko zuan’.

³⁴⁶ Inkestagile emakumezkoari egitean erabilitako aditza.

³⁴⁷ Inkestagile emakumezkoari erantzutean emandako aditz forma.

³⁴⁸ Erantzun hori eman dio inkestagile emakumezkoari, eta ikus daitekeenez, bi forma erabili ditu.

- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zuan guztii saldu ziek gazta*, ‘artzaiak nahi zuen guztiri saldu ziotek gazta’.
- Istripue pasau zanen, bea etxeaka zijon → *istripue gertau uanen, bea etxeaka zijoan*, ‘istripua gertatu *zuanean, bea etxerantza zzoan’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zzoan deitu nianen*, ‘etxean zegoan deitu *nianeanean’.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai nitxoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zzoan deitu nianen, ez, nuanen* ‘etxean zegoan deitu *nianeanean, ez, *ninianeanean’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istori oi kontatu ez baziok, egie zala sinetsiko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatu ez *baziok, egia zela sinetsiko zian’.

ANERREK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *ue gaztea izango bauan, gukin geatuko ukean*, ‘hura gaztea izango balitz³⁴⁹, gukin geratuko *zukean’.
- Etxen zeon deitu nunen → *etxen zzoan deitu zioatenean*, ‘deitu *zioateneanean’.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi nianen beak txakurre etxea zemakin*, ‘ikusi *nianeanean berak txakurra etxera zeraman’.
- Baki zertaz ai naizen → *bazekik zertaz ai neoken*, ‘bazekik zertaz ari *nauken’.
- Artzaiek nai zon guztiri salduite gazta → *artzaiek nai zian³⁵⁰ guztiri saldu zioten gazta*, ‘artzaiak nahi *zian guztiari saldu zioten gazta’.
- Istripue pasau zanen, bea etxeaka zijon → *istripue pasau uanen, bea etxea zijoan³⁵¹*, ‘istripua pasatu *zuanean, bea etxera zihooan’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istoria kontatuko ez balion, egie zala sinestuko zian*, ‘ehiztariak istorioa kontatuko ez *balion, egie zela sinetsiko zian’.

EKHIK eskainitakoak

- Mendin zebillen enteatu zanen → *mendian zebiyean enteatu uanen*, ‘mendian zebilean, zerbaiten berri izan *zuaneanean’.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat³⁵² zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.

³⁴⁹ *Balitz* adizkiari legokiokeen tokako forma alokutiboa.

³⁵⁰ Gizonezko entzulearen morfema sartu du. Alokutiboa erabiltzekotan nokakoa erabili beharko zukeen, noka egiteko eskatu baitzaio esaldi horretan.

³⁵¹ Esaldia nokara bihurtzeko eskatuta lortutako esaldia. Ikus daitekeenez, guztia toka egin du.

³⁵² Dena den, lehenengo “bakit zertaz ai neoken” esan du. Uste dugu hasierako “bakit” hori inkestagileak egin dion proposamenaren eragina izan daitekeela, berehala esan baitu atzetik “bazekiat zertaz ai neoken”. Horregatik, bigarren horri eman diogu lehentasuna.

IGORREK eskainitakoak

- Bea gaztea balitz, gukin geauko zan → *ue gaztea izango bauan, gukin geittuko uan*, ‘hura gaztea izango *bazuan, gurekin geldituko zuan’.
- Naiko balo, ingo zon → *naiko bazian, ingo zian*, ‘nahiko *bazian, egingo zian’.
- Nai bado, lan oain bukau daike → *nai baik, lana oain buka zeikek*, ‘nahi *badik, lana orain buka zezakek’.
- Etxen zeoan deittu nianen → *etxen zeoan deitu nianen*, ‘etxean zegoan deitu *nianeanean’.
- Ne atte oñez zetorrean Pedrokin elkartu zanen → *ne atte oñez zetorrean Pedrokekin elkartu uanen*, ‘nire aita oinez zetorrean Pedrokekin elkartu *zuaneanean’.
- Bakit zertaz ai naizen → *bazekiat zertaz ai neoken*, ‘bazekiat zertaz ari *nauken’.

ENAITZEK eskainitakoak

- Pedro leno atea izan balitz bere etxetio, unuzkeo emen izango zan → *Pedro leno atea balin bauan etxetik, onuzkeo emen izango uan*, ‘Pedro lehenago atara baldin *bazuan etxetik, honazkero hemen izango zuan’.
- Beak baki zertaz ai naizen → *beak bazekik ni zertaz ai neoken*, ‘berak bazekik ni zertaz ari *nauken’.
- Nik baki zertaz ai naizen → *nik bazekiñat zertaz ai nauen*³⁵³. *Nik bazekiñat zertaz ai nauken, nauen o nauken*, ‘nik bazekinat zertaz ari *nauen’. Nik bazekinat zertaz ari *nauken, *nauen edo *nauken’.
- Ikusi nunen txakurre etxea zemakin → *ikusi niñanen, nianen, txakurre etxea zemakian*, ‘ikusi *ninaneanean, *nianeanean, txakurra etxera zeramaanean’.
- Eiztarik istorio oi kontatu izan ez balio, egie zala sinetsiko zon → *eiztarik istorio oi kontatu izan ez pazionan, egie uala sinetsiko zian*, ‘ehiztariak istorio hori kontatu izan ez *bazionan, egia *zuala sinetsiko zian’.
- Nai bado, lana oain bukau daike → *nai bain, lana oain bukaukoin*, ‘nahi *badin, lana orain bukatuko din’.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- *Baño leno esate zien sei iyabete ittuala inmunitatea*, ‘baina lehen esaten zitean sei hilabete *zituala inmunitatea’.
- *Anerrek esan dikena*, ‘Anerrek esan *dikena’.

³⁵³ Ikus daitekeenez *nauen* eta *nauken* aditz formen artean txandaka ibili da. Bestalde, aipagarria iruditzen zaigu *nauken* erabiltzea; izan ere, toka *neoken* erabili du birritan menpeko perpausetan, eta ez *nauken* hemen bezala.

- *Ze esan dek Aner? Euneko eun dekela probabilitatea beste orrena o?, 'Zer esan duk Aner? Ehuneko ehun *dukela probabilitatea beste horrena edo?'*
- *Eske oaindik etzekiau zer deken hobena, 'izan ere, oraindik ez zekiagu zer *duken onena'.*

SAIOAK eskainitakoak

- *Gu ibiltze gattuken ingurutik positibo ezti iñork (...), 'gu ibiltzen *gaituken ingurutik positibo ez dik inork (...).'*
- *Zaldibin eman diken positibo bakarra izan dittuk umek ta ean gurasok, 'Zaldibian eman *diken positibo bakarra izan dituk umeak eta euren gurasoak'.*
- *Nik uste diat oi dekela³⁵⁴ bidea baño, 'nik uste diat hoi *dukela bidea baino'.*
- *Egie esan ber tzeok guk produktue eosi in geniala, 'egia esan beharra zegok, guk produktua erosi in *geniala'.*
- *Ni etzekiat jungo nitxoan, 'nik ez zekiat joango *ninduaan'.*
- *Nik galdetu(iat?) aer politta eken, 'nik galdetu diat ea polita *duken'.*
- *Aurten beste plan batzuk zezkeau, ta gañea, kontue zeoken bezela, nik etzekeatela bildurrik eztare auntza juteko. 'Aurten beste plan batzuk zezkeagu, eta gainera, kontua *zegoken bezala, nik ez *zeukaatela beldurrik harantza joateko'.*
- *Kritiko zerekelako, 'kritiko daudelako'.*
- *Nik aguantatze baiat orrearte, ta zereken bezela, 'nik irauten badiat horrera arte, eta dauden bezala'.*
- *Ire attek uzteikenen zeñek seittu ber dik?, 'hire aitak uzten *dikenean zeinek segitu behar du?'*
- *Usteiat Iñaki etorri uala gure etxea komuneko zerbait ittea, 'uste diat Iñaki etorri *zuala gure etxera komuneko zerbait egitera'.*
- *Ire atte konfinata eon uanen, 'hire aita konfinatuta egon *zuanean'.*

ANERREK eskainitakoak

- *Aber udan irekitzeizkien fronterak eta, 'ea udan irekitzen *zizkitean³⁵⁵ mugak eta'.*
- *Pentsa diau autobusen, autobusen lasai, nola merkea eken, 'pentsatu diagu autobusean, autobusean lasai, nola merkea *duken'.*
- *Bakuna bat 15 urte o ingurukotan %100 fiablea ekela, 'txerto bat 15 urte edo ingurukoetan %100 fidagarria *dukela'.*
- *Nik e oañ konfinauta egon gattukenen, 'nik ere oan konfinatuta egon *gaitukenean'.*

³⁵⁴ Beste aldaera hau ere entzun dugu: *usteiat udako naiko txukun eongo ekela kontue*, 'uste diat udarako nahiko txukun egongo *dukela kontua'.

³⁵⁵ *Dituzten* adizkiaren tokako forma alokutiboa litzatekeena.

- *Gurea itsusiekelako*, 'gurea itsusia *dukelako'.
- *Marruka asi uan etziala sartu nai*, 'marruka hasi zuan ez *ziala sartu nahi'.
- *Oi zekek txarra, asteburutan (...) ik lana in bearra ekekel*, 'hori zeukak txarra, asteburuetan (...) hik lana egin beharra *daukakela'.
- *Batek itteiken (...) ezin dik in*, 'batek egiten *diken (...) ezin dik in'.
- *Krisise etzeoanen*, 'krisia ez *zegoanenan'.
- *Ola zijoala bezela esate zien*, 'horrela *zihoaala bezala esaten zitean'.

EKHIK eskainitakoak

- *Nik usteiat aurtengo udaran okerragoa izangoekela*, 'nik uste diat aurtengo udaran okerragoa izango *dukela'.
- *Nik attuiatenangatik beintzat, ostias, zeoze inbenta bearraioia*, 'nik aditu *diatenarengatik beintzat, ostia, zer edo zer asmatu beharko diagu'.
- *Izketan atxu itxoan³⁵⁶, ta pena eman zitxala i*, 'hizketan aritu ninduan/gintuan, eta pena eman *zioala hi'.
- *Itteikena euskeraz itte baik, seguru ikusikoekela*, 'egiten *dikena euskaraz egiten *badik, seguru ikusiko *dukela'.
- *Nik uste oi gaizki zeokela*, 'nik uste hori gaizki *zegokela'.
- *Igual, eozein, betiko burbujat, o bein maskarillaik pe, normalen, burbuja, eozin mierda itteiel*, *olako gauzan bat (...)*, 'igual, edozein, betiko burbuila bat, edo behin musukorik gabe, normalean, burburila, edozein kaka egiten *ditela, horrelako gauzaren bat (...)'.
• *Oantxe esanezkeo, ta gauzak garbi azaldu ezkeo, etzekiat, zenbat, zemuz jun deken o, etzekiat*, 'oraintxe esanez gero, eta gauzak garbi azalduz gero, ez zekiat, zenbat zer moduz joan *duken edo, ez zekiat'.

IGORREK eskainitakoak

- *Usteiat zeak eosiko zioaula³⁵⁷*, 'uste diat zerak erosiko *zioagula'.
- *Esateik kriston lan piya itteikela*, 'esaten dik kristoren lan pila egiten *dikela'.
- *Nik eskerrak euskeraz itzteien anga launak*, 'nik eskerrak euskaraz hitz egiten *ditean hango lagunak'.
- *Eztakit, etzekiat ortik irabazteiken*, 'ez dakit, ez zekiat hortik irabazten *diken'.
- *Bai, eske normalen oi pasatzen zaiak. Osea, jendek esateikenen "irakurtzea etzaiak gustatzen" dekel*, *eztikelako* *billatzen ze irakurri*, 'Bai, izan ere, normalean hori pasatzen zaidak'.

³⁵⁶ Zalantza dugu izatez *gintxoan* edo *nitxoan* den. Berez, *gintxoan* izatea espero dugu.

³⁵⁷ Hori da entzuten duguna, garbi ulertzen ez bada ere.

Hau da, jendeak esaten *dikenean 'irakurtzea ez zaidak gustatzen' *dukela ez *dikelako bi-
latzen zer irakurri'.

ENAITZEK eskainitakoak

- *Aber suertea zekeau da hobetze juteken, zeoze in bearra zekeau, beintzet*, 'ea zortea *zeukaagun eta hobetzen joaten *duken, zer edo zer egin beharra zeukaagu, behintzat'.
- *Etzekiau pixkat noaldea jun o, txartzea, txartzea jungoeken kontue o... etzekiat*, 'ez zekiagu pixka bat nora aldera joan edo, txartzera, txartzera joango *duken kontua edo'.
- *Aber, beintzet, Zaldibiko festak o ittettuken, zeoze itteko re*, 'ea, behintzat, Zaldibiko jaiak edo egiten *dituken, zer edo zer egiteko ere'.
- *Zaldibi herritik pixkat ateata zeok, oain gañea positibokin da, ezin diaula atera re in*, 'Zaldibia herritik pixka bat aterata zegok, orain gainera positiboekin eta, ezin *diagula atera ere egin'.
- *Aber gorritik noiz kentzen gattuken, zeoze itteko re*, 'ea gorritik noiz kentzen *gaituken, zer edo zer egiteko ere'.
- *Gaur zeoze esangoik, ta bihar beste kontu bat. Gaur au nai dikela³⁵⁸, biar otxentaizinkoa, urrungo eztai ze...*, 'gaur zer edo zer esango dik, eta bihar beste kontu bat. Gaur hau nahi *dikela, bihar ochenta y cinco, hurrengoan ez dakit zer...'
- *Sofan balin baneok, ta igual ikusten jartze nauk, baño bestela ez*, 'sofan baldin banagok, eta igual ikusten jartzen nauk, baina bestela ez'.
- *Oain gañea, bigarrena in ber diela usteiat*, 'orain gainera, bigarrena egin behar *ditela uste diat'.
- *Nik esan nitxoan bi Daniela zereala*, 'nik esan nioan bi Daniela *zeudeala'.
- *Gastuik eztikela in bear kotxen, ezer ez; igual tzeokela*, 'gasturik ez *dikela egin behar kotxean, ezer ez; igual *ziokela'.
- *Nik pentsatze nian "La casa de papel" txarra uala zeozeatik*, 'nik pentsatzen nian "La casa de papel" txarra *zuala zerbaitengatik'.
- *Bein ikusita ya jendea txertoa jartzen ai dekela ta ondo, ba nik e jarriko nian*, 'behin ikusita jendea txertoa jartzen ari *dukela eta ondo, bada, nik ere jarriko nian'.

Galde perpausak

Galdetegi bidez lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.

³⁵⁸ -ikela aldaera ere erabili du Enaitzek: *aman kotxea eukikoikela, beak eukikoikela, Beñatek eukikoikela*, 'amaren kotxea edukiko *dikela, berak edukiko *dikela, Beñatek edukiko *dikela'. Eta *eztikela* ere bai: *gastuik eztikela in bear kotxen*, 'gasturik ez *dikela egin behar kotxean'.

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiñat?*, 'nik zer *zekinat?'.

SAIOAK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.
- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiñat?*, 'nik zer *zekinat?'.

ANERREK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.
- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiñat?*, 'nik zer *zekinat?'.

EKHIK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.

IGORREK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.
- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiñat?*, 'nik zer *zekinat?'.

ENAITZEK eskainitakoak

- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiat?*, 'nik zer *zekiat?'.
- Nik zer dakit? → *nik zer tzekiñat?*, 'nik zer *zekinat?'.

Elkarrizketa libretik lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- *Beorak da ze, bizi al dittuk o?, 'behorrak eta zer, bizi al dira edo?'*

SAIOAK eskainitakoak

- *Politta al dek³⁵⁹?, 'polita al duk?'*
- *O dek zona zona turistiko bat ta oixe?, 'edo duk zona turistiko bat eta horixe?'*
- *Orrekin gustoa eon bear gattuk?, 'horrekin gustura egon behar gara?'*
- *Zer tzeok Enaitzen kanpiñetik gertu?, 'zer dago Enaitzen kanpinetik gertu?'*
- *Oain ze in beiau?, 'orain ze egin behar dugu?'*
- *Zenbatek pasau die?, 'zenbatek pasatu dute?'*
- *Bi dosik falta izkik?, 'bi dosiak falta ditu?'*
- *Ire attek uzteikenen zeñek seittu ber dik?, 'hire aitak uzten duenean zeinek segitu behar dik?'*

³⁵⁹ Beste aldaera bat: *izangoek?*, 'izango duk?'.

ANERREK eskainitakoak

- *Frankfurt ez al tzeok ba egoalden?*, 'Frankfurt ez al *zegok bada hegoaldean?'

EKHIK eskainitakoak

- *Esatean bezela "ni tan calvo, ni tan poco" o nola dek oi?*, 'esaten den bezala "ni tan calvo, ni tan poco" edo nola *duk hori?'
- *Zein dek?*, 'zein *duk?'

IGORREK eskainitakoak

- *Atea ik ya?*, 'atera *dik jada?'

ENAITZEK eskainitakoak

- *Edadea jartze al die?*, 'adina jartzen *ditek?'
- *Danelek trialean ze in ber dik?*, 'Danelek trialean zer egin behar dik?'

Harridura perpausak

Elkarriketa libretik lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

- *Ta attek eman tziala positibo!*, 'eta aitak eman zuela positibo!'

SAIOAK eskainitakoak

- *Bai, gaixo, gaixo eon dek, e!*, 'bai, gaixo, gaixo egon da, eh!'

ANERREK eskainitakoak

- *Asko argaldu ik, e!*³⁶⁰, 'asko argaldu dik, eh!'
- *Beti zeok*³⁶¹ *ba lana or!*, 'beti zegok bada lan hor'.

EKHIK eskainitakoak

- *Joe, zekek arri bat!*, 'joe, zeukak harri bat!'

7.3 Tokako aditz berria nokako menpeko perpausetan

Galdetegi bidez lortutakoak

JOSUK eskainitakoak

³⁶⁰ Saioari esan dionez, alokutiboa erabiltzekotan noka beharko zuen, eta toka egin du.

